

**UNAI ITURRIAGA**

# **Berandu da gelditzeko**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1999 Unai Iturriaga

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1999ko apirila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

- Zer, azken garagardo bat ez ala?

- Ez, ez, ni etxera noa.

- Tira, azkena.

- Ez, benetan, ipurtzuloraino nago garagar-doz.

- Speed pixka bat badaukat nahi baduzu, lehen erosi diot horko...

- Eskertua dago eskaintza, baina ez.

- Non lo egiteko asmoa duzu? Ane beste ba-balore horrekin joan da eta auskalo zein toki idilikotan ariko diren txorta jotzen. Nire etxean gera zaitezke, pisukidea kanpoan dago.

- Ez dauzkat lotarako ordu asko. Egia esan, ez nuke hemen egon beharko orduotan.

- Berdin dio, ohea emango dizut nik. Zure arazoa da lurrean lo egin nahi baduzu...

Mikelek justu-justuan lortu zuen Somera kaleko 13ko atea zabaltzea. Asteburu osoko egurrak ez zion errazten lurrarekiko angelua elkarzut mantentzea. Eskaileretan gora jarraitu zion Jokinnek. Honek ere ausarki desafiatzen zituen oreka-

ren lege nagusiak. Bigarren solairuko ate baten parean pausatu zen Mikel, eta berriz ere atarian izandako arazo bera izan zuen etxekoa irekitzeko. Ate ertzak giltzaren harat-honatekin urratu ostean erdietsi zuen bere helburua.

- Etxea kristo bat eginda dago, baina ez zaitetz arduratu, nire pisukidea ez da oporrak bukatu artean etorriko, eta bere logela libre dago.

Han eta hemen liburuz mukuru ageri ziren apalategiei so zegoen Jokin, Mikelek komunean puxika lasaitzen zuelarik esaten ari zitzaionari jaramonik ere egin gabe.

- Sukaldean kafea eta esnea behintzat badaude, lo egin aurretik zerbait hartu nahiko bazenu. Ona dela diote! Nik lehen espagetiak presatzen nituen parrandatik bueltan, baina speed madarikatu honek gosea ere lapurtu egiten dit.

Apalategiko liburuak arakatzen zebilen Jokin.

- Zureak al dira hauek guztiak?

- Liburuak? Bai zera! Nire pisukidearenak. Egia esan, ardoa edan, sermoiak bota eta liburuak irakurtzen baino ez daki. Tipo jatorra da baina...

- Denak irakurriak baditu jakituna ere izango da ba, joder!

- Jakituna? Hor dago bere arazoa. Gehiegi daki ero halakoak! Askotan ez da konturatzen besteok ez ditugula berak adina ordu galdu intelektualtoa garaztatzen, eta ikaragarritzko predikuak jasan behar izaten ditut. Ardo gehitxo edaten duenean (hortik dator intelektualtoa garaztatzearena), sarrerako liburuetatik hasi eta egongelara artekoen argumentua kontatzen hasten ez zait ba!

- *Narrativa alemana contemporánea*; Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa...*

- Bai, Sarri hemen ezagutu zuen, Bilbon. Badakizu, euren garaietan. Inoiz kontatu izan dit batallitaren bat edo beste. Eta horko hori aldiz, azalarengatik erosi omen zuen. Asko gustatzen zaio azalean dakarren pintura. Margolari alemaniar batena da... Dix edo antzeko zerbait. Baina hemen dauden liburu guztien egileak ezagutzeko botila ardo batzuk hustu beharko ditut oraindik Dionisosekin.

- Dionisos?

- Hala deitzen diote. Gerra izena zuela uste dut. Beno, ni neu juergako atxurra izara artean lurperatzera noa. Badakizu non dagoen logela. Liburu artean jarraitu nahi baduzu ondo, baina zuri ere ez zaizu batere txarto etorriko lo-kumuxa bat.

- Ez, eskerrik asko. Axola ez badizu, liburuei bistako bat eman eta alde egingo dut laster. Trena hartu beharra daukat.

- Zeuk nahi duzun bezala. Berriz ikusten ez bagara, ba zera, pozten naiz zu ezagutu izanaz.

- Baita neu ere!

- Esango diot Aneri zurekin egon naizela.

- Anek apenas gogoratuko nauen, baina berdin dio. Eskerrik asko zure etxeko ateak ezezagun honi zabaltzeagatik.

- Mesedez... Zoaz pikutara! Gabon.

- Egun on! Eta laster arte.

Trumoi hotsak esnatu zuenerako gautua zuen. Lehenengo euri tanta lodiak kristalaren kontra hautsi ziren airez puztutako suizida poto-loen gisan. Kanpotik hilurren zegoen festaren hots urruna heltzen zitzaion, eta are urrunagotik, berriz ere trumoi hotsa. Zerua zartatzen ari zela

zirudien. Bilbon halakoxeak izaten dira abuztuko ekaitzak. Badirudi eguratsa bera ere garagardoz eta speedez belarrietaraino bete dela, eta ez duela bere ostia txarra adierazi nahi festetako azken egunera arte.

Iratzargailuaren bila saiatu zen itsumustuan, beso errariarekin han eta hemen joz. Alkohol usain zoragarria zerien galtza bakeroen azpian ezkutatuta aurkitu zuen.

- Hamaikak eta laurden! Ez dago gaizki, Mikel! Loaldi ederra. Beste honelako pare bat egin eta laster hire anaia futbolista subnormal hori bezain sano eta lirain egongo haiz!

Ohetik jaiki eta, ilunetan, mundura etorri bezalaxe abiatu zen logelako atera.

- Aai! Mekaguenlaostia! Nork arraio utzi du hemen anplifikadore putaseme hau?

Erretolika bota eta behatzei hazka egiten ziela, otu zitzaion anplifikadore putaseme hura zegoen toki geografiko konkretu hartan utzi ahal izan zuen bakarra bera zela. Argia iziotu zuen, bidean traba gehiagorekin ez behaztopatzeko. Argia gauza magikoa baita batzuetan. Piztea besterik ez du behar, oztopo garaiezinak ganora-

rik gabe utzitako tramankuluak baino ez direla ohartzeko.

Sukaldean, irratia jarri zuen. Ez zion ia kasurik egiten, baina ohitura errituala bihurtua zuen ohetik jaiki orduko irratia jartzearena. Armairutik kafea hartu eta sutan ipini zuen historiako askakizunetan gorena iruditzen zitzaion *italiana*. Kafearen usain goxoak etxea noiz humanizatuko zain egon gabe joan zen zuzen komunera. Bere antza zeukan tipo baten aurpegiarekin topo egin zuen ispiluan. Barrabilei hazka gozo bat egiten zien bitartean komuneko tapa altxatu eta eguneko txizaldirik garrantzitsuenari ekin zion.

- Erdia barrura erdia kanpora, egun handi-netan bezala!

Dutxa bero baten ondoren gizaki sentitzen zen berriz ere. Kafearen usaina etxe osoan barreiatua zen ordurako, eta albornoa aldean, galtzontzilo barik, edozein emakume lirainek etxera heldu eta aurkitu nahiko lukeen gizona zela iruditu zitzaion.

Dionisosek hainbeste maite zuen katiluarekin hurbildu zen egongelara kafea hartzera. Somera kaleko farola zaharren argia sartzen zitzaion



leihotik. Parranderorik borrokalarienek azkeneko pontxoak jaurtitzen zituzten beheko tabernetan. Horrelako kasuetan egin daitekeen gauzarik egokiena: telebista piztu!, ahalik eta programa-rik mengelena bilatzeko. Igande gauak aukera ugari ematen du horrelako programa batekin topo egiteko. Ezpain ertzak adurrez beteta zeuzkan aurkezle aguretu bat Alcohólicos Anónimo-setik anonimoegia izateagatik egotzitako agure ezdeus bat elkarrizketatzen ari zen. «Benetan maite dut, Jesus! Baina lehen edan egiten nuen eta tel-tel-tel».

- Mundiala! Ez dago maitasuna baino gauza patetikoagorik.

Amodioari buruzko bere pentsakizunetan zebilen egongelako mahaitxoan paper pusketak bati erreparatu zionean. «Eskerrik asko berriz ere, Mikel. Barkatuko didazu atrebentzia, baina liburu bat hartu dut apalategitik, alemanen liburu hori. Itzuliko dizut halakoren batean. Jokin».

- Joder! Ezagun da, bai, tipo hau Aneren lehengusua dela. Besterik gabe edonoren gauzak hartze hori berdina daukate behintzat.

Bihotz arrosa handi bi agertu ziren telebistan, eta bukatu zen amodio gaitzezko programa. Gero telekomandoarekin hemendik eta handik pikatu zuen pixka bat, gauerdiko film erdi eroti-ko erdi ezer-ez horietako bat aurkitu arte. Anaia txikiarekin solasaldi labur baina emankor bat izan... eta loak hartu zuen sofán.

Telebistaren argi errainuek dir-dir egiten zuten egongelaren ilunean, urrunean entzuten hasia zen sirena hotsaren efektua indartuz.

Eguna gau bihurtzen den magia ezkutu berberarekin bihurtu zen gaua egun. Abuztu bukaerako astelehen goiza ilun antzean zetorren, eguratsak bere aurpegirik zital eta astunena erakusten duen egun horietako bat. Hezetasuna azalean itsasten da eta azala galtzetan. Eta halaxe, ez negu ez uda, tartean behin ateratzen du mundu madarikatu honek egun horietako bat, biharamuna daukan izaki bat ohepeko hauts bihurtzea desirarazten duena.

Mikel sofan esnatu zen. Izugarrizko lepoko mina sumatzen zuen alde batetik, eta bestetik halako lakartasun likits bat izter bueltan. Erlojuari begiratu zion: hamarrak eta laurden. Sukaldera jo zuen automatikoki. Hitz jarioan zerraien bezperan amatatzea ahaztutako irratia. «Egun narratsa gaur Bilbon. Hogeita bost gradu eta zero estalia. Ez etxean geratzeko ez kalera irtekeko eguna». Hara! Behingoagatik irрати ofiziale-tako esatariekin bazuen adostasunerako arrazoirik.

Italiana garbitzen ari zen telefono hotsa aditu zuenean. Dionisosek zuhurtzia handiz erositako erantzungailua martxan jarri zen: «Hauek ez dira etxe batera deitzeko orduak; bart sobera ardo edan nuen eta orain lotan nago; utzi zure mezua txirrinaren ostean; Jainkoak ordainduko dizu!». Piii!

- Mikel, alu hori! Jon naiz! Seguru asko ez zara gogoratu ere egingo, baina gaur entseatze-ko geratu ginen larunbat goizaldean. Mahaspasa galanta zeneraman aldean kabroi horrek! Espero dut gaindituko zenuela anfeta eta alkohol gaindosia. Lauretan betiko lekuan. Gero arte Napoleon!, ui!, Bonaparte!.

- Kaguenlaletxe! Entsegua! Gaur baxua jo-tzeko baino kanpaia jo eta egonean egoteko nago ba!

Laurak arte bazuen tarte. Kafea egiten ari zen bitartean madalena lehor batzuk aurkitu zitu-  
tuen armairuan. Egunkariaren bila bajatzekotan ere egon zen, baina batera egiteko gauza gehi-  
txo izango zirelakoan, bertan behera utzi zuen asmoa.

Sukaldeko leihoak patriora ematen zuen, eta beheko eta alboko atsoen berriketak eta marmarrak entzuten ziren.

- Bukatu ditun behingoan jai bedeinkatuok.

- Bai horixe! Astebetea mozkor-mozkor eginda etorri zaizkidan seme-alabak konpartsa-ren aitzakiarekin. Eta hori gutxi balitz, senarra ere egundoko traineruarekin etorri huen larunbatean.

- Hau dun paraderoa hau!

- Bukatu ditun behintzat eta!

Mikelek oihu egin zien leihotik burua aterata:

- Datorren urtekoetarako gutxiago falta da!

Bi emakumeak kolpe batean sartu ziren barrura. Gogoko zuen atso haiek zirikatzea, besteen bizitzetan arakatzen eta txutxumutxuka jendea larrutzen baino disfrutatzen ez zutenak. Lehenago ere izan zuten enkontrurik Dionisosen gau ahantzezin batean. Ez zituen maiz izaten harelakoak, baina urtean pare bat bai gutxienez. Azkenengoa astegun buruzuri batean; besterik gabe, etxean ardoa edan eta ardoa edan kargatu zenean, sukaldeko leihotik behera puxika latsaitzen harrapatu zuten goizaldeko hirurak alde-

ra; ikaragarritzko zarrasta hotsa ateratzen eizuten lurrera iristea lortzen zuten tantek, gainerakoek beheko pisuan eskegitako arropetan hartzen baitzuten atsedena, lur idorra gozatzen duen euri berriaren gisan.

«Jai eredugarriak benetan. Lapurretak-eta erdira jaitsi dira. Intoxikazio etilikoengatik iaz baino ehuneko berrogei gutxiago begiratu behar izan dituzte, eta batez ere, bilbotar guztiok nabarituko zenuten bezala, jai baketsuak izan dira, istilu politikorik gabeak. Goraipatu beharrekoa da Ertzaintzaren jarrera: uneoro kontrolpean izan baitu jaigunea, eta hala ere oharkabean pasa da beraien presentzia». «Konpartsek ere izango dute bada meriturik horretan, ezta?». «Bai, noski! Konpartsen komisioren eta Udalaren arteko harremana uneorokoa eta etengabea izan da, eta horri esker lortu dugu neurri handi batean beste behin ere Bilboko Aste Nagusia eredugarri bihurtzea Euskal Herriaren zein mundu osoaren aurrean». «Mundu osoaren aurrean! Benetan bilbotarra zaitugu zu e?». «Jakina! Aupa Athletic!».

Madalenek granitoak bezala erreakzionatu zuten kafesnearekiko kontaktuan. Gainetiko kapa gogorak tamainako ebakia egingo zukeen edozein ertzainen bekainean. Beraz, ez zeukan kafesnea edatearekin konformatzea baino. Ondoren, ohiko erritualari jarraiki, zigarreta zego-kion. Sukaldean tabakorik bistaratu ez, eta loge-lako praka zikinetan aurkitu zuen tximur arraio egindako Camel pakete bat.

- Bi baino ez! Bat kaka egin aurretik eta gero bestea, ospatzeko!

Eta halaxe, asteburu latz baten azkeneko az-tarrenak komunzulotik botatzen zituen bitar-tean, bainugelako harlauzak zenbatzeari ekin zion.

Arratsaldeko laurak eta laurdenetarako ager-tu zen hitzartutako tokian, betiko tabernan: Jon kanuto bat biltzen barra izkinan, Ane kamarero-ari asteburu ikaragarria pasa zuela kontatzen. Betiko leloa.

- Bizirik hago, parrandero halakoa!

- Ez hik beste gozatuta, baina bizirik iraun dinat!

Ane zirikatzea afizio baino obligazio bihurtua zen haren inguruan zebiltzanentzat. Aneri, ordea, txantxa gutxi bere narru kontuekin.

- Zer esan nahi duk!

- Ezer ez, Ane; ez horrela jarri -kamareroek badute halako ohitura bat, Joseluk bezala, inork iritzirik eskatu izan gabe arazo denak konpontze-ko-. Hik hire adrenalinak askatzeko ez dun askoren beharrik izaten, baina beste hauek aspaldion lehorrean zebiltzan. Horregatik zirikatzen haute.

- Eta zu zer, Jon? Asteburu latza?

- Latza? Zuek hor zehar desfasetuta ibili zareten artean, ni txosnan lanean jo eta su. Horixe asteburu latza!

- Hirekin egingo diate armatarako lain diru mobimentuan...

Anek beti izorratzen zuen Jon bere militan-tziagatik. Ez zuen erraz ulertzen pertsona batek nola egin dezakeen hainbeste ahalegin onurarik aterako ez duen lan batean.

- Zein txosnatan egon haiz aurtien: presoak, Egunkaria, Eguzki, Kaskajarrai? Marka guztiak hautsiko hituen oraingo honetan!



- Zu seguru anbiantekeko tabernetan ibili zarela txosnetatik pasatu ere egin gabe. Badakizu, bakoitzak bere lekua du-eta...

- Ibili nauk ba txosnetan, hik ezetz uste arren. Baina ez hi ibiltzen haizen horietan. Ez nagok prest kalimotxoz gainezka dabilen artaldera bildu eta «Goazen euskaldun guztiok ikurri-na askatzera» kantatzen jarduteko ardo merkez egindako kalimotxo katxi bat eskuetan, ulertzen?

- Bueno, bueno, bakea zuekin! Tira, Jon, pasa egik kanuto hori eta ez egiok kasurik egin petral honi! Eta hiri berdin, Ane! Entseatzeko ez zaigun giro garratzik komeni, horrela ez gaitun sekula musikatik aberastuko!

Dena konponduta. Anek lepoko pare bat eman zizkion Joni, eta honek irribarre herabea eskaini zion bueltan.

- Txapli badator entsegura?

- Lokalera agertuko dela esan du. Gaur berriz ere lanean hastekoa zen...

- Mugitzea komeni zaigu orduan, beste peta bat egin eta berton apalankatu orduko.

- Gero arte, Joselu.

- Baaai!

Zuria Beltz taldea Bilboko Ronda kaletik pauso lasaian, arrakastarako bidea zapatapean urratzen. Zuria Beltz izena, noski, Anek asmatua zen. Nondik atera zuen ere azaldu izan zuen inoiz, baina ez Mikelek ez Jonek ez zioten azalpenari jaramonik egin. Ronda kalea estu geratzen zaie arrakastaren ate handitik igaro behar duten hiru izar berriei.

Ezkerretik hasita, nondik bestela, hiruretan txikiena: Ane, beltzarana ilajez eta azalez, sorbaldetaraino heltzen zaion txima luzea motots batean lotua, bikea baino beltzagoak begi handiak. Ez zen neska katxarro horietako bat, baina bere armak bazituen gorputz txikiari neska eder baten trazak emateko. Soziologiako ikasketak burutzeraz etorri zen aspaldi Bilbora, eta zen-ordu bertakotua zegoen; nahiz eta bere Tolosa laudatua behin eta berriz goraipatu, zazpi urtez goiti baziren Bilbon bizi zela. Bera zen taldeko bateria-jolea eta jarrera estetikoaren arduraduna, berak ezagutzen zituen inork gutxik ezagutzen dituen girien talde arraro guztiak, eta haietatik ateratzen zituen Euskal Herriko panorama

musikalean zerbait ezberdina egiteko ideiak. Mediokritatea gorroto duen emakume ausart eta urguiluz betea: Ane. Literatura, artea, eta azken batean, garbi esateko, mundu guaia goitik behe-ra ezagutzen zuen, eta bazituen zenbait ezagun, beretzat *lagun*, erudituen artean.

Erdian doana, gitarra kutxa eskuan hartuta, Jon. Zuria Beltzeko bilbotar bakarra; horrek ematen zion halako izaera berezi bat nahita deserri-tutako kideen artean. Benetako militante batek legez behar dituen lepoa estaltzeko tximak, be-larritako bana alde banatan eta matrailetaraino-ko patillak. Horra bere ohiko uniformeak, Guate-malako petodun prakak; eta horiek garbitzen zi-tuenean, Guatemalarekin muga egiten duen Me-xikoko herri batean egindako beste batzuk. Gerri buelta zabalxea zuenez, nasaiago ibiltzen zen bakeroekin baino. Anek sarritan esana zion bisa-je hark ez zuela batere ondo ematen taldearen estetikarekin, baina Jonek gitarra ondo jotzen zuenez, kasurik ez! Jon: ogi pusqueta bat; hobeto esateko, baserriko esnetan bustitako ogi puske-ta bat. Ideia aldetik karratu samarra, baina ma-leziarik gabea. Kanutoak egin, birrak edan eta

manifa guztietara joatea zituen hiru betebekar nagusiak.

Eta eskuman, Dalton anaiak balira bezala, denetan luzeena: Mikel. Beste deserritu bat. Honek ere aspaldi utzi zuen herria ikasketen aitzakian. «Autobusez ordu erdira duzu barren!», esaten zion amak. Baina etxetik alde egitea zuen Bilbora etortzeko aitzakia. Bilbotik ordu erdi eskasera dagoen herri batekoa izanik ere, ez zen herrira maiz agertzen, urtean hamarren bat aldiz, han utzitako lagun on bakanekin parranda eder batzuk botatzera. Kazetaritza ikasketak Leioan eginak, artikuluren bat edo beste idazte-tik bizi zen. Tira, bizi, Dionisosi esker bizi zen. Harena zen pisua, eta Mikelek ez zuen alokairu-rik ordaintzen. Dionisosek hasieratik argitu zion, pisuan hartua bazuen, tipo jatorra iruditzen zi-tzaiolako zela, eta ez beste ezerengatik. Hori bai!, hitz jarioa zetorkionetan entzun egin behar-ko ziola, eta noizean behin baita erantzun ere; kontra inoiz ez! Bistan da, kolpe handirik jo gabe iraun zezakeen umetatik erakarri zuen hirian. Gogoan zeukan zenbat gustatzen zitzaion ama-rekin erosketak egitera Bilbora etortzea: trenez

Atxurira, Alde Zaharreko eskaparateak ikusi, Corte Inglesko eskailera mekanikoetan ibili eta trenean buelta. Zenbait urte geroago lortua zuen hiri hartan txokotxoa egitea, eta bide batez etxetik alde egitea ere, alde egitea bere anaia kirolzale subnormalari eta bizi osoan beste planeta batean bizi izandako aitaren autismoari.

Horrela bada, Zuria Beltzekoek Atxuriko tren geltokiaren ondoan den etxe multzo baten pean zeukaten entsegu lokala. Egunen batean handiagoa izateko esperantzan, baina bien bitartean Jonen aitonaren lonjetako kaskarrenarekin konpondu behar. Mundua jango duela uste duen edozein taldek izan dezakeen bezalako lokala zen hura, hots, kutrea. Kutrea bai, baina han arnas zitezkeen kontzertu potente baten osteko izerdi kiratsa nahiz arrakastaren lurrin berezia. Hormak arrautza kaxez estaliak, haien gainetik errezel zaharrak zenbait tokitan, eta hutsik gertzen ziren tarteetan Anek aukeratutako taldeen posterrak: atzerritarrak denak, Ruper Ordorikaren itzel bat izan ezik... Eta Amnistiaren Aldeko Batzordeen egutegia atean, Jonek ezarria. Ane-  
ren kontzesio bat.

Jonek eta Mikelek instrumentuak aldean hartu eta anplifikadoreak piztu bitartean, Anek zutik zirauen bateriaren aurrean, artelan bati begiratzen zaion moduan: Pearla!, bigarren eskutik Ruperren bateria-joleari erosia, bere soziologia-ko lan bakanetako batekin epeka ordaindua.

- Ane, mesedez. Bateria bat baino ez dun. Ez gehiago ez gutxiago, bateria bat! Ez egion horrela begiratu, monumentua balitz bezala. Humanoa bihurtzen dun horrela, eta ez zagon bateria bat humanizatu beharrik. Ostiak jasotzeko egina dun, ahalik eta baketa kolperik gogorrenak jasotzeko egina, joder!

Mikelen atzean barrea ezkutatu ezinik zegoen Jon. Anek mantso eta harro buelta erdia eman, eta bateriaren parean eseri zen.

- Nahi duana esango duk, Mikel, baina ez haiz sekula enteratuko gizarte honen ehuneko handi batek zenbait objektu pertsonen estimu maila berean dituela, batez ere iraultza industrialetik datorren gizarte garapen konkretu baten ondorioz. Barka ezak, baina soziologi ikastaro txiki bat beharko huke. Azken batean kazetaria baino ez haiz, eta kazetari batek muturren

aurrean duena kontatu beste lanik ez dik. Gehienetan hori bera ere gaizki edo manipulaturata egiten dik gainera.

Mikelek kantu bateko baxu kolpeekin eten zuen borrokatxoa, hormetako arrautza kaxak dardara batean jartzeraino. Fender klasikoak sabela dantzan ipintzeko moduko uhinak sortzen zituen. Anek break bat markatu, eta Jon eta biak gehitu zitzaizkion, Atxuriko garajeko giroa dentsogotuz.

*Zure soaren aizto zorrotzak,  
zatikatzen du nire bihotza!  
Zure soaren aizto zorrotzak  
zatikatzen du nire bihotza...!*

Behin eta berriz oihukatzen zuen esaldia, giro guztiz obsesiboa sortu arte. Anek erritmo astuna markatzen zuen bonboaz eta baseaz. Jonek, aurpegia atzamarrak baino gehiago mugituz, akordea ia desagertzerainoko kolpe distortsionatuak ematen zituen. Giroak kargatzera jo zuen. Doinu latzak, Mikelen eztarri urratua orroka, kanutoak,

Aneren koru orgasmikoak eta Jonen metamorfosia jarraian.

Ordubetegarrenera lasaiago zeuden hirurak, lokal bazterreko sofa zaharrearantz berriketan, kanutoen etengabeko joan-etorriaren erdian.

- Esan dinat hire lehengusuarekin egon nintzela atzo?

- Nire lehengusuarekin?

- Bai, Tolosa ingurukoa edo etzakinat zehatz nongoa.

- Zein izen zian?

- Lasai, neska! Utzidan pentsatzen... Eneko? Ez, Eneko ez... Beno, orain ez naun gogoratzen, baina esango dinat halakoren batean. Badakin, «Bart sobera ardo edan nuen».

- Speed sobera sartu zenuen zuk, kabroi horrek!

Kanutoez begiak dirdaitsu, Joni betiereko irribarrea utzia zion jadanik ezpainetan. Sofa zaharrearantz kuzkurtuta, pelutxezko hartz bat bilakatu zen txima luze eta mila koloretako galtzekin.

- Aspaldian neurritik gora zabiltza. Horrelako gauzekin kontuz ibili beharra dago.



- Eskerrik asko aholkuagatik, Jon, estimatzen da! -eta lagunaren ustekabea, potroetatik heldu zion estu-. Orain... kanta zan Marijan!

Garagardo latak eta hautsontziak lurrera erori ziren Jon eta Mikelekin batera. Artean potroetatik oratuta zeukan, eta barrez ari zen Jonek barrabletako mina ekiditeko ematen zizkion ostiak jaso bitartean.

- Tira, ez da hainbeste eskatzea. Kanta zan! Adi adi zan Marijan beldurrik gabe kantazan!

- Nahikoa daaa!

Sututa, kolkotik heldu zituen Anek.

- Tontotu egin al zarete?

Bi mutilek harriduraz hartu zuten neskaren txinpart eta malaletxeko erreakzioa.

- Bai, hirekin hizketan ari ninduan, babu hori! Hik uste duk berriketan egon eta kolpetik, besterik gabe, bibotea hazi berri duen nerabe baten gisa hasi haitekeela?

- Joder, barkazan. Ez ninan uste horrela minduko hindudanik honengatik bakarrik. Ez zakinat zergatik jarri behar dunan hain histerika!

Eseri egin zen Ane, arnasa hartu eta lasaiago mintzatzeko:

- Lehen galdetu diat ea gogoratzen haizen nire lehengusu horren izenaz.

- Ezetz esan ez dinat ba! Ez naun oraintxe gogoratzen, baina hain garrantzitsua badun, saiatuko naun. Baina ez zagon horrela jarri beharrik.

- Barkatu. Izan ere, Tolosan bi lehengusu baino ez ditiat. Bata izebaren etxean zagok, ohean etzanda egun osoan, eta ez dik luzarorako. Hiesa. Ez dik zaldi nazkagarri hori sartzea besterik egin bizitza osoan. Eta orain, lapurtu, iraindu eta jipoitu baino egin ez duen bere amaren alboan zagok! Izeba kuttunari egunak luzee-gi, grisegi eta zatarregi egiten...

- Sentitzen dinat. Dena den, hark ez zinan hiesak jotakoaren itxurarik. Alderantziz esango nuke, benetako morroskoa huen.

Mikelek lepoa igurtzi zion leunkiro, pertsonak sentimental edo triste jartzen zirenean egiten zekien bakarra. Ez zuen ezer askotarako balio izaten, baina tartean behin efektua egiten zuen ukendu ikusezin hark. Aneren kasuan bereziki ez, bere baitara bildurik jarraitzen baitzuen Txapli sartu zenean.

- Zuria Beltz! Hau bai hau taldea! Kran! Kran!  
Kran!

Gitarra jotze keinuak egiten sartu zen, begiak gorriturik, aurpegia zurbil, alkandora galtzen gai-netik eta prakabarrenak zikin. Mozkortuta.

- Ze ostia pasatzen da hemen? Zer da giro hau? Non dago nire taldea?

- Ez al zara oraindik larunbatetik erretiratu?

Txaplik filosofo posea hartu zuen Euskadiko Kutxako txartel gainean speed lerro bat aton-tzen.

- Zertarako? Zergatik? Nola?

- Ez huen gaur okindegian lanean hasi behar?

- Ba bai. Baina ez nauk joan... Jejeje!

Hortz ustelak erakusten zituen barre egitean, eta begi txiki-gorri baina hanpatuek begi-zuloe-tatik alde egin behar ziotela zirudien.

- Eta hiri, Ane, zer pasatzen zain? Hilekoare-kin hago ala zer? Jejeje! Hik ere nahi dun lerrotxo bat? Saldeva baino hobea dun! Jejeje!

Euskadiko Kutxako lerroa pikutara bota zion eta belaunaz potroetako bat eman. Jakanarrua

hartu eta atea danbateko batez itxiz alde egin zuen.

- Baina zer mekaguendios! Zer ostia gertatzen zaio neska horri gaur?

- Batzuetan majadero bat haiz, Txapli! -Mikelek ere lokaletik ospa egitea erabaki zuen-. Deituko dizut, Jon. Beste babu horrekin hitz egiteko bihar arte itxaron beharko dugu, ea etxeko epe-lak burua zerbaitetarako dela gogorarazten dion!

Etixerantz abiatu zen baxua eskuan, egun gris hartan gaua goizago etorriko zela pentsatzen. Ez zuen nahi gauak tabernaren batean harrapatzea, aitzakia nahikoa izango baitzen udako azken egun haietan gura baino garagardo gehiago edan eta etxera behar baino beranduago iristeko. Arrautza batzuk eta urdaiazpikoa erosi zituen dendan, eta Somera kaleko hamahiruan gora igo zen.

Harrituta utzi zuen Aneren asalduek. Ohikoa zuen histerismoa, baina malkoei eusten ikustea ez zen eguneroko kontua, ezta inauteritik inauterirakoa ere, Dionisosek esango lukeen mo-

duan. Lehengusuarena aipatzeak zeharo hunkitu zuen Ane. Eta Mikelek ez zuen jakin zergatik.

Arrautzak, urdaiazpikoa eta ogia sukaldeko mahai gainean utzi zituen. Gau lasaia izango zuen aspaldiko partez. Arratsalde osoan azalera itsatsita izandako arropak erantzi eta dutxara joan zen biluzik, biziki maite baitzuen etxean zehar larrugorritan eta dilindan ibiltzea. Dutxatik bueltan, beste norbait zela uste izan zuen. Maiz gertatzen zitzaion, dutxa bat hartu ondorenean aurretik izandako kezka eta buruhauste guztiak desagertzea, butanozko ur beroak soina ez ezik barnea ere garbituko balio bezala. Muinetaraino sartzen zitzaion dutxa beroak ematen duen tentsazio lasaigarria.

Albornoz berdea jantzi eta bekatu larri bat egitea otu zitzaion. Karrajoaren bukaeran bazen ate txikitxo bat, Dionisosek jainkoen edari kaxak gordetzeko erabili ohi zuena. Bere ondare nagusi eta ia bakarra. Etxe hartan zeukan gainerakoak -liburuak eta diskoak salbu-, bost! Halaxe esaten zuen: bost!, arropetatik hasi eta telebis-taraino. Eta bekatu larria zen Dionisosen baime-nik gabe kaxa haietatik botila bakar bat hartzea.

Hala ere, salbuespena geroago nolabait konponduko zuelakoan, ausartu zen Remelluri kaxa bat irekitzera. Bekatua egin eta gero bekatutik disfrutatzea baitator, egongelan eseri zen afalaurreko tragoxka hartzen. Leihoak itxi eta telebista ipini zuen. Hogei minuturen buruan Espainiako Supercopako partida jokatzekoa zen: Barça - Real Madrid. Igande gauetako programen antzerira, futbola ere entretenigarri egokia zen des-pentsatzeko, hau da, kaskarrari buelta erdirik ere ez emateko.

Atsedenaldirako lehenengo botila ardoa hustua zuen. Arrautzak eta urdaiazpikoa zen-orduko ilun zegoen sukaldeko mahai gainean zeuden, ukitu barik. Bigarren botila bat zabaltzea ez zitzaion lehenengoaren adinako bekatua irudituz, eta halaxe egin zuen. Barcelona irabazten zihor, eta horrek ere animatu. Ez Barça zalea zelako, ez zen inoren zalea egia esan, baina futbolak bataren edo bestearen alde jartzera behartzen zaitu, eta Mikelek Real Madriderikiko beti sentitu izan zuen denon sentimendu bera: nazkaren eta gorrotoaren arteko nahas-mahasa.

Partida bukatu zen, eta bigarren Remelluria ere bai, Gran Reserva 1985. Hau guztia gutxi baltz, Camel paketeak ere emanak zituen azkenak. Partidarenak ez zion hainbeste axola, baina ardoarenak eta tabakoarenak bai. Ardoarenak hirugarren bekatua egitera bultzatu zuen.

- Hamar mandamentuak hausteko oraindik zazpi botilako tarte daukak, Mikel!

Zailagoa zen tabakoarena konpontzen. Itxura harekin ez zegoen tabako bila kalera joateko gonoraz, eta gainera ez zeukan batere gogorik. Bazekien Dionisosek logelan beti izaten zuela Ducados kartoi bat. Itxaropen horrekin miatu zizkion armairuak. Higuingarria da tabako beltza, baina besterik ezean Colacao erretzea baino hobe zen.

Hirugarren Remelluria deskortxatzeaz batera amatatu zuen telebista, Dionisosen diskoen artean bilatzeko. Laboa, Lertxundi, Lete... Dionisosen garaiko koadrila goibela. Dena den, bazuen euskal kantariez aparte beste bat maitea: Van Morrison... eta haren diskografia osoa. *No teacher, No guru, No method* diskoa biraka hasi zen hi-fian... Sofan erdi etzanda, ardoari zurrut, Du-

cadosari tira, behin eta berriro disko bera aditu  
zuen goizaldera arte... Hautsontzia gainezka eta  
ardo botila paparrean, loak hartu zuen. Eta loak  
baita ere sukaldeko mahai gainean arrautzek eta  
urdaiazpikoak.



Gauaren eta egunaren etengabeko sekuentziak zehazten du zehaztasun konkreturik gabe denboraren joana. Zazpi egunek eta zazpi gauk astebetea eratzen dute, eta astebete hori lau aldiz biderkatuz gero -kasu honetan ere zehaztasun gabe-, hilabetea osatu ei da. Hotzean, planteamendu horrek ez garamatza inora; baina epelean edo, zergatik ez, berotan aztertuko bagenu, eta Bilbon, Euskal Herriko hiriburuan kokatuko bagenu, ba bai. Ezen Bilbo itxuraldatzen hasten baita irail bukaeran. Haizeak eta euriak gotortu egiten dute hiria udazkenean. Hormetako kartelak mudatu egiten dira oinarritzko koloreak baino nabarmentzen ez direla -koatrikromiaren erruz dela diote adituek, nik uste dut koloreen egoskorkeria baino ez dela-. Arenalean geroz eta bikote gutxiago ikusten dira gauez bankuetan zirrika. Nerbioi beti bezain uher baina indartsuago dator. Naturaren kolore gorritzak baino udazkeneko argi laranjak goxatzen du Bilbo eguzki egunetan, eta egun ilunetan negu-

ko gristasunaren zemaia irudikatzen da hiriaren teilatuan, gero eta atmosfera lanbroagoan.

Aspektu klimatikoez gain, udazkenean ikasleak itzultzen dira, eta beraz, sofisma klasikoa aplikatuz, baita irakasleak ere. Banketxeetako enkargatuek eta Diputazioko funtzionario infunzionalek lehenagotik ekin diote, hiriari (bere aspektu psikologikoan batik bat) patetismoa erantsiz. Patetismoa baita hirien ezaugarri orokortako bat. Erran nahi baita, hiri guztiak direla patetikoak zentzuren batean, kontuan izanik funtzionarioek, poliziek eta mota guztietako loteria-saltzaileek bertan topo egiten dutela.

- Patetikoa!

- Zer diozu?

- Patetikoa dela, joder! Horixe da berba, patetikoa!

- Zer baina?

Dionisos egongelatik purrustadaka ari zen, erdi ahapean erdi ozen. Botila ardoa zuen pareko mahaitxoan eta eskuan edalontzia, ezpaine-tara maiztasun handiz hurbiltzen zuena. Botila ardoaren ondoan hautsontzia, zigarreta mutxikinez gainezka, eta Ducados pakete hasi berria.

Lehentxeago amaitutako paketeak alfonbrari ezinezko kolore joko bat proposatzen zion lurrean.

Mikel afaria prestatzen ari zen sukaldean, kalabaza pure bat, zehatz esanda. Egiten zekien plater gutxitarikoa zen eta, beraz, sarri izaten zen hura afaltzeko. Zorionez, Dionisosek gustuko zuen kalabaza purea, jatuna izan ez arren bai baitzekien gauza onak estimatzen. Mikelentzat aldarrikapena zen; amaren etxetik kanpo, ikasle pisu batean egiten ikasi zuen lehen platera, nolabait ere bere independentziaren sinbolotzat zeukana.

- Zer da baina hain patetikoa iruditzen zaizuna?

- Luis Fernandez hau!

Beste Ducados bat sutu eta ardoz bete zuen godaleta berriro.

- Hainbeste Athletic, hainbeste «euskal herri-tarrez bakarrik osatzen den talde bakarra» eta hainbeste ostia, eta gero majadero hau jarten jabek entrenatzaile! Majadero bat, horixe bera! Gabatxo txobinista bat azentu andaluzarekin!

Hori Azkoitiko azentudun autonomista izatea baino okerragoa dok ia, joder!

- Noiztik arduratzen zaitu Athleticek?

- Ez najok Athleticek arduratzen, Euskal Herriak baino. Hik badakik zenbat subnormal dagoen bere abertzaletasuna ia eksklusiboki Athleticeen oinarritzen dabena? Kalkulatzen dok? Subnormal horiek guztiek pentsatzen jabek morroi hau egundokoa dela, izugarria dela! Atoan bereganatu dabela euskaldunen izaera... Baita zera be, ostiak! Pentsamendu moderno frantses nazkagarriaren eta folklorismo espainolik kutreena-aren ezaugarriak biltzen jozak pertsona baka-rran. Eta hemen, milaka pertsona injertu hau jainkotzen.

- Hainbesterako ere ez da izango eta, trankil!

Mikelek ordurako perolatxo sukaldeko mahai gainean jarria zuen.

- Hau prest dago! Geratzen zaizu ardorik botila horretan edo beste bat zabalduko dut?

- Badakart beste bat, honek bereak emon jozak-eta.

Sukaldeko atean agertu zen ardo botila bat esku batean eta botila ardoa bestean. Bere azke-

na gertu zuen Ducados bat zekarren ezpainaren ezkerraldean itsatsita. Mikelek zerbitzatu zuen purea, lehenengo Dionisosen platera, ia gainezka egin arte, eta ondoren berea, gutxixeago. Ez zen ez jango ez zuelako plater bete, neurri kontuak Dionisosi errespetua adierazteko moduak baino ez ziren. Dionisosek edalontzia hurbildu zion Mikeli eta ardoz betetzen hasi zen.

- Ardoa zerbitzen ari nazenez, galdera bat egin gura deuat. Hik sartu dozak hiru Coto botila Remelluri kaxan?

Mikel ez zebilen oker bere susmoan. Beti izan zuen halako gaitasun bat marroien etorrera aurreikusteko.

- Bai. Sentitzen dut, baina diruz larri nenbilen eta ez nengoen Remelluri botila mila pezetatik gora ordaintzeko moduan. Coto batzuk erosteko baino ez zitzaidan iristen. Asteon hasiko naiz lan txo batzuk egiten eta ordainduko dizkizut dirua jasotzen dudanean.

Bistarekin kalabaza pusketan ñimiño bat jarraitzen zuen Mikelek, koilararekin sortutako zurrunbiloan amiltzen ari zela. Une batez pentsatu

zuen bera ere kalabaza pusqueta hura bezala sentitzen zela Dionisosen aurrean.

- Denak egun batean edan heuazen?
- Gau batean.
- Gustatu?
- Zer?
- Ea ardoa gustatu jakan.

Bi erantzun posible besterik ez zituen: Bai edo Ez. Eta ez zekien aukera bietan zein zen Dionisosek entzun nahi ez zuena. Ehuneko berrogeita hamarreko aukera zuela otu zitzaion, umetan kara-kruz egiten zuenean bezalaxe. Egia esatea erabaki zuen, asmatu ez arren, egiak beti izango baitzuen egia berarekin.

- Ba bai.
- Asko?
- Bai.
- Baina... asko, benetan?

- Kaguenlaletxe! Baina zer ostia da hau, galdaketa bat? Neuk hartu nizkizun botila ardoak eta neuk ordainduko dizkizut. Baina, mesedez!, ez ezazu hau Burgosko epaiketa bihurtu.

- Lasai, gazte! Ez najoan hi urduritzerik gura. Baina ardo hori berezia dok, berezia. Ardo horrek

halako zera berezi bat lagatzen jok tragoaren azkenean, halako pikardia zipriztin bat, halako...

Arriskutsu bihurtzen zen ardoei buruz hizketan hasten zenetan. Bazuen «halako» joera bat ardoaren dastaeraren deskribaketan poesia egiteko.

- Hi! Eta idazle alemaniarren antologia be hik hartu dok?

- Zein?

- Idazle aleman madarikatuena!, azalean Otto Dixen koadro bat dakarrena: eskale bat hankak moztuta kalean diru eske.

- Ez, ez daukat gogoan liburu hori hartu izana.

- Ba atzo bila ibili nintzuan eta apaletan etxagok. *Ni ez naiz hemengoa* egoen apal berean ja-goan...

Bihotzak jauzi egin zion kolpe batean. Ahotik irten eta airean, Mir estazioko astronauta bat bailitzan, grabitatearen legeak oro desobedituz nola zihoan ikustea iruditu zitzaion. Bere bihotza Aneren ezker bular biluzian lur hartzen imajinatu zuen eta, ondoren, zauririk sortzeke, haren azalean barneratzen. Azkenik irudikatu zuen, biho-

tzak utzitako hutsunean min sentitzen zuela, pena samin bat.

- Neuk hartu nuen!

- Eta? Non daukok? Saldu egin dok?

- Ez, tira... Eduki, eduki, ez daukat nik...

Berriz ere kalabaza pusketan txiki bilakatzen ari zen, edozein Gregor Samsa bezala.

- Aste Nagusian Aneren lehengusu bat etorri zen lotara eta, oso oker ez banabil, berak eraman zuen. Barkadazu, erabat ahaztuta neukan.

- Nor dok Aneren lehengusu hori? Bilbon bizi dok?

- Egian esan, neronek ere ez dakit oso ondo nor den, eta gutxiago non bizi den -geroz eta tti-piango sentitzen zen, eta une horretan nahiago zukeen kalabaza purearen zurrumbiloan galduko balitz-. Baina liburua hain garrantzitsua bada, erosiko dizut beste bat.

- Hi haz hi artaburua! Hik ondino pentsatuko dok gauza danak ordezkatu leitekezela bere klon bat erosita. Akaso pentsatuko dok gauza material oro ordezkagarria dela... diruarekin dana erosi daitekeela! Hi majadero bat haz, majadero patetiko bat!



Mahai gainean ukabilkada bat jo eta alde egin zuen karrajoan zehar sekulako purrustadak botaz. Mikel bere burua kalabaza purearen eltze-txoan aurkitzen saiatu zen, bera izan zitekeen kalabaza pusketan ñimiño haren bila... Gregor Samsa miretsiz, arazoak konpontzera Kafka ager zedin erregutuz.

Ontziak harraskan bildu eta harrikoa egiteari ekin zion berehala, harrikoa egiteko tartea beti iruditu baitzitzaion gogoetarako tarte egokia, kontuak buru hotzagoarekin eta patxadaz begi-ratzeko moduko tartea. Halaxe gogoratzen zuen bere ama ere bera umea zelarik. Nola ametsik ederrenak, esperantzarik politenak, harrikoa egi-ten ari zela kontatzen zizkion... Beti pentsatu izan zuen amak une haietan ez ziola berari hitz egiten, bakarrizketan jarduten zuela baizik. Ge-rora, bera harrikoak egiten hasi zenean guztiz ziurtatu zuena.

Eta harrikoan, Ane etorri zitzaion gomutara. Ez zeukan ahaztuta nola erreakzionatu zuen le-hengusua aipatu zion hartan. Egia zen, bai, ez zeukan ahaztuta, baina ez zuen gogoratu hilabe-te pasatxoko tartean. Arratsaldean bertan entse-

gua izan zuen taldearekin eta gogoratu ere ez zen egin. Biharamun gauetz kontzertua zeukaten eta ez zuten beste konturik erabili: Bilbotik kanpoko Zuria Beltzen lehen kontzertua.

Ane, ardoak eta liburuak, gogartean garbitu beharrekoak garbitu zituen. Gustura garbituko zituzkeen beste hamarrenak ere, zereginen bat izateko, Dionisosen begirada saihestu ahal izateko. Baina ez, ez zen umekeriatan ibiliko, zintzo jokatu beharra zeukan berarekin hala jokatu zutenarekin. Camel bat iziotu eta burumakur abiatu zen egongelara. Telebista jarrita zeukan Dionisosek, baina begirada hor nonbait galdua.

- Sentitzen dut, benetan. Barkadazu.

- Egon hadi lasai. Neuk be sentitzen joat holan jarri izana. Baina liburu hori berreskuratu egin behar dok... izugarrizko garrantzia jaukok niretzat... izugarrizko garrantzi sentimentala. Pertsona berezi batek oparitu jeustan, eta hor jagok koxka. Liburu berezia dok!

- Ez zenuen ba zeuk erosi Likinianon, azalarengatik?

- Hori esan neuan?

- Baietz uste dut.

- Ba ez. Pertsona oso berezi batek oparitu jeustan.

- Emakumeren batek akaso?

- Hiri ez deue axola zeinek!

Aspaldiko parteko irribarrea desagertu egin zitzaion, supituan Samsa bilakaturik berriro. Dionisosek hormako apalategira seinalatu zuen hatz luzeaz.

- Barkaidak, baina liburu hori etxe honetan, apal horretan gura joat astelehenerako.

- Zaude lasai, hitza ematen dizut hortxe izango duzula astelehenerako.

- Eta orain, ardura ez bajak, itxi nagik bakarrik, etxaukat barriketarako gogorik.

Egongelako atea emeki zarratu, sukaldean tabakoa eta txiskeroa hartu eta logelan sartu zen. Hankaz gora zegoen dena, ohi bezala. Irratia piztu zuen, gauero entzuten zuen tertulia ultraespainola entzuteko. Ohean jesarrita, kanuto txo bat biltzen hasi zen. Txaplik pasatu zion probatzeko, gustuko bazuen lortuko ziola zati eder bat prezio onean. Eta zati handitxo bat eskatu behar izan zion probatzeko, ez baitzeukan eros- teko dirurik. Txiskeroaren su txikian usain ederra

zerion arren, hauts egitean bolatxoak eratzen zitzaizkion atzamarretan, eta beste askotan moduan pentsatu zuen nahiago zuela totxoko kostoa moroko puru hura baino. Kanutoa iziotu zuenerako ez zegoen hain ziur zein ote zuen nahia-go.

Kanutoa erre eta tertulia entzun bitartean, kantuen letrak errepasatzeari ekin zion. Biharamunean izango zen taldearen lehen kontzertu serioa, eta ezin zuten hutsik egin. Estreinako kontzertua lagun baten tabernan eman zuten, baina apenas hurbildu zen inor Zuria Beltz ikustera. Entsegu bat baino ez zen izan: tabernari laguna, beraiek eta Txapliren kolega bi ipurtzulo-raino kolokatuta... Aneri lizunkeriak esaten. Beraz, Bilbotik kanpora egingo zuten lehen kontzertua zen, eta ikaragarritzko itxaropena kontzertu hartan jarria.

- Hi, Txapli, baina nora goazak? -galdetu zioten.

- Ziur ez dakit, baina Gipuzkoako herri horietako batera. Bihar jakingo dugu dena, biharko dena kontrolatuta!

Kanutoak begiak ixteraino ñimiñotu zizkion. Tertuliaren osteko kirol programa hasia zen. Kantuen hitzak idatzita zeuzkan paperak erori zitzaizkion atzamarren artetik, eta eternitatearen ateetan geratu zen arnasketa sakonean.

Kanpoan euria ari zuen. Tabernetako pertsia-  
nen astrapala nabaritzen zen tartean behin. Zabor-biltzaileen kamioia ere ez zen urruti. Ze-  
harka jausten ari zen euria, operako agerraldi  
bat ixten duen teloiaren gisan.

- Otxarkoagako Auzo Elkarteari buruzko artikulua bat nahi dut. Baina Asociación de Vecinos buruzkoa, ez hor zehar elkarte itxurarekin politikak egiten ari den konpartsa batena. Ulertzen duzu, ezta? Gurea auzoetako aldiakaria da, ez iritzia sortzeko egunkaria. Artikulu xumeak argitaratzen ditugu, irakurterrazak, inoiz notizia izango ez liratekeen notiziak. Ulertzen?

Eguerdia zen Autonomia kalearen paralelo batean, bosgarren pisuan. Leihotik pareko etxea baizik ez zen ikusten, eta euria zaparrada etengabea. Luis Alberdi zen hizketan ari zitzaiona, aitaren lehengusuaren semea, hots, bere bigarren lehengusua. Mikelek berak baino bost bat urte gehiago zituen, nahiz eta begien bistara hogeitahi gehiago iruditu. Corte Ingleseko traje urdin ilunez jantzia, alkandora klaruxeago batekin, gorbata hori bizi batek estutzen ziola lepoa... ez ordea Mikelek nahiko zukeen bestean. Ile kiribila likaz lisatzen saiatzen zen, baina kokotean matxinatu egiten zitzaizkion. Luis Alberdi entzefalo-

grama laua emango luketen horietakoa zen, argi eta garbi adierazteko. Haren aitatzok, alderdiki-dea izaki, auzoetako aldizkari haren zuzendari izendatu berri zuen. Eta Mikel, bere gogoz kontra baina amak bideratuta, lan eske joana zitzaion.

- Ulertzen dizut Luis, hainbestean bai...

Bulego hitseko sasi sofa batean eserita zegoen Mikel, leihotik kanpora begira bigarren lehen-gusuari hitz egiten zionean ere. Izan ere, egoera narratsa zen hura. Zer eta bere lehengusurik artaburuenetako bati lan eske bukatu ez zuen ba!

- Ez nuen zu gutxiesterik nahi. Baina ez nuke nahi inork pentsatzea nire familiakoa zarelako hartu zaitudala lan honetarako. Asko kostatu zitzaidan lanpostu hau lortzea, eta nahiago nuke zuk ere bide horretatik lortuko bazenu zurea. Azken batean, satisfazioa ere bada gizonarentzat lanpostua bere merituz lortu duela jakitea, eta ez honek edo hark lagundu diolako.

Aurreko balkoian arropak jasotzera irtendako emakumeari begiratzen zion Mikelek. Sasoikoa zen, berrogeiak ondo beteak, oso ondo alajaina. Bata gorri bat baino ez zeraman aldean. Ezagun

zuen bata gorri haren azpitik ez zitekeela kulero fin bat besterik egon.

- ...eta horregatik diot, lehenengo hilabetean froga epe bat izango duzula. Ondo aritzen bazara, zeurea izango da lanpostua. Ez da gauza handia irabaziko duzuna, baina neurri berekoa da lana ere. Zer diozu?

- Noizko behar duzu artikulua?

- Datorren astearterako.

- Berton izango duzu.

Zutitu egin zen. Balkoian ez zegoen emakumerik.

- Asteartera arte. Eta eskerrik asko.

Oinez abiatu zen Autonomia kaletik San Frantziskorantz. Cantalojasko zubitik pasatzean gogoratu zuen Plateroren kantua. San Frantziskon behera BAPen kantua etorri zitzaion. Hernani kalea jaitsi eta La Mercedeko zubia igarotzean Ruperrena. Erriberatik zihoala pena sentitu zuen, zapaltzen zituen ia espaloi haiek guztiek kantu bat bazutelako eta ez zirelako bere espaloiak bakarrik, ez bada ere kantu haiek ezagutzen zituzten guztiena. Somera kalean sartzean kantuez libre izango zelakoan, Bizkaiko aberatsena otu



zitzaion. Hura mixeria! Zapaltzen zuen kale orok bazuen bere kantua, eta bere pausok ez zioten kantu horien erritmoari kaxa kolpe bat gehitu baino egiten.

Etxera sartu orduko irratia aditu zuen sukaldean. Espagetiak egiten ari zen Dionisos.

- Lantxo bat aurkitu dut.

- Zorionak zaparro!

- Ez da zorionak jasotzeko moduko lana, baina diru premian dagoenak ezin dio ezeri muzin egin.

- Lan egitea beti izan dok prostituitzea. Ez bururik nekatu horregatik.

- Eta zu euskaltegian, zer moduz?

Gazta, okela pusketa txikiak eta tomate frijituz egindako espagetiak atera zituen mahaira.

- Euskaltegia patetikoa dok, beti bezain patetikoa! Funtzionario putaseme pilo bat euskera ikasten dabizena egiten geure poltsikoetatik ordaindutako diruaz. Etxakiat euskeraz sekula santan ikasiko daben, baina sentimendu aldetik behintzat, sentimendu gehiagoko berbak entzun joazat morsez! Kendu egik zira barregarri hori

eta jarri hadi bazkaltzera, gauzatxo bat komen-tatu behar deuat-eta.

Zira barregarria, arrazoi zuen Dionisosek, lo-gelan utzi eta derrigorrezko txiza parrastada bota ondoren eseri zen mahaira.

- Ongi da, bada... noake harira.

- Noake zer?

Dionisosek gustuko zuen mintzatzean halako formak erabiltzea. Asmatu ere egingo zituen.

- Ezer ez. Larregi dok hiretzat.

Sardexkarekin espagetiak baldarki biltzen zi-tuen artean kontatu zion:

- Idazle bat deskubritu joat, Mikel.

- Koño, susmatzen nuen halako zerbait behar zuela.

- Daniel Pennac, frantziarra. Hik badakik nik frantziarrak gorroto dodazela, baina tipo hau be-netan ona dok.

Mahaipeko aulki batean zeukan liburua luza-tu zion. Mardula.

- *Malaussene jauna*, kuarteto bateko azke-nengoa dok. Besteak be eskatu joazat. Izugarria dok. Bart gauez irakurri najoan osorik. Ezin izan najoan laga eta etxoat begirik itxi.

- Ez dut ulertzen zure irakurtzeko grina hori. Gauza guztiek behar dute neurri bat, eta lo egi-tea, esate batera, ezinbestekoa da gizakion-tzat... nahiz eta zu ados egon ez.

- Gixajo halakoa! Liburuek gure burmuin ido-rra garaztatzen jabek, ardo onak lez!

- Baina ardoa ere neurri batetik gora ez da hain ona -aho bete espageti bota zuen esaldia. Gauza xumea baina goxoa ziren Dionisosen es-pagetiak.

- Ardo onak etxok kalterik egiten, inoiz ez. Greziako filosofo klasikoetatik hasi eta Baudelai-rerenganaino danek edan izan jabek, neurri barik gainera! -bere esanari indarra eransteko bete zuen edalontzia goraino-. Ardoak beste maila batean jartzen gajozak gizakiok, eta libu-ruek be bai!

- Zuk hala badiozu...

Mikelek bazekien sutzen zenean ez zitzaiola aurre egin behar.

- Mikel... -sentibera jarri zen kolpera-, iraku-rriko ete joagu inoiz honelako liburu bat euske-raz? Itzuli barik, esan gura joat.

- Ez dakit ba zer esan. Irakurri ondoren esango dizut. Baina pixka batean itxaron beharko duzula iruditzen zait, oraindik ere baditut beste bi zain, zeuk irakurrarazitakoak. Datorren urteko udaberri bueltan emango dizut erantzuna.

- Ez egik txantxatan hartu nik esandakoa -Ducados bat piztu zuen eta espageti platera alboratu-. Bajakiat askotan pelma bat izaten naze-la, baina aurretiaz esan neuan zein zuan hi etxe honetan hartzeko baldintza eta arrazoia. Irakur-tzeak gure burmuina garztatzen jok, Mikel, eta gure burmuinak garzatatua izatea behar jok, ma-hastiek euria behar daben moduan.

- Arrazoi duzu, Dionisos. Arrazoi duzu -har-raskan utzi zituen plater hutsak-. Eta orain bar-katu egin beharko didazu. Gaur gure lehen kon-tzertua dugu eta taldekoekin geratuta nago or-dubete barru. Dutxatu eta zerak bildu behar ditut gauerako.

- Koño! Zuria Beltz estreinatzen da azke-nean!

- Halaxe da. Gaur bertan, eta badaukat hala-ko susmo bat karrera luze eta emankor baten hasieraizango dela...

- Hala bedi. Non da kontzertua?

- Ez dakit neuk ere. Taberna edo gaztetxeren batean izango ei da, Gipuzkoan.

- Koño, koño, Gipuzkoan. Ez fidatu giputze-kin. Jatorrak dozak, baina uste jabek Euskal Herriaren bihotza direla, besteok be bagarela konturatu barik.

- Txaplik gobernaturako ditu.

- Trapitxero nazkante horrek?

- Gero arte, Dionisos... dutxa bero bat hartze-ra noa.

Laurak eta hogeian Mikel betiko tabernara agertu zenean, han zeuden Jon eta Ane. Jonek han ematen zituelako eguneko orduak, entseatzeko, manifestaren batean edo pankartaren bat eginen ez bazebilen behintzat. Ane, puntualitatearena serio hartzen zuenetakoa izanik, esandako ordua baino bost minutu lehenago azaltzen zen hitzartutako tokira, juxtu Mikelen alderantzizko ohituraz.

Ilea motots batean bilduta, dotore etorri zen Ane, beltzez goitik behera, larruzko praka beltzak eta jakanarru beltza, talde giri baten skipy beltza barruan, lehen kontzertuan taldearen es-

tetika markatu guran. Jon ordea, betiko Jon, betiko galtza multikoloreekin, gestoretako kamiseta eta jakabluaz.

- Ikusten al duk? -Anek ipurdiko batez agurtu zuen Mikel, baina Joni mintzatzen ari zitzaion-. Ez diat esango hau denik taldearentzat nahiko nukeen itxura, baina joder!, saiatu duk behintzat planta pixka bat hartzen.

Izan ere, Mikel ere beltzez zetorren. Ez Ane bezain dotore, baina txukun. Jakanarru beltza, artilezko jertse beltz tarratatua, bakero beltzak eta uda zein negu erantzi ere egiten ez zituen Doc Marteensak.

- Esaiozu atso horri isiltzeko behingoz -Jonek ezpainenetan zeukan 9'94 segundotan bildutako kanutoa-. Nahi dudan moduan jantziko naiz, bai kalean bai oholtzan, konforme?

- Nigatik jantzi zaitez nahi duzun bezala. Galtzontzilotan irten zaitezke oholtzara. Gitarra ondo jotzen duzun bitartean gainerakoak niri bost. Eta pasa kanuto hori! Joselu... ebaki bat, mesedez!

Ronda kaleko tabernatik lokalerako bidea lurretik zentimetro bat gorago ibiliz egin zuen

Zuria Beltzek. Bostetarako agertu ziren lokalera, elkarri tutik esan gabe, bakoitza bere baitara bildua. Ronda kaleko korridorea kamerinotik jendetzarako bide iluna iruditu zitzaien; behin San Anton zubi parera iristean jendetzaren zalaparta; Simagotik igarotzean milaka flashen distira, jendetzari gau izarratu baten tankera ematen; eskola nazionalen aurrean seguritatekoak jende olatuari eutsi ezinik, kamiseta estu eta baseballleko biserez jantzita. Atxuriko geltoki parean oholtza. Erraldoia. Mila watiotako Trace Elliot bat Mikelentzat, lau ataleko Marshala Jonentzat, Pearl distiratsua plataforma baten gainean, nola ez, Anerentzat. Lurruna oholtzako alde guztietatik. Argi ilun eta biziak eszenatokia girotzen.

Lokalera iritsi zirenean irudi bakarra: Txapli.

- Zer gertatzen zaio nire taldeari? Opio tronpeta bat erre duzue edo ze ostia!

Eskuak jasota eta hankak tai gabeko mugimenduan zerabiltzan. Bere jarrerarik geldienetako zen hura. Tralla pixka bat sartuz gero breakdancer bat emango zukeen. Hanka punta batean hasi eta, gorputzari bira osoan emandako buel-

taren ondoren, beste hanka puntan amaitu ohi zuen dardara nabarmena zuen Txaplik.

- Ze aurpegi dira horiek? Gure lehen kontzertua da, lehen guda dantza!

Zuria Beltz lur hartzeke zegoen. Laino batean egin zuten Ronda kaletik lokalerainokoa, egoera transzendental batean, mundutik at, Olinpoan.

- Jon, ez al duk kanutoa gehitxo kargatu?

Aneren galdera ez zen galdera soila, Galdera baizik. Mikel eta Jon barretan lehertu ziren. Sabeletik zetorkien zantzoa. Anpuluren bat edo beste isuri zitzaien matrailetan behera. Egoeraren absurduan, Anek ere ezin izan zion algarari eutsi, eta Txaplik ere barre egin zuen zergatik ez jakin arren. Azken batean, Txaplik ez zuen inolako arrazoiren beharrik barre egiteko: txiste txarrak kontatu eta barre tonto jario etengabea.

Barrenak lasaitu ostean, lanabesak atontzen hasi ziren. Jonek sedazko zapi batean bildu zuen bere gitarratxoa, emakume erditu berriak ume-txoa izaren artean biltzen duen legez. Mikelek soka berriak ipini zizkion Fender klasikoari. Anek, frankotiradore batek bere arma muntatu ohi duen sotiltasun eta leuntasun berberarekin des-



muntatu zuen Pearla zatika. Txapli ahots ekipoa furgonetan sartzen ari zen.

- Animo lagunak! Orduak aurrera doaz, eta Antzuola ez dago Galdakao ondoan!

- Antzuola?

- Bai, Ane.

- Antzuolan da, beraz, kontzertua?

- Baaai.

- Ez nekien.

- Ezta neuk ere.

- Ez nizuen esan?

- Ez...

- Eta Antzuola hori non dago ba?

Badira Bilbotik sekula irten ez diren Jon beza-lako bilbotarrak.

- Ez dakik Antzuola non dagoen?

- Ez.

Bihurrikeria bat egin ondoren justifikatu nahi duen umearen tonuan erantzun zien Jonek.

- Hik, Euskal Herriko abertzaletasunaren eredu haizen bilbotar horrek ez dakik Antzuola non dagoen?

- Ezetz ba!

Jonek ez zuen gustuko Ane bide horretatik hasten zenean.

- Hi bezalakoengatik balitz, Euskal Herria askatuko den eguna Bilbo askatutakoa izango duk.

- Ez kasurik egin -Mikel espezialista zen Jon lasaitzen-. Badakizu zelako petral jartzen den honelako egunetan. Badakizu zeinen gustukoa duen zure aspektu politikoa zirikatzea.

Mikel bera ere harritu egin zen esaldiarekin. «Aspektu politikoa» ez zuen sekula erabili izan. «Zure dogmatismoa», «zure burukarratutasuna» eta tankerakoak ez zitzaizkion egokiak iruditu, antza.

- Hori bai, eros ezazu Euskal Herriko mapa bat. Eginek saltzen ditu!

Jonek bazuen bere ezjakintasun geografikoaren berri, eta beti pentsatu izan zuen abertzale batek bere herria ezagutu behar duela. Baina koño!, bera Bilbon sortua zen, eta Bilbo bera ere bada nahiko mundu ezagutzeko. Ez ala?

- Antzuola: Bergaratik lau bat kilometrora. Deskarga portuaren oinean.

Furgonetan zihoazen, Boluetatik Etxebarrira bidean. Mikel Txapliren ondoan aurreko eserle-

kuan, Ane eta Jon gibelean, eta atzerago instrumentuak. Txapliren Peugeot zaharrak bazuen denontzako adina leku.

- Bost mila biztanletik beherako herria. Gaztetxea eta eliza eraikuntza berean izango dituen bakarretakoa. Plaza txiki polit bat dauka eta herriko festak uztailean izaten dira. Ezagutzen dut taberna bat oso kostoa pasatzen dutena!

Txapli entziklopedia bat zen batzuetan. Eskola goiz xamar utzi arren, goizegi, furgoneta izan zuen eskola nagusia. Joan-etorriko bidaietan ari-tua merkantzia honekin edo harekin, ez oso legezkoak gehientsuenak, igarotzen zituen herri guztien berri jakitea zuen ohitura. Lehenago ez bazen geroago, geldialditxo bat egingo zuen eta, bazkaria edo beste edozer aitzakiatzat hartuta, herri hartako berriak bilduko zituen: martxako taberna bat, edo kostoa pasatzen zutena, edo putetxea...

- Kostoa aipatu duala-eta... Badugu kostoa ez den beste ezer?

Txaplik gorrarena egin zuen bideari beha. Mikelek begirada lizunari eutsi zion, galdetzen

baino eskatzen. Txaplik irri egin eta sorbaldan kolpe txiki batzuk eman zizkion.

- Nola ez dut izango ba! Manager profesiona-  
la nauk. Nik beti diat nire taldeak behar duena,  
beti!

Mikelek elkarren kontra igurtzi zituen eskuak.

- Munduko speed onena daukat. Laurontzako  
adina eta gehiago!

Ane fiskal edo serora izateko jaioa zen.

- Negozioan hasi haiz berriro? Zenbat dara-  
mak aldean ero horrek?

- Lasai panpina. Dena dago kontrolpean!

Anek, gorputz erdia kabinan, ez zuen isilik  
geratzeko asmorik.

- Ba al dakik gaur egun nola dauden bideak?  
Txakurrez josiak. Konturatzen haiz ze marroi  
izan daitekeen geratzen bagaituzte? Eta kon-  
tztura heltzen ez bagara zer? Komisaldegira  
eramaten bagaituzte?

- Bai, eta gero torturatu egingo gaituzte, eta  
kare bizitara bota. Mesedez.

- Horrelako gauzekin ez duk bromarik egiten!

- Begira, Ane, speeda dagoenean ez zara zu  
azkena izaten sudurtzuloak prestatzen, beraz

hobe zenuke isilik. Begira, Txaplik okindegiko lana galdu egin du, eta gizona ez da oxigeno hutssez bizi, konprenitzen?

- Neuri ere ez zaidan horrela ibiltzea gustatzen, zin egiten dinat. Baina orain langabezia nagon eta dirua behar dinat. Furgoneta ez dinat oraindik ordaindu. Ezin naun aitaxori eta amaxori diru eske ibili, haiek ni baino larriago zebiltzan.

- Hori ere egia duk.

Aneri damutu zitzaion eztabaida piztu izana. Berriz ere bere tokira eseri zen. Peugeot zaharreko kasetean Mikel Laboak kantatzen zuen bolumen gozoan, eta lo-kuluxka botatzea erabaki zuten atzealdekoek. Txapli kañero hutsa zen musika kontuetan, baina Laboa Laboa zen, bere furgonetako soinu bandan ezinbesteko pieza.

- Hi, eta speedaz aparte, besterik? -belarrira xuxurlatu zion Mikelek.

Txaplik ispilutik zaindu zituen atzeko lotiak.

- Koka pixka bat. Nire anaiaren kolega batek pasatu zidak eguerdian. Sagrado Corazónko estatua dantzan jartzeko modukoa ei da.

Izterrean zartada goxo pare bat eman zizkion gidariari, eta errepideko marrei begira jarraitu. Laboa *Oroitzen zaitudanean ama* kantari, paperola kiratsa nabaritzen hasi zenean; *Sukaldean egoten zara...* Renault kontzesionario bat; *Ma-haia bostentzat iminita...* Ibaizabal eskuman eta gasolindegia bat parean, urrunago; *Aulkian eseri eta leihotik begira...* gasolindegia bertan eta etxe ilara zaharkitu bat, karbono monoxidoak goibeldutako fatxadak; *kristala lausotzen duen...* Txaplik eten egin zuen Laboaren ahots sarkorra.

- Hau ez duk hire herria?

- Ez, mesedez. Gure lurrak erreka-aren bestaldean hasten dituk.

- Arrazoi, ahaztua nian.

Matienako semaforoak. Gero Abadiño. *Abadiño San Blasetan...* Herri bakoitzeko esaldi bat edo kantu bat izaten zuen Txaplik. Elorrio: *Txantxibiri, txantxibiri, gabiltzarian...* Elgetako atarian sartzean betiko txistea: «Kontuz mutilak! Eskuak patrikara, Gipuzkoan sartu gara!». Ane erdi lo zihoan eta zirikadak ez zuen hartzailerik topatu.

Halaxe, ordu laurden baten buruan Antzuolan. Furgonetatik tramankuluak ateratzen ari zirela, Jonek eliza-gaztetxeari erreparatu zion.

- Gipuzkoar hauek xelebreak dira gero!

Bilbotar bat Antzuolan. Joni begira geratu ziren Peugeot zaharra husten laguntzen ziharduten antolatzaileak.

- Mundialak!

Gitarra hartu eta gaztetxera sartu zen. Txukuna. Ez oso handia baina egokia, jende asko bildu gabe ere itxura emateko modukoa. Ohol-tza, beraientzat nahikoa eta sobera. Instrumentuak laga orduko hasi zen lehenengo buelta. Txapli komunera, eta minutugarrenera banan-banako deia taldekideei sudurrak nasaitzera. Ane aurrena, noski, Jon eta Mikel ondoren, ordena horretan. Trepetak martxan jarri eta soinu froga labur bat egin zuten segidan. Mikelek maneiatzen zuen ahots ekipo txikia. Jasangarri entzutea lortu bezain laster barrara.

- Zer edango dabe bizkaitzarrek?

- Hi, ni gipuzkoarra nauk, e! -oilartu zen Ane bere taldekideen artean.

- Niri, egixa esan, berdin jata! Gipuzkoan bizi gara baina bizkaieraz eitxen jonau, asikee...

- Birra denontzat eta kito! -Eta Txaplik aha- peka kamareroari:- Niri, whiskitxo bat, Jack Daniels.

Afal aurretik hiru-lau garagardo joan ziren, besterik gabe. Beste hiru-lau kanuto, eta tartean bigarren komunerako buelta, ordena berean beti. Mikelek ez zuen azkena izatearen damurik. Txaplik, besteei ez bezala, koka jartzen zion Euskadiko Kutzako txartel gainean. Afaria gazte-txean bertan egin zuten, asto batzuk eta ola aterata. Oilasko errea, ardoa ugari eta letxuga gutxi. Aneren bueltan pilatu ziren mutilak, eta bateria-jolea inoizko gusturen ari zen bere kosmobisioa azaltzen, berez ere hiztuna izaki, sudurra zikintzen zuenean sekulako jarioa izaten baitzuen. Etengabe hitz egin beharra, bere jakituria hedatu beharra, beti ere modu didaktikoan, entzuten ari direnak bere aldean ikuspegi murrizta dutela suposatuz. Txapli zeremonia-maisu zebilen. Mikel eta Jon, antolatzaileetako batekin gipuzkoar eta bizkaitarren txiste txarrak kontatzen eta barrez lehertzen. Kafe garaian jendetxoa



bildu zen gatzetxean. Zuria Beltzekoen berriketa moteldu zen beldur eszenikoarekin. Txaplik bakarrik eusten zion martxari.

- Laster hasi egin beharko juau!

- Eutsi gazteak! -eusten zion Txaplik whisky botilari-. Azken komunerako buelta egin beharko da oraindik, kakalarri izugarria dago-eta!

Esan eta egin. Ohiko ordenan.

Gatzetxeko bonbillak itzali eta oholtzako argi sastarrak piztu zituzten: gorri bi, urdin bi eta laranja. Mikelek Trace Elliota piztu eta Fenderra hartu zuen lepoan. Jonek Marshala jarri eta gauza bera egin zuen Jacksonarekin. Ordurako Ane prest zegoen bere Pearlean. Ez zen entzule mordoa, baina iluntasunean ikusi zituzten buru batzuk, berrogeita hamarren bat. Kelerrak eta kalimotxoak eskuetan, haxix lurrina airean, eta oihuren bat edo beste.

- Bilbo bilbau!

- Aupa Guggenheim!

- Athleeeetic!

Mikelek baxu lerro bat markatzeari ekin zion, baxu lerro sendoa, obsesiboa. Hainbestetan entseatu bezala, Anek break bat egin eta Jonekin

batera sartu zen lerro orokorra are dentsuago-  
tuz. Mikelek kemenez bortxatu zituen kordelak,  
ageriagotu egin zitzaizkion samako zainak eta  
mikrora hurbildu zen. Kokaina efektua egiten ari  
zen nerbio sisteman. Anek bonboaz eta baseaz  
eraso egin zuenean, zoroan taupadaka hasi zi-  
tzaion bihotza. Boteretsu sentitu zen, ikaragarri  
indartsu, lehertzear.

- Gabon Antzuola!

Lau baxu kolpe.

-Zuria Beltz gara eta Bilbotik gatoz!

Beste lau.

- Popatik futbola! Eta Guggenheimen bonba  
bat jarri dugu hona abiatu orduko!

Anek beste break bat egin eta erritmoa biz-  
kortu zuten.

*Zure soaren*

*Aizto zorrotzak*

*Zatikatzan du*

*Nire bihotza!*

Handik aurrera geldiene barik, atsedetik ez.  
Hura zen Zuria Beltzen kontsigna: atsedetik ez!

Elkarri egindako begiratu pare bat aski ziren abestiak bukatu eta hasteko. Mikelek eztarria urratu zuen kantuan. Jonek gitarra lizun laztandu zuen kontzertu osoan zehar, eta Anek inoiz ez bezala jipoitu zituen bere Pearl kuttuneko partxeak, ostiatu!, Jonek esaten zuen bezala. Ez zioten jendeari behatu ere egin. Gitarra eta baxua anplifikadoreen parean ipiniz txistu jasangaitz bat eginarazten amaitu zuten emanaldia. Anek ia minutuko soloa egin eta txapa kolpe batekin moztu zuen, sikuan. Jendearen artetik txalo bakanak eta oihuak.

- Hori, hori!
- Bilbo bilbau!
- Athleeeeeetic!

Pertsona bakar baten txaloak entzun ziren, Jack Daniels botila bat eskuan.

- Ona! Oso ona!

Gero beste garagardo batzuk, izerdia, kostoa, speeda, komentarioak, txiste txarrak eta abar luzea. Txaplik bere postutxoa zabaldu eta lortu zuen gramotxo batzuk saltzea. Ez nahi beste, baina «Antzuolarako nahiko», argudiatu zuen.

- Hurren arte.

- Baai! Eskerrik asko etortzeagatik!
- Nahi duzuen arte.
- Zeuek deitzen duzuen arte!
- Hitz egingo dugu laster.
- Ongi da!
- Aio.
- Agur.
- Baai!
- Zuzen joan bidean gero!

Azken esaldirako Bergarara bidean zen Peugeot zaharra. Garaipen usaina nabari zen barruan. Denek hitz egin gura zuten, denetan gailen Ane, noski, matrailezurra hara eta hona zebilkiola.

- Ederra izan duk, e? Ikaragarri disfrutatu diat! Bateria-jole bat naizela deskubritu diat gaur! Ez ala?

- Bai, Ane, baai! Egia esan, neuk ere ondo pasatu dut.

Kanuto bat biltzen ari zen Jon, denbora marka berri bat ezartzekotan.

- Ez dakit jendeari gustatu zaion, nik neuk ez dut begirik ia zabaldu ere egin kontzertu osoan.

- Onenak gaituk!

- Hi ere bai, Jack Daniels!

Mikelen ateraldiarekin barre zantzotan leher-tu ziren denak. Ez ziren luzarorako izan hala ere. Bergaratik Elgetarako bidea hartzean, Txibistora heldu orduko, lau zapabost autorekin topo egin zuten bihurgunean, martxa geldoan.

- Kaguendios, txakurrak!

- Kaguenlaputa!

- Marroia galanta!

Anek ez zuen txintik esan. Eskuarte eusten zion buruari atzeko jesarlekuan.

- Esku bat bota behar didazue...

Txapli urduri jartzen ari zen, Armadako Patro-len berde iluna gertuagotu zen neurrian.

- Hartu papela bana. Gainontzekoa neure kontu. Baina ez egidazue marroi dena neuri laga!

Mikelek eta Jonek atoan hartu zituzten pape-lak.

- Hik ere bai, Ane, kaguendios! Ez gaitun orain ostiatan hasiko!

- Eta ze ostia egin behar dut nik horrekin?

- Sartzan heure zuloan! Zer egin nahi dun ba!  
Guk potroetan sartuko ditinagu. Tonto ipintzen ez baditun ez dun ezer gertatuko, lasai.

Aurreko bost autotarik hiruri pasatzen utzi zieten. Bat bide bazterrera bidali zuten eta, bi eta bi lau direna egia dela frogatuz, Txapliren furgoneta ere bide bazterrera...

- Buenas noches, ¿DNIs por favor?

Banan-banan luzatu zizkioten karnetak. Guardia zibilak linternarekin miatu zituen bidai-deen aurpegiak. Txaplik asmatu zuen larrialdiari eusten, baina Zuria Beltzekoen bisaia zurbilegi zeuden gauza onerako.

- ¿De dónde vienen?

- De Anzuola. Somos músicos.

- ¿Músicos? Hagan el favor de bajar de la furgoneta.

Mutu eta burumakur jaitsi ziren laurak. Abian jartzeko baimena emana zioten beraien aurretik geratutako autoari. Zeuden lau Patrolak eurentzat bakarrik ziren. Guardia zibil bi errepidea zaintzen metraileta banarekin, eta gainerakoak Peugeotaren inguruan.

- ¿Ana María Agirre?

- Yo.

- Acompáñeme.

Hiru adiskideak Aneri so geratu ziren. Euren bizitzan lehen aldiz oinez ikusi ahal izan zuten Ikara. Izua. Laborria.

- ¿Quién es el propietario de la furgoneta?

- Yo.

- Descárguela inmediatamente.

- ¿Cómo dice?

- No me ha entendido o no me he explicado lo suficientemente claro...

- Perfectamente.

Txaplik traste guztiak atera zituen guardia zibilek linternarekin barrua miatu bitartean. Mikel eta Jon bazter batean zeuden, guardia zibil batek zaindurik, Cetme berri batekin. Erabili gabea zirudien, distiratsua. Mikeli pasa zitzaion burutik ez lukeela mereziko halako arma distiratsua bol-bora arrastoz zikintzea.

- O sea que músicos...

Ez zen Jon eta Mikel baino nagusiagoa. Oso gazte izatearen traza zuen, ile motx-motxa eta txapela berdea okerretara etzana.

- ¿Y ustedes también cantan eso de ijota-que!?

Atoan erantzun zuen Jonek:

- No, nosotros no. No les damos importancia a las letras, lo que nos interesa es la música.

- ¡Ah sí eh! ¿Y esa camiseta que lleva?

Azalaren azkenengo mintza bihurtua zuen gestoretako kamiseta zeraman soinean. Orduan damutu zen Aneri kasurik egin ez izanaz.

- Es que he sudado a chorros en la actuación y ésta me la han dado en Antzuola.

Mikelek barrabilak esofagoan dantzatu beza-laxe sortu zitzaion barregura. Benetan bikaina zen Txapliren koka, eta momentu hartan ere, beldurra sentitzen zuelarik ere, barregura zetorkion. Eztul faltsu batez amatatu zuen umorea.

Hartan zirela, Ane itzuli zen burumakur, zuri-zuri eginda.

- ¡Ya pueden marchar! Buen viaje.

- Muchas gracias ¡Que les sea leve la noche!

- ¿Cómo dice?

- Nada, nada... muy buenas noches.

- Astiro, baina goazak hemendik atoan, Txapli!



Ane bere onera etorri gabe zegoen.

- Hago lasai. Pasa dun.

- Bai, eskerrak.

- Zer galdetu dizute?

Jakinminez zegoen Jon. Ez zuen ulertzen zelan lauren artetik Ane aukeratu zuten.

- Ezer ez, famili kontuak. Gauza batzuk ezin izango ditiat sekula gainetik kendu.

Bere baitara murgildu zen, eta Jon eta Mikeli harridura keinu bana marraztu zitzaien muturrean.

Elgetan gora berriketarik ez. Txaplik Laboaren kasetari sakatu zion. Mikel, ezaguna zuen parajeari so. Jon, hankak Mikelen aulkiburuan dardarka, gestoretako kamiseta madarikatzen. Ane... barre txiki arraroak egiten.

- Ja jai!

- ...

- Ja, ja jai...! Jai!

- ...!!!

- Ja, ja, ja jaaaai!

- ...???

- Eneeee!

- Zer dun Ane?

- Zera... ummm! Uste diat...

- Uste diat nik emandako koka papelatxoa apurtu egin zaiola hankartean, horixe uste diat nik!

Azkar konturatu zen Txapli.

- Mikelek esan ez du ba... aaai!... hortxe sar-tzeko?

Papelatxoa atera zuen praka barrutatik. Ez zegoen lehertuta, gaitzerdi, baina izan bazuen halako ihesbidetxo bat. Txapliren eskuetara itzuli ziren papalak, eta sudur aurretik pasa zituen jakanarruan patrikaratu aurretik.

- Hau da hau perfumea papela hauena! Hirea behintzat, Ane, goxoagoa dun! Prezio doblean saldu beharko dinat!

- Hago isilik, aaai!, kabroi halakoa!

Alaitu zen giroa. *Lili bat* kantatzen zuen Laboak. Atzealdean Anek irribarrea zuen ezpainetan, orotan. Goxo-go xo zihoan eta furgonetaren motor errepikak areagotu egiten zion istripu txiki hark sortutako sentsazio ederra. Alboan Jonek ez zion begirik kentzen. Aurrekoek ez entzuteko moduan esan zion:

- Aizu, oso bero zaude?

- Zer esan nahi duk, nazkagarri alaena!

- Ezer ez, neska. Ezer ez. Esan nahi nizun, ba zera... oso bero bazaude... ba zera... ezer ez!

Seiak jota ziren Bilbora heldu zirenerako.

Dionisos pelikula bat ikusten harrapatu zuen, Pennacen liburu berri bat mahai gainean zabalik, Ducados mordo bat hautsontzian, ardo botila hustu bat eta bestea erdi betea.

- Gabon, zaparro. Ondo joan dok estreinaldia?

- Mundial! Baina aspirina bat hartu behar dut oheratu baino lehen, biharko ajea baretuko badut...

Azido azetil salizilikoa. Lorpen bikaina hogei-garren mendeko zientziarentzat, bai horixe! Tira, zientziarentzat auskalo, baina badaezpadako lorpena bederen Mikelen ganbarako trumoiak uxatzeko.

- Horrek arinduko ete jok hire gaindosiaren buruko mina? Edan egik ardo pixka bat, on egingo deue!

- Ez dut uste, baina eskerrik asko -esku biek-kin buruari eusten zion, aspirina ur hotzetan noiz desegingo zain-. Nahi duzuna esango duzu,

baina hauxe da behar dudana, aspirina! Edozer-  
tarako erremedio moduan ematen zidan amak.  
Buruko mina: aspirina. Belarriko mina: aspirina.  
Petroetan azkura: bi aspirina.

- Gure amak zaplateko batekin kentzen jeus-  
kun petroetako azkura!

Western bat ikusten ziharduen, eta bide  
batez grabatzen; antzinakoa, dialogo asko eta  
efektu espezialik batere ez. Biharamunean efek-  
tu espezialagoa egingo zion milaka zulotxotan  
desegiten ari zen pastillak.

- John Ford gustatzen jak?

- Beno...

- Bai ala ez.

- Apur bat bai.

- Ez daukok putaidearik, Mikel!... Hoa lotara.

Arropak erantzi gabe erori zen ohean, milaka  
zulotxotan desegindako aspirina hartzea ahaztu-  
ta.

- Ez daukok putaidearik...

Egun bitxia da astelehena. Zereginik ez dauka-tenentzat batik bat. Asteburuko lapsusaren ondoren, mundua martxan jartzen da eta dena itzultzen ordenara. Zereginik, ohiko zeregin laboralik, ez daukanarentzat egun ederrenetako bat izan liteke. Asteburuan zeregindunekin zeregingabe egon ondoren, astelehenetan zeregindunak bere zereginetara itzultzen dira, eta zereginik ez daukatenak bakarrik geratzen dira, bapo, ohearen epeletik zeregindunen munduak nola funtzionatzen duen imajinatzen.

Halakoxe astelehen bat behar zuen astelehen hark Mikelentzat, Dionisosek atea jo izan ez balu. Tok-tok (konbentzionalismo bat).

- Mikel? Itzarrik hago?

- Ummm.

- Mikel!

- Ze... ze ostia! Ze ordu da ba!

- Zortzi t'erdiak.

- Eta zertarako iratzartzen nauzu zortzi t'erdietan, jakin badaiteke?

Dionisosek logelako argia piztu zuen. Eskuan zeramatzan karpetak ohe gainean utzi eta Mikelek pijama gisa erabiltzen zuen nikiaren kolkotik heldu zion.

- Jakin-badaiteke-jakin-badaiteke... Hik ze ostia pentsatzen dok? Hire maiordomoa nazela?

- Baina...

- Ez zagok bainarik. Hire lehengusu batek edo ez dakit zer batek deitu dik zortzietan. Bihar-ko artikulu bat eraman behar ei diok.

- Artikulua!

Neurona gehienak esnatzeke zeuzkan arren, pare batek alarma jo zioten.

- Ostia, egia!

- Barkatzen al dit orain berorrek orduotan esnatu izana? Gaur lanera joan behar dok, dirua irabazi... zorrak ordaintzeko -ezker begiaz keinu maliziosa egin zion-. Gero arte.

Zeharo ahaztua zuen artikuluaaren kontua. Azkar gogoratu zen lehengusuaz: «Txerri pertza nazkagarri entxufatua!». Otxarkoagara joan behar zuen Auzo Elkarte baten inguruko erreportaia egitera, lehengusuaren auzo astekari hi-

guingarri, atzerakoi hartarako. Baina Abadiñoko ingelesek esaten duten bezala: Moni is moni!

Garaiz zebilen hala ere. Pertsianak jaso zituen. Egun argia sasoirako. Mikel ez zen egunerderzalea, baina udazkeneko goiz argi batek edonoren bihotza hunki lezake. Edo ez? Eguna ondo hasteko, komunera abiatu zen lehendabizi. Zakilari nabari zitzaion bera baino ordu laurden lehenago esnatua zela, haragitsu eta zut zegoen, sa-soiko.

- Benga hi! Lasaitu adi pixka bat, bestela angelu elkarzutean jarri beharko diat komunzuloan aparatzeko!

Jakina da mutil gehienek eguneko lehen hitzak zakilari egiten dizkiotela. Astinalditxoaren zipriztinez zikindutako eskuak garbitu eta bisita azkar bat egin zion ispiluari. Goizetan ispiluari begiratu bat botatzeko ohitura zeukan, ez bertan islatzen zen irudiari; gustagarriagoa zitzaion erantzuna. Ondoren sukaldera joan eta bere tresna magikoa jartzen zuen martxan: italiana. Mikelek beti pentsatu izan zuen, egunen batean egunkarietako elkarrizketa ergel horietako batean irla bakarti batera zer eramango zukeen

galdetuko baliote «italiana!» erantzungo zukeela. Hainbeste urtetan egindako galdera hark behingoagatik erantzun desberdin bat izango luke, eta norena eta Mikelena!

Italiana: kaferik goxoena egiten duen gailua, taberna guztietako espres guztiak batera baino hobea. Diseinu paregabeko tresna hura, italiana. Sofia Lorenen gerria duen aparailu maitagarria, lirismoz betea, bero-bero jarritz gero zulotxotik likidotxoa isurtzen duena... Pentsamendu sasipotetikoak zerabiltzan dutexapean. Dutxa ere egundoko askakaria baitzen Mikelentzat, umetan bainatzea gorroto izan zuen ume handi harentzat.

49 autobusak, Simago parean hartuz gero, Otxarkoagaraino eramango zaitu. Zabalbide igo, Santutxu, Txurdinaga eta ondoren Otxarkoaga. Ez da bidaia luzea ezta laburra ere. Kontuan hartuta tartean hamasei bat geldialdi egiten ditue-la, eta Bilbo benetako hiri handi bat dela, eta ez gure inguruan dantzan dabilen hiritxo horien modukoa.

Egunkariari gainbegiratua botatzeko adina denbora eman zion bidaiak. Badakizue, astele-



henetako egunkaria kirolek betetzen dute ehu-neko laurogeita hamarra, eta Mikel ez zen zehazki kirolzale amorratua. Dena den, orrialde haiek ere begiratu zituen: Athleticek galdu egin zuen eta Realak irabazi. «Patetikoa!» esango zukeen Dionisosek. Aldean Dionisosi berari hartutako Yashica bat zeraman, astekari madarikatu hartan erredaktore eta argazkilari lanak, biak batera egin beharra baitzeukan. Jakanarruko patrikan, grabagailua.

Otxarkoaga auzune pobre bat da eta kito! Ez dut literatura merkerik egin gura ez hango arkiteturaz ez ijitoen janzkeraz. Otxarkoaga auzune txiro bat da, non batzuk ez diren hain pobreak eta beste batzuk oso pobreak diren. Aberats gutxi behintzat bertan bizitzen.

Mikel lotsatu egin zen apur bat. Hainbeste urte Bilbon eta ez zuen Otxarkoaga ezagutzen. Noraezean ibili zen denboratxo batean, bueltak, eta azkenean aurkitu zuen Auzo Elkarteko kidea. Gainerakoa bere lehengusuaren astekari-  
ra bidalitako artikuluxkan irakur dezakezu laburbilduta. Elkarriketa sinple bat: polizia gehiagoren premia, delinkuentzia, droga, Udalaren aur-

kako hitzen bat edo beste (ondo neurtua), eta ezer gutxi gehiago. Argazki baldar bi: Elkarteko kidea Elkartearen egoitzaren aurrean bata, kallean jolasten ari ziren ijito birena bestea. Kaka-puta bat, alegia.

Auzokideekin ardo ozpindu bat edan eta autobusera abiatu zen. Hamar bat minutu eman zituen 49aren zain. Tiketa hartzean txoferrari garraibide publikoen prezioaz espitx bat botatzekoan egon zen, baina bertan behera utzi zuen haren muturbaltza ikusitakoan. Txurdinagatik Santutxura bidean sirenotsak, Ertzaintza eta Polizia Nazionalarenak. Santutxurako sarrera moz-tuta. Aurreraxeago beste polizi lerro bat, eta kazetari eta kamera pila bat. Autobusak derrigorrezko geldialdia egin zuenez, hantxe jaitsi zen. Kaputxa eta guzti zegoen ertzain batek ezin zela aurrera pasatu adierazi zion zakarki. Mikelek lehengusuaren astekari nazkagarriko kazetari txartela erakutsi zion arinki. Eta ertzainak pasatzeko keinua egin zion. Beste edozein egoeratan lotsa emango lioke karnet hura erakustek, baina bazekien polizien aurrean, batez ere polizia tontoen aurrean, inposatu egiten zuela. Na-

zionalak osatzen zuten hurrengo kordoi lerroa. Tartean kazetari eta kamerak, telebistetakoak zein prentsa eta irratietakoak. Aspaldiko ezagun bat bistaratu zuen haien artean. Lepoko batez agurtu zuen kamera eta kableak osatzen zuten amaraunaren erdian.

- Koño, Mikel!

- Aupa, Aitor!

Mikel baino txikixeagoa zen. Beltzarana eta betaurreko moderno biribilekikoa. Bloka eta grabagailua eskuan, bazirudien poztu egin zela Mikel ikusteaz. Klasekide izanak ziren biak.

- Ez zenuen esaten ez zenuela sekula kazetaritzan jardungo?

Marlboro bat eskaini zion. Onartu egin zion, jakina.

- Ez pentsa gehiegi jarduten dudanik. Artikulutxo bat egiten ari naiz astekari ganorabako barentzat. Badakizu, sosa SOS!

- Orduan zer egiten duzu hemen?

- Otxarkoagatik nentorren, elkarriketatxo bat egitetik.

Auto bat txiki-txiki zegoen kale barrenean. Etxeetako leihoetako kristalak hautsita. Polizia

mordo bat hara eta hona. Anbulantziak ere bai, eszenari kolorea emanaz.

- Ze ostia pasatu da?

- Atentatua. Duela ordu erdi eskas. Autopean lapa bat jarri diote. Polizia nazionala zen... No-rentzat esan didazu ari zarela lanean?

- Auzo aldizkari batentzat. Eta zu?

- *El Mundo*.

- A...! Del País Vasco?

- Kabroia! Hartuko dugu tragotxo bat? Nik badut oraindik denbora baterako hemen.

- Zeuk gonbidatzen banauzu, kazetari jauna!

- Goazen.

Morroi jatorra zen. Estimutzen zuen nolabait. Bazekien trepa samarra zela, beno ez trepa samarra, trepa soilik, baina beti izan zuten harreman ona. Ikasle garaian apunteak pasatzen zizkion. Dena den, kafetegiko ordu hiletan solaskide izaten ere ikasi izan zuen Aitorrek. Ez zen gutxi. Gerora, ez zuen batere harritu egunkari handi bateko kazetari egina ikusteak. Aurreiritzi gabeko tipoa izan zen beti, hobeto esateko, iritzi finko bakoa. Fededuna izan arren, deabrua ere zerbitzatuko zukeen kazetari lan on bat eskainiz

gero. Kazetari lan ona diodanean, soldataz ari naiz, noski.

«Hurrengora arte!». Biek ala biek bazekiten hurrengo hori zein etzi zein bost urte barru izan zitekeela. Mikelek beltz berezia eta patata tortilla pintxo behintzat atera zizkion, eta beste tenple batean zihoan. Eskaileretatik Iturribidera jaitsi eta handik Somerara. Etxera igo baino lehen beste ardo bat edan zuen pareko tabernan.

- Ze, Mikel? Herrera joan haz asteburuan?

- Zer?

Artean txikitutako autoaren irudia zeukan buruan.

- Ez haut hemendik ikusi asteburuan.

Zerbitzaria zen, Manuel, Dionisosen laguna. Basoak uretan igurtzi bitartean ari zitzaion hizketan.

- Etxean egon naiz...

- Etxagok txarto! Hi be mantsotzen hasi hazen seinale.

- Mantsotu? Ez, mantsotu ez, nire trumoiarekin bilduta egon naiz.

- Norekin?

- Inorekin ez, Manuel. Zenbat da?

- Itxi egik itxi, gazte! Ardoa edaten hasi hai-  
zela konturatu nok, eta hau neuk ordainduko  
deuat. Ohitura onak hartzen hasi haz, Anton lan-  
txe.

- Baina...

- Hoa!

Aurretiaz aipaturiko artikulutxoa idatzi zuen  
Dionisosen ordenadorean. Argazki dendara jaitsi  
behar izan zuen karretea uzteko. Bide batez  
ogia, espageti batzuk eta tomate frijitua erosi zi-  
tuen. Ura irakiten jarri eta pasta egosten ipini  
zuen. Bezperako ardo botilaren azken arrastoak  
edalontzi batean hustuta joan zen egongelara.  
Goizeko atentatuari buruz ari ziren telebistan.  
Hurrup txiki baina luzetan edan zuen ardoa. Zi-  
garroa piztean ohartu zen nekatuta zegoela.  
«Mikel ez zaik komeni horren goiz jaikitzea, ez  
dik onik egiten!» pentsatu zuen. Loak hartu zuen  
sofan, atentatuko irudiei begira. Buruan ere irudi  
hura zebilkion jira eta buelta. Ez zuen behin ere  
atentatu baten hondakinik berta-bertatik ikusi.  
Leihoetako kristalak birrinduta, poliziak eta an-  
bulantziak elkarri bultzaka, kazetarien indiferen-  
tzia, erre usaina... Erre usaina! Sukaldetik zeto-

rren. Sutan zen perolatxoan kolore beltz eta marroixkak hartu zituzten espagetiek. Apenas zuten urik. Mikel arrapalada batean joan zen sukaldera, zereginik ez zuela jakinaren gainean. Nola-hala espagetien arrastoak lapikotik kentzen saiatu zen, handienak, eta ondoren ur berotan eta xaboiarekin beratzen utzi. Mahai gainean zeukan tomate frijitu potea. Hozkailutik arrautza pareata atera, frijitu eta haiei bota zien.

Lauretarako lehengusuaren bulegoan zegoen. Luis Alberdi artikulutxoak irakurtzen. Haren traje merkea, haren ile likatua, dena okaztagarria. Aurreko balkoian bere begientzat atsedengozo bat bilatzen saiatu zen, baina deus ez.

- Arratsaldeetan ez da etxean egoten.

- Zer?

- Balkoiko emakumea ez dela arratsaldeetan egoten.

- A...

Artikulua irakurtzen amaitu zuen. Zutitu egin zen. Marlboro paketea atera zuen kaxoi batetik. Mikeli eskaini zion bat. Hartu egin zion, noski.

- Ondo, Mikel. Oso ondo! Benetan ondo harrapatu duzu gure astekariaren filosofia. Pozten

naiz. Begira, Mikel, ez da zuregan konfiantzarik ez nuelako, baina kazetari berriok beti zerbait gehiago esan nahian ateratzen zarete unibertsi-tatetik, eta hori ez da kaleko jendeak behar duen kazetaritza. Hauxe da jende xehearentzako ka-zetaritza, zuk egin duzun artikulutxo hau!

Mikelen erreportaia hartu zuen eskuartean.

- Jende xeheak hitz egiten du gure asteka-  
rian, jende xeheak hitz egin jende xeheak irakur  
dezan. Baina... batez ere gauza xeheak esanez,  
Mikel, gauza xeheak.

- Bai, Luis.

Bururatu zitzaizkion bi hitz bakarrak ziren ho-  
riek.

- Jende xeheri ez zaizkio axola notizia han-  
diak, ulertzen? Ekonomia! Politika! Gizartea! Ze  
ostia axola dio horrek jende xeheri, Mikel?  
Esan!

- Ez dakit ba...

- Ezer ez, Mikel, ezer ez. Zertarako hitz egin-  
go diegu gure irakurleei gaurko atentatuaz? Zer  
esan behar diegu, egia? Beren herriko ero ba-  
tzuek ez dutela bakerik izango polizia, epaile eta  
politikari guztiak akabatu arte? Hori esan behar



diegu? Ez! Guk esan behar diegu mundua be-  
raiek bezalako jende ezdeusez gainezka dagoe-  
la. Munduan gehiengoa direla kontu horiez ardu-  
ratzen ez direnak. Ulertzen?

- Bai.

- Zurea bezalako artikulu xumeen azpian  
doan publizitatea ikusarazi behar diegu, hori da  
gure helburua. Azken batean horri esker bizi  
gara. Understand?

- Bai, Luis.

Artaburu nardagarri hark kazetaritza popula-  
rrari buruzko lezio bat eman berri zion. Unibertsia-  
tateko bost urtetan ikasi zuen guztia baino  
gehiago irakatsi ziola uste zuen Luis Alberdik,  
bere aitaren lehengusuaren seme babu hark. Eta  
gainera amaierako «understand?» hori! Sasiyup-  
pi guztiek hain gogoko dituzten forma anglo ho-  
rietako bat.

- Hurrengo asterako egidazu honen antzeko  
bat. San Frantziskoko jendearekin... adibidez.

- Ondo da. Orain joan beharra daukat.

- Datorren astera arte. Zuk segi horrela. Nire  
ondoan kazetari handia izango zara egunen ba-  
tean.

Esaldi erdirako atea itxia zuen Mikelek, eta korridorean barrena zihoan. Luisen bulegoko atea zabaldu zen bat-ba tean.

- Mikel!

- Bai, Luis?

- Argazkiak... oso onak!

Eraikin hartatik ahalik eta lasterren alde egi-ten saiatu zen. Beldur zen etxe hartan denbora gehiegi eginez gero ez ote zitzaion lehengusua- ren gaixotasuna itsatsiko, erran nahi baita, sub- normalidadea. Zigarreta bat sutu zuen kalean. Zen-orduko eguna ez zitzaion hain ederra irudi- tu. Arratsa erortzeke, eguzkia ahul mantentzen zen mendebaldean. Eguna ondo hasi arren gaiz- ki amai daitekeela frogatu zuen. Murphyren le- geak legeetan legea izaten jarraitzen zuen oro- ren gainetik. Cantalojas zubia igarotzerako ho- beto sentitzen hasi zen, lehengusuarengandik zenbat eta urrunago orduan eta hobeto.

San Frantzisko kalean andanan zebilen jende multikolorea, espaloietan gora eta behera. «Jende xehea!» esango luke Alberdi txatxuak.

Etxera bidean harategian sartu zen, oilasko paparrak eta piper lata bat erostera. Erantzun-

gailuan Aneren deia: «Bihar lauretan betiko lekuan. Proposamen bat diat. Zuria Beltz berehala duk ezagun. Stop. Bihar arte». Anek bazuen erantzungailuko mezuak telegrafiatzeko ohitura kuriooa, bere nobelarik maiteeneko pertsonaia batek egiten omen zuena; eta berak literatura-ren diktadurari jarraiki, gustuko zuen pertsonaia bakoitzarengandik zerbait gordetzen zuen bereztat. Anerengan pertsonaia ugarik egiten zuten topo. Askotan zail zen jakiten non hasten zen Ane eta non bere pertsonaiak.

Sukaldeko erlojuan seiak puntuan. Irratian atentatuaren berri ematen ari ziren, telebistan arratsaldeko programa jasanezinak, eta kolean arratsa gaueko soinekoa janzten. Testuinguruaren baldintzak aztertu ondoren, kanuto bat erretzeko ordurik egokiena zela erabaki zuen. Dionisos ez zen zortzi t'erdiak arte etxeratuko. Ordu pare bat beretzat bakarrik. Logelako gau mahaian aurkitu zuen harritxo bat, arazo etikoak planteatzen dizkizun koxkor horietako bat. Kanuto batean biltzeko gehitxo eta bi ateratzeko gutxitxo. Nola ez, lehenengo aukeraren aldeko hautua egin zuen: Camel eta erdi nahastu eta

tronpeta bat egin. Bob Marley defuntuak sinatu-ko zituzkeen halakoak, marihuanarentzako ongarri organikoa baino gehiago balitz, hots, zerraldo ez balego.

Ilunkerako argi lausoak etxeari halako bake sentrazioa eragiten zion. Airean kea eta zelula zenbait erretzen ziren oxigenoarekin bat egi-tean. Begigainak astundu egin zitzaizkion, ziko-motrizitate sistema erlaxatu. Gorputzaren gaindi-buruak autonomia eskatu zuen. Ez zen independentzia eskatzera ausartu. Gorputz adarrak ere moderatu egin dira urteotan, gauza gehienak bezala. Mikelek ezagutzen zuen sentrazio hura, eta bazekien egoera hartan egin zezakeen probetxuzko gauza bakarra kantu bat idaztea zela. Egin izan zuen inoiz, espero gabeko emaitzak lortuz gainera. Nahiz eta taldearen abestien letra gehienak Anerenak izan, baziren gutxi batzuk Mikelenak ere. Beste hainbat gau mahaiko kaxoian pilatuta zeuden, edo Bilboko zaborte-gi nagusian, bere zabor poltsa propiotik iragan os-tean.

Kanuto eder bat erre ondoren, gorputzak beti ere zigarreta bat eskatzen zion. Papera eta boli-

grafoa hartu eta Camela iziotu zuen sukaldeko mahaian. Maite zuen txoko hura idazteko. Idazle gehienek beren txoko berezia izaten dute idazteko. Zenbaitek logelan idazten dute, beste batzuek horretarako bereziki prestatutako gelan legezko Mc eta guzti, eta gutxi batzuk Finlandiaraino joaten dira han gaua eternala delako eta eguna amaigabea.

Mikelen burutik irudiak bata bestearen atzetik igarotzen ziren: auto bat txiki-txiki eginda, Luis lehengusua, Otxarkoagako auzo elkarteko lehendakaria, San Frantziskoko jende multikolora, Aitor kazetari alpinista, Dionisosen ardoak, espageti erreak.

*Gaur saldu egin naiz,  
amiñi bat baino ez bada ere  
saldu egin naiz.  
Eta ez dut pentsatzen  
nire lanaren plusbalian  
baizik eta nigan  
eta nire nagusiaren heriotzan.  
Sandalozko kandelak piztuta  
haren gorpuaren bueltan,*

*lehergai usaina zerion  
auto hura bezala,  
geldi, inorako ez  
halantxe nahi nuke ikusi  
ene nagusia.*

*Iraultza Industrialeko su-emaile  
izan nahi nuke,  
baina ez dut irakurri Marx,  
ez Bakunin  
ez Vladimir Ilitx.*

*Eta horregatik gaur...*

*Saldu egin naiz  
amiñi bat gehiago ez bada ere,  
saldu egin naiz.*

Giltza hotsa sarrailan. Mikel afaria prestatzen sukaldean. Irratian eguneko berrien bilduma. Zartaginean oilasko paparrak eguzki-lore oliotan erretzen. Kanuto kargatuegi baten apatia gaine-tik kentzeko terapia ona izan ohi zen sukaldean zerbaitetan hastera.

- Patetikoa! Patetikoa!!!
- Zer diozu?
- Patetikoa, Mikel!

Dionisosek burua erakutsi zuen sukaldeko atean.

- Patetikoa dela!
- Zer da baina horren patetikoa?
- Dana! Guztia!
- Den-dena?

Dionisos bere gelan sartu zen. Kaleko arropak kendu eta txandal galtzak eta puntuzko jertse zahar bat jantzi zituen. Oinetan etxeko zapa-tilla koadrodunak. Sukaldean zen bi minuturen buruan, etiketarik gabeko botila ardoa eskuan.

- Funtzionario putaseme honeek!
- Oraindik ere horrekin zabilta!

Piperrak zartaginean berotzen ari ziren.

- Gaur Jaurilaritzako delegatuekin berbetan egon gozak... tira, berba egiten ez, eztabaidan.

- Zure lagun horrekin?
- Nire lagun ohi horrekin.

Dionisosek eskua jaso eta edalontziarekin batera «alto!» seinalea egin zuen.

- Putaseme hori eta ni aspaldi banandu gintzuazen. Akaso ez orain hainbeste urte, baina aspaldi.

- Eta?

- Patetikoa, Mikel, patetikoa!

Bigarrenez bete zuen edalontzia.

- Hi gazteegia hintzen garai hareetan, baina entzutekoak zituan babu horrek botatzen joazen sermoiak! Klase borroka, burgesen esplotazioa, kolonizazioa... Egundoko sermoiak!

Hirugarrenez bete zuen.

- Eta orain? Orain zer? Eusko Jaurlaritzako kapar parasito bat gehiago. Euskalduntze planak atzeratzen eta euskera kontuetan dagozen diru apurrekin merkezurrean! Patetikoa, Mikel, patetikoa!

- Norbere burua behin salduz gero... betirako saltzen da, Dionisos!

Mahaian jarri zituen oilasko papar eta piper platerak.

- Zer ete dakik hik!

Dionisosek Mikelen edalontzia bete zuen eta mahaira eseri.

- Uste dut gaur eman dudala lehenengo pausoa.

- Gaur? Zer ba?



- Ez dakit... Nazkagarria iruditzen zait nire lehengusua eta beretzat lanean ari naiz. Uste dut horregatik dela.

Mikelek petxuga zati txikitan ebakitzen zuen, hozteko.

- Hori ez dok egiten!

- Badakit, baina diru beharrean nago eta...

- Ez najabik horretaz. Petxuga holan umee txikitzen jabek. Janariari ezin jako horrelakorik egin behin adin batera helduz gero!

- Uste nuen nire lanari buruz ari zinela.

- Petxugari buruz ari nintzuan. Hire lanarena ez dok hainbestekoa.

Bien edalontziak bete zituen berriz.

- Bizio bat da.

- Lanarena?

- Ez, petxugarena.

- A! Koño!

- ...

- Putaseme hori ezagutu izan bahu bere garaian...

- Nire lehengusua?

- Ez, joder! Orain Jauralaritzan dagoen hori.

Dionisosek sardexka eta aiztoa estu helduta zituen esku banatan, ukabilaz. Hamaseigarrenez mastekatzen ari zen petxuga zatia.

- Nola aldatzen diren gauzak kamarada!
- Zer?
- Ezer ez, kantu bat da, Hertzainakena.
- Hertzainak?
- Bai.
- Horreek banatu egin zuazen ezta?
- Duela urte batzuk.
- Txinoak zuazen, ala?
- Troskoak.
- A, koño!

Geroxeago, transparentzia berde bat baino ez zen ardo botila. Platerak harraskan utzi eta egongelara abiatu ziren. Zain zeukaten gauero-ko informatiboa.

- Egingo dok kafea, Mikel?
- Holan eskatuz gero...
- Jakin dok atentatuarena?
- Ikusi egin dut, berta-bertatik.
- Ikusi egin duala?
- Santutxutik pasatu naiz goizean, eztanda eta hoge minutura edo.

- ...
- Esnerik?
- Ez.

Telebistan Barne sailburua berbetan. Atentatuaren tokian hartutako irudiak. Ezagunak Mike-lentzat. Auto purruskatua, leihoetako kristalak lurrean, poliziak, anbulantziak... Aitor ikusi zuen Barne sailburuaren aho zabalera mikroak eta grabagailuak luzatzen zituzten kazetarien artean. Zabor poltsen bueltan katu ñabarrak elkartu ohi diren gisan biltzen ziren kazetariak Barne sailburuaren berbak jasotzeko. Aitorrek luzatzen zuen gehien eskua, *El Mundoren* grabagailua mundu osoaren bistan.

- Tipo hori ziniko bat da.
- Halaxe da, bai.

Pertsonaia ezberdin bati buruz ari ziren, baina biek bat egin zuten sentimenduan eta arrazoiketan.

- Ostia! Kafea!

Izan zen bientzako lain. Sofan eseri eta manta gainetik botata telebistari so geratu ziren, anai-arrebak egoten diren gisa berean. Dioniso-sek kafea bukatu eta berriz ere botila ardoa ire-

kita zeukan aldamenean. Kafea edandako katilu beretik edaten zuen trago luzetan. Bost minutu-ro pizten zuen Ducadosa. Mikelek Camelak. Ez zuen ardorik edateko gogorik.

- *Maltako Belatza* jarten jabek gaur. Garci hori subnormala dok, baina pelikula onak botaten jozak, bai horixe!

- Dashiell Hammet.

- Zer?

- Dashiell Hammeten nobela bat dela *Malta-ko Belatza*.

- Koño, Mikel! Pozten nok! Ezagutzen dok?

- Zer uste duzu, zuk bakarrik irakurtzen dituzula liburuak, ala?

- Alto zaparro!

Dionisos nobela beltzaren oso zalea zen, baina ordura artean ez zekien Mikelek ere zale-tasun bera zuenik.

- Sam Spade ikertzaile pribatua. Filmean, Humphrey Bogart.

- Onartzen joat gutxietsi haudala.

- Ixo! Hastera doa-eta.

Martitzena. Goizeko hamarrak. Kanpai hotsa San Antongo elizan. Goiz ederra deitzen zaion horietako bat logelako leihotik sartzen ari zena. Itzartu bezain laster egin beharreko lehen lana baitzuen Mikelek pertsiana jasotzearena, egunari bere intentzioak ikusteko, oharkabean harrapa ez zezan. Somera kalean etengabea zen harat-honata. Erosketez beteriko poltsekin, emakumeek bost minutuko berriketaldiak egiten zituzten bost metrotik behin. Udaleko langileak hamaikagarrenez, amaigaberrenez, estolderia konpontzen ari ziren. Behin eta berriroko lana, astean behingoa behintzat. Kaleko biztanleen artean bazen susmoa udal langileak Jaunak tabernara pintxoak jatearren etortzen ote ziren. Izan ere astero egiten zuten bisita, martitzenetan gehienetan. «Eguaztenetan Mazarredora joango dira, eguenetan Ledesmara eta barikuetan Pozasera, behin eta barriro izorratzen diren estolden aitzakian txikito batzuk jotzeko. Gora Udaleko brigadilla!». ».

Leioha parez pare zabalik utzi zuen Mikelek. Ondoren betiko erritoak: komunera bueltatxoa, astinaldi xumea, italianarekin enkontrua, dutxa beroa eta, etxean kafearen usain goxoa barreiatua ordurako, egunkaria eta ogia sukaldeko mahai gainean. Dionisosek maiz izaten zuen Mikelek hainbeste estimatzen zuen detailea. Gustuko zuen Dionisosek eguneko ogi eta egunkariarekin etxean gosaltzea, irratia piztuta. Esan beharrik ez dago Dionisosen ohitura hura asko gustatzen zitzaiola Mikeli. Inoiz pentsatu izan zuen bere barne bizitzan Dionisosek amaren rola ordezkatzeko zuela. Erran nahi baita, gizakiek ama naturalaren ondotik alde egin eta gero ere, ama sinboliko baten babesa behar izaten dutela, eta aurkitzen dutela ordezkoa. Alegiazko ama horrek eite ezberdinak hartzen ditu: askori irakaslea bihurtzen zaie ama, beste zenbaiti auzoko komiteko burua, hainbati neskalaguna (maitala eta ama rola, biak batera egitera behartua); eta kopuru txikiagoan, amaren figura ordezkari dezake: txakurrak, ardoak, Ertzaintzak, etxeak berak, edo baita argazki larri batek ere. Zergatik ez?

Ogi egin berriarekin, kafesnea. Bezperan hainbat biderrez buruan erabilitako atentatuaren irudia zekarren egunkariak. Memoriaren disko gogorrean artxibaturik eta asimilaturik zuen irudi hura. Barneko orrialdeetara salto egin zuen azkar. Paperean ez zitzaion horren bortitza irudit. Egia esan, ez zitzaion batere bortitza irudit. Ez zen egunero edozein egunkaritan argitaratzen ziren argazkiak baino bortitzagoa bederen. Ogi berria, opil bat bezain xamurra, kafesnez goraino betetzen zen bustialdi bakoitzean. Erdia jan zuen kafesnearekin egunkaria irakurri bitartean. Zigarreta iziotu zuenerako, filmen orrialdea ikuskatzen ziharduen: «Ezer ganorazkorik ez!».

Gorputzaren alderdi fisikoak bere diktadura inposatzen du. Goizeko lehen upakadaren keak erabateko eragina izan dezake azalez eta hezurrez estaliriko barrunbeetan. Mikelek mugimendu bereziak sumatu zituen bizkarrezurrak eta ipurgainak bat egiten duten toki geografikoan. Ondoren mugimenduok beherago jo zuten uzkiaren uzkurdura probokatuz. Alarmatzat interpretatu zuen, eta zigarreta iziotu berria hautson-

tzian lagata abiatu zen komunera, uzkurdurak behartutako ibilera xeblez. Karrajoaren erdi parean zegoenean gogoratu zen halako uneetan ezinbestekoa den egunkariaz. Ezinezkoa atzera egitea, bide luzeegia joan-etorrikoa. Izterrak elkarren kontra helduta sartu zen komunera eta, edozein erregek ohi duen moduan, harro eseri zen tronuan. Lortu zuen, hala ere, unetxo batez uzkiaren uzkurdurari eustea, komun pareko bi-detetik letrarik zeukan zerbait, edozer, hartu artean. Expo Muebleko katalogoa. Bikaina.

- Hori duk-eta eguna hasteko modua! Beste guztiak kontuak! Zukuak, gimnasia eta lerdokeriak... Posible bada, kafesne eder batekin hasi behar da eguna, eta ondoren kaka pilo eder bat. Horixe duk osasuntsuena, Mikel, ez egin kasurik sasimedikuei!

Manuelek mostradorea atondu zuen tabernan, eta emazteak sukaldean prestatutako pin-txoen platerak erreskada egokian jarri, beirazko estalkitxoa eta guzti. Dena txukun, dena kalkulatuta, egunero. Mikel beste egunkari bat gainbegiratzen ari zen barra kontran jesarrita, tortilla eta ardo beltz berezi bat irakurlagun.



- Arrazoi duzu, Manuel, arrazoi.

- Izango ez diat ba! Nik urteetan egin diat hori, eta begira nola nagoen.

Manuelek berrogeita hamarrak ondo paseak zituen. Burua urdintzen hasia, gizon mardula. Aurelio Artetaren koadroetan agertzen diren gizon sendo horietako bat izango zen gaztetan. Haren izaerak ere garai haietara eramaten zuten Mikel sarritan.

- Dana dala, zelan hi hemen orduotan?

- Gaur jai hartzea erabaki dut.

- Gaur jai? Lanik egiten dok ba?

- Zeozertxo bai.

- Zeozertxo! Horixe egingo dok hik, zeozertxo! Aspaldion señorito ohiturak hartuta habil. Goizetik tabernara, pintxoa eta ardo ona, periodikoa... Ez haiz txarto bizi.

- Ba ez.

- Dionisosen ohitura batzuk hartu dozak, bai. Beste batzuk ez baina!

- Hara, Manuel, egun ederra dago eta ez gaitezen sermoitan hasi.

- Egia dok, egun ederra jagok gaur. Ederra, koño! Ze asmo?

- Arratsaldean entsegua dugu. Goiza, uste dut, potrojorran pasatuko dudala. Zer deritzozu?

- Orain urte batzuk hagineta bat emongo neuan hori esateagatik. Baina ze ostia, ondo egiten dok!

- Han ba!

Sabela berdinduta eta pentsakor jalgi zen Manuelenetik. Ziri-jokoen koadrilateroan, puntuetara bazen ere, azkenean Manuel garaitu zuen, nahiz eta tabernariak pentsakor utzi. Bakarrizketan geratu zen taberna ataurrean. «Arrazoi dik Manuelek. Ze ostia egiten duk bizitzan? Astean artikulu puta bat idatzita bizi nahi duk? Ez dik lotsarik ematen oraindik ere amaren hileroko diru laguntza jasotzeak? Noiz arte Dionisosen eskutik jaten, bizitzen?».

Neuronetara bidalitako ke dosi egoki batek barne eztabaida oro laino dezake. Halaxe egin zuen, Camel bat iziotu eta norabide konkretu bako ibiltzeari ekin. Someratik Unamuno plaza-ra. Handik San Nikolas osterara. Une batez Arenal-go zubi parean egiten ari ziren obrei begira egon. Bera eta beste hogeita bi jubilatutako latorrizko hesitik txandan begira. Ez zitzaion aparteko

ikuskizuna iruditu langile eta induskailuen ari-  
ta geldoa, baina telebistan botatzen zuten oke-  
rragorik. Bailen kaletik igo eta Marzanarekin bi-  
degurutzea egiten duen horretan behera. La  
Mercedeko zubia gurutzatu eta erriberatik mer-  
katu-plazaraino. Itzuli batzuk egin zituen arran-  
degi, harategi, fruitu eta barazki postuen artetik.  
Oilaskoaren igoeraz ari ziren emakume bi hara-  
tegian. Atentatuari buruz beste hiru arrande-  
gian. Barazki postuko gizonak Athletic zuen min-  
tzagai, eta emakumeek baietz egiten zioten bu-  
ruarekin. Futbolaz ari zen, futbola bizitzaren ar-  
datz ez den leku bakarretako batean, oraindik ia  
esklusiboki emakumeen eremu den merkatu-  
plazan. Museo batetik irten bailitzan joan zen  
handik, porruak, azenarioak eta entsaladarako  
letxuga-tomateak plastikozko poltsa batean.

Handik Ronda kaleko liburu denda batera. Es-  
kaparatean, Cheren biografia sendoa, euskeraz-  
ko nobela batzuk, disko kañero zenbait eta kami-  
setak. Barruan agerpen bat: aparizio bat, alegia;  
larruazal zurbila, begi marroixka argiak, ezpai-  
nak arrosa indarge batekoak, soina argala. Ber-  
pizkundeko pietate bat iduri zukeen, ez balera-

matza oinetako deportibo zartatuak, praka bake-roak eta ez dakit zeren aurkako komitearen kamiseta bat. Mikel barrura sartu zen, baina belu.

- Gero arte.

- Bai, agur.

Mikelen albotik igaro zen, espazio betea espazio huts bihurtuz. Jorge Oteizak bezala, baina askoz estilo gehiagorekin. Atarian jakablua jantzi eta Ronda kalean behera desagertu zen Pieta-tea.

- Bai?

- Zer?

Mikel jiratu egin zen. Betaurreko batzuk ari zitzaizkion berbetan. Betaurreko haien atzean begi bi eta buru bat. Burua gorputz adar baten gainean pausatua zegoen, eta gorputz hura mostradore baten atzean ezkutatua.

- Ea zerbait berezia nahi duzun...

Ez ziren betaurrekoak hizketan ari zirenak. Betaurrekopian sudur bat eta aho bat ere ba-zeuden. Handik jalgiko ziren berbak.

- A! Ez. Begiratzera nator soilik.

- Ondo da, begiratu lasai.

Gizaki bat zen betaurrekoen atzean ezkutatzen zena, gizaki soil bat, bere poz eta bere miseriak izango zituen.

- Dena den, gomendatzen dizut, begiratzekotan, liburuetara hurbiltzea. Zauden lekutik dena ikusten da, baina konkretuki ezer ez.

- Jakina.

Orduan jabetu zen egoeraz. Dendaren erdi-erdian zegoen zutik, mugitu ere egin gabe, barrazkiz betetako poltsa bat eskuan, eta zozo aurpegi izugarriaz. Betaurrekodunak irribarre egin zion. Mikel lotsagorritu egin zen.

Ez zen ezer konkreturen bila joan, baina besapean liburu bat zuela irten zen. Aparizio batek bultzatu zuen sartzera, kristau askori ama birjinekin gertatu ohi zaion bezala. Jakob Arjouniren nobela batekin irten zen handik. Nobela beltzari buruz galdegin zion dendako mutilari, eta hara non aurkitu zuen nobela beltz sozialaz munduko jakitunik tunenetako bat. Urtero joan ohi zen Xi-xongo *Semana Negrara*, han banatzen ei ziren Hammet sariak nobela beltz sozial sailean. Hori dena eta beste hainbat gauza. Kontuak kontu, Jakob Arjouniren *Happy Birthday truku!* nobela-

rekin zihoan, eta etxera orduko Manuelenean hartu zuen atseden.

- Barriro be hemen?

Txikito bat zerbitzatu zion.

- Zelebratzera nator.

- Zelebratzera, zer?

- Agerpen bat! Apariziño bat, alegia.

- Edan egik hori, beste bat atarako deuat.

Kolpe batean hustu zuen txikitoa eta berriro bete zion edalontzi gotorra.

- Zenbat urte jaukozak apariziño horrek?

- Ez dakit. Gaur ikusi dut lehenengo biderrez.

Ez da ezaguna.

- Hoba.

- Zergatik?

- Maitemintzekotan beti dok hoba ezezagun bategaz maitemintzea.

- Zer ba?

- Ezaguna badok azkenean ezkondu egingo hazelako. Hona hemen ni neroni.

- Manuel!, menuetarako ardoa lehenbailehen!

Emaztearen ahotsa zen sukaldetik ozen zeto-rrena.

- Gero arte.

Manuelek ardo botilak onilaz betetzen jarraitu zuen, eta Mikel 13an gora igo zen. Porruak garbitu, azenarioa zuritu eta txikitu, patatekin berdin, eta azkenik bere ukitutxoak: tomate gorri bat azal barik. Espresean jarri eta hogeita bost minututan eginak. Bizkitartean egongelan jesarri zen nobela erosi berriari ekiteko. Bezperan Dionisosek zabaldutako botila ardoari txikito bat atera zion, bere buruak eskertuko ziona, noski.

Dionisos heldu zenerako jausiak ziren lau bat txikito eta nobelaren lehen hogei orrialdeak.

- Porruptatak.

- Hi, beste zeozer egiten be ikasi beharko heunke.

- Barazkiak oso onak dira, osasungarriak. Eta barazkietan onenak porruak. Barruak garbitzeko ez dago horrelakorik.

- Hori egia dok baina...

- Kopla gutxiago eta jan -burruntzalikada bete bota zion platerera.

- Hik ardoa edan dok, eztok?

- Apur bat.

- Alegre ikusten haut.

- Beste apur bat baita.

- «Beste apur bat baita?». Eta zertara jatorrek berba jokotxo hori?

- Agerpen bat, apariziño bat.

- Neska bat?

- Bai.

- A, koño! Esan ba!

Dionisosek bien edalontziak ardoz bete eta, irratia ren marmarra teloi gisa, minutu pare batean sukaldean ez zen bien zurrupa hotsa baino entzun. Mikelek platerkada errepikatu zuen. Dionisosek, berea bukatuta, Ducadosa iziotu.

- Lortu dok nire liburua?

Tomatea. Mikelen ukitua porrupatatei. Amak erakutsia, eta hari bere amak, eta horrela. Ez zuen antza ondo zuritu eta azal zati bat geratu zitzaion eztarrian trabesean itauna entzundakoa. «Liburua? Kaguendios liburua! Non ostia egongo da liburua! Aneren lehengusua, Bilboko jaiak...». Ezin zuen tomate azala eztarri sabaitik askatzea lortu. Eztul batean hasi zen.

- Lasai, gazte! -lepoko batzuk eman zizkion Dionisosek.

- Ito behar nuela uste nuen.



- Tomate azal batekin?
- Ez, galderarekin!
- Lortu dok liburua?
- Ahaztua nuen...

Tomate azala bezain gorri zeukan matrail buelta. Gero bekokia eta segundo erdi batean aurpegi osoa. Dionisosek upakada handi bat eman zion Ducadosari.

- Liburu hori lehenbailehen gura joat hemen.

Egunkaria hartu eta egongelara alde egin zuen. Mikel porrupatatekin geratu zen sukaldean. Ez zen bromatarako kontua. Platereko hondarrak lapikora bota eta lapikoarekin komu-nera. Komunzulotik joan ziren hondarrak, arratoientzat. Ontziak harraskan bildu eta logelan ezkutatu zen.

- Mikel! Baina ze ostia duk hau? V. Internazionalaren manifestu berria egin nahi huen, ala?

- Ez...

Entsegu lokalean zeuden Zuria Beltzekoak. Mikelek bezperan idatzitako letra irakurri zuen Anek:

- «Gaur saldu egin naiz... Amiñi bat baino ez bada ere, saldu egin naiz». Eta ondoren plusba-

lia, Iraultza industrial, Marx, Bakunin, Vladimir Ilitx... Erotu egin al haiz? Proletargoaren rocka egin nahi duk?

- Ez dun hori, ez hadi hain zirina izan.

Mikel lokalean batetik bestera zebilen, letra berriak proposatzen zituen bakoitzean bezala.

-Lenin al da Vladimir Ilitx hori?

Jonen galderari baiezkoa egin zion buruaz, baina Ane begiratzeari utzi barik.

- Ba niri gustatzen zait.

- Klaro! Hiri autoaren asunto hori gustatuko zaik gehien, ezta?

- Ba...

- Atentatuko autoa eta Lenin, biak batera. Ederra letra e, Jon?

Anek beste behingoz Jonekin hartu zituen bere zirinen bueltak. Jonek soinetik kendu zuen gitarra, artez erantzuteko:

- Bai, Ane, bai. Autoa martxan jarri eta pum! Madero bat gutxiago. Deputamadre iruditzen zait, ulertzen? Oso ondo gainera. Hori entzun nahi zenuen?

Ane eta Mikel zur eta lur laga zituen. Sinesgaitza. Betiko mutil otzana bere buruaz ziur.

- Talde honetan hiru gara, eta hirurok esan dezakegu nahi duguna... hau da, de-mo-kra-ti-ko-ki erabaki behar direla gauzak.

Jon ere lokalean bueltaka hasia zen. Beste biak euren harriduratik irteteke zeudela jarraitu zuen:

- Talde honek ez du beti zuk idazten duzuna soilik esango. Ez dakit ondo esplikatzen naizen. Mikel eta biok zure aldean maila baxuko gizakiak izan arren, geure iritziak eta geure pentsamen-duak dauzkagu, bai?

- Baina...

- Ez baina ez ostia!

Benetan ari zen. Zauritutako piztia bezala. Hainbeste denbora pasa zuen zauria miazkatzen, ez zuela inork espero halakorik.

- Kokoteraino nago zure letra intimistekin, ulertzen? Kokoteraino! Letra horiekin kantu bat egingo dugu eta kito!

Gitarra soinean hartu zuen berriz ere. Anek Mikeli begiratu zion, laguntza eskatzen duen umearen gisan. Mikelek irribarretxoak egin zion eta baxua hartu. Ez zuen baterian jesarri beste erremediorik izan.

Orduerdigarrenera agertu zen Txapli.

- Hau da burrunba! Hau da nire burrunbanda!

- Aupa Txapli!

- Aizue, barkatu lehenago ezer ez esatea... baina asteburuan kontzertua daukagu, zapatuan.

- Zapatu honetan?

- Bai horixe.

- Eta orain esaten diguk?

- Esan dinat atzo esatea pasatu egin zaidala.

- Hago lasai, Txapli, ez gaudek hiri kontuak eskatzeko.

Mikelek itzali zuen neskaren bihotzean lehenetik pizten aritutako sua.

- Barkaidak, Txapli.

- Ez dun ezer. Barkatuta hago, maittia!

Eta muxu bat eman zion bekokian.

- Kendu paretik, babua!

- Maittia!

Lokaleko arrautza kaxek zurrupatu behar izan zituen Txapliren ohiko barre algararen dezi-belioak.

- Non da kontzertua?

- Ez nagok seguru, Jon. Badakik, oso txarra nauk izenetarako. Bihar agertuko duk egunkari-ko agendan.

- Hik dauzkak potroak! -Mikeli jasangaitza egiten zitzaion Txapliren ganorabakokeria mai-tagarria.

- Beno, joan beharra daukat. Tori oparitxoa! Poltsatxo bat bota zion Aneri, sedazko pape-retan bildua. Barruan zegoenaren berri ondo ze-kiten Zuria Beltzekoek.

- Handia haiz, Txapli!

- Ez duk hainbesterako! Deituko dizuet.

Anek egin zituen zeremoniak. Karneta atera, poltsatxoa zabaldu, milakoarekin tutua egin... Bakoitzarentzat lerro eder bana. Ohiko legeak errespetatuz, bateria-joleak sartu zuen aurrene-koa. Molekulen festa gorputzetan. Abiadura lege guztiak hautsiak zainetan.

- Ekartzak letra hori, Mikel. Ea ganorazko zer-bait egiten dugun!

Speedaren ajea gauza eskasa da. Balirudike, bezperako abiadura eta martxa oro desager-tzeaz bat hutsune psikologikoari zabaltzen dizkiola ateak. Hutsune psikologikoa zer den? Ez dago erraz kontzeptu hori azaltzen. Kabala artistikoak egiten hasi denari esango nioke ez diezaiola Oteizarekin harremanik bilatu, ezta Freudekin ere, mesedez! Hutsune psikologikoa amildegia bat da, gure izatearen alderdi nagusi bien artean dagoen amildegia. Normalki gure izatearen alderdi bakarrarekin funtzionatu ohi dugu, hots, geure esperimentazioaren ondorioz jasotako informaziotik interesgarria iruditzen zaigun horrekin osatzen dugunarekin. Finean, kontua zera da, badugula nahi duguna soilik gogoratu ahal izateko gaitasun bat, non eta ez dugun hutsune psikologikoaren amildegia zeharkatzen. Modu ezberdinez iristen da jendea amildegia hori zeharkatzera. Speedaren ajearena da modurik ohikoenetako bat. Behin amildegia gainditu ondoren, gure izatearen alderdi negatiboarekin

topo egiten dugu. Plastikoki irudikatzeko, gure izatearen beste alderdi hori, bertan behera utzitako trastez betetako ganbara bat izango litzateke. Traste horiek, gure bizitzaren joanean, arrazoren batengatik, albo batera utzitako sentipen negatiboak dira, denboraren etengabeko igarotzeak inkontzientzia egoera batera bultzatu dituenak. Alabaina, noizean behin, hutsune psikologikoari ateak irekitzean, ganbarako trasteak bata bestearen atzean eta trumilka erortzen zaizkigu... gure buruaz halako sentimendu negatibo bat jabetzen da eta, Mafaldaren komikietan bezala, tai gabe txikiagotzen goaz gure sentipen negatiboen aurrean. Gure buruaren errotak banaka-banaka ehotzen ditu sentipen negatibook, tortura psikologiko saihetsezin bihurtu arte. Gutxiespen sentimendua gailentzen da ororen gaitetik; zalantza eta bakardadearekiko beldurra datoz ondoren eta, azkenik, hitz horien guztien batura ezin hobeki azaltzen duen beste bat: Angustia.

Halako zerbait zuen Mikelek gogartean. Bezperako entseguan emozionatu egin ziren azkenean. Txaplik utzitako ondarea azkar baino azka-

rrago xahutu zuten, eta Mikelek berak egindako letrarekin izugarrizko kantua asmatu zuten. Hala iruditu zitzaien behintzat hirurei. Sarrera ezberdinak frogatu zituzten, erritmo ezberdinak. Kantu bakarraren lauzpabost bertsio egitera iritsi ziren, eta ondoren, behin eta berriz jo zituzten bata bestearen ostean, harik eta lehenengo solairuko auzokidea erretxinduta agertu eta dena bukatu zen arte. Garagardo bat hartu zuten elkarrekin, Lasain, eta bakoitza bere etxera. Berba gutxiko agurra. Hitzik bako agurra. Ezker eskua xumeki jaso eta aio.

Dionisos agurtu ere egin gabe sartu zen logelari. Arropak erantzi eta ohe gainean etzan zen. Baina ezin izan zuen lorik hartu. Bizkorregi zebil-kion burua, pentsakizunen noriatik jaistea lortu ezinda. Burutapenen arrapalada hartara bildu zitzaion bihotza ere. Eta gau osoa eman zuen lorik hartzeke, irudi zerebralen pasaera bizkor hari al-torik eman ezinda. Goizaldeko hirurak aldera komunera altxa eta zerbait irakurtzen saiatu zen komunean jarrita. Ezinezkoa. Ohera bueltatu eta egin zitekeen bakarra egin zuen, pasatzen utzi.



Bazekien ondo asko ez zegoela beste erremedio-rik.

Eguerdi aldera esnatu zen eguna argitzear zegoenean hartutako lotik. Lotordu gutxiegi ziren speedaren ajea uxatzeko, baina bazen zer-bait. Esperientziak erakutsia zion zer egin behar zen horrelakoetan, zer egin behar zen Mafalda-ren komikietan bezala ñimiño ez bihurtzeko: bere kaskoan Oposizio Minoritarioa baino ez zen Alderdi Arrazionalari oratu eta txandala eta teni-sak jantzi.

Korrika hasi zen ataritik irteteaz bat. Lasterka joan zen San Antongo zubitik. Bihotza ahoan igo zuen Urazurrutiako aldapa, baina ez zen geratu. Abusura bideko malda behera xuabea aprobe-txatuz saiatu zen arnasa berreskuratzen. Ezinez-koa. Eta hala ere, ez zegoen bere baitarentzako barkamenik: «Izorra hadi, kabroi hori! Minoria Arrazionalak irabaziko dik, ikusiko duk!». Miraflo-resko zubipetik igarotzean berpiztu zitzaion txi-pitasun sentsazioa. Abusuko parkean gora eta behera ibili zen bueltaka. Blaga lasaian zeuden jubilatuek harriturik begiratzen zioten infernuko Beltzeburengandik ihesean zebilela zirudien

mutil hari. Jubilatuekin eta kaka eta txiza egitera ateratzen zituzten zakurrekin bueltak emateaz nazkatu zenean itzuli zen berriz Bilborantz, ibai ertzetik. Kiratsa zerion Ibaizabali. «Hainbat hobe!, irentsi ezak kirats hori eta izorra hadi! Alderdi Arrazionalak irabaziko dik! Alderdiak irabaziko dik... (barkatu) Alderdi Arrazionalak irabaziko dik! Irabaziko dik!». Izerdi patsetan heldu zen etxera.

- Gaixorik hago ala?
- Zer?
- Ea gaixotu egin hazen!
- Zer ba?

Arropa izerdituak erantzten ari zen komunean, Dionisosek sukaldean entsalada bat prestatu bitartean. Dutzako txorrota irekita, ez zuen ondo aditzen Dionisosen ahotsa. Ezta nahi ere.

- Ez egidak esan orain kirola egiten hasi hazenik. Ez deuat sinesten!

- Ez dut ezer entzuten, Dionisos, dutxan nago!!!

- Ostiak...! Hik gura duana entzuten dok bakarrik.

Beste pertsona bat zen dutxatik irten zena, beste izaki bat. Pentsamendu eskas guztiak izerditan garbitu balitu legeztentzen zen. Toalla gerrian, parez pare ireki zituen logelako leihoak, eguerdiko haizeak azala freska ziezaion. Azala benetan hoztu zitzaionean jantzi zituen etxeko arropak. Dionisos plater beteko entsalada jaten ari zen: letxuga, tomate, arto, berenjena eta ez dakit beste zenbat koloretako gauzarekin.

- Zer esaten ari zinen lehen?

- Kabroi bat hazela.

- Ni?

- Bai, hi.

- Zergatik?

- Nahi duana bakarrik entzuten dualako.

- Horretarako daude belarriak zerebroaren kinaden menpe, ezta?

- Hoa pikutara! Heuk jakingo dok zer egiten duan heure zerebroarekin.

- Mesedez, Dionisos, ama bakarrarekin nahikoak daukat.

- Hori be egia dok. Gura dok entsalada apur bat, ona izaten dok biharamunarentzat.

- Ez, eskerrik asko, uste dut etzan egingo naitzela pixka batean.

Beste ardo basokada bat edaten utzi zuen Dionisos. Logelan sartu, irratia ipini eta manta bakarrarekin babestuta erori zen ohean. Larruazalean udazkenaren freskura zeraman, eta hainbeste desiratutako bakea buru barnean. Ez baitago beheraldi gabeko igoaldirik; ez baitago berealdirik gabeko beheraldirik, erran nahi baita, ajerik.

Arratsaldeko zazpietarako gautua zuen, garairako normala zen gisan. Logelako leiho zabalen artetik zeru zati garbi bat ikus zitekeen Bilbo gainean. Oso gutxitan ikusi ohi den zerua. Izan ere, normalean beste zenbait tokitan baino lainoago egoten da zerua Bilbo gainean, hiriak berak eta bere zikinkeriak sortutako lainoak babesten baitu Bilbo zeruko erasoetatik. Hala ere, ilunabar hartan gau izarratua ikus zitekeen. Betetzen ari zen ilargia, emakumearen sabelpea betetzen den bezala, etengabe baina astiro. Gauaren aurrean babesik gabe zegoen elementu oro (etxeak, autoak, pertsonak, txakurrak) freskura umelezko izara batek estaltzen zuen.

Behingoagatik Bilboko airean CO<sub>2</sub> barik H<sub>2</sub>O arnastu ahal zen proportzio altuagoan. Arratsalde gautuko zazpiak eta lau minutu ziren Dionisosek Mikelen logelako atea ireki zuenean.

- Itzartu hadi, alferrontzia!

Mikelen gorputza Amenofisen momia bailitzan estaltzen zuen manta kendu zion gainetik.

- Baina ze ostia?

- Hamar minutu daukozak jantzita eta presentable egoteko. Hamar minutu!

- Zertarako? Nora goaz? Zer gertatzen da?

- Hamar minutu!

Zazpi minuturekin nahikoa izan zuen. Aurpegia eta batez ere begi bueltak puztu-puztuak zituela agertu zen sukaldera, ohiko janzkerarekin: praka bakeroak, artilezko jertse azul iluna eta Marteensak.

- Zer dela-eta zalaparta hau, Dionisos?

Gazta pusketa bat jaten ari zen. Ondoan ogi zati bat eta, nola ez, baso bete ardo. Mikeli eskaini zion edaritik.

- Ez, eskerrik asko. Baina esango didazu nora joan behar dugun halako presarekin?

- Hitzaldi batera.

- A bai! Eta zertaz da ba, *guk* derrigorrez entzun behar dugun hitzaldi hori.

- Ez dakit konkretuki zertaz...

Aho betean mintzo zen, gazta zati txikiak egiten zituen arren, bata bestearen ostean sartzen baitzituen ahozulora.

- *Beltza* dator Likira.

- Beltza?

- Bai.

- Zer da, afrikarra?

- Ez dakik nor den?

- Ba ez. Realeko jokalaria berriren bat?

- Babua!

Kortxoia jarri zion botila ardoari eta hozkailuan sartu zuen gazta. Edalontzian geratu zitzaien ardo urria edan eta, Mikeli begietara zuzen-zuzen begiratzuz, hasi zen berbetan:

- Begiratu egik, Mikel. Nik, tipo jatorra hintzelakoan hartu hindudan etxe honetan, bai? Baina batzuetan, joder... Batzuetan konturatzen nok inorante bat hazela, Mikel, inorante bat!

- Nor, ni?

- Bai, hi eta hire inguruko gazte gehienak. Ze ostia esaten dozue zuen taldearen letretan? Ber-

barik egiten dozue gizarte arazoez, politikaz? Arduratzen zaree zuen burua ez den beste ezer-taz? E? Esaidak!, arduratzen zaree beste ezer-taz?

- Joder, Dionisos... Ez zaitez horrela jarri.

Dionisos amorraturik begira geratu zitzaion. Halako batean Ducados paketea atera zuen patrikatik eta bat iziotu.

- Ja!

- Zer?

- Ezer ez... Jaja!

- Jaja, zer?

Barreka hasi zen Dionisos. Mikel zurtuta zegoen. Baina Dionisosen barrearen ozenaren aurrean ez zitzaion barrez hastea beste aukerarik geratu.

- Goazen, Mikel. Istorio batzuk entzungo joaguz, batzuk ezagunak, bestetzuk ez hainbeste, eta bide batez akaso zeozer ikasiko dok.

Lepotik heldu zuen, eta eskaileretan behera barrez lehertu zen berriz ere. Mikelek zergatia ulertzeke segitzen zuen.

Berrogei bat lagun baziren hitzaldian. Bisaia ilaje eta bizar urdinduz estalia zuen hizlariak. Be-

taurreko txiki batzuk nabarmentzen zitzaizkion bere osotasunean handiegia ez zen gizonari. Mikel eta Dionisos atzealdean eseri ziren. Dionisosen manietako bat! Zihoan lekura zihoala, beti atzealdean eseriko zen, denak bistan izateko, edo auskalo zergatik. Inoiz esana zion aspaldian hartutako ohitura zuela, baina Mikelek ez zion zen-orduko bueltarik ematen kontu hari. Atzealdean eseri eta kito.

Hitzaldiari sarrera moldatzen ari zitzaion Bel-tza zelako hura, Mikelek atetik hozkirria sentitu zuenean. Eta hozkirriaren ondotik, neska bat. Haren oinetako deportibo zartatuek lurra ukitzen zuten bakoitzean bultzakada leun batez laguntzen zion lurrak, pausoari itxura metafisiko bat emanez. Oinetako deportibo eta praka bakeroetan bistaratu zuen bere Pietatea. Aurpegi zurbil hartan ez zen espresiorik. Izatekotan ere, malenkonia lauso baten espresioa baino ez zen, ezpainen ezkerraldean zen okerdura txiki batek ematen zion malenkonia lausoaren espresioa, horixe soilik. Bekoki gainean zuen oihal batez biloak atzerantz bildurik, horrela, haren aurpegia, bere zurtasun eta argitasunean, munduaren aurrean



barne lasaitasunaren eta malenkonia lausoaren sinbolo gisa jasoz.

Ilara bi aurrerago eseri zen. Aldean zeraman jakablua kendu eta sorbaldetatik gora sortzen zitzaion lepo estua agertu zen Mikelen begien aurrean. Tentuz aztertu zuen sorbalda haren azalaren guritasuna. Lepoaldean moztutako kamiseta gorria zen sorbalda bistaragotzen ziona. Une batez Mikeli iruditu zitzaion, hizlaria bera ere ez ote zen mutu geratu berpizkundeko Pietatearekin topo egin zuelarik.

- Gertatutakoak ez dira ahaztu behar, baina erresumina ere ez jake igaro behar ondorengo belaunaldiei.

- Zer?

Jendea aulkietatik altxatzen ari zen. Aupa eta zelan eta kaixoen trukaketa. Hainbeste itxaron-dako zigarreten kea airean. Mikelek ere bat piztu zuen, Dionisosek aspaldi iziotua zuela ikusitakotan.

- Entzun deustak?

- Bai, bai... «Gertatutakoak ez dira ahaztu behar, baina erresumina ez zaie igaro behar on-

dorengo belaunaldi». Zer uste duzu, ilargian nagoela?

- Momentu batez halan iruditu jatak.

Tarte labur horretantxe galdu zuen bere Pietatea. Jende dexente geratzen zen denda barruan, baina ez zuen haien artean aurkitu. Beste begiratu bat ere bota zuen lokalean zehar, alferrik.

Ronda kalean hotza eta umela zegoen gaua. Ducados zaharra erretzea amaitu orduko beste bat sutua zuen Dionisosek.

- Sukaldean aritzeko gogorik bai?

- Ez asko.

Hankapean amatatu zuen Camela.

- Bokata batera gonbidatuko haut Jaunaken.

- Fenomeno!

Petxuga, letxuga eta maionesazkoa eskatu zuen. Dionisosek klasikoago bat: solomoa piperekin, eta botila bat ardo. Barrualdean jesarri ziren. Asteazken gaua izateko, bazen mugimendutxoa tabernan. Dionisosek bete zituen edalontziak, eta baita lehen zurrutada eman ere.

- Ez dago txarto...

- Ez.

- Zer iruditu jak hitzaldia?
- Ez da egon txarto.
- Ardoa?
- Hitzaldia!
- Eta zer esan gura jok zehazki «ez da egon txarto» horrek?
- Ba horixe, ez dela txarto egon.
- A, koño!

«Solomoa piperrekin eta petxuga, letxuga eta maionesa!».

- Horrek geureak dozak.

Anfitrioia altxatu zen bokaten bila, Mikelek berriz ere edalontziak bete bitartean. Bokatak mahaira heldu zirenerako eskuartean zuen gazteak berea. Gose zen, ezer jan barik baitzegoen bezperako bazkalordutik.

- Dionisos...
- Ummm... bai...?

Dionisos ere dedikazio betean ari zen bokatarekin. Tragoxka bat egiteko baino ez zuen albo batera lagatzen.

- Zu filologoa zara, ezta?
- Ba bai.

Paperezko zapiarekin pasa zituen ezpainak eta beste zurrutada bat eman zion ardoari, zerbait bazetorrela antzemanda.

- Zer da zehazki «alta bada».

- Zer?

Edalontzia ezpainetan zuela gelditu zen.

- Zer esan nahi duen zehazki «alta bada» horrek. Beste Beltza edo dena delako horrek behin eta berriz esaten zuen, «alta bada...», «alta bada...».

Mahai gaineko paketetik Ducados bat hartu, bokata alde batera utzi, upakada bat ke arnastu eta lehentxeago ezpain ertzera hurbildutako edalontzitik trago egin zuen.

- Aitu egik Mikel...

- Esan.

- Badakik zein den filologo bati egin daitekion putadarik handiena?

- Zein?

- Hik oraintxe egin deustaana.

# Dionisos

Lainoen biltzarra bailegoan, zerua astun zen Bilbo gainean. Euri zemaia atmosferan. Gizonezko gazteek bizarra, txima luzeak eta koadrozko alkandorak janzten zituzten garaian. Seat 124ek auto dotoreak ziruditen R8en eta 2CVen paisajea. Azul iluna kanpotik, Bordeaux koloreko narrozko tapizeria barrenetik. Kaseta ere bazekarren haietako garestienak, gaurkoen halako bi ziren kaset itzel eta potoloak. Salveko zubitik igaro ziren hiru-lau, GMC eta Man kamioien arteak. Zubiaren azpialdean, Campo Volantineko paseo luzea eta Guardia Zibilaren komandantzia. Lehen euri tantak jaurti zituen abendu amaierako arratsaldeak, komisaldegitik gazte luze bat irten zenean. Gorputz luzanga hark normala baino neurri txikiagoko buru biribil batean zuen amaiera. Gazte gehienek kontrara, aurpegi hartan ez zen bizar aztarrenik ageri; egunetan moztu gabeko hiru ile zaharrek baino ez zuten janzten gaztetxo itxurako bisaia zurbila, nabarmenagia sorbalda makur haien gainean. Koman-

dantziako lau eskailerak bajatzen hasi orduko behatu zion arinki atea zaintzen zegoen guardia zibilari. Cetme distiratsua eskuan, begirada sonbreiruaren biseraren itzalean ezkutatu zuela ohartu zen mutila. Udaletxera bidean abiatu zen segidan, zira azul marinoa soinean eta plastikozko poltsa zimurtu batekin. Lau urrats ematerako hurbildu zitzaizkion gazte bi. Gizonezkoa bata (bizar eta ile luzeak, marko beltzezko antiparra galantak) eta emakumezkoa bestea (ilaje lisua eta hirulaurdeneko panazko jaka). Biek ala biek blujin estuak, orkatilan zabalagotzen zirenak.

- Aupa, Anton! Kaguenlaletxe...

Irribarre erdi batekin eta besoak besarkatzeko zabal-za balik agurtu zuen.

- Aupa.

Besarkada laburra izan zen.

- Hiru ordu zaramatzagu hire zain. Zer egin diate? Paper konturen bat? Urduri jartzen hasiak ginen, laostia!

- Kaixo, Dionisos!

Samurragoa izan zen neskaren agurra. Begiradak gurutzatu zituzten, eta irri xumea erakutsi zion neskak. Dionisosen aurpegian ez zen umore

izpirik. Ezpain bueltako giharrak erabat kuzkurtuta zeuzkan, ez zen negarrez hasiko baina ezta barrez ere. Espaloian aurrera jarraitu zuen Dionisosek, beste biek atzetik. Espaloian, emakume larruz jantziek beren zakurtxo pedanteak paseatzen zituzten, Deustuko jesuitek pauso lasterrearrean meditatzen zuten, eta 24 zenbakiaren parean PNVren buro politikoan beste zerbait antolatzen zuten... (baina hori beste historia bat da).

- Torturatu egin haute? Bainera? Bizikleta? Elektrodoak? Jo egin haute?

Galdera larregi erantzun bakarrerako.

- Baina... baina ze ostia, ez diguk ezer esan behar? Ez diguk heuk deitu? Ez ditiagu hire zain hiru ordu pasa pikoletoen komisaldegiairean ataurrean?

- Zuek hiru ordu pasa dituzue ataurrean, nik hiru egun pasatu ditut barruan.

- Bazakiagu. Dionisos...

Neska mintzatu zitzaion, pausoa eten gabe, mutila baino tonu bareagoan:

- ...baina guk ez diagu horren errurik, eta ez gaituk hire bila etorri gero sermoietan hasteko.

Goazak laster hemendik, trago bat hartuz lasaia-go hitz egingo diagu.

- Egia da, bai. Barkaidak, Eloy.
- Ez duk ezer, Anton, ulertzen diat.
- Barkazak hala ere.
- Bale... Barkatuta hago.
- Eskerrik asko... Badaukak Ducadosik?

Somera kaleko Morga tabernan eseri ziren, izkinako mahaian.

- Hik zer nahi dun, Isabel?
- Zerbeza bat.
- Hik, Anton?
- Ateraidak txikito bat.

- Edan ezak garagardo bat barru horiek freskatzeko, gizona!

- Nahiago diat beltza, baina berezia izan dadila.

Eloy barrara joan zen. Mostradorean hiru agure berbetan ari ziren hartaz eta honetaz. Izkinako mahaian Isabelek beste Ducados bat eskaini zion Dionisosi.

- Eloyri baino ez zioat entzun hiri Anton deitzen.



- Ez zakinate askok nire benetako izena. Neroni ere ahaztu egiten zaidan batzuetan. Baina Eloyk fraileetan ezagutu nindunan...

Zabor poltsa zimurtutik ateratako Bic gorriaz sutu zuen lehenengo Isabelen zigarreta, eta ondoren berea, egundoko upakadaz ia Ducados erdia errez. Bien biriketako keek bat egin zuten airean.

- Gogor eman diate?

Ezin zion Dionisosi artez behatu.

- Bai.

Dionisosek ere han nonbait pausatu zituen begiak, elkar besarkatutako keetan.

- Hiru egunetan?

- Bai, gau eta egun.

- Bainera?

- Bai.

- Elektrodoak?

- Baita.

- Zerbait atera diate?

- Ez.

- Hi haiz hi!

- Ze hi haiz hi eta hi haiz hi ondoko! Ni ez naun inor! Ni neu naun, ulertzen? Ez gehiago eta

ez gutxiago. Ez dinat torturapean egon izanagatik heroi bihurtu nahi! Ez dinat nire argazkia horretan ikusi nahi, «le aplicaron electrodos, la bañera, la bicicleta... Una víctima más de la tortura...» eta halako testuekin. Ados?

- Ez hadi horrela jarri...

- Ikusi nahi ditun torturaren markak? E!, ikusi nahi ditun...

Jertsea eta alkandora altxa zituen, sabel buelta eta saihets aldea ubelduak bistaratu. Erredurak zeuzkan larruazal osoan, zigarrokinen erredurak, eta saihetsen bueltan elektrodoenak.

- Gustatzen zaizkin? Nahikoa heroi naizela iruditzen zain?

- Baina ze ostia ari haiz? Estali egik tripa hori! Edariekin zetorren Eloy.

- Zer nahi duk, taberna osoa hiri begira jartzea, ala? Ulertzen diagu hire ostia txarra, eta minduta egotea. Baina gu ez gaituk horren errudun! Sartu ezak behingoz hori kaskarrean!

- Egia duk, barkazak.

- Ez dik betiko balioko barkazak horrek...

- Bazakinat. Barkazan hik ere.

- Ez kezkatu, Anton.

Beste Ducados bat eskaini zion Eloyk. Lehenengo zurrutada eman zion ardoari. Keinu garra-tza marraztu zen Dionisosen aurpegian. Zigarreta iziotuz esan zuen:

- Sator bat zagok gure artean.

- Zer diok?

- Sator putaseme bat dagoela gure artean, kabroi madarikatu bat. Horixe diot. Ia bi urtez segidan pasa nauk komisaldegi horretatik, eta dagoeneko bazekiat...

- Zertaz ari haiz, Anton?

- Aurrenekoan ere erretxinduta atera ninduan handik. Baina oraingoan konturatu egin nauk.

- Oso larria duk esaten habilena, hori ondo dakik hik.

- Larriagoa duk orain arte konturatu ez izana. Azaldu egiek hori orain Mikelen gurasoei!

- Hori ere ez duk.

- Horixe dun ba, Isabel! Horixe! Tipo bat zerraldo eta beste hainbat kartzelan. Eta kanpoan gaudenetatik erdiak epelak hartuta. Horixe besterik ez!

Eloyk garagardo trago luzez xamurtu zuen eztarriaren lehorra. Listurik ere ez zitzaion gertatzen hitz egiteko. Beste zurrutada batez edan zuen osorik.

- Seguru hago nor den?

- Bai.

- Esantzak ba!

Isabel sartu zen, tonu apalean baina keinu gogorrez:

- Nola hasiko duk hemen halakorik esaten!

- Ez hemen ez inon.

- Zeer?

- Gauza bat eskatu behar dizuet... lehenengo eta azkena. Ni banoa. Militantzia utziko dut.

- Nola?

- Utzi egin dudala, horixe! Banoa, inor salatu gabe, zerbaiten alde zerbait egin dudalakoan, eta horretaz harro. Baina banoa.

Lurrera begiratzen zuten bi lagunek, Eloy zotz bat apurtzen eta Isabel bere txima nabarra belarri ostean egokitu ezinean.

- Hori duk hire eskaera?

- Badakik alde egiteko ez duala gure baime-nik behar.

- Badaukak beste Ducados bat? Eskerrik asko, Eloy... Ez zen hori nire eskaera. Tipo hori akabatzen uztea baino!, neure kontutik.

- Erotu egin haiz?

- Ez.

Ezin zuten sinetsi. Ez zuten sinetsi nahi.

- Zuen baimenarekin edo gabe, egin egingo diat.

- Baina...

- Ez baina ez bainaondoko, neuk akabatu nahi diat, entzun? Neuk!

- Lasaitu hadi, Dionisos -Eloyk baino tentu gehiago zeukan Isabelek-. Taldea uztearekin, ados. Hirea duk aukera. Baina gure taldean, hi uztera hoan taldean, sator bat baldin badago... jakin egin beharko diagu, ezta?

- Arrazoi dik Isabelek.

- Gauza bat egingo dugu...

Kolpe batez hustu zuen basoerdia.

- Tipo horren izena emango dizuet... baina neuk zainduko dut gertutik. Ez dezala ezer susmatu.

- Ez zakiat, Anton...

- Hau ezin diagu guk bakarrik erabaki, Eloy.

- Nork erabaki behar din orduan? Zer nahi dun, honetarako biltzar bat antolatzea? Non, Ba-sauriko kartzelan?

- Hoa popatik hartzera!

- Tira, tira... zuek zarete orain bakea behar duzuenak. Eman hilabete bat, besterik ez. Desagertzen badun, pasa mezua eta kito! Zer diozue?

- Halaxe izan beharko dik...

- Ba ez dago besterik orduan.

- Bai, Anton, bada besterik... Botazak putakume horren izena!

Karrajoko isiltasuna zulatu zuen telefono hotsak goizeko hamar t'erdietan. Automatikoak erantzungo zuela espero zuen: «Hauek ez dira etxe batera deitzeko orduak; bart sobera ardo edan nuen eta orain lotan nago; utzi zure mezua txirrinaren ostean; Jainkoak ordainduko dizu!». Baina itxuraz, Dionisosek amatatua zuen erantzungailua. Eta beraz, nork ez du gorroto telefono hotsarekin esnatzea? Mikel burua burkoaren pean ezkututzen saiatu arren, halakoetan ohikoa den une erabakigarrian zegoen: bazekien, ohetik altxa eta telefonora joanez gero, isildu egingo zela hartu baino lehentxeago. Denon fijazio bera zeukan ostera, hartu ezean berri garrantzitsu bat galtzearen sentsazioa ernatuko zitzaiola barreanean: desastreren bat gertatua izango zen, istripuren bat, amaren deia... Jaikitzea deliberatu zuen azkenean, galtzontzilotan karrajoan zehar.

- Esan...?
- Mikel Agirre?
- Neu naiz.

- Luis Alberdi jaunaren bulegotik deitzen dizut. Zure artikulua argitaratu da eta kobratzera etor zaitezke gaur eguerdira artean. Egun on!

Lehengusuaren idazkari mamala irudikatu zuen egun on! esaten. Telesailetan agertzen diren horietarikoa, ederra bezain lerdoa. Telefono ondoan zutik geratu zen tarte batean, espazio eta denboratik landa, eskultura greziar anorexi-ko bat iduri, baldin eta galtzontzilo-peak zut zegoen zakilak «barne lasaitasunaren» kontzeptu greziarra birrinduko ez balu. Komunera joan... eta goizeroko meza bera eman zuen (horrela adieraz badaiteke erritual osoa).

Ez zuen kaferik egin. Arropak jantzi eta kalera segituan, soldata kobratzera. Gosari oparo batekin ospatuko zuen patrika gizendu ostean. Gizakiak bere lan indarraren ustiapenaren emaitza jasotzen duen eguna, egun handia da materialista dialektiko batentzat, eta baita gainerakoen-tzat ere. Bazekien ez zela dirutza izango, baina soldata bat jasotzeak poztu eta puztu egin zuen aspaldiko partez. Erran nahi baita, taxi bat hartu zuela.



Hamar minutu eta seiehun pezeta behar izan zituen taxistak Luisen bulego parean uzteko. Zorionez, momentu hartan lehengusua bulegoan ez zegoenez, berriketa faltsuen premia barik ospa egin ahal izango zuen.

- Egun on -idazkari mutur gorriak hartu zuen.
- Aupa.
- Zu Luisen lehengusua zara, ezta?

Zaldien tamainako hortzak erakutsi zizkion haren irribarre zabalegiak.

- Bigarren lehengusua.
- Bigarrena!

Hanka sartu izan balu bezalako imintzioa ez zuen disimulatu.

- Berak lehengusua baino esaten ez duenez.
- Bai, berak bai. Baina bera... bera... Ezer ez.
- Nola ezer ez?

Subnormal faltsu bat zela esatekotan egon zen. Sosak eskuratu aurretik ezpainei hozka egi-tea hobe zela iruditu zitzaion.

- Diruaz hitz egin behar genuela uste nuen...
- A!, noski. Kobratzera zatoz.
- Horretarako deitu didazu.

- Barkatu. Ai!, nire burua... Batzuetan ahaztu egiten zait badudanik ere.

- Zalantza normala zure kasuan.

- Zer?

- Ezer ez.

- Zuk ezer ez esaten duzu beti?

- Beti. Diruaz jarduten dudanean izan ezik.

Txekea: zortzi mila pezeta. «Gehiago izan zitekeen... argazkiak ere hain onak baziren behintzat, baina tira...». Jasoaren agiria sinatu zuen idazkariaren boligrafoaz, eta jakanarruko patrikan saskiratu zuen, Corte Inglesen Parker bat ostendean moduan.

- Ikusten ze erraza! -esan zion harriturik idazkariak, alehop! esaten ausartuko ez balitz bezala.

- Bai, oso erraza.

Inozoarena egin zuen Mikelek, harenganako errukia erakutsiz batera. Entzefalograma laua marrazturik geratu zen panpinaren bekokian.

- Eskerrik asko eta aio.

Gehiagorako astirik eman barik alde egin zuen bulegotik, idazkariari agurra eztarrian trabaturik lagata, eta boligrafoa txuliatuta.

- Aggg, zelako tuntuna!

Atzera egin eta bulegora sartu zen berriz. No-bioari-edo telefonoz deitzekotan harrapatu zuen mutur gorria.

- Zerbait ahaztu zaizu?

- Zera... lehen nire bigarren lehengusuari buruz zera esatekotan egon naiz, baina azke-nean ez dizut esan... nire bi-ga-rren lehengusua subnormal bat dela, subnormal sakona! Eta hori gutxi balitz, faltsua eta tontoa. Eta errematatze-ko, potoloa eta zatarra.

Idazkariak ahoa estali zuen eskumako esku urreztatuaz, ama birjinaren aurrean deabruaren izena aipatuz gero egingo zukeen gisan. Mikelek esaldia bukatu eta ingurura begiratu zuen. Ez ze-goen deabrurik. Harro sentitu zen botatakoaz. Adore pixka bat gehiago eman zion bere burua-ri, eta idazkariarengana makurtu zen.

- Dena dela, polit horrek, ahaztu egingo duzu horrelakorik aipatu dizudanik. Zer dira ba azken batean lau egia! Hemen garrantzitsua jende xehea da. Eta jende xeheari ez zaio egia axola.

Animozko atximur bat ferekatu zion matrai-lean, irribarre seduktore batekin hanka egin

baino lehen. Igogailuz jaisten ari zelarik miretsi zuen bere burua ispiluan. «Nola egin ote duk halakorik. Tipo gogor baten moduan jokatu duk, hori da, Humphrey Bogartek Sam Spaderena egi-tean bezala, Jakob Arjouniren Kayankaya iker-tzaile pribatuak bezala, Xabier Gereñoren... Ez, Gereñorenak ez dauka halako klaserik!». Lehen-goan erositako eleberriaz gogoratu zen, *Happy Birthday truku!* Dendariaz akordatu zen gero eta bere Pietateaz geroago. Haren barne lasaitasuna, haren lepoalde guria...

Honelako eszenak gomutaratzean euria hasi beharko luke. Beraz, euria ari zuen Bilbon. Lehenengo tanta geldoak baino ez ziren oraindik, baina argi nabari zen zaparrada zetorrela zeru ilun harekin. Jakabluaren lepokoak jasota abiatu zen Autonomiarantz (utopikoegia zatekeen Independentziantz abiatzea). Camel bat iziotu zuen semaforoan. Manuelenera gosari oparo bat irenstera joateko asmoa zuen. Zortzi mila pezetarekin ez zeukan ospakizun handitarako, baina gosari eder bat ez zion inork kenduko.

San Frantziskorantz Zababuruko lurpeko pasabidean barrena lerratzean entzun zuen supituki ahots bat gibelean.

- Aupa, Mikel. Ez zaitez jiratu eta segi aurrera.

Agindutakoa bete zuen. Hasieran ikaratu egin bazuen ere, ezaguna zitzaion ahots hura. Hala eta guztiz ezin haren jabea aurpegiak asmatu.

- Kanean eskumatara kafetegi bat dago. Sartu eta eseri bazterreko mahaian. Beteta badago, irten.

Lurpetik eskailerak igo eta argia egin zenean ikusi zuen kafetegia. Agindutakoa bete zuen, bete behar izan zuen, kafetegi hondoan libre zegoen mahaian jesartzeraino. Ez zen jiratu. Eraso-tzailea izan zen parez pare eseri zitzaiona, paretaren kontra.

- Koño!, Aneren lehengusua...

- Jokin.

- Hori da: Jokin. Ezin gogoratuta ibili naiz ba! Jaietan Dionisosen liburua eramane... Aizu, baina zertara dator misterio hau guztia? Ez jiratu, hor sartu...

- Zaude lasai. Zer hartu nahi duzu?

- Nik?

Zer hartu gura zuen berak? Gosari oparo batekin ospatu behar ez zuen ba soldata berria?

- Atera patata tortilla pintxo bat eta ardo bat, berezia!

Jokinek ebaki bat ekarri zuen beretzat. Minutu erdian dena mahaian. Patata tortillari haginka egin eta Jokinek zuzen-zuzen begiratzen zion. Ardoari trago bat eman eta oraindik zuzen-zuzen begiratzen zion, isilean; ez zuen kikara ukitu ere egin. Bistan zegoen ez zela ospakizunetarako unea.

- Mikel... gauza bat eskatu behar dizut. Ez nuke egin behar, eta jakin ezazu ez nukeela egingo beste irtenbiderik edukiko banu...

Pintxoa mamurtzen jarraitu zuen, ardo bereziari emango zion trago bikainean pentsatzen.

- Barkatuko didazu modu honetan ekarri izana tabernara, baina esan dizut beste irtenbiderik banu, ez nukeela horrelakorik egingo...

Ardoa ez zegoen batere txarto, ez jauna, ez zegoen batere txarto.

- Nahiko da, Jokin... hainbeste misterio eta hainbeste itzulinguru. Ezta ETakoa bazina ere!
- ETakoa bainaiz.
- Zer???

Baxuago hitz egiteko keinua egin zion Mikeli. Braust, tortilla pintxoaz ahoa bozatzea besterik ez zitzaion otu. Begiak mugimendu ikusezin etengabea hasi zitzaizkion, zuloetatik ihesteko zorian.

- Trankil...

Oteizaren apostoluak baino zurrunago zegoen Mikel. Matrailezurra baino ez zuen mugitzen patatazko bola desegin ezinean.

- Gehiago entzun nahi ez baduzu, zaude lasai, altxa eta alde egin, ezer gertatu ez balitz bezala. Ulertuko nuke, oso ondo gainera. Gera-tuz gero, zaude horrelaxe, isil-isilik, eta adi entzun esango dizudana. Ez ditut gauzak errepikatuko, labur izan behar du denak.

Jokin mututu egin zen tarte batez. Winston pakete bat atera zuen txaketatik. Mikeli begiratu zion, kalerantz ondoren. Erabakia hartzeko tarte-a uzten ari zitzaion. Zigarreta bat iziotu zuen, kezko herensuge beldurgarri bat putz egin. Mikel

mugitzen ez zela oharturik, zigarreta beldurgarria eskaini zion hari ere. Azentu berezi bat baliatu zuen:

- Esan dizut nongoa naizen, zera, zertan lanean ari naizen, nolabait esateko. Une txar batean nago eta ezin dut Bilbotik irten. Uste dut txakurrak usnaka ditudala, ez nago seguru...

- Baina...

- Lasai, egunotan galdu ditudala uste dut.

- Baina jarraitu...?

- Ezetz, joder! Orain isildu eta entzun. Egun-karian ikusi dut bihar Gasteizko gaztetxean joko duzuela.

-Guk?

- Zuen taldeak, laostia! Zuk entzun eta ez moztu.

Mikelek baietz egin zion buruarekin, ezetz esan gurarik.

- Ezin naiteke Bilbotik mugitu, ahal dela ezkutuan egon beharra daukat; beno, ez dakit ego-terik izango dudan; horrek berdin dio...

Jokin ere urduri jartzen ari zen. Beste Winston ketsu bat iziotu zuen.



- Plastikozko poltsa honetan bilduta dagoen zera hau eraman behar duzu Gasteizera.

Mahaipetik, tabako pakete bat baino gutxi handiago zen zerbait pasatu zion plastikozko poltsa batean bildua.

- Gorde poltsikoan eta etxean eduki bihar arte. Zuen kontzertura agertuko da norbait horren bila. Ezin dizut esan ez nor ez nolakoa den, neuk ere ez dakit oraindik. Hala ere azalduko diot nola-hala nor zaren.

Mikelek, lehor-lehor baitzuen eztarritik sabelerako tarte, ardo basotik edan nahi izan zuen ekintza erreflexu batean. Baina jadanik ez zegoen ardorik kristalezko kopa madarikatu hartan.

- Egingo duzu? Esadazu ezin baduzu, eta akabo!

Mikelen erantzun bizkor bat erregutu zuten Jokinen begiek. Haren burmuinak, oster, ez ziren erantzun bat antolatzeke gai. Bere lehen-gusuaren idazkariarena bezain entzefalograma laua bilakatu zitzaion istantean. Ezertan ez pentsatzearen plazerra sentitzen zuen gorputzaren atal psikikoan. Psikearen hazi isurtze antzeko zerbait.

- Bai ala ez!

- Bai... egingo dut... baina...

- Eskerrik asko. Ez zaitut berriz honelako marroi batean sartuko, egon seguru. Ahaztu ikusi naizunik, existitzen naizenik. Nik dagoeneko ez zaitut ezagutu ere egiten.

Zutitu eta Mikeli begira geratu zen, herensuge maitagarri bat bezala.

- Ikusten? Oso erraza!

Eskua estutu zion Mikeli, eta irribarre bat trukatu zuten.

- Egunen batean afari opari batekin ospatuko dugu, Mikel. Egunen batean...

Bost bat minutu itxaron zuen kafetegian, Jokinen gomendioari jarraiki. Ez zuen barran beste ezer eskatu, ez zuen nahi kasualitatez ere zerbitzaria bere aurpegiarekin gogora zedin. 303 segundoak zenbatutakoan, mahaitik altxa eta kafetegitik desagertu zen, amesgaiztoak desagertzen diren modu berean. San Frantzisko kalera abiatu zen Cantalojasko zubitik. Jakablu barneko patrikan zeraman pisu dexenteko paketea, eta haren ondoan txekea, pisu arinekoa. Txekea! Ahaztua zuen bere soldata eguna zela. Ordura

arte kontziente izan ez balitz bezala, Jokinen inguruko amaraunak josten hasi zen, lotzen zituen ahala dardara nabarmenagotzen belaunetan. «Ze ostiatan ari haiz? Nola sartu haiz halako marroian? Tipo horrek ez dik eskubiderik beste barik halako egoeran ipinteko! Soldata eguna izorratu dik!». La Mercedeko zubian geratu zen ibaiaren pasaerari so. Arnasa sakon hartu eta Camel bat iziotu zuen, dromedario kearen efektu lasaigarriaren zain. Galderak oro nikotinazko laino batean gorde zituen, eta gauza arinagoez pentsatzen saiatu zen Somera kalean sartzean. Pentsa zezakeen, adibidez, nolakoa zen aurrean zihoan neskaren biluztasuna, zelako soldata izango zuten etxe pareko estoldak konpontzen ziharduten udal langileek... Langileak ordea, Manuelenean zeuden.

- Baltz bat, Manuel.

- Egun on lelengo, ezta?

- Egun on, Manuel. Baltz bat.

Hurrupe batean edan zuen zerbitzatzerako.

- Ño... Letxe txarrean hator ala?

- Beste bat.

- Bai antza.

- Ipini beste bat.
- Heuk gura duan moduan.

Hirugarrengez bete zion edalontzia, eta botila ere ondoan utzi. Udal langileak atenditzera joan zen tabernaria, nahiz eta Mikeli begirik kendu ez. Beste txikito pare bat atera zizkion bere buruari, harik eta Manuelek botila eta basoa kendu zizkion arte.

- Hi, gazte! Holan ez dok ezer konpontzen!

Mikelek tabernariari begiratu zion lehenengo eta botilari gero. Paketeko azken Camela jo zuen.

- Egia da, Manuel, baina ez naiz ezer konpontzera etorri.

Tabernariak begietara begiratu zion. Artean, eskuetan zituen edalontzia eta botila. Mostradorean utzi zituen berriz ere.

- Heuk jakingo dok zer egin, baina etxoat ulertzen zelan jarri leiken pertsona holan neska batengatik.

- Neska batengatik?
- Apariziño horregatik egongo haiz holan!
- Bai, klaro, apariziñoa...

- Pasatuko jak, hartu behar duan mozkorra baino lehenago aukeran.

Bere Pietatea. Eman zion, bai, Manuelek arrazoi bat pentsatzeko, buruak beste norabait doan bidaiatzeko. Eta edateko ere bai... Nori eta nola esan behar zion bestela zergatik sartu zitzaion bat-bateko mozkortu behar hura. Botilaren eperdia baino geratzen ez zenean laga zuen. Makinari Camel pakete bat erosi eta etxera. Udal langileen janzki urdinak emakumeen saskien multikolorearekin nahasten ziren Somerako eguerdian.

Informatiboa ikusten ari zen Dionisos. Laster ohartu zen Mikelen balantzen eta begi gorrien zergatiaz. Gaztea egongelako ate hegiaren kontra zegoen geldi, irribarre tonto bat ezpainenetan.

- Jarri hadi, ekarriko deuat edalontzi bat hiri be.

Sukaldetik itzuli zenerako, Dionisosen edalontzitik edaten ari zen.

- Eta? -Ducados bat iziotu zuen.

- Zer...

- Ea zertara datorren hire mozkor xelege hau.

Mikelek argitan jarri zuen basoerdia, ardoaren kolorean etorkizunaren berri jakin nahian. Jokin ikusi zuen barruan, eta zortzi milako txekea, eta Manuel, eta Pietatea.

- Pietatea.

- Zer dinok?

- Nire Pietatea, ma prima Donna, horixe, eta ez besterik.

Kolpean hustu zuen, kalizatik odola bezala.

- Lehengo eguneko neska?

- Baibaibai...

- Inoiz ez dok hartu orain baino lehen Zartateko Handia?

- Zartateko Handia...

- Ez dok sekula hartu, eztok? Hartzea tokatzen dok bat.

Dionisosek ere argitan jarri zuen basoerdia, ardoaren kolorean zerbait gehiago antzemateko.

- Bihotzean benetan min emoten daben lehenengo zartatekoa izaten dok Zartateko Handia...

Tragoan hustu zuen Dionisosek ere.

- ...benetan min emoten daben lehenengoa.

- Ba ote!

- Bada liburu polit bat horren inguruan, erdi nobela baltza dena. Zelan du izena...

- Denetarako daukazu zuk nobela bat!

- Ixo! *Galtzea metodo kontua da*, Santiago Ganboarena, kolonbiarra. Oso ondo azaltzen jok Zartateko Handiaren egoera animikoa, tentsio handiko narrazio baten barruan... Eta lehengoan aipatu neuan Pennac horren liburu batean ere azaltzen jok halako sentsazio bat. Irakurri behar-ko heunke.

Mikelen irribarre hordiak ez zeukan berehala-koan jaramon egiteko asmorik. Beste Ducados bat sutu zuen Dionisosek, pentsakor.

- Goserik badaukok, Mikel?

- Ez.

- Neuk be ez. Gaur etxoau bazkalduko. Moz-kortu egingo gozak. Ekarri egik Remelluri botila bat despentsatik.

- **Negargura** ematen jeustak zuen belaunaldiak. Ganorazko libururen bat irakurri dozue zuen bizitzan? Independentzia eta Sozialismoa! eta Euskal Herria Askatu! eta beste bost kontsigna... baina putaidearik ez iraganaz, ez urrunekoaz ez hurbilekoaz. Hik, adibidez, zer dakik karlistaldiez... Noiz izan zituan, zenbat... Putaidearik ez! Zer, Mikel, ez dok erantzun gura? Ba neuk erantzungo deuat: hiru, Mikel, hiru izan zituan karlistadak! Batzuk esaten jabek bi balira lez hartu leitekezela... berdin dok! Baina zuek ez dakizue ezer iraganaz, eta okerrena dok, ez deutsuela ardura... ez dozuela jakinminik be, hori dok okerrena, Mikel...

Gautua zuen itzartu zenerako. Ilargiaren sabelak betetzen segitzen zuen; tartean behin ikusten ziren izar bakanen ñirñirekin nabari zitezkeen umearen ostikoak. Hodei urdin bat edo beste kenduta, harmonia umeleko gaua zen. Arratsaldeko lo sendagarriak izaten duen esnatze prozesuan zegoen Mikel: bekainak altxatu zi-



tzaizkion mantso-mantso, zentzumena munduari zabaltzen hasi zen, gorputz adarrak osorik zituela ziurtatu zuen atzamarrak eta behatzak bakanaka zenbatuz. Plater hotsa zetorren sukaldetik. Larruazalaren dispositiboa martxan jarri zitzaion, egongelan izugarrizko hotza egiten zuela konturatu zen halako batean. Sukaldeko epelera joan zen korrika.

- Zuk utzi duzu leihoa zabalik?

- Bai.

Patata tortilla bat izango zena egiten ari zen Dionisos.

- Erotu egin zara? Pulmonia harrapa neza-keen!

- Bestela itota hilko hintzen.

- Itota!

- Ducados pakete osoa erre joat hiri berbetan jardun bitartean. Egongelan oxigeno maila oso baxua zuan leihoak zabaltu dodazenerako. Sermoia botaten ari nintzuan. Eta asko erretzen joat sermoiak botaten dodazenean. Capicce?

- ...

- Gainera uste joat sermoiaren parte handi bat alferrikakoa izan dela. Konturatu nazenerako lo siku hengoan.

Mikel aulki batean jesarri zen, bere burua besarkatuz berora itzuli asmoz.

- Dena dela, gustatu zait hitzaldia.

- A bai?

- Bai. Batez ere tonua.

Poztu egin zen Dionisos.

- Berba egiteko daukazun fraile tonu hori oso egokia da loan astiro erortzeko.

- Koño!

- Benetan! Uste dut denbora guztian egon naizela zure hitzen murmurra entzuten. Gustatzen zaizkit halako boz grabeak kuluxka bat egiteko. Umetan aspiradoraren atzetik ibiltzen nintzen, motorraren zarata epelaren atzetik...

- Mila esker. Ikusten joat nire hitzaldiaren zein alderdi hausnartu duan, animalia horrek. Pozten nok!

- Ez eman eskerrik, On Dionisos...

Lepoko bi eman zizkion, eta barrez lehertu zen. Beste hainbeste egin zuen Dionisosek ere.

Eta ondoren basokada bat ardo hartu zuen ba-koitzak.

Patata tortilla ikaragarria egiten zuen, bene-tan ona. Ia bere amarenen pare jartzen zituen Dionisosenak; jakinik ere ez dagoela norberaren amarena baino patata tortilla hoberik. Hala behar du eta, ez bada ere, hala esan behar da. Amen sailkapenean hamar puxtarri dagozkio pa-tata tortillari, ezin baita norberaren ama toki txar-rean utzi.

- Zenbat arrautza bota dizkiozu?

- Bi.

- Zelan egin duzu hain handia birekin?!

Erantzunari garrantzi handiagoa ematearren, trago sakona ostu zion ardoari.

- Lehenengo arrautza bi bota jautsoazat asuntoari. Ondoren beste horreetako sei hartu joazat irabiatzeko!

- Bikain, alajain!

Denbora batez beren ezpain moretuen arte-tik patata tortilla eta ardo gehiago irensten ja-rraitu zuten. Dionisosek gorri eta txinatar zeuz-kan begiak.

-Osteratxo bat egingo joagu afalostean?

Platerak harraskan uzten ari zen Mikel.

- Zergatik ez.

Hamaikak aldera agertu ziren La Villara. Mikel bazuen itxaropen txiki bat bere barrenean, ez zituela koadrilakoak aurkituko. Ez zen Dionisosekin maiz irteten juergan, eta halakoetan nahiago izaten zuen buruz buru ibiltzea. Dionisosi ez zioten grazia handirik egiten Mikelen koadrilako berriketek. Pare bat aldiz izanak ziren koadrilarekin, eta ondorio berera iritsi izan zen beti: patetikoa! Alabaina, esperantza apurrak pikutara joan ziren taberna barreneko mahaietan koadrilakoak ikusitakoan. Jonek agurtu zituen eskua jasota. Han ziren Ane eta Txapli, eta baita Muturbeltz eta Tito ere. Azken biak ez ziren izatez koadrilakoak, baina Txapliren bitartez sarritan elkartzen ziren Zuria Beltzekoekin. Bikote berezia Tito eta Muturbeltz, senar-emazte bereiztezinen antzekoa.

- Gabon! Hau Dionisos... ezagutzen duzue.

- Bai, noski. Gabon.

- Kaixo.

- Eup.

Isilunea egin zen mahaiaren bueltan iritsi berriei lekua egin bitartean. Garagardo pitxer batzuk zeuzkaten han-he men, tabako paketeak, eta erretzeko papera nonahi. Jon kanuto bat bil-tzen, Ane bere ezinbesteko ebakiari hurrup labur-rak egiten. Txaplik apurtu zuen mutualdia, ohi zuen gisan, galdera brillante batekin:

- Dionisos, jarraitzen duk liburuak irakur-tzen?

Eztulka eta barrez lehertu zen Jon. Baita gainerakoak ere ondoren, Dionisos bera barne. Titok eta Muturbeltzek ez zuten deus aditu. Baina besterik ezean, Txapliren galdera orijinalak lortu zuen giroa lasaitzea. Mikel eta Dionisos agertu aurreko berriketei eutsi zieten denek, ba-koitzak bereari. Muturbeltzek eta Titok euskera gehiegi kontrolatu ez arren, Anek bere euskera petoan esplikatzen zizkien zirenak eta ez zire-nak, guztiz ulertezinak. Txaplik eta Jonek kasurik ez; txokolate dastaketan ziharduten, bataren edo bestearen kostoa hobe ote zen.

- Sentitzen dut, Dionisos. Bakarrik egongo gi-nela espero nuen...

- Uste dok ez nazela honeekin konponduko? Gaur baikor najagok eta holakoetan edonorekin konpontzen nok. Egon hadi lasai. Anerekin be berba egingo joat gaur beharbada.

Harridurazko keinua marraztu zen Mikelen aurpegian.

- Tira... zer edango duzu orduan?

- Patxarana.

- Eta zuek, edateko?

- Garagardoa herriarentzat, eta bakea eta osasuna hildakoentzat!

Edariekin bueltatu zenerako Anerekin berriketan ziharduen Dionisosek. Bare ari zirela zirudien. Harritzekoa! Normalean eztabaidatu baino ez baitzuten egiten. Politikaz borrokatzen ziren, edo literaturaz, edo edozertaz, orotaz eta orotarik... Baina egun hartan lasai antzean zihoazen kontuak. Txapli eta Titoren artean jesarri zen Mikel.

- Ikusi duk egunkaria? Kontzertua ez duk zatatuan, bihar baizik. Eta gainera ez duk Gipuzkoan...

- Gasteizen duk. Irakurri diat, bai. Hik dauzkak potroak!

Lepoko bat eman zion Txapliri, eta honek barre batekin erantzun zion, noski. Gasteiz aipatzearekin batera gogoratu zen Jokinez, hark emandako paketeaz... Gomutak azkarregi hasi zitzaizkion burmuinetako autopistetan zehar. Geratu beharreko jarioa.

- Pasa kanuto hori, Txapli, atzokolak erre behar dizkik bestela.

- Trankil, motel.

Hiru upakada luze eman eta, ohiko teknikarekin, buruan zebilzkion ideiak lainotan ezabatzen saiatu zen. Lortu zuen, baina ez erabat. Txapliri xuxurlatu zion belarrira:

- Zer moduz gaude botika aldetik?

- Fenomeno!

Hortz ustelak agertarazi zituen irri batekin.

- Goazen ba.

Komunera abiatu ziren. Goiz xamar izaki, tabernan ez zebilen jende asko, eta beraz komunean ere ez... Muturbeltz eta Tito izan ezik.

- Sorpresa, Txapli! Guk ere nahi dut...

- Guk ere nahi dugu, Tito, ique no te enteras!

Txandaka konpondu zuten afera, oraindik ez baitituzte komunak zerbitzu hauetarako leku

erosoz prestatu lau lagunentzat. Koadrilara itzuli zirenerako bazeukaten beste erronda bat. Patxada ederrean berriketan ari ziren Dionisos eta Aneren solasera hurreratu zen jakinminez.

- Niri lehena eta laugarrena gustatu zaizkidak gehien.

- Ba niri danak. Tipo hori akojonantea iruditzen jatan! Akojonantea. Esan neutson lehengotan Mikeli... e Mikel!

Baiezkoa egin zion buruarekin, zertaz ari zen zehazki jakiteke. Imajinatzen zuen idazleren bat izango zela.

- Ez neuan esan Pennac akojonantea zuala?

- Bai.

- Ba hara hemen beste bat gabatxo horren sareetan jausi dena!

- Hara ba! Behingoagatik bi parnasokide bat datoz euren iritzietan.

- Hoa pikutara!

- Utziozu, Dionisos, sinpleegia da.

- Eskerrik asko, Ane. Segi zuen zakilki horri buruz hizketan. Ni ezjakinen sektorera noa. Hor behintzat futbolaz, ipurdiez eta titiez jardun liteke.



- Babua!

Beste birra erronda batzuk eta beste lerro pare bat ere joan ziren ondorengo orduetan. La Villatik Lasaira eta Lasaitik La Villara. Denak batu ziren lerroen txanda berrira, Ane aurrena, noski, kortesiaz. Dionisosek edaten zituen bata bestearen ostean patxaranak! Baina mesfidati baino gehiago zegoen bere kide gazteen komunerako bueltekin.

- Zer daukazue, koka? -galdetu zion Mikeli.

- Ez gara hainbestera heltzen. Speeda baino ez.

- Berdin dok, neuk be gura joat.

- Zer?

- Neuk be gura dodala, ze ostia! Etxoat sekulan probatu, eta gaur probatu egin gura joat... potroen puntan jartzen jatalako!

- Ondo dago, gizona. Esango diot Txapliri.

Keinu bat egin zion. Txantxetan hartu zuen hasieran. Ez zen eskaintzen ausartu gero. Baina komunean ziren minutugarrenera. Aurpegi serioarekin irten zen Dionisos, ahoa artean patxaranez pasta-pasta. Ez luzerako, laster batean ekin zion barbaroari, Anerekin. Elkarri txanda janez

jarraitu zuten huntaz eta hartaz. Hirurak aldera-ko jaso zuten desenbarku agindua, Ruperren kantu baten bidez. Azkenengo tragoak hustu eta gauaren hotzera irten ziren.

- Eta orain zer?

Jonek baino ozenago errepikatu zuen galdera Dionisosek:

- Hori, orain zer!

Gorputzak edaria eta martxa eskatzen zizkion. Seinale arriskutsua.

- Al Antxoki... estoo... Antxokira... hori da.

Taxian joatea proposatu zuen Dionisosek, berak ordainduko zuela.

- Zertarako da, ba, dirua!

Muturbeltz, Tito eta Dionisos taxi batean. Ane, Mikel, Txapli eta Jon bestean.

- Sosak xahutzeko dira, gure eskuetatik besterenera pasatzeko, eta hark beste bati, eta hark hurrengoari... Horrela, katea eginez, azkenean beti itzuliko da geure eskuetara, ulertzen?

- Bai ba. Halaxe da eta hala izan behar du.

Jendetxoa zebilen Antzokian. Gazteak (ikasleak gehienak) eta ez hain gazteak. Askok eta

asko mozkorren gorenean. Berdintsu Zuria Beltz koadrila.

- Garagardoa denentzat eta patxarana niretzat -kostata, baina agindu ahal izan zion Dionisosek kamareroari.

- Neuri be atarako deustak bat ezta?

- Koño, Edorta!

Dionisosek lepoko bat eman zion gizonari, hura ere erdi balantzaka, kaña izandako baso huts bat eskuan. Biribil xamarra zen, urdintzen hasitako bizarra eta ilajea.

- Tipo hori ez da idazlea?

- Baliteke, bai.

- Asko ibiltzen duk hemendik... Hemen bil-tzen dituk parrandan euskal kulturako OPlak!

- Bai e?

Jon sartu zen Mikel eta Aneren arteko zirika-da ulertu ezinik, baina kanuto bat ondo egiten ja-kinik.

- Nik lehen asko ikusten nuena zera zen... beste bertsolari hori... patilladuna...

- Iturriaga!

- Hori, hori: Iturriaga. Aspaldi ez dut ikusi. Baina lehen sarritan, beti mozkor-mozkor egin-da, egundoko betekadarekin.

- Ba! Estetika hutsa!

- Deskarauki!

Berriro komunera buelta eta beste lerro bana jira. Idazlearekin berriketan jarraitzen zuen Dionisosek, hari kañak ateratzen, argiago esanda. Muturbeltz eta Tito barre algara etengabea, Jon eta Ane kanuto bat erretzen, Mikel rock talde ospetsu baten inguruan iritzi zentzuzkoak josi nahian... tipo xebleke sasoiko gizona, berrogeien bueltan ibiliko zena.

- Kaladatxu bat emongo deustezue, ezta?

Kanutoaren usainera babestua, garagardo batzuk hartzen geratu zen haiekin. Bidaia eta geografia sinesgaitzez betetako istorioak kontatu zizkien, Gadaffi, Hitler, Arzalluz eta hainbat izen nahasiz istorio berean. Benetan bizitako legeak botatzen zituen. Inongo lurretatik bidaia-tzen ibili ziren gizon haren kontuen eta erre-sartu-edandakoen harira. Antzokiko argiak piztu

zirenean, Baader-Meinhofeko militante batekin  
nola topo egin zuen kontatzen ari zitzaien.

- Parisko hotel batean...

Eguerdiko ordu biak aldera ireki ziren Mikelen betazalak. Ezer ikusi ahal izan orduko egundoko burukomina sentitu zuen. Giroa astunegia zen kaskezur barruan, egun lainotu sargori batek baino sentimendu nagiagoa sortzen ziona. Erabat idor zituen mingaina eta aho sabaia. Ezpainetan eta mihian dozenaka arraildura txiki. Sabelak hustasun eta tristura mezuak bidaltzen zizkion burmuinera neurona eskirolen bitartez. Gi-zaki arruntok biharamuna esaten diogu sentipenen batura honi, edo ajea, edo erresaka, edo bestondoa, edo zakurzuria, edo astelehena, asteazkena eta zergatik ez: ostirala.

Ostirala, eguerdiko ordu biak aldera, ohi bezala ohetik jaiki eta komunera abiatu zen egunari bere hasiera logikoa ematera. Komunetik aditu zuen irrati hotsa. Pijaman geratzen diren zipriztinekin hurbildu zen sukaldera. Aulkietako batean jarrita, gorputz erdia mahaian sostengatzen zuen Dionisosek, eskuez buruari oratzen. Botila ardoaren orde z baso bete ur zeukan aldame-

nean. Uretan, bere buruaz beste egiten ari zen aspirina bat.

- Egun on, Dionisos... Burukomina?

- Hik zer uste dok?

- Uste nuen aspirinek ez zutela efekturik egiten, beti ere ardotxo bat zela onena.

Harraska ondoko botila ardoa hartu zuen Mikel.

- Ez duzu txikito bat nahi?

- Mikel, Mikel...

Justu-justu ulertu zituen Dionisosen hitzak.

- Zahartzen ari garela, zahartzen! Zuk ez duzu onartu nahi, baina halaxe da -parean jesarri zitzaion beste aulki batean-. Denbora badator eta badoa, Dionisos, badoa. Urteak badatoz eta badoaz, eta umeak gazte egiten dira eta gazteak heldu. Eta helduak zahartu... eta zaharrak hil!

- Mikel...

Bere izena ondo ezagutzen zuelako soilik ulertu ahal izan zion purrustada.

- Zorionez, kate horretan erdibidean zaude oraindik. Beraz, gaur ez zara hilko. Baina, baina... Orain heldua zara eta ez gaztea, ergo, gauza batzuk den-orduko ezin dituzu egin, capic-

ce? Atzo gure aurrean gu beste zinela erakutsi nahi izan zenuen, eta begira! Horra hor gure Dionisos Handia, uretan noiz desegingo, aspirina baten zain.

- Mekaguenlaputa!

Kolpe batean jiratu eta zutundu zen Dionisos. Eskumako eskuko hatz luzea altxatu eta Mikelen begien parean jarri zuen.

- Mekaguenlaputa, Mikel. Ze kakazahar emon zeunsteen atzo? Esan, ze kakazahar?!

- Kontu, kontu... Inork ez zintuen derrigortu kakazahar hori hartzera.

- Berdin deutso...

Dionisosek pauso bat atzera egin zuen, es-  
kuez buruari kokotetik helduta.

- Berdin deutso nik hartu edo zuek emon zeunsteen, egia da. Kontua da gaur txarto nago-  
ela, oso txarto! Bizitza osoan izan ez dodan ajea daukot, nire txilibitua baino txikiago sentitzen naz, nire aktibitate zerebralak mailu hotsa baino ez dau joten...

Mikelek goiko ezpaina ezkerrerantz eta go-  
rantz mugitu zuen pixka bat, halako oinaze kon-  
tenitu baten metafora tontoa irudikatuz.



- Ni tipo intelektualki aktiboa nok, ideologia bat jaukat, amets erotiko zenbait, bi mila liburu-ren fitxa literarioak... Arrazoi nahikoa egun bakoitzari aurre egin gura izateko! Ulertzen?

- Den-dena ez dut uste.

Dionisosek begi-zuloak igurtzi eta esan zuen:

- Egunak hogeita lau ordu jaukozak, ezta?

- Bai.

Berriz igurtzi zituen begi-zuloak, buruko ile laburrak atzamarrez harrotu.

- Biharko pasako jatak, ezta?

Barre zantzotan apurtu zen Mikel. Halaxe amaitu zen Dionisos Handia heroiaren aje-saioaren azken agerraldia. Ez zuen barrerik egin nahi, baina ezin izan zion eutsi barrutik zetorkion uholdeari, barrezko txalo zaparradari.

- Bravo, Dionisos! Eta animo. Ez dago ezer eternala denik, heriotza izan ezik...

Kolpe txiki bi eman zizkion sorbaldan, eta dutxara alde egin zuen. Dionisos aulkian jesarrita geratu zen, ukalondoak belaunetan jarrita eta eskuez buru pisuari eutsika, harlauzen zenbatze prozesua hastekotan. Terapia ez-go mendagarrria, alegia.

Dutxa eder bat joaldi eder bat bezain ederra izan litekeela esaten zuen kaleko filosofo batek. Biak ere gutxitxo egiten zituen, eta hargatik ei zien halako estima. Istorio hura otu zitzaion Mikeli, dutxatik irten berri, komuneko ispiluaren aurrean bere zakil ximurrari begiratzen zion artean. Ispiluko lurruna kendu zuen toallarekin, eta bere aurpegiaren antzeko bat ikusi zuen bertan. Begi-zuloak nabari zitzaizkion, baina gainerakotan ez zegoen hain gaizki; hau da, beti bezala. Hortzetako eskuila ere ikusi zuen konketan, eta haginak garbitzea erabaki. Haginak garbitzearena ez zen Mikelen usadio ohikoenetako bat, eskuila ikusten zuenean soilik gogoratzen baitzen horretaz, eta ez ikusten saiatzen zen normalean.

Albornoza jantzita, pertsona berria bailitzan sartu zen logelara. Leihoa ireki eta gelari arnas zezan utzi zion. Ohe gainean etzanda, ikusmiran egon zen une batez. Astoez egindako mahai gainean pilatuta zeuden egunkaria, liburuak, jertseak eta forma lausoko trasteak. Lurra, bezperako arropez estalirik; eta haien artean, armairuko atetik eroria, jakanarrua, eta zintzilik... jaka-blua.

- Ostia!

Supituki jaiki zen ohetik. Jakabluko poltsikoak arakatu zituen. Plastikozko poltsa baten taktoa sentitu zuen ezkerrekoan.

- Uuf...

Jaka utzi eta ohe ertzean jesarri zen, eskuez buruari eutsika eta ukalondoak belaunetan jarrita. Arratsalde hasierako ordu hartan, etxe hartan, gela banatan, pertsona bik Rodinen *Pentsa-lariaren* eitea hartu zuten udazkeneko eguzki ahularen argitan. Bi burmuin gurinezko, eta hondoan irrati hotsa, egoera harekiko ganorabako ari zen esatari ganorabako baten ahotsa... Eternitatea. Denboragarrenera jo zuen telefonoak.

- Mikel?

- Bai, neu naiz.

- Bazakiat heu haizela. Ze ostia egiten duk oraindik hor?

Ane zen mehatxuka. Mikelek lepoa luzatu eta sukaldeko erlojuan irakurri zuen:

- Seiak!

- Eta hamar, seiak eta hamar! Bost t'erdietan geratu gintuan!

- Laster naun hor. Eman bost minutu.

- Hoa zuzenean lokalera, gu harantz goazak!

Kamiseta bat izan ezik, bezperako arropak jantzi zituen. «Parranda usaina daukate, baina noan lekuan ere halakoxea egongo da...». Jaka-blutik kontu handiz eta izerdi hotzetan atera zuen plastikozko poltsa baten barruan zihoan kaxatxo. Une batez ere ez zuen sentitu barruan egon zitekeenarekiko ikusminik. Baxuaren kaxa zabaldu eta kordel berriak gordetzen zituen konpartimentuan sartu zuen. Jakanarrua sorbalda batean eutsi eta, irtetear zegoenean, praketako atzeko poltsikoa ukitu zuen gainetik. SOS! Ez zeukan sosik. Lehengusuaren txekoa kobratzera joan behar zuen goizean, baina ez zen esnatu. Egongelan zen Dionisos, National Geograficen dokumental bati beha, umeez marrazki-bizi japoniarrei behatzen dieten bezala.

- Barkatu, baina... zera... utziko dizkidazu mila ogerleko?

- Hartu mesanotxetik.

Ez zuen burua jiratu ere egin. Pantailari so zirauean, estatua bat bezain geldi.

- Buelatuko dizkizut, txeketa bat daukat...

Dionisosek ez zion arretarik ipini. Pantailak irentsita zuen.

- Eskerrik asko! Gero arte!

- Bai, agur.

Gogor oratzen zion eskumaz baxuari Somera kalean zihoalarik. Maletatxo batean hamar kilo plutonio baleramatza legez sentitzen zen, tentsioan. Batera eta bestera begiratzeko zuen. Mesfidantza sortzen zioten beherapenetan alabentzat kuleroak erosten zituzten emakumeek ere. Denak izan zitezkeen poliziak. Jonek beti esaten zuen: «Alde Zaharra poliziaz beterik dago, nahiz eta guk nabaritu ez». Zergatik ez zitezkeen bada soineko gris zatar batekin zihoan lodikote hura polizia izan? Simagoko zebrabidea gurutzatzean gizon bat geratu zitzaion alboan, Mikelen garaierakoa baina sendoagoa, bibote iletsua, txokorra erretzen, hiru laurdeneko jaka urdin batez jantzia. Pareko espaloian, amona zahar bat eta gizon gazte bat, ispiludun betaurreko bluak eta matrailetaraino ere heltzen ez ziren patillekin; eta honek ere hiru laurdeneko jaka, berdea. Jonek beti esaten zuen: «Paisanozkoek hirulaurdenekoak eramaten dituzte pipa disimulatzeko».

Mikelek gogor eusten zion baxuaren kaxari. Errepidean etengabeko igaroan zebiltzan autoak. Semaforoak geldiarazi zituenerako bidea zeharkatzen hasia zen pareko espaloiko mutila. Mikel, mugiezinik. Bere aldameneko gizona ere geldi, txokorrari upaka. Pareko espaloikoa ia Mikelen espaloian zen ordurako. Haren betaurreko blue-tan ikusten zuen Mikelek bere figura desitxuratu. Ondoko bibotedunak txokorra lurrean amatatu zuen zapatarekin, eta aurrera abiatu zen. Ispiluzko betaurrekoduna albotik igaro zitzaion, eta Ronda kalean sartu. Bibotedun gizona Atxuriko geltokira bidean zihoan. Mikel, denbora guztian geldi. Hain tinko heltzen zion baxuari, atzamarrak minberatzen hasiak zituela. Mugitzea erabaki zuenerako bazetorren berriro auto ilara, San Antongo zubitik.

«Ezin duk horrela jarri, Mikel. Ezin duk ibili hire ondotik igarotzen diren guztiak txakurrak direla pentsatzen! Kaguendios, Mikel, lasaitu hadi! Esan zian Jokinek ez ziola inork jarraitu. Sinetsi eta kito. Hoa hire baxuarekin Gasteizera, emaiok paketetxoa eskatzen dianari, eta akabo! Gero harrapazak atxur eder bat, inoizko itzelena!».

- Egia da, joder... Gora Euskadi!

Furgoneta ia kargatuta zeukaten. Anek atzealdean pausatu zuen Pearlaren bonboa, urregorritzkoa bailitzan, eta bateriaren azken burdinak sartzen ari zen, tentu handiz. Txaplik ahots ekipoaren kableria bildu zuen zorro batean. Jonek peta bat egiten ziharduen. Lokaleko atean beste tipo mehe bat zegoen, kanpera diskretu beltzak, praka beltzak, lepodun jertse fin beltza eta larruzko amerikana tipoko beltza. Ia bekainera arte flekilloa, jertsearen lepo gainetik aurpegi zuri mehe batek begiratzen zion, sudur zorrotz batean atsedean hartzen zuten antiparra obalatu fin batzuetatik. Anek aurkeztu zuen:

- Iñigo da, kolega bat. Itzultzailea da.

«Gurekin joango haiz, baina ez haiz itzuliko» esatea otu zitzaion, baina ez zuen zakar izaten jakin:

- Nik kazetaritza ikasi nuen...

Baxuaren kaxa eskuan, lokaleko ate aurrean zutik eta geldi zegoen Mikel. Jon barrurantz joan zen eta pasaeran kanutoa utzi zion, eta baita, bide batez, belarrira berba batzuk ere:

- Enterau bat da!

A-68 autopistatik zihoazen Gasteizera bi-dean. Mikel aurrean, beti bezala, Txapliren ondoan, isilik, bihotzerrearekin. Atzean, alde batera, Jon leihotik begira. Iñigo eta Ane ondoan, berri-keta entretenitu batean. Jon bere kanuto propioa erretzen, bikoteari kasurik egin gabe. Txapli furgonetari animoak ematen, Altuben gora azkarra-go joan zedin.

- Aizu!

Aneren lagunak eskua jarri zion sorbaldan. Mikel jiratu egin zen.

- Anek esan dit zure pisukidea oso irakurza-lea dela, ehunka liburu dituela etxean.

Hurrengo lehen letrak apenas merezi duen maiuskularik Mikelek jarri zion enfasiagatik:

- Bai.

- Zer gustatzen zaizkio: historikoak, garaiki-deak, klasikoak, espresionista alemanak, erro-mantikoak... Hego Ameriketako errealista magi-koak?

- Ez... ez zaio futbola axola.

- Zer?



Iñigo Mikelengana hurbildu zen ia bere gorputz gainean jarririk. Jakinminaren irribarre inozoa zuen ezpainenetan.

- Ezer ez. Denetarik irakurtzen du.
- Eta zer iritzi du euskal literaturaz?
- Baa...

- Ez al du uste oso maila eskasekoa dela? Izan ere hemen edozer argitaratzen da, eta laster sortzen dira jainko txikiak lehenengo nobelarekin, batez ere manifa honetarako edo hartarako atxikimendua adierazten badute. Baina... baina, maila? Benetako maila? Mesedez... Kilo-metrotara gaude oraindik beste edozein literaturatik. Hala ere, hemen oraindik euskeraren aitzakian dena baliagarria denez... Ez du berak hori esaten? Hainbeste liburu irakurri badu, seguru baietz!

- Bai... Seguru.

Bigarren hitza esaterako, Mikel aurrera begira zen berriz ere, elkarrizketa bukatu zen seinale. Iñigok kontestualizatu ondoren ulertu zuen keinua, eta atzealdera bueltatu zen.

- Esan dizut lehen ere, enterau bat da!
- Enteraua!

Gaztetxe parean furgonetatik jaitsi berriak ziren Jon eta Mikel.

- Ez dakit zer dudan nahiago, nire anaia bezalako kirolzale subnormal bat edo horrelako tipo bat.

- Nik zure anaia aukeratuko dut.

- Ba nik «Sopitas».

Gaztetxera sartu ziren. Hamar bat lagun atzera-aurrera zebiltzan, batzuk lurrean pankarta bat egiten, beste batzuk oholtzan beste pankarta bat eskegitzen.

- Txapli, zein mobidaren barruan duk gaurko kontzertua?

- Ez zakiat, Mikel, ez nagok ziur. Nire adiskide baten neskalagunaren bidezko deia izan duk. Kolegak Gasteizen ikasten dik eta neska hemen goa duk. Baina, dena dela, ez zakiat zein mobida den.

- Joder...

- Berdin dio. Izango duk zerbaiten alde... Edo zerbaiten kontra bestela! Betiko moduan.

Txaplik barre egin zuen. Barrara hurbildu zen gero eta, zabaltzeke zegoen arren, garagardo bana lortu zituen.

- Guk bakarrik joko diagu edo besteren batekin?

Txaplik egundoko zurrutada eman zion bereari.

- Auskalo. Akaso egongo dun antzerkiren bat, edo malabaristak... Hau gaztetxe bat dun! Gaztetxeetan halako gauzak egiten ditun, ezta?

- Batzuetan babua haiz.

- Neuk ere hori berori pentsatzen dinat batzuetan, maittia...

Jon beste kanuto bat egiten ari zen. Txaplik bigarren eta azken tragoa eman zion botila hari.

- ...baina beste batzuetan ez!

Eta ohiko algarak egin zituen. Jon eta Mikel ere korura gehitu ziren, eta baita Iñigo itzultzailea ere... Anek zemaika begiratu zion arte.

- Zer, filatxo bat?

- Nik ez.

- Paso.

- Geroxeago, Txapli.

- Ba nik sartuko nuke txiki bat.

Txaplik goitik behera begiratu zion.

- Hara! Gure itzultzailea! Ez haiz ba hi jakatik zigarroak piztuta ateratzen dituen horietakoa izango?

- Nola?

- Ezer ez... Goazen, jarriko diat lerrotxo hori.

Soinu froga egin eta instrumentuak prest utzi zituzten. Jaia hamar t'erdietan hastekoa zenez, garaiz zebiltzan.

- Goazen Kutxira pote batzuk hartzera -manager paregabea zen Txapli-. Ezer afaldu nahi duenak jan dezala bokata bat orain edo isil dadi-la betiko!

Kutxira jaitsi ziren. Kalearen sarreran bada bokatak ematen dituzten taberna bat.

- Edateko birra. Jatekorik inork?

- Nik ez. Ahal duzunean filatxo bat jarridazu.

- Zure aginduetara, madame. Hik, Mikel?

- Ezer ez. Ez nauk gose.

- Nik bat erdibana...

- Neure kontu, Jon. Eta hik?

- Nik oso bat ere jango nuke.

- Hara! Gaur Itzultzaileen Eguna dugu ala?

- Nola?

- Ez hadi putakumea izan eta eskatu egiok bokata bat atoa, potroetako bat hartu nahi ez baduk!

Ikaratzekoa zen Aneren alde biolentoa. Txaplik jaso zuen mezua; eten eta kanbio. Bokatak jaten zituzten bitartean, eta Anek pintxoak, Mikelak lau bat garagardo edan zituen bata bestearen atzetik. Jokinek emandako paketetxoak etortzen zitzaion burura behin eta berriz. Hantxe zegoen baxuaren barruan. Eta bera taberna batean garagardoa edaten! Gomutak uxatzeko modurik arinena mozkortzea zela erabaki zuen.

- Joder, Mikel, atzoko egarriak irauten dizu oraindik!

Anek gilda bat sartu zuen ahora, emakume finek ohi duten gisan, ezker eskua pintxo azpian ipinita.

- Ez hadi mozkortu jo aurretik! Jo eta gero nahi duana, baina jotzera behintzat sano joan hadi.

- Hire aginduetara, madame.

- Mademoiselle, mesedez.

Txaplik komunerako keinua egin zion Mikeli, eta biek batera alde egin zuten.

Ĺnigok astiro eta tentuz dastatzen zuen txanpinoi tortilla ogitartekoa, jaten ari zen bitartean denen bistara jarriz, umeen moduan.

- Odola dauka, e? Nire ustez neska horrek badu halako kasta berezia... Lider bat da!, ezta?

Mikel eta Jonek bizkarra eman zioten, erantzunik gabe. Beste birra bat eskatzeko aitzakia egokia.

- Jon, zuk beste bat?

- Bai, zergatik ez.

Camel bat iziotu zuen. Biek ere ukalondoak mostradorean paratuta, aurrera begira geratu ziren.

- Zer pasatzen zaizu? Ze ostia daukazu bu-ruan?

- Ez da ezer.

- Nola ez dela ezer? Zertara dator egun osoan daramazun zakur aurpegi hori? Erretxin-duta zaude!

- Ez da ezer, Jon. Marroi txiki bat, ez besterik.

- Seguru?

- Benetan.

Beste hiru garagardo joan ziren. Taberna batetik bestera zeramatzan Txaplik. Parralen hartu

zuten azkena, eta handik gora, Gaztetxera. Ez zegoen jende larregi, ehun bat lagun. Gehienek janzkera undergroundaren baldintzak betetzen zituzten, gutxi batzuk oharkabean agertuko ziren.

- Aupa jendea! Lehenengo egongo da antzerkia eta gero zuek, bale? Antzerkia dira Burgosko etxe okupatu batekoak, oso onak! Eta gero zuek... oso onak ere bai, bale?

Txapliren kolegaren neskalaguna bide zen. Esan beharrekoak esan eta jendearen artean galdu zen, txikitxo, kaobaz tindaturiko ile lisoa. Antzerkia neoliberalismo basatiaren aurkako metafora bat ei zen; Txapliri, aurpegia zuriz pintatuta eta maila beltz batzuekin paketea markatzen zuten morroi bi baino ez zirela iruditu zitzaion arren. Baita Joni ere. Mikeli beste hainbeste.

- Oso ona!

Lauzpabostekin batera, itzultzaileak txalo egiten zuen, katxiari hortzekin eutsiz.

- Katxia ez du askatuko alu horrek!

- Ahaztu, badaukat beste bat.

- Tira mutilak... eta neska! Zuen ordua da.

Jonek azken zurrutada eman zion katxiari. Miekelek ere bai, baina taldekideen harridurarako, burutik behera bota zuen erdi ingururaino gertzen zen garagardoa.

- Erotu egin haiz?

- Behar ninan!

Sorbaldak bustita, artean garagardoa zeriola musutik, tantak miazkatzen zituen erori ahala. Ipurdian zaplada bat eman zion Jonek, oholtzara igo baino lehen.

- Totala Mikel! Animo!

Oholtzako argi bakanak piztu eta, hainbat alditan entseatu bezala, baxu kolpeak markatzen hasi zen Mikel. Anek mesfidati begiratzen zion bateriaren ostetik, erritmoa espero baino hobeto zeramala iritzita. Baxu lerroaren bigarren bueltan batu zitzaizkion Jon eta biak.

- Gabon, Gasteiz!

Mikrora oker-oker eginda oihukatu zuen Miekelek, baxua ia belaunetan.

-Zuria Beltz gara. Bilbotik gatoz.

Txalo bakan batzuk eta txisturen bat.

- Egunen batean munduko bandarik onena izango gara!



Kontzertuan zehar betiko kontsigna erabili zuten: atsedetik ez! Nahiz eta jendea geldo xamar egon, aurrealdean izan zen saltsa pixka bat, hogeit bat laguneko koadrila bat garai bateko punkien eran salto eta brinko. Egia esan dantzak haiek ez zuten musikarekin zerikusi handirik, baina berdintsu zitzaien. Jon jendartera jaitsi zen kantu batean, eta ia pikutara bidali zuen dena: kablea atera egin zuen anplifikadoretik. Eskerrak Txapli zuhur egon zen akats teknikoa konpontzeko... eta gitarra-jolea kolkotik helduta oholtzara igoarazteko. Jon ez zen ohartu ere egin, ohiko metamorfosia pairatzen ari baitzen.

Antzuolan bezalaxe, gitarra eta baxua anplien parean jarrita bukatu zuten kontzertua Jonek eta Mikelek. Ane minutu beteko soloan murgildu zen luzimendu eta luzamenduan, eta txapa kolpe batekin amaitu.

Jendeari beste bat eskatzeko aukerarik eman gabe, Txapliren adiskideak bereganatu zuen oholtzako mikroa.

- Orain aterako dugu zozketako zenbakia.

Gorputza ezker-eskuma mugitzen zuen, Julio Iglesiasen koristen antzo.

- Ai! Jausten zaizkit zenbakiak... Itxaron... Orain bai. Badakizue sarituak hogeita bost gramoko kosto bola irabaziko duela... Ea ba...

Hartan ari zela, oholtzara igo zen Aneren itzultzailea, katxi bat eskuan balantzaka. Neskari sorbaldatik oratuta, jauzi txikiak emanaz hasi zen kantuan:

- Emoistazuz mosutxuek, maitie! Hartuizu guruzun guztixe! Eroaizu bixotz...

Txistuka hasi zitzaion jendea. Txaplik alden du zuen kolkotik helduta.

- Babua!

Kontzertuaren ondoren relaxa. Txaplik, manager mundialaren gisan, lerroak prestatuta zeuzkan Euskadiko Kutxako txartel gainean; Jonek kanuto bat egin zuen; Anek ez zion Iñigori aurpegira begiratu ere egin.

- Emoistazuz mosutxuek... Ze erridikulua!

- Zer espero zenuen ba? Dandy bat?

- Ze ostia! Nik ez nuen mozkortuta ezagutzen.

- Ba horra hor! Orain konpon zaitez zeu bera- rekin.

- Ni? Bai zera!

Itzultzailearen mahaspasaren anekdotatik aparte, giro ederrean zeuden. Bafleetatik reggaea entzuten zen lehertzeraino. Komuneko jiraren ostean hurbildu zitzaizkien gaztetxeak.

- Oso ondo!

- Bai, bai, kañeroa!

- Asko gustatu zaigu.

- ¡Yo no entiendo euskera, pero de puta madre, tío!

Birra eta kanutoen joan-etorria etengabea bihurtu zen. Txaplik antzerkikoekin berriketan ziharduen, beren lana asko gustatu zitzaiola esanez. Lortuko ziela boloren bat Bilbon.

- ¡Estaría de puta madre, tío!

- ¡Eso esta hecho, joder! ¡Aunque sea os lo monto yo!

Okupa belgikar batzuekin ari zen Ane, bere ingeles maila erakusten. Belgikarrek adi entzuten zioten. Mikelek ez zezakeen asmatu zer konstatzen ibiliko zitzaien, baina ingelesaren aitzakian aldendu zen Jonenganantz. Hau, hogeita hamar inguru izango zituen neska batekin ari zen; noizean behin lepoko bat ematen zioten elkarri, beti barreka. Mikelek, bazter batean erdi lo

zegoen itzultzaileari katxia kendu zion eskuetatik. Harri koxkor bat eskatu zion Joni. Kanutoa egin zuenerako, lehen Jonekin jardundako neska hurbildu zitzaion.

- Aupa.

- Kaixo.

- Ondo egon zarete, asko gustatu zait.

Galtza bakeroak eta antezko jaka bat. Ile motxa eta beltza. Aro handi batzuk belarritako. Ezpain haragitsuak.

- Eskerrik asko... pozten naiz gustatu izanagatik.

- Benetan, asko gustatu zait.

- Ondo...

Elkarri begira geratu ziren isilean. Mikelek egin zezakeen bakarra egin zuen, kanutoa pasa. Beste isilune bat egin zen, neskak berriz berba egin zuen arte.

- Hartuko dugu trago bat?

- Nik badaukat.

Katxia luzatu zion.

- Epelduta egongo da honezkero... Biok bakarrik hartuko dugu bat...

Irribarre xaloa marraztu zen neskaren ezpainetan. Mikeli zirraragarria iruditu zitzaion, Giocondaren irribarrearen aldean sentsuala. Baieztzik edo ezetzik esan orduko eraman zuen neskak barra aldera. Mikelen bihotzean gehiegizko abiadura hartu zuten taupadek. Bazen denbora emakume batek horrela eskutik heltzen ez zuela.

- Zer nahi duzu, birra bat?

- Bai.

Begi nabar politak zituen. Baina batez ere ezpainak. Mikeli burutik pasatu zitzaion, neska haren muxu bat miragarria izan zitekeela, eta iruditu zitzaion, gutxitan bezala, gorputzari baino aurpegiari erreparatu ziola lehenago. «Bilboko, ezta?», «Ez, Bilbo nirea da!» eta halako berriketa tontoekin ibili ziren apur batean. Beste birra bat eskatu zuten. Tartean behin Mikelek jendearen buruen artetik begiratzen zuen, ea besteak han ote ziren oraindik. Jon reggaea dantzatzen, kanuto bat eskuan; Ane giriekin solasean. Halako batean, Mikelek berak ere nola ez zekiela, eskua luzatu zuen neskaren gerrialdera.

Egindakoaz jabetzeke, neskaren begiradarekin topo egin zuen.

- Hori da, horrela... Eta orain beste eskua...

Neskak beste eskua heldu zion, eta bizkarrean pausatu.

- Orain hurbildu zaitez pixka bat... Zaude lasai, ez zaitut jango.

Bihotzak legezko abiadura-koxka guztiak gainditu zituen, baina bere zainetako autobideetan ez zegoen isuna jartzeko ertzainik. Aurpegia neskaren aurpegiaren parean jartzean sentitu zuen azal arrotzaren goxoa.

- Oso ondo, laztana, oso ondo... Orain hurbildu zure belarritxo...

Makurtu zenean, muxu labur bat eman zion belarri ertzean. Ahapeka hizketan jarraitu zuen neskak, baina tonuera aldaturik:

- Orain esadazu... Zuk pakete bat daukazu niretzat!

Sutan zegoen, infernuko sutan. Politegia zirudien egia izateko. Gerri mugimendu txiki batekin neskaren gorputzaren kontra itsatsi zuen bere paketea. Bakeroen barrenean, askatasun eske zebilen gatibua zen zakila.

- Ez konpañero, ez...

Neskak atzerako urrats bat eman zuen errietagiteko. Lotsagorritu egin zen mutila. Eta hala ere neskak belarri ondora hitz egin zion berriro.

- Pakete hori ez, babua! Ez daukazu beste paketerik?

- ...?

- Zure lagunak ez dauka, eta bi mutil baino ez zarete taldean... Biotako batek nik jaso beharreko paketetxo bat eduki behar luke.

- Ostia!

Abiadura itzelean zihoakion bihotza geratu egin zen bat-batean.

- Lasai. Ez aztoratu...

Neskak Mikel askatu eta trago egin zion garagardoari.

- Zoaz astiro eta ekartzazu pakete hori!... ezer gertatu ez balitz bezala.

Oholtzako albo batean lagatako baxuaren kaxa zabaldu eta, begiratu ere egin gabe, hartu zuen hartu beharrekoa. Jakanarruko patrikan sartuta eraman zuen barra aldera. Neskak bere jaka barruko poltsikoan sartzeko agindu zion, garagardoari beste trago bat edan bitartean.

- Eskerrik asko...

- Mikel...

- Hobe esan izan ez bazenu. Baina berdin dio, nik ez zaitut ezagutzen. Hurren arte. Eta ea kolore horiek bajatzen zaizkizun!

Hanka egin zuen. Eta berarekin eraman zituen antezko jaka, ezpain haragitsuak, begi nabarrak... eta zorioneko paketetxoa! Izugarrizko bakea sentitu zuen Mikelek, zama astunegi bat gainetik kenduta bezala. «Ahaztu ezak hori orain, ahaztu ezak!».

Jon hurreratu zitzaion jendartetik dantzan.

- Zer, zuri ere esan dizu paketetxoarena?

- Zer???

- Nik ezetz esan diot, ez nuela nahi...

Gogor jotzen zuen bafleetan Toots and the Maytalsen musikak.

- ...gaur ez daukat neskatarako gogorik. Gaur parranda bota behar diagu, Mikel. Parranda latza!

- Hori duk arrazoia, Jon! Egik kanuto bat!



Bilbon zarra-zarra ari zuen euria arratsaldeko hiruretan. Milaka tanta H<sub>2</sub>O suizidatzen ziren kanpoan, espaloi, teilatu, auto, zuhaitz eta farolen kontra, beren izateaz beste eginez. Somera kalean, udaleko brigadillak astero konpontzen zuen estolda gainez ari zen. Urak barrikada egiten zuen Manuelen taberna aurrean, ezinezkoa zen orkatiletaraino busti barik handik igarotzea. Kale bereko 13an, latorrizko hodi zahar batek ur jauzi estatusa aldarrikatzen zuen jario batean. Eta jarioak bigarren pisuko leihoan jotzen zuen, tarteka bete-betean, haizearen arabera. Leihoa itxita zegoen, pertsianak beheraino botata. Barruan lo zetzan Mikel, Dionisosek atea zabaltu eta argia piztu zuen arte.

- Baina, baina... ze ostia?!

Protestan saiatu arren, ez zuen benetan ahoskatu. Artean loaren mundutik mundu errealerako bidaian zegoen, erdi parean, restop batean.

- Hire ama telefonoan.

Dionisosek pertsianak goratutakoan, ukalondoaz begiak babestu zituen argitik, Bela Lugosik hainbatetan egin zuen bezala.

- Tira, Drakula!

- Zer?

- Espabilatzeko, joder! Paso bakoitza 5'7 pe-zeta dozak, eta hire amak bajoazak batzuk.

- Banoa, banoa...

Burumakur jaiki zen ohetik. Karrajoan, gal-tzontzilotan, homo sapiensa baino bi eskail-maila beherago dagoen primatea zirudien. Gal-tzontzilo barrenean gogor eta zut zeukan zakila. Pixagura ere ikaragarria, giltzurrunek hustuketa exigitzen zioten sindikatuen bitartez.

- Ama?

- Mikel... Ondino lo zengozan ala?

- Baai.

- Hiruretan da ohien? Gaur be egune argitu ta gero etxeratute egongo zara zu seguru asko...

- Baai ama...

- Bai, bai, zuk beti baai!

- Zer gura dozu?

- Zuk ahaztute eukiko dozu iguel eta, horri-xaitik deitzen deutsut. Bixer aiten urtegune da!

- Ostia! Ahaztute...

- Ostia besterik ez dozue esaten zuek ala?

Dana ostia!, dana joder!

- Amaa...

- Bai, bale. Etorriko zara bazkaltzera?

Galdera ikurra jarri diogun arren, benetan agindu esaldia izan zen.

- Bueno...

Ez zuen joateko batere gogorik, baina ezin zion amari ezetzik eman.

- Bueno dinozu!

- Joango naiz, ama, joango naiz.

- Klaro! Zergatik ez zatoz gaur eta bertan egingo dozu lo.

- Bueno ba...

- Ohie prestaute itxiko deutsut. Holan bide batez zeure lagunekin egon zeinke gaur gabaz... Aspaldi ez deutsezule bisitarik egin, Mikel; hori ez dago ondo.

- Egia da, ama. Baina eske...

- Aitorren amak askotan esaten deuste Aitor asko gogoratzen dala zutaz...

- Badakit, ama. Baina...

- Nik ohie prest itxiko deutsut, etorri gure badozu etorri!
- Saiatuko naz gaur joaten.
- Bazatoz pasau etxetik afaltzeko edo kopo bat egiteko behintzet.
- Bale...
- Gero arte, Mikel, aiteri tisanatxo bat ipini bitzet-eta!
- Gero arte, ama.

Klonk. Eta karrajoan zutik eta geldi tipo mehe bat galtzontzilotan zakilak laurogeita hamar gradutako angelua proposatzen ziola, darwinismoaren testigantzarik behinena ematen. Sukaldeko atetik burua jalgita, Dionisosek gizakiaren eboluzioaren teoriaren adibide hari behatzen zion.

- Barregarri hago.
- Zer?
- Barregarri hagoela.

Egoeraren lotsagarriaz jabetu zen. Barrabilak goxo igurtziz, bisaian keinu aingerutar bat irudikatu zitzaion.

Segidan komunera. Badaezpada eseri egin zen, tentetasun harekin ez zegoen jakiterik komunetik kanpora txiza arrastorik laga barik egi-

tea posible izango ote zen. Lanak izan zituen haragi puxka egoskor hura komunaren neurrietara makurrarazten. Gerri gainak lasatzen sentitu zituen parrastada bota ahala. Puxika hustu eta gero ere komunzuloan jarrita geratu zen. Burua danbadaka zeukan, San Sebastianetako danborrada *Iriyarena* jotzen. Pieza gogoangarria, bai jauna! Galtzontziloak orkatiletan eta ukalondoak belaunetan, buruari esku biez eusten zion. Galtzaile baten erretratua zen hura, eta ez pentsalari batena.

Sentsazio hura gaineratik kentzeko ezagutzen zuen metodorik onenetako bat: dutxa beroa! Halaxe egin zuen. Dutexapeko ur beroaren goxoan ezin izan zuen ekidin kanpaia jotzea. Bezperako neskaren irudia agertzen zitzaion behin eta berri. Denboraldia zen Mikelek ez zuela emakumezko bat hain gertu sentitu. Enkontru hark libidoa piztu bide zion, eta orain libido hori askatzen baino ez zen ari. Eta isurkari hori kanporatzeko, zein bide hobea zakilaren tututxoa baino? Eta denok goxoarekin erlazionatzen dugun masa itsaskorra isurtzeko, zer plastikoagoa eta estetikagoa zakil porrutu bat baino? Halako buruta-

pen falofiloak zerabiltzan, arnasa zuzpertz bitartean. Dutzatik itendakoan freskurarekin izandako kontaktuak kamaleoi bat legez sentiarazi zuen, azala aldatu balu bezala. Gizon berria jaioa zen... baina ispiluak ezin izan zuen une historiko hura islatu. Lurrunduta zegoen.

- Paella eginda jagok gura badok.

Dionisos informatiboren bat ikusten ari zen, Ducadosa esku batean eta ardoz beteriko godaletan bestean.

- Kafea be martxan dago.

- Kafea hartuko dut.

Barruko arropa garbiaz eta txandalaz aratz eta fresko sentitzen zen. Arintasun sententzioa gorputz osoan zehar zirrika. Biharamunari aurre egin zion, eta baita garaitu ere. Ez da beti amore eman behar gorputzaren diktaduraren aitzinean; batzuetan, gutxien uste denean, Minoria Arrazionalak irabazten du. Egongelara eraman zituen italiana lurrintsuak egin berriko kafea eta kati-luak.

- Zelan joan zuan atzokoa?

- Ondo!

Esne tantatxo batekin Dionisosentzat, kafes-  
ne handia Mikelentzat. Ogia ere ekarri zuen bus-  
titzeko. Arratsaldeko lauretako gosaria.

- Espezial! Deputamadre!
- Ño! Eguna zabaldua etxeratu zaree...
- Bederatziak aldera.
- Parranda galanta.
- Bai horixe.
- Ondo?
- Bai ba!
- Neskaren bat tartean?
- Ez, ez...
- Anerekin edo...?
- Anerekin? Erotuta zaude? Ane nire laguna

da.

- Eta?
- Ba...
- Hire lagun batekin ezin dok narrutan egin?

Nik egin izan joat.

- Ez da hori...
- Joder! Ba nik izango neuke joaldi bat neska horrekin. Lehengoan konturatu nintzuan baietz.

Ezetz uste najoan, baina bai.

- Nik...

- Gau osoan edan eta txarrikeriak hartu besterik ez dozue egin?

Mikelek ogi pusketa handiak bustitzen zituen kafesnetan, eta bere osoan irensten.

- Zuk akaso pentsatuko duzu ez dela posible parranda egitea neskatan ibili gabe, edo bestela mundua konpontzen aritu gabe, baina badaude beste modu asko libertitzeko. Asko.

- A bai? Zeintzuk?

- Dantzan egin, musika entzun... mainguka ibili... edo besterik gabe hitz egin, adibidez.

- Koño! Hik dantzan egiten dok?

- Batzuetan.

- Oso ondo, Mikel, hik egik dantza. Egik dantza geratu barik, gau eta egun, egun eta gau, egik dantza, Mikel! Azken batean zer dok ba narra jotea? Ezer ez... deus ez! Denok praktikatu nahi dugun kirol ez-deus bat besterik ez.

- Zu mozkortuta zaude...

Kafesnea eta ogi barra erdiarenak egin zuenean jaiki zen tabako bila. Ez zuen ezer aurkitu ez jakanarruan ez praketan. Kalera jaisteko gogorik ez zuenez, Ducadosetik erre beharko zuen. Hobeto, gutxiago erreko dok! Egongelara buelta-



tu zenean, Dionisos mahaia txukuntzen aurkitu zuen. Koadro eskoziarrekiko manta ere prest zeukan, gortinak orobat itxita.

- Zer botatzen dute ba telebistan?

- Burt Lancasterren bat. Abentura film tipikoa. Beste mutu horrekin egin ebazenetakoa. Kristorenak egiten jabezak... Trapezistak zuazen biak zirkuan zineman hasi aurretik.

- Aja.

- Ez hekien?

- Ez.

- Hik ez daukok putaidearik.

- Emadazu Ducados bat eta isildu zaitez.

- Eutsok! Eta isildu hadi heu, hastera joak.

Burt Lancasterrek eta bere kide mutuak ehun gizonei aurre egiten zieten bitartean, Dionisosek biaoa egin zuen. Mikeli gehixeago kostatu zitzaion lo hartzea, baina azkenerako soinu banda-ko super-orkestrak lortu zuen, une erromantiko bat profitatuz, Mikelen betazalak eroraraztea.

- Bihar arte, Dionisos. Gaur amarenean gertuko naiz lotara. Bihar gauez itzuliko naiz.

- Ondo pasau!

- Bai.

- Nire lagunak bat ikusten badok, emon go-raintziak. Badakik, ez dozak asko baina, ikusten badozak, esan joango nazela halakoren batean.

- Bai, halakoren batean joango zara zu hara!

- Hi beste joaten nok e!

- Bai, aio!

- Agur, bai!

Ateri zen kalean, baina oro bustita edota umel. Zazpi t'erdietako trena hartuko zuen Atxur-in. Pauso lasaian joan zen geltokira. Geltokian, adin guztietako jende andana. Emakumeak Corte Inglesko poltsekin, neska gazteak Zarako-ekin, nerabeak Bronxeko beltzen janzkerarekin, jonkiren bat eta ero bat, betiko legez, istorio si-nestezinak marruka kontatzen.

Trena mukuru zihoan. Mikel zutik. Hainbat eta hainbat alditan ikusitako parajeak bistaratu zituen ate ondotik. Hainbat eta hainbat leku iru-dikatzeko zituen haietara iritsi aurretik, eta se-gundo bat geroago hantxe ziren, irudikatu beza-laxe. Sasien gorabeheran baino aldatzen ez ziren parajeak: Bolueta, Etxebarri... Galdakao, Usansolo... Zornotza, Euba...

Zortziak eta laurdenetan heldu zen. Beti bezala, hiru ordu laurdeneko bidaia. Gurasoenetik pasatzekotan izan zen, gertu geratzen zitzaion gainera, baina geroagorako utzi zuen. Ez zeukan parrandarako asmorik. Goiz xamar joango zen etxera, amaren lasaigarri.

Zuzentza jauregi berriaren paretik igaro zen. Batzokia eta garai batean film «erotikoak» botatzen zituen zinema zeuden lehenago. Zozoak beleari ipurJEL! Ezkurdin gora ondoren, banku guztiak dauden kaletik, aberats zahar guztiak bizi diren kaletik, aberats berri guztiek bizi nahi duten kaletik. Alde zaharrean sartu zenean sentitu zen etxekoago. Artekaletik Santanako plaza-rantz. Kalearen erdi parean betiko liburu denda-ko eskaparateari so geratu zen une batez. Betiko ohitura zuen, baina argiak itzalita zeuden, ez zen gauza handirik ikusten. Euri ziztrin bat hasi zuen sirimiri.

Itxita zegoen tabernako atea, leihoak lausotuta. Sartu ez sartu egon zen instant batez. Tugustean barrutik zabaldu eta koadrila bat jalgi zen futbolari buruzko eztabaida sutsuan. Pauso dudatiz sartu zen Mikel.

- Mikel!

Egiten ari zen kanutoa ia erori egin zitzaion eskuetatik Aitorri.

- Mikel Agirre Etxebarria!

- Aupa Aitor!

- Laostia, Mikel, zenbat denbora!

Gorka ere pozik zegoen.

- Gure Bilbotarra itzuli da azkenean!

- Aupa Gorka.

- Zer hartu nahi duzu?

- Sanmi bat.

- Hala bedi. Hi, Sanmi bat!

Momentu batez elkarri begira egon ziren berbaerdirik esan barik, elkarri kanutoa pasatzen eta elkarri so egiten. Berehala lasaitu ziren kontuak, eta Mikel bere mobidak azaldu beharrean izan zen... Zuria Beltz taldearena, lanean hasi zela, tira, lantxo bat bazuela, eta abar eta abar. Bazen ordu erdi luzea iritsi zela, eta konturatu zen berataz baizik ez zirela mintzo.

- Eta besteak?

- Zein beste?

- Koadrilako gainontzekoak.

- Ze koadrila? Koadrilarena aspaldi pasa zen. Igor neskarekin bizi da Gasteizen, Gabonetan eta holakoetan baino ez da etortzen; Xabi neska-  
ren gurasoen etxean bizi da; Jonek eta Asierrek ezin dute elkar aditu, beraz, etxean geratzen dira pizzak jan eta futbol partidak bata bestea-  
ren ostean tragetan. Nik neuk ez ditut faltan bo-  
tatzen.

- C'est la vie, Mikel.
- Halaxe da, bai... Beste Sanmi bat?
- Paga dezala bilbotarrak.
- Kabroia!
- Bilbotarra izatea baino hobe da dok...

Beste bi garagardo joan ziren beste taberna batera mugitzea otu zitzaientzako. Ateri zen eta pauso lasaian zihoazen hirurak. Ertzainen furgona bat pasatu zen urrunera.

- Zenbat zipaio! Trenetik nentorrela ikusi ditut beste furgona pare bat.

- Pasada bat, Mikel.

- Aspaldian zientoka dabilta herrian. Eta uni-  
forme gabe beste hainbat. Giro arraro xamarra dago azken asteburuotan. Esaten dute sekreta

pila bat dabilela, bai zipaioenak bai paisanozko pikoloak.

- Bai, e?

- Ni, egia esan, ez naiz enteratu ere egiten. Aspaldian hainbeste jende biltzen da hemen as-teburuetan, edozein izan daitekeela... Gero eta jende gutxiago ezagutzen dut parrandan dabil-tzanen artean.

- Zahartzen ari zara, Aitor.

- Ni zahartzen?

- Bai, zu.

- Hogeita zazpi urte egiteke dauzkat, txikito! Sasoi betean nago oraindik.

- Zahartzen ari zarela...

Aitorrek Winston bat eskaini zion bakean uz-teko. Mikelek onartu egin zion, noski.

- Pintxo bat hemen?

- Nahiago dut dialektika generazionala baino!

- Kapitalekoa aurretik.

Gorkak ateari eutsi zion, Mikeli pasatzeko keinua eginda.

- Zoaz pikutara! Ni bertokoa naiz.

- Hala zinen bai...

- Eztabaidak sabela bete osterako, bale?

Pintxoak barik, hiru bokata joan ziren taberna hartan. Futbol partida amaitu artean behintzat lasai ibil zitekeen tabernetatik. Mikelek, Gorkak eta Aitorrek tarte hori aprobetxatu zuten moz-kortzeko.

- Bestela ez dago modurik. Hamaikak alderako mozkortzen ez bazara, ez dago geroko jendetza jasaterik! Txaro jartzen nau birra bat hartzeko jendartean borrokan ibili beharrak.

- Aspaldian holan egiten dugu...

Geroz eta lodiagoa zen mihia Gorkaren ahoan.

- Arratsaldean urten, kafea hartu, eta animo! Datorrena datorrela! Abantailarekin irten ezean ez dago eusterik gero.

- Bai, hasi naiz nabaritzen. Komunera joan den neska horrek nire lepoan goxatu ditu titimuturrak.

- Halaxe da, Mikel, gauzak asko aldatu dira joan zinenetik.

Gaueko hamabiak alderako nahikoa edanda zeuden hirurak ere. Gorka eta Aitor pozik, aspaldiko partez bi barik hiru ziren koadrilan. Taber-

nak jendez gainezka, Mikelek ez zuen ia inor eza-  
gutzen; tartean behin norbaitek agurtu egiten  
zuen eta burua jasoz erantzuten zion, nor izan zi-  
tekeen arrastorik hartu gabe.

Goiz xamar itxi zituzten tabernak. Hamahiru  
tabernetako marabunta hiru pubetan biltzera  
zihoan betiko legez.

- Ordutegi puta hori!

- Laster goizean goiz hasi beharko dugu pa-  
rrandan, bestela ez digu mozkortzeko astirik  
emango.

- Kalebarrin ze ordutan ixten dute?

- Hor ere gero eta goizago!

- Txorin amaitu beharko dugu orduan.

- Aspaldian hantxe amaitzen dugu guk.

- Patetikoa!

- Patetikoa. bai.

- Bai jauna, patetikoa.

Harro zegoen Mikel, Dionisosen plantak egi-  
ten.

Ez zegoen aukera handirik herrian. Goizeko  
bostak aldera denetariko jendea bildu ohi zen  
Txorin. Pistan dantza egitera joaten ziren neska  
mamaletatik hasi eta txurrodun gazte kanutero-



etara arte, tartean egon daitekeen fauna eta flora oro kontuan hartuta: paisanozko poliziak, EGIko burukideak, trapitxeroak, borrokak, nobodyak, makarrak, pijoak, iurretarrak eta despis-taturen bat edo beste.

Mozkorrari hobeto eusteko speed pixka bat hartu zuten. Lehenengo filatxo bat... eta gero beste bat. Kontuak horrela, Aitor, Mikel eta Gorka berriketa bizian ari ziren, erran nahi baita, jendea larrutzen... txanda eskean. Koadrilako kirol nazionala.

- Eta beste tipo bi horiek? Lehen ere ikusi ditut beste tabernaren batean, horrelaxe, geldigeldi, bazter guztietara begira. Jokatuko nuke txakurrak direla!

Egia zen Mikelek lehenago ere ikusi zituela itxura bereziko tipo bi haiek. Jokinez gogoratu zen, Gasteizko neska hartaz. Azkarregi zebilkion burua. Izerdi hotza lokietan.

- Ez zaitez paranoiatsu!

- Horiek ez badira, beste batzuk izango dira! Hemen seguru batzuk badaudela, baina ze ostia egitea nahi duzu?

- Ez dakit, ezer ez, baina...

- Ba orduan ahaztu itzazu eta edan zerbeza lasai!

Bafleetan ozen ari zen Roxette. Oso gertutik mintzatu beharra zegoen ezer entzutekotan. Rugbyko mele bat osatzen zuten, hirurak batera hitz egiten. Ustekabean, norbaitek kolpetxo bi eman zituen Mikelen sorbaldan.

- Aupa Mikel!

- Leire!

Besarkada bat eta muxu bi.

- Aspaldikoa!

- Bai, egia da ez naizela aspaldian etorri.

- Jo... Mikel... Baneukan zu ikusteko gogo.

Pozten naiz.

- Baita neu ere.

Gorka eta Aitor elkarri begira geratu ziren. Haien ezpainenetan marraztutako irribarrea ez zen zehazki maltzurra.

- Utziko didazue Mikel unetxo batean?

- Baina bueltan ekarri gero!

Esaldia bukatzerako eskutik heldua zuen, tabernazuloaren bestaldeko barra txikira eramateko.

- Hemen zarata gutxiago izaten da.

Garagardo bi eskatu zituen Leirek. Mikel lotsati eta uzkur zegoen, aldean zeramatzan lau litro garagardo eta speed dosia eramanda ere herabe.

- Eta?
- Ba, hementxe.
- Gustura Bilbon?
- Bai.

Isilunea egin zen. Leirek trago luze bat eman zion garagardoari, eta Mikelek ere bai ondoren. Polita zen Leire. Gorputz dotorea, gaua bera baino beltzagoa ile luzea, begi bixi-bixi ilunak, eta irri ezia, eztegia.

- Badakizu... duela pare bat hilabete jaso nuen Iñakiren gutuna, goraintziak bidaltzen dizkizu.

- Londresen dago oraindik?

- Bai. Bere lagunarekin bizi da. Oso pozik ei dago, bere airera! Badakizu nolakoa den... Zuri ez dizu idazten?

- Hasieran bidali zidan postal bat, baina ordutik ezer ez.

- Irlandar horrekin dabil? Nola zuen izena... Paul?

- Bai. Azken gutunean esan zidan zeharo maiteminduta daudela. Pizzeriako lana utzi zuen, baina ez dakit orain zertan dabilen.

Leirek Chester paketea atera zuen. Mikeli eskaini zion bat, eta onartu egin zion, noski. Leirek ere iziotu zuen bat. Upakada luze bat eman eta irribarre egin zion Mikeli.

- Askok maite nuen.

- Baita neuk ere.

Leirek beste upakada luze bat eman zion Chesterri. Pentsakor geratu zen une batez.

- Zuri... neskak gustatzen zaizkizu, ezta?

- Joder, Leire!

- Barkatu...

Orduantxe hurbildu zitzaizkien Aitor eta Gorka.

- Tarte baterako eraman diguzu mutila, tarte amaitu da... eta gu Paconera goaz gosaltzera... zuek ikusi... zulo hau laster itxiko dute eta, kale gorrian geratu baino lehen, hobe da Pacorenean lekua hartzea.

Mikelek bazekien gosaltzera joanez gero lanak izango zituela eguerdirako etxera heltzen.

- Ni ez noa Pacorenera orain. Bihar aitaren eguna da. Itxuraz egon gura dut eguerdirako.

- Ni Pacorenean egongo naiz... Agur!

Gorka jendartean galtzen ikusi zuen Aitorrek.

- Kaguenlaletxe! Erabat mozkortuta dago!

Beno, artaburu horren bila noa. Egongo gara, Mikel.

Leire errudun sentitu zen berak sortutako nahas-mahas harengatik. Mikeli galdetu zion.

- Ze asmo daukazu?

- Ez dakit ba...

Leireren erlojuari begiratu zion: seiak hamar gutxi.

- Etxera joateko ere ez da ordu txarra, bihar ganorazko mutil baten planta eman beharko nuke... zera...

- Zure aitaren eguna da.

- Bai...

- Zergatik ez goaz nire etxera? Orain bakarrik bizi naiz.

Leireren eskuak sentitzen zituen bereei eusten. Leireren esku epelak bere esku herabeak ferekatzen.

- Bagoaz, ala?

Ezpain gorri goxo haien artetik hortzadura zuria agertu zen, diskotekako argi beltzak are gehiago indartzen zuena.

- Ez dakit ba...

Ondo asko zekien zer zen Leire eskaintzen ari zitzaiona, eta ez zegoen oso seguru benetan nahi ote zuen. Asaldatu egin zen Leireren hatsa matrailean sentitzean. «Zarata honekin ez dago hitz egiterik». Eta orain dena garbiago ikusten zuenean, zalantzatan zegoen harekin oheratu nahi ote zuen. Pentsatzen ari balitz bezala, burua atzera bota eta ingurura so egin zuen. Jendea urritu zen lokalean. Baina pareko barran zegoen, hala ere, lehen susmo txarra sortu zion bikotea. Berari begira zeudela iruditu zitzaion gainera. Dardara egin zioten hankek, zirrara hotz batek inarrosi zion gorputz osoa.

- Zatoz, mesedez. Besterik ez bada, gosalduegingo dugu. Ez zaitut ezertara behartu nahi, baina benetan gustura nago zurekin.

Berriz ere bista jaso eta han ikusi zituen bi maromoak.

- Autoz etorri zara?

- Bai.

- Goazen!

Matrailean muxu bat eman eta besotik helduta eramane zuen kanporantz. Leirek sorpresaz hartu zuen mutilaren erreakzioa, pozarren jarraitu zion. Kanpoan gaua zen arren, sortaldera begiratzuz gero suma zitekeen halako argitasun barea. Mikelek, ostera, aurrera baino ez zuen begiratzen, neskari besotik tiraka.

- Non daukazu autoa?

- Hortxe bertan. Opel Corsa gorri hori. Baina zer dela-eta hainbesteko presa?

- Zure etxera iristeko izugarritzko gogoia dut!

Autotik diskotekako ateari erreparatu zion. Ez zen inor ez sartzen ez irteten ari.

- Goazen lehenbailehen...

Atoan jarri zuen martxan. Diskoteka aurretik igarotzean, Mikelek ez zuen ezer ikusi. Bistatik galtzera zihoanean, atea zabaltzen ari ote zen iruditu zitzaion. Leirek ezkerretara hartu zuen... eta ez zuen deus gehiago ikusterik izan. Kale bi jaitsi zituzten. Semaforo batean geldirik egon ziren hogeitabat segundoz. Ez zuen atzetik autoirik sumatu. Madalenako ermitan paretik behera, ezkerretara berriz, eta aparkatu. Motorra itzali

zuen Leirek. Bolanteari oratu eta arnasa sakon hartzen saiatu zen.

- Mikel, ze ostia pasatzen da?

- Ezer ez...

Irribarre egiten ahalegindu zen, baina ezin. Matraileko giharrak uzkur zituen, ezin artikulaturik. Gezurra esaten zuenetan gertatzen zitzaion.

- Paranoia bat, Leire, besterik ez.

Aitorpenak lasaitu zion matraila. Orduan marraztu zitzaion benetako irribarrea. Ez zen tipo goapoa, izatekotan ere zatar samarra zen, baina bazituen pare bat gauza neskei asko gustatzen zaizkienak: miopia puntu batek sortzen duen begirada galdu eta erakargarria, eta noizean behin, nola jakiteke, ateratzen zitzaion irribarre samur eta laño hura.

Ez zen etxe zaharretakoa, berogailu zentral eta guzti eraikitzen ziren garaikoa. Bigarren solairuan. Txukun asko jarrita zuen, bere gisara... aitaren diruarekin seguru asko, baina bere gisara. Filmetako afixa zenbait hormetan, margolari handien koadro batzuen erreprodukzioak, diseinuzko altzari postmodernoak... Finean, etxe guai bat. Mikelek baso bete ur edan zuen sukaldean.



Lehorra zuen eztarria ihesaldi birtual haren ondotik. Leire minutura azaldu zen, pijama urdin argi batekin, gorputza nasaiago, kulero eta bularretako barik, estuasun barik.

- Eta? Zer egingo dugu?

- Gosaldu edo...

Mikel pentsakor geratu zen. Tentazio haren ondoan Adanek eta Ebak jandako sagarra ez zen erdia ere. Mikelek ezagutzen zuen Leire, eta bazekien hartatik behin dastatuz gero utzi ezineko zaletasuna izango zela. Droga izango zela esan behar nuen, baina zaletasuna deituko diogu, emakumeen gaineko zergarik ezarri baino lehen. Leirek laster prestatu zuen kafea, italianarik ez zeukanez, elektriko horietako batean. Besterik ezean, gauza ederra zen kafea ere madalena bartzuekin. Madalena bat bestearen ostetik irensten zuen. Leirek kafea soilik. Katilua mahaian laga eta mutilari begira egon zen une batez. Mikel konturatu zenean, madalena bat bere osoan ahora sartzen ari zen...

- Asko akordatzen naiz Iñakirekin... Eta gaur, zu ikusitakoan are gehiago! Eta garai haiek etorri zaizkit gogora. Saiatzen naiz ondo eramaten,

honi guztiari aurre egiten, eta lortzen dut. Baina batzuetan berriz agertzen dira garai bateko irudiak hor nonbaitetik, eta latza egiten zait halakotan! Zu bere lagunik onena zinen eta nik ondotik kendu nizun. Gero berak alde egin zuen nire ondotik... Eta ez dakit, iruditu zitzaidan, ba zera... zurekin egonik berarengandik gertuago edo, ez dakit...

Negarrez hasi zen, anpulu irristakorrez. Halako kasuetarako zeukan errekurtsio bakarra erabili zuen Mikelek, amultsu igurtzi zizkion sorbalda eta lepo buelta.

- Lasaitu zaitez, Leire, egin negar, barruak libratu arte. Batzuetan zaila da iragana albo batera uztea, erabat ahaztea. Ezinezkoa dela esango nuke, baina ezinbestekoa ere bai...

Noizean behinkako zotina izan zen Leireren erantzun bakarra.

- Askotan gu geu izaten gara iraganari ihes egin nahi ez diogunak, geure buruari min emanez, oroiminez, plazer hartzen dugunak... minak gogortu egingo gaituelakoan. Eta hori ez da beti egia. Batzuetan geure fantasmekin bizitzen ikasi beste erremediorik ez dago. Beraien presentzia-

ra ohitutakoan baino ez dute alde egiten. Leire... batzuetan aurrera baino ez da begiratu behar. Atzera begiratzeak min ematen badu, aurrera begiratu eta kito. Oraindik bizitzan gertatu behar zaizunaren erdirik ere ez duzu ezagutzen. Iragna garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa oraina, askozaz...

Fereka eta igurtzika jarraitu zuen.

- Bizitzeko baliagarriak ez zaizkigun gauzak uztea beharrezkoa da. Oinarrizkoa, ezinbestekoa duguna hartu, eta laga baliagarri ez zaizkigun oroitzapenak, sentimenduak eta ostia guztiak albo batera. Bestela ez dago zereginik, Leire. Leire...? Leire!

Loak hartu zuen sukaldeko mahaian. Tartean behin zotin bakanen bat, baina gainerakoan lo betearen arnasa. Ohera eraman zuen. Bidean esnatu egin zen une batez, Mikelek isilik egote-ko keinua egin zion. Mantekin estali eta haren ametsei so geratu zen pixka batean. Lozorroan zegoen.

Zazpiak hamar gutxi. Gurasoak esnatzeke izango ziren esperantzaz eragin zion giltzari sar-rrailan. Aspaldiko logela hura... alde egin zue-

nean bezalatsu gorde zuen amak. Arropak erantzi eta argia amatatu zuenean entzun zituen hotsak gurasoen logelan. Norbaitek atea zabaldu zuen berean. Begiak itxita, lo plantak egin zituen.

- Mikel! Altzeuko ete zara!

Aspaldi entzun gabeko esaldia zuen hura, baina hain zitzaion ezaguna! Bilbora bizitzera joan zenetik faltan bota ez zuen esaldia.

- Mikel! Benga baña!

Atea zabaldu eta barrura sartu zen ama. Baziren hiru hilabete pasa ikusten ez zuela. Zahartu egin zela iritzi zion.

- Hau da hatsa! Zelan ein zeinke lo hats honekin! Kortie dirudi honek!

Dutxa batek ekarri zuen mundura berriro, gizakia homo technologicus denetik izan den asmatzaririk onenetarikoak. Leire zuen gogoan. Lo egongo zen seguru asko, lasai ederrean, bere etxean, pijama urdin argiarekin. Mikel, aldiz, gu-rasoenean, asteburu hartako hirugarren ajearekin.

Ama sukaldean ari zen. Aita eta anaia egongelan ETB-Kirolak ikusten.

- Zorionak, aite!

- Eskerrik asko.

Enfasibako eskerrik asko. Hura zen bere aita. Sofan jarrita, egunkaria magalean, soa telebistaren 634 marra horietakoren batean galduta, bere galaxia partikularrean.

- Domeka batean ohetik altxatzeko ordua dela uste duzu?

Ez zen ama, anaia baizik: Koldo. Mikelen iritzirako, subnormalidadearen eredurik gorenetakoa. Txikitan ez zuen jasaten, eta nagusitan gutxiago. Bilbora ospa egiteko beste arrazoietako bat izan zen anaia. Amak beti esaten zion, barruan nonbaiten izango zuela Koldorenganako maitasun amiñi bat. Izango zuen beharbada, baina ez zuen oraino aurkitu. Butakan jesarrita zegoen, igandetako txandal batekin, *Marca* irakurtzen.

- Ez duzu ezer erantzun behar? Hortxe, kieto geratu behar duzu?

- Koldo...

- Zer?

- Ahaztu ezazu existitzen naizenik, banaizenik... mesedez.

Bazkaria betiko legez joan zen. Legatza jarri zuen amak, era guztietara prestaturik. Aitari

asko gustatzen zitzaion, eta urtero ipintzen zion bere urtemuga egunean. Aitak denetarik jan zuen, baina aurpegian inolako espresiorik gabe. Urteak ziren bere mundu partikularrean bizi zela. Mundu honetara erakartzeko ahalegin ugari saiatu zituen amak, baina etsi egin behar izan zuen azkenean. Aitaren planeta ez zegoen gai-nontzekoon orbitan.

Mikelek amari kontatu zizkion nola lehengusarekin lanean hasia zen, eta beste gezur pare bat. Ez zuen maite amari gezurrik esatea, nahiko entzun zituen bizitzan zehar, baina oraindik gutxiago ama arduratan ibiltzea. Beraz, peccata minuta.

- Laster estatu mailako musika errebista bateko korrespontsal egingo naute. Ez da soldata handia izango, baina lana ere ez.

- Oso ondo, Mikel, zu saiatu!

- Ez egiozu sinistu, ama. Guzurretan ari da!

Koldo yogurraren ertzak mingainaz garbitzen ari zen.

- Begira, Koldo, egun hauetako batean konturatu barik hil egingo zaitut!

- Baina Mikel!

- Ez egiozu kasurik egin, ama, panparroi bat da.

- Ama, seguru hau zuen semea dela? Seguru zaude ez zirela erratu ospitalean?

- Mikel, horrelakorik aitatu be ez!

Kafea hartzean opariak ekarri zizkion gure amak aitari. Bat berea balitz bezala, eta bestea semeena. Ez zegoen dudarik biak zirela amak egindakoak; aspaldi zen seme bi haiek ez zutela ezer batera egiten. Aitak eskerrik asko xume batekin hartu zituen opariok. Eta egongelako sofan jesarri zen, mantatxo batekin estali zuen sabela, loak hartu zuen domekaro legez.

- Noz etorriko zara barriro?

- Laster, ama.

- Azkenengoan berdina esan zendun!

- Zuk deitu, ama. Eta bien bitartean zaindu zaitez!

Muxu bat eman zion matrailean. Atartean zegoela iruditu zitzaion entzutea:

- Zeu be zaindu zaitez, Mikel!

Arratsaldeko seiak jotzeko ziren. Lagunekin kafea hartzera azaldu edo ez pentsatzen egon zen. Baina beldur zen bere anaia subnormala



bertan aurkituko ote zuen, Canal Satélitekeo partida ikusten. Tren geltokira abiatu zen zuzenean.

Seietako trenak, zazpietakoak eta zortzieta-koak egiten duten bide bera egiten du. Eguzkiak Mugarra ostetik agur esaten du lotsati, Aramotz gorituz. Gaua baimenik gabe botatzen da gainera trenaren errailen norabidean.

Lo egin zuen trenean. Ez zituen Euba, Zorno-tza... Bedia, Usansolo... Etxebarri, Bolueta eta halako izenak geltokietan ikusi. Ez zituen imajinatu ere egin, normalean egin ohi zuen gisan. Lozorroan joan zen Bilbora artio. Ametsetan lotu-rabako irudiak pasatzen zitzaizkion bata bestea-ren ostean: Gasteizko emakume hura, Londresko Iñaki, Txoriko agente sekretuak, Leire pijama nasai batekin askatasun osoan, garagardoak, kontzertuak, speeda, ama, aita, bere anaia sub-normala, Jokin... Interbentore batek iratzarri zuen Atxurin.

Zazpiak laurden gutxi geltokiko erloju zaha-rrean. Etxerako bidea hartu zuen lehenbailehen. Ez zuen gogoko loaren goxotik kaleko hotzera horren azkar pasatzea, ez zuen inongo taberna-tan sartu nahi, ez zuen kanutorik usaindu nahi...

Kontu gehiegi asteburu hartan beste gertaeraren bati atea zabalik uzteko. Hotzak dardarka sartu zen egongelara. Mikel Laboaren zuzeneko diskoa entzuten zegoen Dionisos, bere butakan jesarrita, ardoz bete godaleta eskuan. Mahaian gazta erdi bat, baldar moztuta, eta ogia.

- Zer moduz?
- Nondik agertu da gazta hori?
- Manuelek emon deust goizean.
- Ondo.
- Zer?
- Ni ondo nagoela!
- Eta?
- Zeuk galdetu ez didazu ba?
- Nik?
- Ez niri koskabiloak urratu, ez nago horretarako.
- Koño!
- Ateraidazu ardotxo bat. Ez dut edan nahi, baina edan egin behar dut.
- Ez dok arrazoi txarra!

Sofa ondoan zuen botilatik bete zuen Mike-lentzako edalontzia. Tragoan hustu zuen, aurpe-

gian keinu garratz bat marrartzuz. Berriz betetze-ko agindu zion buru mugimendu batekin.

- Dionisos, gaur nik hitz egingo dut eta zuk entzun egingo duzu.

- Ño!

- Beno, zuk ere hitz egin ahal izango duzu, baina neuk galdetutakoan bakarrik.

- Badok zeozer.

- Ekatzu botila hori!

- Zer?

- Botila neuk edukiko dudala. Neuk zerbituko dut ardoa. Zuk nahi duzunean eskatu, ikusiko dut zerbitu edo ez.

- Baldintza gehitxo ez ete dozak horreek!

Dionisosek Ducados bat iziotu zuen mesfidati. Camel bat Mikelek. Ondoren kordelak askatu eta botak kendu. Behatzak mugitu zituen. Han ziren, betiko leku berean.

- Dionisos -upakada bat eman zion zigarretari-, gaur neska batekin, neska eder batekin oheratzeko aukera izan dut... Eta ez dut egin.

- Txarto egina.

- Ixo! Nik galdetu barik ez duzu hitz egingo!

Jokoarekin disfrutatzen ari zen Mikel. Dionisos ez hainbeste, baina, tira, behingoagatik eta mutikoari ilusio handia egiten zionez, onartu egingo zuen.

- Esaten ari nintzaizun bezala, gaur neska eder batekin oheratzeko aukera izan dut, eta ez dut egin. Eta gainera ez zait damutzen. Orain urte batzuk aukera hori eskaini izan balidate, ez nukeen zalantzarik izango, ama ere salduko nukeen neska horrekin ohe berean biluzik egotearekin. Baina gaur -beste upakada luze bat eman zion Camelari-... gaur ez dut egin... Zer? Zer nahi duzu?

Dionisosek botila ardoa seinalatzen zion.

- Lartxo edaten zabiltza. Baina beno, ekatzu. Pirrinta bat isuri zion.

- Zergatik ez dudan egin? Ba, ez dakit! Egia esan, ez dakit. Eta ez dakit zergatik ari naizen hau guztia kontatzen.

- Heuk esaten dok dana.

- Ixo! Ez dizut berba egiteko eskatu.

- Xuabe-xuabe, e, txikito!

- Barkatu.

- Segidu egik...

- Bai, noski.

Zigarreta amatatu zuen hautsontzian, eta zurrut egin zuen ardotik.

- Dionisos... zu kartzelan egon zinen?

Sorpresaz hartu zuen galderak.

- Ez, kartzelan ez.

- Baina komisariatik pasatu zinen, ezta?

- Bai, komisariatik bai.

Beste Ducados bat iziotu zuen. Ez zekien gazetxo hark nora jo nahi zuen, eta horrelakoetan zigarreta bat itsumutil ona izaten da.

- Gogorra izango da...

- Gogorra, zer?

- Komisaria, torturak...

- Nora heldu gura dok?

- Inora ez. Jakinmina besterik ez.

Dionisosek upakada gartsuetan desegin zuen Ducadosa. Jokoari jarraitzea deliberatu zuen.

- Itxaron egik, beste botila ardo baten bila najoak.

Bien edalontziak bete zituen.

- Talde bat zenuten, ezta?

- Bai

- Zergatik utzi zenuen?

- Hareek beste garai batzuk zituan. Bazeu-keen gaurkoen antzik, baina ezberdinak zuazen. Alde guztietatik sortzen zuazen taldeak. Gureak ez joan inoren bedeinkaziorik jaso, eta umezurtz geratu gintzuazen. Erran nahi baita, alde guztietatik jasoten genduzela ostiak. Baina ez najoan horregatik laga. Badakik, alde guztietatik ostiak jaso arren, ez nok damu egin najoan hartaz. Ez gero!

Sentimental jartzen hasi zen Dionisos. Mikelek ezagutu izan zuen behin edo behin halako egoera batean, eta beldur zen sentimentalegi jarriko ote zen.

- Ideiak garbi eduki joazat bai orduan eta baita orain be. Orduan ideologien garaia zuan: bakoitzak berea eta gainerakoena kaka hutsa. Gizaki berria lortu gura genduan danok, baina ezin genduan alkar ikusi. Eta holan ezin dok lortu ez gizaki ez ezer! Ulertzen dok, Mikel?

Ez zen galdera bat, arnasa hartzeko tartea baizik.

- Liburu asko irakurri genduan, teoria asko egin genduazen, baina pertsonen ahaztu gintzuazen! Gure liburua goitik behera ezagutzen

joan ezezagun batez gehiago fio gintzuazen, irakurri ez eban lagun batez baino. Eta halan joan zuazen gauzak! Ez deuat esaten txarto egin genduenik, ez nok damutzen, baina ingenuo batzuk izan gintzuazen, ilusioz beteriko ingenuo batzuk. Bai gu eta baita beste danak be!

- Ez dut uste hori bakarrik zinetenik...

- Jakina.

Airean kea zen nagusi, egongelako atmosfera sendoagotu egiten zuen Laboaren 7. Lekeitioak.

- Azken batean, ez dira ideologiak huts egiten dabenak, pertsonak huts egiten jabek... Eta pertsonak huts egiten dautsuenean, min emoten dau, min ikaragarria! Ez dago libururik, ez gorri-rik ez baltzik, min hori baretuko dabenik, bat bera be ez... Etxagok.

Edalontzi hutsari begira geratu zen, geldi, hipnotizaturik. Mikelek arretaz begiratzen zion. Dionisosek edalontziaren barrenari erreparatzen zion, sakonera, ardoaren kondarretan lortu berri zuen lasaitasuna gozatuz bezala. Kolpetik itzartu eta jiratu zen. Aurpegi larria jarri zuen.

- Mikel!

- Zer?
- Ez haz ezertan sartuta ibiliko!
- Sartuta? Zertan?
- Esadak benetan!
- Zaude lasai, ez nago ezertan sartuta.

Dionisos lotsatu egin zen bere jarrera paternalistaz.

- Niri ez deustak ardura behar hi zerbaitetan sartuta bahabil. Hori heure kontua dok!

- Ez nagoela ezertan sartuta ba! Beste barik ari nintzen galdezka...

Zutitu egin zen Dionisos. Ez zuen lehengo aurpegi larria, baina tristura arrasto bat bazuten begi-nini haiek.

- Mikel, ni ez nok inor hiri esateko non sartu eta non ez, baina zeozertan ba habil... ibili kontuz. Gure garaian ingenuoak izan gintzuazen, eta batzuk larrutik ordaindu eben, zoritxarrez. Gaur ez dozak gauzak merkeago ordaintzen!

Ducados paketea hartu eta bere logelan ezkutatu zen.



# Dionisos

Euria ari zuen Bilbon urtarril erdialdeko astear-te hartan. Agian norbaitek pentsatuko du Bilbon beti euria ari duela; bada, ez dadila inor listoke-riatan hasi. Euriak paisaiaren ikuskera lausotzen du, eta gauarekin batera errekurtsio bisual bat izateaz gain, sonoroa ere bihurtzen da. Errekurtsio literario bat gehiago, erabiltzeko eskubide osoa dudana gainera! Edo ez?

Bada, euria ari zuen Bilbon urtarril erdialdeko astearte hartan. 11:45pm. Ibaiaren ezkerreko erriberan urez gainezka egiten zuen asfaltoak. Ur okadak estolda orotatik. La Mercedeko zubi ondoan aparkaleku bat autoz mukuru. Ibaiaren aldean aparkatuta Seat 127 horixka bat. Barre-netik apenas ikusten zen kanpoaldea. Dena gandu, dena laino. Atzeko eserlekuan jarrita, Ducadosak bata bestearen atzetik erretzen zituen Dionisosek. Anjelmari jarraitzen emanak zituen azken hamar egunak. Ez zebilen oker, berak sus-matu bezala, Anjelmari sator kabroi, putaseme, madarikatu bat zen. Hamar egunotan ikusi zuen

Anjelmari Salveko kapitain batekin. «Ardura gehiegi hartu gabe gainera, kabroi halakoa!». Izan ere, Bilbon bertan biltzen ikusi zuen Anjelmari, Dionisos behin eta berriz torturatu zuen kapitainarekin. Ez gainera koadrila ibili ohi zen kaleetatik oso urruti, ibaiaren bestaldean baino ez, Muelle tabernan, Dos de Mayon. Hasieran susmoa baino gehiago ziren haiek konfirmatutakoan mendeku irrika bortitza eragin zioten. Anjelmari akabatzeko arrazoiak bietarik ziren, kolektiboak eta pertsonalak. Kolektiboak, talde osoari iruzur egin ziolako; pertsonalak, Anjelmari Dionisosek berak sartu zuelako taldean. «Babu halakoa! Zertan pentsatzen hengoen! Alferrik gure bijilantzia sistemak! Zerbitzu Sekretu osoa inguruan izanda ere ez ninduan konturatuko... Babua!».

Urtarrileko gau hartarako erabakita zuen Anjelmarierekikoak egitea. Geroago erabakiko zuen arrazoi pertsonal edo kolektiboengatik egin ote zuen.

Star zahar bat zeraman zirako poltsiko batean. Durangoraino joan behar izan zuen haren bila. «Merezi dik!» pentsatzen zuen. Treneko bi-

daia leihotik begira eman zuen, bere ondoan orain jesarri orain zutitu zebiltzan atsoei erreparatu gabe. Bolueta, Etxebarri, Ariz, Basauri, Galdakao... beste ordu laurden bat eta Zornotza. Beste ordu laurden eta...

Arratsaldeko seiak ziren herrira iritsi zenerako. Alde zaharra zeharkatu eta aspaldiko laguna zuen Jabirenera sartu zen. Hilabeteetan elkar ikusi gabeko lagunak besarkadak, aupak eta bibak. Kafe ebakia barra gainean laga zionean heldu zion Jabiri besaurretik.

- Hi, Jabi... Star zaharra... hemen daukak oraindik?

Almazenera joateko keinua egin zion Dionisosi, ezpainak askatu barik.

- Star zaharra nahi duk?

Eskuak Dionisosen sorbaldetan jarriak zituen.

- Zer egin behar duk?

- Star zaharra hartu eta tipo bat akabatu besterik ez.

- Baina nola akabatu?

- Akabatu. Pum! Pum! Eta kito.

- Entzuidak, Anton... Taldea utzi egin duala esan zidatek.

- Hala duk.

- Sentitzen diat... Sentitu ez duk berba ego-  
kia, baina... kaguendios! Ze ostiatarako nahi duk  
orduan pistola? Heure kontutik hasi behar duk  
jentea garbitzen?

- Ez duk hori, Jabi.

- Zer duk ba orduan?

- Anjelmari.

- Anjelmari, zer!

- Sator bat duk. Sator kabroi, putaseme, ma-  
darikatu bat!

Jabik egia ikusi zuen malko bat irristatzear  
zegoen Dionisosen begietan. Garagardo kaxa  
huts baten gainean eseri zen. Ukalondoak belau-  
netan, buruari oratu zion bi eskuekin.

- Betiko lekuan zagok, generadorearen  
atzean.

Dionisosek ezagutzen zuen gordelekua. Le-  
henago ere hainbat alditan sartu eta atera zuten  
Star zaharra handik. Erabili, inoiz edo behin ba-  
karrik, belauenen bat zulatzeke; baina atera,  
gehiagotan.

- Neuri ere min egin zidaan ohartu nintze-  
nean, baina halaxe duk...

- Laostia! Anjelmari...
- Neronek ere ez nian espero...
- ...
- Pasako zaik.
- Pasa?
- Satorrak lurpean behar dik, Jabi. Nik bezain ondo dakik.

Esku ahurrarekin ileak nahasi zizkion amultsu. Burdina zirako ezker poltsikoan sartuta alde egin zuen, eskua barruan, disimulatzen. Ez zen, izan ere, traste handia pistola zahar hura.

Hogeietako trenerako hamar minutu falta ziren. Tiketa hartu eta kanpoan eseri zen, zain. Zerua bederatzi hilabeteko emakumea bezala zegoen, erditzear. Kanpai hotsa, barrerak jaitsi eta, ondoren, txistu hotsa. Euba, Zornotza, Lemoa, Bedia, Usansolo... Lur jotako Jabiren irudia zeraman buruan. Han utzi zuen bere lagunik minenetako bat, pott eginda. Nor eta Jabi! Gogorretan gogorrena, beti edozertarako prest izaten zena. Baina honengatik edo harengatik halako estima berezia zion Anjelmari. Ez bereziki eze-rengatik, zerbaitengatik. Eta orain, bere begietako Anjelmari sator bat bihurturik. «Sator kabroi,

putaseme, madarikatu bat!». «Satorrak lurpean behar dik». Eta ondoren Jabiren irudia, San Miguel kaxa hutsaren gainean... Bolueta, Bilbo.

Aurreko hamar egun haietan egunero egin zuen bezala, Anjelmariren etxera joan zen. Atari-tik gertu zain egon zen, taberna batean, Anjel-mari irteten ikusi arte. Anjelmarik 127a hartu zuenean, Dionisosek koadrilako bati eskatutako Mobylette zaharrean jarraitu zion Zabalbide ka-lean behera. Gero Erribera eta ondoren La Mer-cedeko zubia igaro zuten. Autoa aparkalekuan utzi eta Muelle tabernan sartu zen Anjelmari. Se-gituan iritsi zen Villoslada kapitaina, Seat 124 urdin ilun batean. Hiru zihoazen autoan. Villosla-da kapitaina eta beste bat jaitsi ziren taberna pa-rean. Autoak aurrera jo zuen. Ondoren beste Seat 124 urdin ilun bat agertu zen. Muelle taber-na parean gelditu zen hura ere. Beste bi morroi jaitsi ziren, eta tabernako barraren alde banatan jarri. Dionisos Dos de Mayo kalean gora igaro berri zen oinez. Motozikleta aparkalekuan utzia zuen. Taberna paretik igaro zen segundo baka-nak aski izan zituen Anjelmari eta txakurrak ikus-teko. Espaloian goraxeago jo, gero ezkerretara

hartu, berriz Hernani kaletik jaitsi eta La Mercedeko aparkalekura. Aise bortxatu zuen Anjelmariren 127aren sarraila, txoferraren ondokoaren ateko sarraila. Atzealdean jesarri eta Ducados bat bestearen ostean erretzen hasi zen, etengabe. Gauaren ilunak, euriak eta barruko gandu eta keak ez zioten apenas kanpokorik ikusten uzten.

11:45pm ziren aparkalekuan pauso hotsa aditu zuenean. Gandu eta kearen artetik ezin izan zuen bazetorren tipoa bereizi, baina Anjel-mari behar zuen. Txoferraren atetik sartu orduko entzun zuen Dionisosek:

- Ze ke ostia da hau?

Metal hotza garunean.

- Kaixo, Anjel-mari. Hago holantxe, geldi eta isilik, tapizeria zatar hau zikindu nahi ez baduk!

- Baina hi...

- Isilik eta geldi esan diat! Ea esku horiek!

Nire bistara nahi ditiat!

Isilunea eternala egin zen auto barnean. Munduak jira-bi raka ibiltzeari utzi zion instant batez, eta Anjel-mari eta Dionisosen bihotzak ere

oxigeno dosirik jaso barik egon ziren tarte horretan.

- Sator madarikatua!

Kaskezurraren erdian kolpe gogor bat eman zion Star zaharrarekin.

- Eta alua gainera!

Anjelmarik hortzak estutu zituen, kexu zipitzik gabe.

- Dionisos, entzudak mesedez! Entzuidak!

- Beste gezurren bat akaso?

- Azkenengoz atxilotu nindutenean ez ninduan kapaz beste tortura saio bat agoantatzeko, benetan esaten diat... Eta zera eskaini zidatean... dirua... eta... Ez ninduan kapaz, Dionisos! Bakea behar nian, handik irten behar nian, elektrodorik gabe, bainera gabe! Eta nik ba... zera...

- Eta ostiak eta putak! Kaguendios! Ze uste duk, besteei ez digutela horrelakorik eskaini?

Gogor eusten zion kokoteko ileetatik.

- Talegoan daudenei! Eta kanpoan utzi dituztenei! Baina Mikeli hori ere ez, aditzen? Hori ere ez!



Berriz ere isilunea egin zen 127 barnean. Kristalak erabat lausotuta zeuden. Apenas entzuten zen kanpoko zaratarik.

- Zer egin behar duk nirekin?

- ...

- Ze ostia egin behar duk, Dionisos? Esadak, laostia!

Anjelmari zotinka ari zen, esku biak bolantean, Dionisosek agindu bezala. Ahapetik atera zitzaion Dionisosi:

- Patetikoa...

Gatillo hotsa entzun zen. Klak! Anjelmariri geratu egin zitzaion bihotza. Gero begiak zabaldu zituen, segundo bat lehenagoko kristal lausotua ikusi zuen. Euri tantak kristalaren kontra, beren burua hiltzen.

- Banekian ez hintzela kapaz izango, Dionisos... Barkaidak... hiretzat ere dirurik izango duk nirekin bahator, ez hadi horregatik arduratu...

- Star zahar hau...

- Zer?

Pum! Odolak Dionisosen ziraren eskumuturrak zikindu zituen. Anjelmariren burua pisu egin zitzaion eskuartearen, eta bere horretan laga

zuen. Lasai itxuran irten zen autotik. Inguruari so  
egon zen une batez. Inor ez. Euria gogotik ari  
zuen joandako orduetan. Ibaia indartsu eta lohi  
zeterren gauaren ilunean. Gorpua autotik atera  
eta uretara jaurti zuen. Apenas aditu zen zerral-  
doaren hotsik Ibaizabal indartsuan.

Astelehena mantso jaiki zen igandearen lozorrotik. Astelehen bihurtu zen inolako azalpenik eman barik. Astelehen puta bat bihurtu zen, beraz. Beste hogeita lau ordu eskaini behar zizkien produkzio indarrei eta hauen kudeatzaileei, euren egutegietan kontuan har zezaten. Inor ez baitago prostituitzetik salbu, ez inor ezta ezer ere. Otsailak bere burua saltzen du lau urtean behin, agendetan egun bat gehiago izatearren. Protagonismo arazoa azken batean. Euria bera ere prostituitu egiten da. Aldian behin milaka tanta suizidarazten ditu Euriak, hortxe dagoela demostratzeko, besterik gabe bere ospea areagotzeko, zerbait izaten jarraitzeko, milaka tanten buru-hiltze tragikoaz ohartzeke. Ez da, bada, gauzetan eta izakiengan hain ohiko den jarduera horretatik hain urruti ibiliko gizakia. Erran nahi baita, gizakia ibili dabilela prostituzioa praktikatzen, egun bat bestearen ondotik, gorputza edo arima saltzen.

9:45am. Somera kaleko 13ko bigarren solairuko komuna lurrin laino batean bildua zen. Duxapean egiten zituen Mikelek gogoetok. Aurreko astean ez bezala, honetan oroitu zen lehen-gusu majaderoarentzat egin beharreko artikulua. Zortzi t'erdia aldera jotako telefonoak artikuluekin zer ikusirik izan zezakeela otu zitzaien, baina gogoan zuenez, telefonoari nahi beste aldiz aiene egiten utzi zion. Bizitza gogorra telefonoena, beti aieneka orgasmora inoiz iritsi gabe. Ailitez hel!

Dutxatik irten zenerako italianak etxe osoan zehar barreiatua zuen kafearen usain sentsuala. Miretsi egiten zuen tresna hura, erakargarria zitzaien. Ipurdian muxu ematekotan egon zen. Eskerrak gogoratu zen jaso berri zuenaren beroaldiaz! Estreinako kafe hurrupadarekin utzi zion tresnak pertsonifikatzeari. Umetandiko joera hura ez zuen gogoko baliabide literario moduan, eta gainera, psikologikoki kezagarria iruditzen zitzaien.

10:20am. San Anton zubia zeharkatu eta Bilbo Zaharrean sartzen ari zen Mikel. Elexalde taberna kanpoan ez zegoen ohiko terrazatxo.

Ateri zen arren, mehatxu keinua zuen zeruak. San Frantzisko kalean gora abiatu zen, erdi pare-raino. Papertxo batean idatzita zituen bi auzo el-karteren helbideak. Lehengusuak esana zion le-henari bakarrik kasu egiteko, bigarrenak *betiko-ak* zirela-eta. Dionisosen Yashica zaharraz erre-tratuak egitea erabaki zuen. Eskola bateko pa-tioan umeak futbolean. Taxistak mesfidati, banku batean eserita zeuden hiru gazte ikatza baino beltzagori beha... Hau guztia zero grisaren azpian. «Zuribeltzerako argazki egokia!», pen-tsatu zuen. Hipnotizaturik bota zituen argazkiak: ijito pare bat estankotik irteten, jonkia bere exis-tentzia urria espaloian behera eramaten, Sierra Leonako ume bat semaforoan geldia... Ahanztu-raz, pobreziaz eta marginalitatez jazarritako au-zune baten argazki zuri beltzekoak, Sebastiao Salgado harenak bezalakoak. Txirotasun eta mi-seriaren aurrean distantzia fokala kalkulatzeko hasten diren argazkilari horiek egiten duten tan-kerako erreportaia egiten ari zen: kakaputa bat. Mikelek fotografiaz ezer gutxi zekiela esan gabe... are patetikoagoa zen erreportaia.

- ¿Oye tío, a qué hostias haces fotos?

- Zer?

Ijito mehe bat ikusi zuen atzera jiratutakoan.

- ¿Qué cojones estás retratando, mamón?

Hiru gaztekote hurbildu ziren, ikatza baino beltzago haiek.

- ¿Pa qué son fotos?

- Soy periodista...

Jende gehiago etorri zen ingurura. Ez zion inork aurpegi onez begiratzen.

- Estamos hasta los cojones de reportajes y chorradas, ¡Los reportajes pa tu puta madre! ¿Entiendes? ¡Hasta los cojones de periodistas y policías! ¿Me explico?

- De acuerdo, tío, no pasa nada.

Yashica ireki eta karreteak kendu zion. Pelikula belatzen ari zen ertzain patrulla bat agertu zenean.

- ¿Qué hostias pasa aquí?

Morroskoak zabalak zituen sorbaldak, eta hauen gainean, erdian, buru karratu bat. Robocop zen.

- ¡Eso! ¿Qué hostias pasa aquí?

Bigarrena ere ez zen mikoa, baina aurrekoaren aldean argala. Ilaje hori batek estaltzen zion

zerebro faltak utzitako zuloa. Inor erantzuten hasi orduko, ijito txikiak hanka egitea lortu zuen lurruntzeko sistema berezi baten bitartez, baina hormaren kontra jarri zituzten hiru beltzak. Ertzainek miatzen zituzten bitartean, espaloitik igarotzen zen jendeak ez zion gertakariari arretarik ipintzen.

- Aizu!

- ¿Qué?

- Hiru horiek ez dute ezer egin...

- ¿Eso es euskera, no? Pues háblame en castellano... mesedez!

Mikeli Mieltxo Saralegiren harriarekin bekokian jotzea pasatu zitzaion burutik, baina ez zuen egin, goiz hartan ez zuen magnesiorik hartu.

- ¡Te digo que esos tíos no han hecho nada!

- ¿Y eso qué importa?

- ¿Cómo que qué importa?

Dokumentazioa. Afrikarrek urduri eta amorruz atera zizkieten paperak. Ile horia Mikelekin tematu zen.

- ¿Qué hostias pasa? ¿Te vas a quedar ahí parado?

- Es que esos tíos no han hecho nada.

- Mira majo, amigodelosdesheredados... Nos han llamado diciendo que tres negratas estaban acosando a un periodista. Y cumpliendo con nuestro trabajo, los hemos retenido. ¿Te parece mal?

- Resulta que el periodista soy yo.

- ¿Y?

Ertzainari begi-ninietan ikusten zitzaion burmuinaren ausentzia.

- Pues eso... que me parece una pasada que funcionéis así.

- ¡Oye Roberto!

Robocopi deitu zion. Bizkitartean, hiru gazteek kotxe-pa trullaren gainaldetik paperak berreskuratu eta ziztu bizian alde egin zuten.

- ¡Vente pacá, que aquí tenemos a uno de esos periodistas listillos! Dice que le parece mal cómo funcionamos.

Metro laurogeita hamabost paseak izango ziztuen Robocopek, ehun eta hogeit bat kilo. Lepo gaineko buru karratua gihar bat gehiago besterik ez zen gimnasioko produktu hartan. Mikelek espaloiko harlauzak zenbatzeari ekin zion.



- ¿Te ha comido la lengua el gato?

Jendilaje honek aurrez egindako esaldiekin funtzionatzen du beti, esaldi propioak sortzeko ezgauza.

- A mí me la ha comido el gato, y a vosotros se os han escapado los ratones.

- ¡Bueno, y qué hostias! ¡Ya pillaremos a otros tres después de tomar el café!

Eta barrez hasi zen bere ateraldiarekin. Funts gabeko barre ozena, aho bete barre, zerebro hustuaren barre okada... surik hartzen ez duten trajez jantzia. Mikel joan egin zen besteko barik. Amorraturik, beldurra sentitu zuelako. Amorraturik, uniformeaz jantzitako bi babu haien harropuzkeriarengatik. Amorraturik polizia puta bi baino ez zirelako. Inongo motiborik gabe oroitu zen bere anaiaz, eta polizia bikain bat izan zitekeela iruditu zitzaion.

Etxean, Dionisosen ordenadoreko Worda zabaldu zuen. Bi aukera zeuzkan artikulua idazteko. Ezer gertatu ez balitz bezala, artikulua bat asmatu. Edo bidean zetorrela otu zitzaizkion guztiak bota. Erdibidea hautatu zuen. Gertatutakoak kontatuko zituen, argazkiak egiten hasi zenetik

San Frantzisko behera alde egin zuenera artekoak. Periodistikoki zuzena, aseptikoa, burutapen eta iritzirik aipatu gabe; objektiboa, alegia. Egingdako lanaz harro, inprimatu eta paper denda batego faxez igorriko zuen Alberdi jaunaren erre-dakziora. Txanda itxaroten zuen bitartean, lehengusuaren idazkariaren boligrafoaz gehitu zuen ohar bat: «Oharra: artikulua irakurri baduzu, ohartuko zinen nire argazkiak pikutara joan direla gertaera lazgarria jazo delarik. Artxiboan edukiko duzue San Frantziskoko argazki deigarriren bat!».

Gainetik kendua zuen artikulua zama. Bazituen zalantzak, erreportaiaren kariaz beste zamaren bat ere joango ote zitzaion gainetik; hau da, lanarena. Bost axola! Bazekien zer egin zuen artikulua hura idaztean, baina kontrakorik egitea ez litzateke ondo egongo. Eta halaber, bazekien bere lehengusuari bost axola ziola ondo eta gaizki dagoenak. Hark idazki tentel bat baino ez zuen gura bere astekari txatxu baina errentagarri-ko. Popatik!

- Baltza, Manuel!
- Lehenengo egun on, eztok?

- Egun on.
- Ea ba, ea ba...

Manuelek edalontzi txiki bat eta botila ardoa atera zituen mostradorepetik.

- Agurra be ahaztu egin dozue zuek!
- Barkatu.
- Ze barkatu eta barkatu ondoko! Zeuek galdu dozue, ez nik!
- Barkatu, Manuel.
- Ez eskatzeko niri! Zeuen buruari eskatu!
- Manuel, barkatu...

Mikelengana jaso zuen bista. Kokoteko bat eman behar ziola adierazten zuen zerbaitek.

- Zera... esan gura nuen... baltz bat eta tortilla pintxo bat...

Manuelek botila ardoari kolkotik helduta jaso egin zuen, botila esku batean eta ukabilean bil-durik bestea. Mikel besoarekin babestu zen, kol-pearen zain. Pare bat segundo pasata, taberna-ria artean jarrera berean geldi ikusirik, ezin izan zion barreari eutsi. Okerrena gerta zekiokeen arren, Manuel ere barrez hasi zen. Tortilla pin-txoa parean jarri zionean ere barrez jarraitzen zuen Mikelek, atzera-aurrerako mugimenduan.

Eta halako batean, barraranzko aurrerakoan, kokoteko dotore bat eman zion gizonak, eskuaren zabalera egokiaz, abiadura ona eta distantziaren laburra kontuan izanik. Dudarik gabe, kokoteko gogoangarri bat!

- Tok! Hire tortilla!

- Hori ezin zaio bezero bati egin!

Errea sentitzen zuen kokotean.

- Egon hadi isilik!

Eskuak lehortu zituen zapi batean. Paretan zuen erlojuari behatu zion.

- Bost minutu jekoazat berba egiteko. Zeri buruz egingo joagu?

- Ez dakit ba...

- Henbrataz?

- Baa...

- Deakuerso, henbrak -kamara gainean jarri zuen ipurdia-. Azkenengoz, noz egon haz bategaz?

- Zapatuan... beno, domeka goizean.

- Ondo. Eta?

- Zer...

- Ederra zuan bai ala ez?

- Ba bai.

- Nongoa.
- Neure herrikoa.
- Ez dok jenero txarra hire herrikoa, etxagok txarto... Eta?

Gaizki ulerturik egon ez zedin, esku keinuz lagundu zuen galdera, eskiatzailearena eginez.

- Ez.
- Ez?
- Ez.
- Zer ba?
- Ez nuelako nahi izan.
- Gura ez?
- Gura bai, baina...
- Ba, orduan?
- ...ez.

Mikelek platertxoan geratzen ziren tortilla eta ogi apurrak batu zituen atzamar puntekin. Manuelek bere ipurdi zaharra kamara gainetik kendu eta zutitu egin zen, kieto, gazteari begira.

- Gu biok lagunak gozak, eztok?
- Bai.
- Marikoia haz?
- Ez.
- Ba orduan majadero bat haz! Kito!

Manuelek erlojuan erreparatu zuen.

- Akabo bost minutuak, barriro be lanera!

Gero arte.

Sukaldean sartu zen ardo kaxa batekin. Manuelen gero-arteak «eginda dago!» bezala ulertuta, ordaindu gabe alde egin zuen Mikelek. Ogia, tipula eta azenarioak erosi zituen beheko dendan, lentejak jarri behar baitzituen. Hamabiak pasatxo ziren etxeratutakoan. Presaka zabaldu zuen atea. Tipulak beren kabuz sartu ziren, lurrean jauzika. Telefonoa ari zen.

- Bai, esan?

- Mikel?!

- Neu naiz.

- Mikeeel!

Ezaguna zitzaion orroa, bere bigarren lehengusuarena, Luisena, aitaren lehengusuaren semearena.

- Zer arraio da bidali didazuna?

- Artikulua, horixe besterik ez: artikulua.

- Joño, joño! Beraz hau da zure ustez gure astekarian bariku honetan plazaratu behar den artikulua...

- Ba bai.

- Oso ondo, Mikel, oso ondo.

Luisen arnasa aditzen zen aurikularrean.

- Ba, ezer ez... Goraintziak aitari eta amari hurrengo ikusten dituzunean.

- Zeure parteetatik!

Klonk. Halakoxea baita behar bezalako telefono batek eskegitzean egin beharko zukeen zarata. Bere buruaz harro zegoen tipulak lurretik jasotzean. Hasieratik egin behar zuena egin zuen: bere bigarren lehengusu nazkante hura popatik hartzera bidali, horixe!

Armairutik lapikoa ateratzen zuen bitartean pentsatu zuen diru hura premiazkoa zuela, ezin zitekeela beti inoren kontura bizi. Baina batez ere, lehengusuaren bulegoko leihotik ikusi izan zuen emakumea etorri zitzaion akordura. Ez zuen gehiago ikusiko... baina c'est la vie!, beti geratuko zaigu Paris!

Dilistak, azenarioa, tipula eta tomate buru bat zatitan. Horra hor sekretua. Dionisos ordu bata t'erdietan heldu zen etxera, eltzea azken pil-piletan zegoenean justu.

- Ez zeuntseen tomaterik botako, ezta?

Dionisos bere buruari txikito bat zerbitzen ari zen.

- Tomatea? Ez.

Denbora lerro bateko kontua da narratiban. Horra hor.

- Tomaterik ez daukiela? Gezurti kabroia!

Hortzartean ez honako eta ez harako geratu zitzaion tomate azal bati tiraka ziharduen.

- Erdi bat baino ez diet bota...

- Erdia?

Lortu zuen haginartea libratzea. Plater er-tzean laga zuen delituaren froga.

- Kaguenlaostia, Mikel! Niri... zelan esango deuat... niri tomatea gustatzen jatak, benetan. Baina joder! Aspaldi honetan edozeri sartzen deutsek tomatea... porruei, lentejei, babei. Eta laostia, hori be eztok!

- Sentitzen dut Dionisos.

- Sentitu eta sentituondoko!

- Aspaldian, antojo bat balitz legez ari naiz tomatearekin.

Gaixotasun ezkutuaaren sintomak azaldu behar zizkion.

- Dionisos...



- Bai?
- Uste dut haurdun nagoela!
- Hireak etxaukok erremediorik.

Kafea eraman zion egongelara, tomatearena eta gero Dionisosekin adiskidetu beharra baitzeukan.

- Botila ardoa ere ekarri dut badaezpada... gerorako.

- Orain koipe emoten?
- Esne pixka bat?
- Apur bat.

Mikelek hutsa. Hona beste denbora lerro narratibo bat.

- Lana galdu dut...
- Zer?
- Lana utzi dudala.
- Lehen galdu esan dok!
- Beno... biak batera.

- Koño! -butakaren lepoan atsedean hartu zuen-. Eta hori zelan?

- Gustatuko ez zitzaiola banekien artikulu bat bidali diot.

- Aja.

- Banekien gero deitu egingo zidala, eta deitu didanean popatik hartzen bidali dut... Holan.

- Beraz, aurretik jakin dok lana galduko henda, eta gainera egin egin dok.

- Ba bai.

- Oso ondo, Mikel, oso ondo.

- Ez da hainbesterako!

Mikelek irribarre zerutiar bat zuen ezpainen.

- Eta... hik zer pentsatzen dok bizitzari buruz?

- Ez dakit ba...

- Lana gustuko ez duanez, itxi egin dok, bape barik geratuko hazena pentsatu barik, lan horrek emoten deuan diruaz pentsatu barik...

- Ez da holan be.

- Ez holan ez bestelan! Hik heuk irabazten heuan diru bakarra zuan! Eta orain ba al dauka berorrek beste ezer egiteko asmorik? Edo denboraldi batez ezer egin gabe geratuko da lasai-lasai...

- Ba...

- Hik daukok azala hik!

Ducadosak hartu eta danbateko batez itxi zuen bere logelako atea. Berriro ireki zuen, burua atera ere egin gabe oihukatzeko:

- Mikel! Hik dakian beste liburu hori aste honetan agertzen ez badok akabatu egingo haut! Konforme?

Danba! Danbatekoa.

Potrohandi bat zen, besterik ez. Babu potrohandia, horixe baino ez! Eta gainera, inoren kontutik bizi zen babu, potrohandia! Behingoz lan bat lortu, hala esan badakioke, lanik eskatzen ez duen lantxo bat, eta ideologikoki ados ez zegoelako pikutara bidali. «Tori lezioa ideologikoa!». Eta gainera, amatxori hileroko laguntza eskatzen jarraituko zuen, kapritxoetarako lain izateko! Mikel bere buruarekin enkontru serio bat izaten ari zen, *gailurra* deitzen zaion horietakoa, *Meeting Appoint*. «Hara hemen gure ideologoa! Hain tipo guaia haiz, ez dioala sekula salduko heure lan indarrik hire ideologiarekin bat ez datorren inori! Oso ondo, Mikel, oso ondo! Ertzainak putakume batzuk dituk!, eta hik ezin onik izan begien aurrean ikusitako gertakari hura kontatu barik! Nola ba? Benetako kazetari batek ezin dik egia

ezkutatu! Babua... Eta hire lanean ideologikoki hain zuzena haizen artean, Dionisosen etxean biziko haiz, haren lepotik. Eta hilero amaren laguntza, iraultzaile finen gisan! Hogeita sei urte, eta oraindik kolpe zorririk jo gabe! Eta ez aspertzeko, jakina, musika taldetxoa daukak hobbytzat! Edo bestela, tartean behin, ETako horiekin kati-gatzen haiz, denbora pasatzeko...! Patetikoa! Eta gero zer? Ez lanik, ez dirurik... Aberats baten alabarekin ezkondu beharko duk! Hi...? Astoa atzerantz baino zatarragoa haiz-eta! Zer bihurtuko haiz osterantzean, hippy? No war, no work! Hoa pikutara, Mikel! Hogeita batgarren mendeko hippyen karabanek igerileku eta minigolfa izango ditiztek denek, eta naturista partikular bat...».

Puntu suspentsiboetarako kanean zegoen. Ezin jasan bere buruaren jipoia. Etxeko lau hormak ringeko lau ertzak bilakatu zitzaizkion. George Foremanen eskuin krotxeta zuen Kontzientziak. Arnasa behar zuen, airea... eta tabakoa... eta ardoa. Manueleneko makinan Camel aukeratzen ari zela eskatu zuen:

- Baltz bat, Manuel.
- Lehenengo arratsalde on, eztok?

- Arratsaldeonmanuelbaltzbat!

- Koño, koño... Erretxinduta?

- Bai.

- Orduan botila bertan itxiko deuat. Ni sukaldera najoiek andreari esku bat botaten.

Mikelek kulo utzi zuen botila orduerdigarrenean. Hamahiru zigarro falta ziren Camel pake-tean. Begiak gorri, batetik besterako irribarrea ezpain moretuetan, koloreak matrailetan... froga zientifikorik izan ez arren, baieztapena egin zitekeen: mozkortuta zegoen. Lortu zuen helburua. Bere buruaren sermoiak ardotan eta ketan itoak ziren, itsaso gorrian laino egun batean naufragatzen duten potinak legetxe. Akitu zuen Kontzientzia, bakean lagako zuen behintzat. Ordaindu gabe alde egin zuen Manuelenetik.

Beste hiru ardo jo zituen Somera kalean. Aurpegiera okerrekin begiratzen zioten agureak baino ez zebiltzan tabernetan, agure txapeldunak, zutik eta geldi, otxote bat kantatzear dagoenean bezala. Poteo erreinutik Zuria Beltzekoen ohiko tabernara joan zen, bai baitzekien oso probablea zela Jonekin topo egitea. Kanuto bat erretzeko gogoaz zeukan. Ardozko itsasoan naufraga-

tu zuten ideia haiek desegin nahi zituen urpeko harkaitzen kontra.

- Aupa Mikel!

Txapli bere kolega birekin zegoen tabernan, auzoko trapitxero bi.

- Kaixo Txapli...

- Oraintxe bertan alde egin dik Jonek, pankarta batzuk egitera edo.

- Sinesten diat.

Barraren kontra jo zuen hondoa Mikelek potinak. Txapli ohartu zen haren egoeraz.

- Mahaspasa galanta...

- Bai... atxur ganorabako bat, mozkor indezentea... Horixe!

- Laguntzarik behar duk? Nahi duk biok mozkortzea? Nik ez zeukeat beste zereginik.

- Eskertzen diat, baina ez.

- Kostoa, speeda? Koka ere lor zezakeat...

- Porro pare bat! Horixe eskertuko nitek.

Txaplik bere kolegetako bati zerbait esan zion belarrira. Honek eskua patrikan sartu zuen, bide batez potroei hazka egiteko aprobetxatuz. Kosto arrautza bat atera zuen.

- Tok, Mikel! Egik bidaia bat Saharako basamortutik!

- Eskerrik asko.

- Ez duk ezer. Zertarako dituk lagunak!

Peta bat erre zuen Txaplirekin eta kolegekin. Kosto ona zenbat garestitu den eta pilulak zein merke dauden komentatu zuten, merkatuan arkumearen prezioaz hitz egiten duten emakumeen moduan. Mikelek balantza baino ez zuen egiten mostradorean. Ardoa hustu ahala hustu zuen tabernan bete zuen espazioa, aire!, edozein Oteizazalaren estiloarekin.

- Zer pasatzen zaiok hire lagun horri?

- Burukomina dik.

- Neuk ere sarritan izaten diat, baina ez nauk horrela jartzen.

- Baina ez duk burukomin bera motel! Hiri kanpokoak ematen dik min, kaskarrak! Eta horri barrukoak, zerebeloak! Capicce?

Txaplik Vito Corleonerenak egiten zituen bi-tartean, Ronda kalean behera zihoan Mikel... Zeren bila ez zekien arren, liburu dendan sartu zen. Bi gaztetxo diskoak miatzen, eta mostradorean Mikelek ezagun zuen betaurrekodun mutila.

- Gustatu zitzaizun Arjouniren nobela?

- Tira...

- Begira, hauxe da Arjouniren azkena: *Gara-gardo gehiago!* Ez da aurrekoak bezain biribila, baina estiloa gustatu bazaizu, seguru hau ere gustatuko zaizula...

- ...bai, zera...

- Edo bestela... Taibo! Ezagutzen duzu Paco Ignacio Taibo II?

- Ez...

- Ona da benetan. Bikaina esango nuke nik! Asko dauzka onak, baina honek atrapatuko zaitu: *Itzalaren itzala*. Nobela beltz eta sozialaren arteko mistura bat.

- Mis zer?

- Mistura. Gainera badauka halako ukitu magiko bat, badakizu errealismo latinoamerikarra eta...

- Aja...

Geroz eta nabarmenagoak ziren Mikelen zirraldoak.

- Eta? Eramango duzu baten bat?

- Beno, ez dakit, zera...



Ahal izan zuen bezala arakatu zituen patrikak. Mila pezetako bat eta ehuneko txanpon batzuk azaldu ziren etxeko giltzekin batera.

- Hauxe besterik ez daukat.

- Ordainduko didazu bihar! Konfiantzan gaude, ezta?

Lurrera erori ez zitzaizkion txanponak mostadore gainean geratu ziren.

- Zein eramango duzu?

- Berde hori...

- Taiborena! Ez zara damutuko.

- Eta... ardorik badaukazue?

- Ardoa? Hemen?

- Bai.

- Ez.

- Orduan banoa, ea nonbaiten ematen didaten.

Zortzi t'erdietan bazebilen jende pixka bat Manuelenean, bateko pintxoak besteko txikitoa.

- Baltz bat, Manuel.

- Baltz baten moduan neu nabik hemen beharrean, eta hi barriz trago eta trago, sekulako zezpal ganorabakoa harrapatzen. Ze ostia pasau jak?

- Azkena, Manuel...

- Azkena?

- Benetan... mesedez...

- Azkena atarako deuat, eta etxoat gura hire aurpegia taberna honetan beste hamabost egunean ikusterik!

Normalean baino gutxixeago bota zuen edalontzian. Mikelen irribarreek poza baino gehiago adierazten zuten tragedia. Betazalek niniaren erdia estaltzen zioten. Esku biek helduz irentsi zuen tragoan.

- Eskerrik asko, Manuel... Agur...

- Mikel! Ez dok hirea liburu hau?

- Ostia!

- Ostia! Ostia batzuk merezi dozak hik, bai...

Somerako 13rako metro apurretan tupust egin zuen zakur eta zakarrontziekin. Atartekoa zabaltzea bezainbeste kostatu zitzaion etxekoa irekitzea. Sukaldetik janari usaina zetorren. Karrajoko horma bien artean balantza eginez hurbildu zen patata tortilla egiten ari bide zen Dionisiosengana.

- Liburu bat ekarri dizut!

Dionisosek ez zion begiratu ere egin. Arrautzak irabiatzen jarraitu zuen.

- Zure beste liburu famatu hori lortzerik ez daukadanez, beste bat ekarri dizut.

Botila ardoari kortxoa kendu eta basokada bat zerbitzatu zion bere buruari. Honek onartu egin zion, noski.

- Mexikar batena da. Paco Ignacio Taibo II. Dendako tipoak ia bere bizitza osoa kontatu dit...

Balantza txiki bat, eta ipurdiz jausi zen, modu sinesgaitzez, aulki baten gainera.

- Mozkortuta nago...

- Bajakiat. Neuk ordaindu joat Manuelenean zorretan itxi duan botila ardoa.

Irabiatuak baino irabiatuagoak zeuzkan arrautzak irabiatzen jarraitu zuen Dionisosek.

- Ez dut zure liburua lortzeko biderik asmatzen... Sentitzen dut... Ez zenuke sinetsiko zer gertatu zitzaidan zure liburuarekin, ez zenuke sinetsiko!

Dale eta dale, tenedore soinua kristalezko ontziaren kontra.

- Kontatu egingo dizut, bai horixe, kontatu egingo dizut eta kito! Esan nizun Aste Nagusian,

zera... Beno, noan hasieratik. Ane, Jon eta hiru-rok beste batzuekin geunden jaietako azken larunbatean... Anek tipo batekin bukatu zuen, nola ez! Jon etxera. Eta ni bakarrik... nola ez! Ba orduan agertu zen tipo hori... Jokin... Aneren lehengusua omen. Ja! Tipo jatorra! Goizeko zortziak eta oraindik kristoren sakea...

Patatak zartaginetik atera eta arrautzetara. Gatz pixka bat, dastatu, eta beste gatz pixka bat gehiago.

- Ez zuela lo egin nahi, berak ez lukeela hemen egon behar... eta liburuei begirada bat emango ziela. Nik esan nion: «Egin ezazu nahi duzuna, badakizu ohea non dagoen». Esnatu nintzenean ez Jokinik ez libururik. Jajaja... Baina hori kontatu nizun...

Zartaginera oliba olio pittin bat isuri, eta bertan hustu dena. Mukuru ontzia. Ertzak egin tene-dorearekin.

- Lehengusuaren bulegotik natorrela, hara non agertzen den berriz Jokin hori, Aste Nagusiaz geroztik berriz ikusi ez nuena, zure liburua eraman zuen berbera... Jajaja!

Negarrak ere izan zitezkeen Mikelen barreak.

- Kafetegi batean sartu gara biok... ni aurretik eta bera atzetik...

Tortillari lehenengo buelta emateko prest zegoen Dionisos. Plater azala jarria zuen zartagin gainean.

- Eta esaten ez dit ba ETAKoa dela!

Tortilla zati eder batek irrist egin zion ezkerretik...

- Joder! Flipatuta utzi ninduen!

Alferrikakotzat jo zuen tortillaren lana. Albo batera utzi zituen zartagina eta nahaski hura.

- Ez deuat ondo entzun...

- Ondo aditu duzu, Dionisos: ETAKoa!

- Zer esaten habil, kaguenlaostia!

Jertsearen kolkotik oratuz altxatu zuen mutila. Hotzikara batek elektrokutatu zuen Mikel, eta koldarrek baizik egiten ez dakiten barrea ilki ziztzaion eztarrira.

- Jajaja... lasai gizona... broma bat izan da... broma txar bat...

Plasta! Zaplateko bat. Dionisosen ezkerkada. Arnas gabe geratu zen Mikel. Larria zetorkion sa-belean gora. Ezin izan zion eutsi. Estreinako okada sukaldeko mahai gainera jaurti zuen. Bi-

garrenak karrajoko paper horizta zipriztindu. Hirugarrenetik aurrerakoak komunzuloko arratoi entzat. Ordu laurden pasa egon zen komunean makurtuta. Arima ere bota zuela iruditu zitzaion bonbari eragitean. «Zer axola dio! Arimarik badago, ez du orain leku txarrena. Badaude okerragoak mundu puta honetan!», pentsatu zuen. Kamiseta eta galtzontziloak erantzi gabe oheratu zen, plazentan dagoen haurraren antzo, kuzkur-kuzkur. Ez zen itxaron luzea izan. Minutugarrenera lo zetzan logelako kiratsean. Ezker begia zabalik zuen, baina begiaren zuria baino ez zitzaion ikusten. Zolda likits bat ezpain ertzean.

Egongelan argi ahula, Dionisos leiho parean zutik, bafleetan Van Morrisonen disko zahar bat *Saint Dominics preview* kantari. Kanpoan, astelehenak soinekoa erantzi zuen gauaren beltzean, inor ohartzeke astearteari emateko.

Mikelen gorputzak ohe gainean gorpua zirudien beste ezer baino gehiago. Ohea alde bate-tik bestera betetzen zuen, hankak eta besoak zabalik, ohea berez den esparru autonomoa oso-tara harturik. Norbere ohea baita norberarekin identifikatuen dagoen espazioa; norberaren usainak agintzen duen lurraldea, animalien gisan usainez eta likidoz markaturiko lurraldea. Bere autonomi estatutuaz gozatzen ari zen Mikel, bezperakoa baino goxoagoa zirudien loan. Lerdea zerion ezpain ertzetik, lo goxoaren seinale infantila. Bere baitarako hitzak izango ziren urruma batzuk entzun zitezkeen kanpotik. Loge-laren ilunabarrean argi bakarra zegoen piztuta, ohe ondoko flexoa. Haren ondoan, aulki batean atzekoz aurrera jesarrita, Dionisos, besoak aulkiaren lepoan paratuta, Mikeli so.

Hainbat ordu Tutankamonen momiak baino mugimendu gutxiagorekin lotan eman ondoren, Mikelen gorputzean estreinako zirkina sumatu zuen Dionisosek. Ezker betazala goratu zitzaion,

begiaren zuria bistan utzirik. Ondoren agertu zen ninia. Lauzpabost segundoren buruan niniak distantzia fokala kalkulatzeari ekin zion.

- Baina... ze ostia egiten duzu hemen?

Mikelek eskugainekin igurtzi zituen begiak.

- Ze... ze ordu da?

- Ordu bata t'erdiak.

- Eta ze ostia egiten duzu hemen?

Mikelen gorputza izaren artetik ateratzen hasi zen. Osorik zegoen. Pertsianak jaso zituen Dionisosek. Egun eguzkitsua bizi zuten Bilboko bizidunek. Mikel bizkarra hormaren kontra jarrita ezarri zen ohean. Dionisosek ere berdin egin zuen logelari arnasten utzi ostean.

- Ondo jagok...

Ducados bat iziotu zuen. Hautsontzi baten bila saiatu zen arropaz eta paperez gainezka zegoen mahaian. Ez zuen aurkitu.

- Berba egin beharra daukagu.

- Sentitzen dut atzokoagatik...

- Itxi orain alde batera sentimenduak eta tentelkeriak! Garbi berba egin beharra daukagu.

- Esan...

- Zera...



Upakada luze bat eman zion Ducadosari. Ke lainoak desagertu egiten ziren argiarekin bat egitean.

- Mikel... ze ostia esan heuan atzo nire liburuari buruz? Ze ostia dok Aneren lehengusuaren kontu hori? Eta orain ez egidak esan dana gezurra zuanik, dana broma bat zuanik... Ze ostia esan heuan atzo erakundeari buruz?

- Erakundea?

- ETA, joder! ETA!

Dionisos bera ere konturatu zen ozenegi ari zela. Bere buruari lasaitzeko keinua egin zion.

- Ez naiz ezertaz gogoratzen... Benetan! Badakit atzo ikaragarritzko atxurra harrapatu nuela, baina erdiarekin ere ez naiz gogoratzen.

Mikelek ez zuen begirada jaso ere egiten. Kanpotik haize freskoa zetorrenez, oilo-narrua jartzen ari zitzaion.

Beste tirakada luze bat Ducadosari. Errautsak ezinbestean zorura amildu ziren, oihurik egin barik.

- Mikel, ez deuat ez erdirik ez laurdenik eskatzen. Nire liburu puta horren istorioa baino etxoat jakin gura. Eta atzo heuk esan heuan Aneren

lehengusu horrek daukola... eta tipo hori erakundekoa dela.

Leihotik begiratu zuen Dionisosek. Pareko etxeko balkoian lorontzi gorri bik dei egiten zioten udaberriari.

- Eta kontu hori oraintxe bertan argitzen ez badeustak, hasi hadi hire potroei agur esaten...

Dionisosek ukabila erakutsi zion, galtzontzilo-etatik zintzilik zuen hari mutur batekin pilotatxo bat egiten ari zen Mikeli.

- Nik ez dakit ezer...

- Zelan ez dakiala ezer?

Zoruan itzali zuen Ducadosa, inurri bat bezala zapalduta.

- Esandakoa... Ez dakit besterik... Deus ez, benetan... Tipo hori jaietan ezagutu nuen. Gero beste behin ikusi nuen. Besterik ez.

- Besterik ez?

- Ezetz, joder!

Mikel ohetik altxatu zen.

- Gainera, ez nizuke ez zuri ez beste inori ezer esan behar. Zenbat eta jende gutxiagok jakin, hobeto! Ni ez naiz inor, ulertzen?

Dionisosen parean jarri zen galtzontzilotan, barregarri. Bekarrak agerian, ahotsa urratuta, zotinak tartean behin.

- Ni ez naiz inon sartu, joder! Ni ez naiz euren bila joan...! Tipo hori ezagutu nuen, eta gero beste behin ikusi nuen... Laguntza eskatu zidan eta nik, halako babua izaki, eman egin nion, eta kito! Azkena izango zela agindu zidan... azkena!

Matrailean behera negar anpulu batzuk zihoazkion. Sudurrak mukiz gainezka. Mikel burumakur abiatu zen komunera. Logelatik Dionisosek zintz egiten entzun zuen pare bat bider.

- Eta gainera, ze ostia...! Denek esaten didate: «Zu egon lasai, nik ez zaitut sekula ikusi!». Ja! Ja!

Mikelen ahots tonua aldatu egin zen, ausardia mintzatzen saiatzen. Ahotsa jasota ari zen komunetik, Dionisosek entzun ziezaion.

- Zu zeu ere ez zinen ba borrokan ibili? Zer pasatzen da ba...? Zuen garaikoen eksklusiba da borroka? Ez daukagu ondorengook horretarako eskubiderik?

Dutxako txorrota zabaldu zuen.

- Eta gauza bat esango dizut... Ez naiz bate-re damutzen!

Gero dutxaren ur parrastadaren hotsa baino ez. Dionisos sukaldera joan eta irratia piztu zuen. Mikelek negar zegien dutxapean. Premiazkoa zuen. Haren inguruan kontu larregi jazo zen azkenaldian, eta bera ez zen burdinaz eginiko gizona. Bi aldiz igurtzi zuen gorputza xaboiarekin. Bezperako okaden arrasto likitsak zituen gorputzean, iraganeko gainerako arrastoak bezala ezabatu nahi zituenak. Trankilduta irten zen dutxatik. Hortzak garbitu zituen ahoko zapore garratza ezabatzeko. Komunean jesarri eta upelean ondutako sagardoa bailitzan hustu zen uzkiaren txotxetik.

- Salda bat egin deuat hozkailuan egozen barazkiekin. Hartu egik, on egingo deue.

Mikel banketatxo batean jesarrita zegoen. Albornoa aldean, soina garbi. Dionisosek katilu bete salda jarri zion aurrean.

- Eskerrik asko.
- Sentitzen joat lehen holan jartea...
- Ez... Arrazoi zenuen.
- Ez, ez neukan arrazoirik holan jarteko...

- Bai.
- Ezetz ba!

Dionisosek ardoa atera zion bere buruari. Mikel ek salda edan zuen katilutik, Colacaoa hartzen duen umearen antzera.

- Majadero bat naiz, Dionisos.
- Zer ba?
- Hala naizelako.
- Ez dok egia.
- Ba bai. Arazoei aurre egin beharrean... mozkor itzela harrapatuta ez da ezer konpon-tzen.

- Hori egia dok.
- Han ba!
- Baina hori danoi pasa jakuk.
- Ez dakit ba.
- Bai, Mikel, danoi.

Dionisosek kolpean hustu zuen edalontzia. Berrir bete zuen.

- Dionisos...
- Bai?
- Pasa beharrekoak pasa dira, baina lasai, ez dizut arazorik sortuko... Nahi baduzu alde egingo dut hemendik... Zure etxetik, alegia.

Okerreko eztarritik joan zitzaion ardoa. Eztulka hasi zen.

- Zer?

- Ez dizudala arazorik sortu nahi, horixe.

- Arazoak eta problemak ez dozak gauza bera.

- A, ez?

- Ez. Arazoak egin beharrak dozak, eta problemak ba horixe, problemak baino ez.

Mikelek zur eta lur begiratzek zion Dionisosi, katilua eskuetan mahaiaren eta ezpainen arteko bidearen erdi parean zuela.

- Eta hik hire arazoei aurre egin deusiek besteko barik. Ez hadi gehiegi arduratu...

- Saiatuko naiz, baina ez da horren erraza.

- Zera... Orain... Zelan esan...

- Ezetz ba Dionisos. Ez dakit tipo hori nondik nora dabilen, ezta zertan ere. Gainera, argi eta garbi esan zidan lehenengoa eta azkena izango zela.

Dionisosek hirugarrenez bete zuen ardoz godaletan. Tragoan hustu zuen edukia.

- Ondo jagok... Eskarmentatzeko! Biao txiki bat egitera najoak. Salda gehiago gura badok lapikoan deukok.

- Eskerrik asko.

- Ez emon eskerrik, joder, lotsatu egiten noka-eta. Eta liburuagatik ez arduratu!

Telefonoak jo zuen. Ikaratu egin ziren biak instant batean.

- Hiretzako dok!

- Banoa...

- Mikel?

- Aupa, Ane.

- Ze ostiatan ibili hintzen atzo?

- Zer?

- Ezer ez. Egin ezak nahi duana hire buruarekin, baina entzun diat zerbait...

- Errietan egin behar didan?

- Ez motel! Ez nauk hire ama.

- Orduan zertarako deitu dun?

- Ez borde jarri, mutila! Berri on bat emateko deitu diat.

- A, bai?

- Aizak, biharamunarekin erretxinduta baha-go, ez duk nire errua, aditu?

- Barkazan... Gaur memelotuta nabilen...
- Nabari duk, bai! Tira... lauretan geratu gaituk lokalean. Han esango diat...
- Ez didan orain esango?
- Ez. Lauretan lokalean, bale?
- Han izango naun.
- Hartzak dutxa bat, ea goxatzen hauen!
- Oraintxe dutxatu naun...
- Ba orduan jo ezak kanpaia, oso lasaigarria omen duk! Gero arte.

Klonk! «Kanpaia jotzeko? Jo egidan heuk! Denetarako soluzioa al dauka neska honek...! Ondo pentsatuta ez da ideia txarra». Pentsatze hutsarekin errebolta sumatu zuen zangartean. Barra-biletako langile ñimiñoek matxinadarako deia egina bide zuten, ezen Mikelen kanoia, apala baina kanoia, maniobrak egiten hasia baitzen. Zirrara ezti bat sentitu zuen gorputzean. Telefonoaren ondoan zutik, egongelara begiratu zuen: mugimendurik ez. Seguru asko Dionisos biaoan zen harrezkero. Zakilak irmoki markatzen zion norantzari jarraikiz sartu zen logelan. Leihoak parez pare zabalik zeuden, Dionisosek utzi zituen moduan. Ohe gainean etzan zen leihoak



hersteaz arduratu ere egin gabe. Albornoa ireki eta bere gorputz argal eta biluzia bistaratu zen. Kleenexak bilatu zituen gau mahaiko kaxoian. Ekintzarako baldintza guztiak beteta zirela erabaki zuenean ekin zion. Pietateaz gogoratu zuen lehendabizi. Baina berehala baztertu zuen irudi hura gogamenetik. Garbiegia pentsamendu lizunetarako.

Txorakeria dirudi, baina halako gauzak izaten dituzte mutilek. Inor ez dago libre bere heziketa kristauak ekar dakizkioken ondorioetatik. Eta horien artean dago kanpaia jotzean maitearen irudi garbia ez erabiltzearena. Izan ere, mutilek badute halako joera bat kanpaia jotzean beren maitea ez beste edozein gogoan hartzeko. Subkontzientearen traizioak dira, edo zergatik ez, subkontzientearen tradizioak. Mutilei beraiei ere, bekatuz eta zigorrez beteriko hezkuntzaren ondorioz, beraien barrenik barrenenean kanpaia jotzea ekintza zikina, lizuna eta narratsa iruditzen baitzaie. Bizitzaren ironiak. Plazerraren ukapena. Gizarte zikiratu baten ondorioak. Baina hauek beste kontu batzuk dira.

Kontua baita, bere lehengusuaren bulegoko leihotik ikusitako emakumeaz oroitu zela. Pieta-tea baino irudi sexualagoa eta zirraragarriagoa: lizunagoa. Bata labur haren azpian kulero txiki gorri batzuk imajinatu zituen, kulero txikien azpian biloa, bilo beltza. Titiak muxukatu zizkion telepatiaz, titiburuak gogortu arte. Bata kendu zion, ondoren kuleroak. Bilo beltza ikustera zihonerako bortizki ttu egin zuen Mikelen zakilak, umeari «Hori kaka da! Ez sartu ahora!» esaten diotenean bezala.

- Eskerrik asko, Ane...

Laurak pasatxo agertu zen Atxuriko lokalera. Jon kanuto bat erretzen, eta bide batez bere Jackson maitea garbitzen. Txapli bazterreko sofán botata. Ane tipo txiki batekin hizketan.

- Arratsalde on!

- Aupa Mikel!

- Aupa!

- Buelta eman diok? Gustu baduk, hilak berpizteko moduko materiala zeukaat...

- Ez, eskerrik asko, Txapli.

Joni ahotik kendu zion peta.

- Zuk segi zure maitea dirdaitzen.

- Alua!
- Mikel, hau Txabi duk!

Anek bere ondoan zuen tipo meharra aurkeztu zion.

- Kolega bat, gure salbatzailea kasu honetan.
- Koño!

Mikelek eskua luzatu zion tipo meharrari.

- Ni Mikel.
- Bai, Anek hitz egin izan dit zutaz.
- A, bai?

Mikelek harrituta begiratu zion Aneri. Honek ez entzunarena egin zuen.

- Ez nuen uste Anek nitaz hitz egiten zuenik.
- Neuk ere ez nukeen imajinatuko, Mikel.
- Babuak! Eta orain denak adi!

Jon eta Mikel desbarrabiltzen ari ziren, hizkerara amurizianoan esanda. Txapli berriz lerrotxo bat prestatzen, beste ezertarako baino hartarako zerbitzu gehiago ematen zion Euskadiko Kuxako txartel gainean.

- Baten batek nahi du?
- Ixo, kaguendios!
- Lasai, neska... gero heu izaten haiz-eta lehengoa...

Txaplik, baiezko erantzunik ezean, birentzako zena sartu zuen berak bakarrik.

- Mutilak...

Ane solemneki hasi zen berbetan. Txabi zelako tipo mehar hark miresmenez begiratzen zion.

- ...nire kolega honek arrakastarako bidean jarriko gaitu. Edo gutxienez, berari esker arrakastarako bidean jarri ahal izango gara...

- Non hartzen da autobide hori?

- Hago isilik, babu halakoa!

Anek bateria ondoan zegoen kartoizko kaxa handi bat zabaldu zuen. Tapa eskuetan hartu eta barrura begira egon zen une batez. Ondoren, haren alboan zen beste kaxa bat ireki zuen... Mikel ziplo geratu zen bere begien aurrera agertutako Soundcraft harekin.

- Nondik atera dun mahai hori?

- Mutilak! Nire kolega honek zortzi pistako grabagailu digital bat eta mahai bat utziko dizkigu gure diskoa izango dena grabatzeko. Eta ez hori bakarrik. Txabi, nire kolega, prest dago grabaketetan esku bat botatzeko. Zer deritzozue?

Jonek trapuaz bere Jacksona garbitzen zuen mekanikoki. Mikel, aldiz, soinu mahaiaren bo-

toiei sakatzen ari zen ordurako. Txabi zelako tipo mehar hark irribarre handi batekin begiratzen zion Aneri.

- Hau kristorena da, e!

Txabik modestia puntu egokia jarri zion bere tramankulari:

- Ez da hainbesterako. Baina zeozer egin daitekeela uste dut...

- Baina, Ane, ez da larregi diskoarena? Lehenengo maketatxo bat egin beharko genuke...

- Ze maketa eta ze kristo, Mikel! Nik ez ditiat ehun urte itxaron nahi ezaguna izateko. Ezagunak egin behar diagu lehenbailehen, eta horretarako modu bakarra diskoa ateratzea duk gaur egun. Maketak ez zoazak inora 2000. urtearen ateetan.

- Grabatzea ez da zailena! Nork ostia aterako du diskoa? Nork jarriko du zigilua?

- Trankil, mutilak, kontrolpean dago dena. Txabik baditu kontaktu batzuk zerean...

- Soraluzen.

- Hori da, Soraluzen. Ateratzea lortuko diagu, ziur! Edozer argitaratzen omen diate...

Anez gain inork ez zuen sinesten diskoaren istorio hartan, baina ezin ukatu denei ilusioa egiten ziela. Jonek bere burua imajinatzen zuen aurkezpen egunean. Txaplik Euskal Herriko talderik onenaren manager lanak egiten ikusten zuen bere burua, koloretako sakelako telefono eta guzti. Mikel zen kontu hartan gutxien sinesten zuena... baina aparailu haiek erakarri egiten zuten, eta bazuen gogoia kanta batzuk grabatuta izateko, besterik ez bazen herriko lagunei pasatzeko, Dionisosi jartzeko...

Eta horrela, ametsak egiten zituzten bitartean, kanutoak ere egin zituzten bata bestearen atzetik. Txaplik sudurra zuritzekoa jarri zien. Aneren kolega arlekin bilakatu zen, uju eta salto lokalean hara eta hona. Batzuk sofan eserita, besteak lurrean, zein kantu grabatuko lituzketen esaten aritu ziren, zein soinurekin, zein efektu erabiliko zuten, arregloak, kolaborazioak eta abar. Haxixaren lainopean ilusioak koadrafonian, optimismoa aire eta ketan, ehunka amets tonu minorrean. Ametsek, eta batez ere Txapliren bigarren bitamina erronda batek, entseatzen jarri zuen Zuria Beltz. Txabik grabagailua eta soinu

mahaia muntatu zituen, baita grabaketa txiki bat egin ere; nahiko eskasa, egia esan, baina puntu animiko hartan ez zegoen eskasik inorentzat. Euforia nagusi, arrakastaren usaina bazter orotatik, etengabeko world tourrak denen gogoetan.

Hamarrak inguru ziren lokaletik irtendakoan. Txabi eta bere Soundcraft miragarria Gipuzkoara abiatu ziren. Zuria Beltz Atxuriko eskola parean zihoan.

- Hau ospatu egin behar da!
- Bai horixe!
- Goazen pote batzuk hartzera.
- Orain?

Koadrilaren pauso azkarra eten eta denak Mikeli so geratu ziren.

- Ze ostia! Etxera joan behar duzu? -itaundu zion Jonek.

- Astearte buruzuri bat baino ez duk. Bazaikiat zer gertatuko den pote batzuk hartzen hasiz gero.

- Eta?

- Lehen aldia izango da ba zuk astearte buruzuri batean parranda botatzen duzula!

- Ez baina...

- Mikel... -Anek sudurra igurtzi zuen-, ez ezak gau eder hau izorratu, kaguendios!

Azabatxe beltzeko begiek Mikelenak zulatu zituzten. Biak ala biak begiradei eusten saiatu ziren lipar batez. Azabatxezko begi sakonek irabazi zuten, noski.

- Egia da... Zergatik ez!

Lepoko bana eman zioten Mikeli, honek irribarre lotsati batekin erantzun zien. Eskuak patriketan sartuta jarraitu zuen aurrera Zuria Beltzen babesean.

- Zerbait jango dugu errondan hasi aurretik?

- Ni ez naiz gose.

- Ezta ni ere.

- Banekien. Mundiala da speed hau! Arrebari errezetatu nion argaltzeko. Hainbeste dieta eta hainbeste mediku pasata ere ez zen kilo madarikatu bat gainera kentzeko gai. Eta orain Txiferrek baino gorputz dotoreagoa du.

- Ez hion ba txerrikeria hau egunero hartzea aholkatuko!

- Zergatik ez? Ama ere hastekotan dun. Hainbeste urte eta gero berriz ere lirain egon nahi omen din. Jajaja!



Ronda kale estuak oihartzuna egin zion Txapliaren barre ozenari.

- La Villara?

- Konforme.

Astearte gaua Bilbon. Martitzen gaua La Villan. Ikasleek parrandarako dirurik ez daukatenetik asko baretu da giroa. Eguenetan baino ez da halako jendetzarik biltzen, eta ostegunetan ere garai batean baino gutxiago. Hala bada, La Villan sobera leku bazen Zuria Beltzentzat. Barra kontran lau zapabost lagun zeuden garagardo piltzerren bat edo beste edaten. Sakonean beste hiru-lau mahai zereginik ez daukatenen solas leku.

- Zer edaten da hemen?

Txapli beti manager.

- Garagardoa.

- Birra, bai.

- Nik aurrena ebaki bat.

- Hoa pikutara, Ane! Atera lau garagardo piltzer!

- Eta nire ebakia?

- Hi eta hire ebakiak! Ez dakin beste guztiek edaten dutenetik edaten?

- Txapli, mesedez...

Aneren azabatxeek egin zuten eskaera, ortografiatzeko zeinuz adierazi ezin daitekeen eskaera ekidinezina.

- Ados, hiru birra... eta ebakia pinpirinarentzat!

- Ni komunera noa. Oraintxe nator.

- Ostia, Mikel, beste fila bat hartu behar duzu?

- Parrastada bat botatzera noa, Jon, besteko barik, joder!

- Ez ezazu horrela hartu...

Mikelek brageta zabaldu eta zakil zimurtua atera zuen hantxe bertan, Jonen eskuan paratze-ko.

- Hartu?, hartzazu zeuk!

- Nazkagarri halakoa!

Barrez joan zen komunera. Baina atetik sartzera zihoala gelditu egin zitzaion bihotza. Bazterreko mahai batean jesarrita ikusi zuen bere Pietatea beste tipo batzuekin. Oteizaren kubo metafisiko bat baino zurrunago geratu zen, espazio-denboratik at. Puxikaren zitzada batek gogorarazi behar izan zion zein zuen xedea. Komunean

zakilñoarekin zuloan aparatzen saiatu zen. «Erdia kanpora erdia barrura! Egun handi bat izango den seinale!». Irten baino lehen otu zitzaion ispiluan begiratzea: alferrik! Halako tabernetan maiz gertatzen denez, ispiluaren tokian zortzi axuleiuko hutsunea besterik ez zegoen. «Kakazaharra!». Dena den, saiatu zen ile motxa atontzen.

Bere harridurarako, kanpoan Pietatearekin hizketan aurkitu zuen Ane. Muxu bat eman zion aurrena, eta aspaldiko lagunaren arteko berriketa zirudien batean hasi ziren gero. Ez zuen aukera galtzeko asmorik. Haien parean esan zuen inozo:

- Aupa, Ane.
- Ze aupa eta ze kristo? Oraintxe noa!

Baina Mikel kieto hantxe, taketa lantxe. Ane, Pietatea eta harekin zeuden bi morroiak ere Mikeli so geratu ziren, txorimalo haren begiradaren zergatia entelegatu ezinik.

- Bai, zera... gero arte.

Hamar segundo behar izan zituen lau hitz horiek josteko, bere egoeraren erridikuluaz jabetzeko. Kolegengana alde egin zuen lotsagorritzen hastera zihoanean.

- Buztanari eragiten ibili haiz? Hori aurpegia dakarkiana!

- Pasaidak birra, Txapli, eta ixo!

- Hire aginduetara.

- Eta zuk egizu kanuto bat, ondo kargatua!

- Sí, mi amol!

- Zer?

- Ezer ez... Goenkulo!

Peta erretzen ari ziren Ane itzuli zenean.

- Ze ostia pasatzen zaik, Mikel?

- Niri?

- Bai, hiri. Txorimalo baten moduan geratu haiz hortxe, geldi.

- Komuniket nentorrela?

- Bai.

- Aja...

- Aja?

Txaplik bere eskutzarrak jarri zituen Ane eta Mikelen bizkarretan.

- Beste erronda bat, lagunak! Gaur ospakizun eguna dugu, ez sesiorakoa!

Birra handi batzuk eskatuta sinatu zen bakea. Speedak, garagardoek eta kanutoek efektua egin zuten denen ganbaretan. Baina Mi-

kelek ez zuen onik izan, Aneri hasieratik galdetu nahi izan ziona ausarki bota arte:

- Aizan, Ane... zera... zelan esango dinat...
- Esan ezak ba!
- Nondik ezagutzen dun hirekin hizketan ari zen neska hori?
- Nerea?
- Ez zakinat norena den... bazterreko mahaian dagoen hura...

Han zen Pietatea, beti bezain zurbil eta argi, zapi batekin ilea atzerantz bildua, eskuak etengabe mugitzen, bere lagunei azalpenak ematen.

- Nerea dik izena! Zergatik galdetzen didak?
- Ez, zera... lehengo batean zerean topatu ninan, zerean, eta zera...

Ez zuen hitz egokirik aurkitzen, baina topatu zuen Camel paketea jakanarruko patrikan.

- Nahi al dun bat?
- Bai. Eskerrik asko.

Txiskeroaz sutu zituen bien zigarretak. Lehen upakadarekin ke lainoa airean, ez baina Mikelen urduritasuna estaltzeko adinakoa.

- Segi, Mikel... zerean topatu huen... eta zer?

Itaunketa saihetsezina igurikatu zuten azabaxezko begi maltzurrek.

- Ez, ezer ez... Ezaguna egiten zitzaidala, zeretik...

- Bai, noski, zeretik.

Anek hormaren kontra bultza zuen Mikel, esku bat mutilaren sorbalda gainetik. Bestearekin upakada luze bat eman zion zigarretari, eta kezko hodeia aurpegira putz egin.

- Orduan, zertu egin haiz berarekin, ezta? Alegia, zera egiten dila... kili-kili.

- Ez dinat horrelakorik esan!

Aneren presiopetik ihes egiten saiatu arren, neskaren bi besoek oztopatu zioten bidea. Hormaren kontra harrapaturik, bien sudurrak zentimetro gutxi batzuk baino ez zituzten banatzen.

- Ez urduri jarri, gizona!

- Ez nagon urduri...

- Niri baietz iruditzen zaidak ba! Nahi al duk Nerea aurkeztea?

- Ane...

Txapli erretxintzen hasita zegoen.

- Zer da hau? Ez da onargarria amodio abenturarik gure taldean; gero giroa gaiztotu egiten dun, eta badakin...

Anek irribarre ironikoz askatu zuen Mikel.

- Lasai, Txapli. Ez zeukaat tentel hau xarmatzeko asmorik... Baina bazirudik berak...

- Ez dakin isilik egoten ala?

- Zer gertatzen da hemen...?

- Ezer ez, ez zen ezer esaten ari...

- Hi, Mikel, ez horrela jarri! Maitemintzea denoi gertatzen zaiguk inoiz edo behin.

- Hiri batez ere... Tira, Txapli, pasa ezak birra hori!

- Alto, alto! Ez zagok garagardorik kontu hau argitu artean.

Txapli, Ane eta Jon: Inkisizioaren itaunketa. Eta Ane sorgina Pierre de Lancrerenak egiten. Baina bat-batean...

- Adio, Ane. Gu bagoaz!

Pietatea eta bere adiskideak ziren Zuria Beltzeko bateria-jolea agurtzera hurbildutakoak.

- Bazoazte?

- Ni geratuko nintzateke gustura...

Pietatea hizketan! Ahotsa ere bazuen-eta! Sarkorra, laua, bereizgarri gabekoa, baina oso berezia. Hala iruditu zitzaion Mikeli behintzat.

- ...baina beste zozo hauek bazoazan... eta ni ere bai...

- Geratu gurekin, parrandatxoa egiteko asmoa zeukanagu.

Pietateari mintzo zitzaion Ane, Mikeli begiratu arren. Txapli segituan konturatu zen jokaldiaz.

- Damutuko zaizu geratzen ez bazara.

- Baina zuek zuen kasa zabiltzate. Ez nuke nahi arrotz batek giroa aldrebestea.

- Arrotza?

Txaplik eskutzarra pausatu zuen Pietatearen sorbaldan. Izaki baldar haren esku latzak apurtu egingo zuela iruditu zitzaion Mikeli.

- Ez tontakeriarik esan, neska! Zer nahi dun edateko?

- Beno... garagardo bat.

- Ton! Hire garagardoa!

- Mila esker.

Irrimarra herabe batez ihardetsi zion Txapliri.

- Nerea, gu zozook bagoazan! Bihar arte.

- Bai, bihar arte.



- Bihar arte aio!, bihar arte aio...! bihar arteee... Aiooo!

Xabier Leterenak egin zituen Jonek, biltzen ari zen kanutoa mihiaz busti bitartean.

Anek egin zituen aurkezpenak, isiltasunari txandarik eman barik.

- Hemen nire kolegak... Porrogilea Jon, managerra Txapli...

- Aupa!

- Ieeup! Pozten naun hi ezagutzeaz.

Gerria pixka bat makurtuz, erreberentzia txiki bat egin zion Txaplik.

- Eta txorimalo hau... Mikel.

- Aupa!

- Kaixo.

- Tabernetako keak aurpegia gorri-gorri jartzzen dio sarritan... Ez duk ala, Mikel?

- Bai... batzuetan bai.

Pietateak irribarre amultsuz begiratu ziola uste izanik, are gorriago ipini zitzaion bisaia. Eskerrak Jonek disimulatu zuen, hizketan hasita:

- Beno, jadanik ezagutzen duzu Zuria Beltz! Laster egingo dugu disko bat eta... Aizu, peta bat nahi duzu?

Mikelek bata bestearen ondoren iziotzen zitu-  
tuen zigarretak egonezin larrian. Tartean behin  
Aneri begiratu zorrotzak jaurtitzen zizkion, nes-  
kak ezikusiaarena egiten bazuen ere.

- Lasaira joango gara? Han beste musika bat  
jartzen dute. Dantza pixka bat egin dezakegu...

- Goazenai!

la inor ez zegoen Lasain: koadrila bat; berro-  
gei urte bueltako bikote bat, garai onak joanak  
direla onartu nahi ez duten horietakoa, gin-  
tonic edaten; eta ezkutuenen dagoen bazterrean biko-  
te bat bereak eta bi egiten, hain ezkutuan ere ez  
zeudela ohartzeko.

- Birra denontzat! Eta ipini ezak dantzarako  
zerbait!

- Heinneken ala Voll-Damm?

- Ruben Blades...

Erantzun zion Txaplik, Heinnekena seinala-  
tzen zuela.

- Joder, Txapli! Ruben Blades! Ez nian sekula  
imaginatuko!

- Ez naun ondo ezagutzen, maitia...

Muxu bat eman zion bekokian.

- ...ezkondu nirekin, eta erakutsiko ditinat nire beste mila sekretu!

- Babua!

Bost Heinneken bere legezko izerdi tantekin barra gainean. «...Por la esquina del viejo barrio lo vi pasar...». Jon, ipurdia hara eta hona astintzen, dantzan ari bide zen.

- Hiri ere gustatzen zaik?

- Txikitatik, Ane.

- Gutxietsi egiten gaitun!

Txaplik mostradorean kolpeak ematen zituen erritmoa eraman nahian. Aneren gerrialdea ere emeki mugitzen hasi zen, Jonen aldean estilo handiz. Eta beraz, Mikel eta Nerea ziren jokoz kanpo zeudenak.

- Zer moduz zuen taldea?

- Beno, nahiko ondo.

Camel paketeari oratu zion ziztu bizian, Nereari eskaintzeko.

- Bakarra dago...

- Berdin da, hartzazu...

- Hika ere hitz egin diezadakek...

Pietatea ere Ruben Bladesen kantuarien erritmoari lotu zitzaion umilki. Apenas jasotzen zi-

tuen oinak lurretik, baina Bo Derek zango zabalik baino lizunagoa zen mugimendu sotil hura. Pietateak ezpainetan hartu zuen zigarreta. Mikelek txiskeroa desenfundatu zuen patrikatik. Lurrera erori zitzaion.

- Txiskero madarikatu hau!

Atzamarrak izerditan zeuzkan eta ez zuen piztea lortzen.

- Azkenean!

Mikelengandik zentimetro eskasetara geratu zen Nerea sutara gerturatu zenean. Figura ain-gerutarraren gorputzari zerion lurrina usaindu ahal izan zuen.

- Hik ez duk dantzarik egiten?

- Ez, zera... oso zabarra naiz...

Nahikoa lan zeukan eskumako hankaz erritmoa markatzearekin. Nerea gerri dantza harri-garriari jarraitzen zitzaion, oinak lurretik jasotzeki. Sorbaldak eta burua ere higitzen zituen tartean behin. Zigarretari upakada luzeak eman eta kea kanporatzean gorantz luzatzen zuen kokotsa, lepoalde zuri eta guria bistaratzen zitzaiola. Likinianon Beltzaren hitzaldira eramandako kamiseta berbera zeukan, Abiadura Handiko Tre-

naren aurkako kamiseta gorria, lepoaldean moz-  
tua, ia sorbaldak ere agerrarazten. Batera eta  
bestera egiten zuenean bularretakoaren tira ur-  
dina ikusten zitzaion. «...La vida te da sorpresas,  
sorpresas te da la vida, ai ai...». Pietatea Aneren-  
gana hurbildu zen pixka bat, eta han ari ziren Jon  
eta hirurak dantza zoroan. Tabernan zeuden be-  
zero bakanek ez zioten hirukote xelebreari begi-  
rik kentzen. Mikelek Txaplirengandik lortu nahi  
izan zuen amarrua.

- Txapli, pasaidak zeozer lehenbailehen...

- Zer.

- Zeozer, joder! Berdin zaidak speeda, kokai-  
na, bikarbonatoa, amoniakoa edo zaldia... baina  
pasaidak lehenbailehen, bestela gaur ere lotsa-  
garri gelditu behar diat!

- Ohituta hago.

Trago luzea eman zion Heinnekenari.

- Ohituta ni? Zertara?

- Tok! Hartzak eta bakea emantzak! Ez dena  
hartu baina, besteok ere nahi diagu-eta!

«...El que a hierro mata a hierro termina...  
Txan-Txan!». Mikel komunera zihoan Pietateak  
eskutik heldu zuenean.

- Nora hoa horren presaka?
- Komunera, filatxo bat jartzera. Nahi duzu?
- Txikitxo bat...
- Zatoz.

Mutilen komunean sartu ziren biak. Atea kis-ketarekin itxi eta Txaplik emandako poltsatxoa atera zuen. Lurrera erori zitzaion.

- Ostia!
- Kontuz, barrura erortzen bazaik akabo!
- Urduri xamar nago eta...
- Nahi duk nik jartzea?
- Hobe izango da, bai.

Mikelek NANA eta poltsatxoa eman zizkion. Komun txiki hartan maniobra zaila zen mugimendu txikiena ere. Hala ere, Pietateak patxadaz jarri zuen hauts zuria karnetaren gainean. Beste irribarre xalo bat egin zion Mikeli. Mutila berdin erantzuten saiatu zen, baina bisaia odolez hanpatzen ari zitzaiola ohartu zen, erran nahi baita, lotsagorritzen ari zela. Pietateak bi lerro egin zituen karnetaren gainean.

- Handiena hiretzat.
- Ez, ez. Hartzazu zeuk, nik lehen ere sartu dut...

- Nik nahigo diat txikitxo bat. Argi egon nahi diat... -eta momentu hartantxe, Mikelek zelan ez zekiela, Nereak muxu bat eman zion matrailean...gerorako!

Pixka bat makurtu eta astiro barneratu zuen lerrotxo. Mikel lebitatzen ari zen. Benetan muxu bat eman zion? Errealitatea bizitzen ari zen? Edo Txaplik bere arrebari eta amari ematen zien speedak erotu egin zuen?

Komunetik irten zirenerako beste erronda bat zegoen mostradorean. Txaplik, Anek eta Jonek barre txikiak egiten ziharduten, Mikel eta Nerea iristean mututu ziren berriketa gaiztoak.

- Eskerrak beste trago bat eskatu duzuen, egarri nauk!

Horrela igaro ziren Lasaiko kontuak: trago bat bestearen ostean, huntaz eta hartaz solasean. Nereak, Mikelen aldamenean uneoro, begiradak gurutzatzen zituen Anerekin, eta honek maleziazko keinuak egiten zizkion. Laburbiltzeko: ligoteo tipiko bateko baldintza guztiak.

Ruperren *Berandu dabil*tza izan zen tabernatik ospa egiteko seinalea. Halaxe ulertu zuten

denek. Pozarren hartu zuen abisua Mikelek, bere Pietatearen besoa gerri bueltan zuela.

Kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek ñir-ñir, eta mutxurdinek mar-mar.

- Hau da mahaspasa martitzen buruzuri bait-  
tean!

Jonek lanak zituen artez ibiltzeko.

- Zeuk bota duzu ba erronka!

- Txapli -agindu zion Anek-, lagundu egin be-  
harko didak mozkor hau etxera eramaten...

- Hire aginduetara, mademoiselle.

- Bihar arte, pareta!

Harro zegoen Mikel, Nerearen besoa gerri  
bueltan.

- Gabon!

Tenperatura goxoagoa zegoen Dionisosen  
etxean. Epelagoa. Atea zabaltzerako elkarri min-  
gaina jaten ari ziren Mikel eta Pietatea. Isilik joa-  
teko keinua egin zion Mikelek logelara sartu ar-  
tean, ez zuen nahi Dionisosek abentura haren  
berririk izatea, edo izatekotan behintzat berak  
esanda beharko zuen izan.

Komunera joan zen. Zakilak 48ko broka zirur-  
dien, sendo eta zut. Lanak izan zituen komunzu-



loan apartzen. «Ea ondo portatzen haizen, nano. Ez egidak hutsik egin, faborez!». Ohiko bakarriketa, bere buruaz ziur ez dagoenarena, alegia.

Logelan, Nerearen galtzak, jakablua, sujeta-doreak lurrean zeuden. Pietatea arropak erantzita eta ohean etzanda, kuleroak eta kamiseta baino ez soinean. Mikeli hotzikarak zeharkatu zion gorputza, zakil parean geldiu netxo eginda. Nerearen ondora etzan zen. Laster joan zen Pietatearen eskua Mikelen hankartera, laster Mike-len esku hotzak Pietatearen titi epeletara. Txikiak, guriak, zuriak. Behin eta berriz milikatu zituen. Mihi erraria handik eta sama bueltarako bidean ibili zen, Pietatearen eskua Mikelen hankartereko galdara geroz eta indar handiagoarekin berotzen ari zen bitartean. Mikelen eskuak ere bilatu nahi izan zuen Pietatearen motxinerako bidea. Biloz estaliriko basoan barrena azkar asko aurkitu zuen erre kastoaren iturburua. Arnas estua eta aienea ohantzearen kirrin-karrankekin nahasten ziren logelako ilunpean. Pietatearen esku leunak galtzontziloak erantzi nahi izan zituzkion, baina zakilak palanka efektua egiten zio-

nez, Mikelek berak lagundu zion. Mikelek ere laguntza behar izan zuen Pietateari kuleroak erantzeko. Eta halaxe, mundura sortuak izan ziren bezala, elkarri besarkatuta heldu zen unea, une kritikoa.

- Gainean ala azpian?

Baina Mikelek gor jarraitzen zuen titiburuak miazkatzen. Pietatea etzan zen Mikelen gainean, eta gutxira zakila laztantzen hasi zitzaion ahoaz.

- Ez, zera...

- Zer?

- Ez tematzeko gehiegi horrekin, lehen ere nahiko gori dago-eta.

- Kondoiren bat izango duk nonbaiten.

Gau mahaiko kaxoia arakatu zuen itsumustuan. Han aurkitu zuen langabetuz beteriko kaxatxo bat.

- Itxoin...

Eskua gehixeago luzatu eta flexoa piztu zuen. Argi zuriak min egin zion hasieran. Ondoren plazerra baino ez zen sartu Mikelen ninieta-tik. Pietatearen soin zuri biluzia dastatzeaz gain begi bistan zeukan!

- Zera... iraungipen data begiratu beharko zaie...

- Zer?

- Zera... kaduzidadea! Badakizu, aspaldi ez dudala, zera...

- Larrurik jo.

- Horixe.

Kaxako letra txikiak enfokatu zituenean ikusi zuen: 8-2001.

- Fenomeno! Ia beste urte bi dauzkagu txortan aritzeko!

- Itzali argi hori eta goza dezagun gaurkoa, beste plan batzuk ere baditiat datozen bi urteetarako...

Kilima, umela, irritsa, beroa, zirrara, sakona, plazerra, gorria... berba bila aritu gara Mikelek aspaldidanik, aspaldiegi aukeran, sentitzen ez zuen hura grinatsu azaltzeko. Baina, azken batean, labur esanda, jo eta su ziharduten. Bere gainean lauoinka zebilkion neska, azken egunetan hainbestetan buruan izandako hura bera, bere Pietatea! Aurpegia nekez ikus ziezaiokeen arren, imajinatzen zuen haren bisaia transzendental, Michelangeloren harena bezain barea

eta harmoniatsua, barne lasaitasun lizun haren irudi metafisikoa. Hori eta halako beste mila txorakeria zituen buruan, Nereak markatzen zuen erritmoan, orain ezti, suhar gero... Ruben Blade-sen abestiarekin bezalaxe. Kamera geldoan dantzatutako salsa baten antzekoa zen goizaldeko hura. Mikelek larruazal guria ferekatzen zion, bularrak igurtzitzen, titiburuekin jolasten... Baina barrabletako galdarak 900 gradu zentigradoak hartu zituenean arnas bideko tutuak masa oro askatu zuen, garai bateko labe garaietan legez.

- Uieeee!

Atzamarrak Pietatearen ipurmasailetan iltzatuturik, segundo gutxi batzuetako atsegin eternala, gerri kolpez lagunduriko isurialdia, esprinterrrek helmugako marra gainean jotzen duten giltzurrun kolpea-a-a-a...

- Sentitzen dinat...

- Sentitu, zer?

Jo osteko zigarreta erretzen ari ziren. Ohe barruan gorputz biluzien eta izaren kontaktua baino ez. Topiko bat izan arren, film amerikarretatik eratorritako topiko bat baino ez, zigarreta-

rik gozagarriena den hori erretzen ari ziren, kea-  
rekin irudi multiformeak marrazten.

- Ba zera... hain azkar amaitu izana...

Upakada luze bat.

- Ez duk ezer... Ulertzen diat... Hainbeste  
denbora jo gabe...

Zigarroak amatatu eta lotarako jarreran  
etzan ziren, Mikel Nerearen bizkarraldeari itsa-  
tsita. Honek titi epeletan jarri zion esku bat, be-  
reekin estuago helduz.

- Nerea...

- Zer...

- Zergatik ni?

Nerearen ipurmasail beroek egiten zuten tar-  
tean egokituta zegoen Mikelen zakil hila.

- Narrutan egin izanak ez dik esan nahi hire-  
kin maiteminduta nagoenik... Hori ulertuko duk,  
ezta?

- Bai...

- Pozten nauk... Eta hik, zer ikusi duk nigan?

- Pietatea.

- Zer?

- Michelangeloren Pietatea.

- Jontxo...

- Ezagutzen duzu?

- Ba ez.

- Haren aurpegia daukazu. Beno, ez da aurpegia zehazki... Pietatearen keinua, haloa, zera hori daukazu... zurbiltasun hori, malenkonia begiradan, barne lasaitasuna adierazten duen zera hori...

- Eta hori zer duk, ona ala txarra?

- Ez ona ez txarra. Egoera animiko bat, besterik gabe...

Pietateak bueltaerdia eman zuen ohean. Gora begira etzan zen.

- Egoera animiko bat?

- Bai.

- Ba... nire egoera animikoa momentuotan berotasun ikaragarri batena duk... Ez dik axola hik hasitako lana neuk bukatzea, ezta?

- Zer?

- Hankartean sua daukadala...

- A! Noski. Nahi duzu neuk laguntzea...?

- Ez, hi hago hortxe geldi-geldi, neure ondo-txoan...

Mikelek sentitu zuen nola eraman zuen esku bat berak dastatu berri zuen izter artera, bestea

uzkira. Hasieran higikera xume bat baino ez zen, maindireen gainetik apenas nabaritzen zena. Mikelak Pietatearen aurpegiari behatzen zion arre-taz: betazalak itxita, ezpainak elkarren kontra estu, sama tenka. Erritmikoagoak bihurtu ziren zirriak, harik eta hasperen luzea intziri sotil bate-kin bukatu zen arte. Begiak zabaldu zituenean Mikelenak bereetan iltzaturik ikusi zituen.

- Goizean zereginik badaukak?
- Ez.
- Ba orduan lo egin dezagun.

Pertsiana erdi botata zegoen, logela argi eta itzal artean banatzen zuela. Argitan, idazmahaia paperez eta arropaz gainezka; ilunetan, ohea, eta barruan Mikel, ahuspez lo, hankak zabalik, ahantzita utziriko guraizeak bezain zabalik. Ezker besoa luzatuz ferekatu zuen koltxoia une batez. Eskuaz bila jardun zuen, hemen eta han zapaltzen, han bertan behar zukeen zerbaiten bila. Bueltaerdia ematean itzartu zen.

«Elkar ikusiko diagu berriz, Michelangelo!» zioen gau mahaiko oharrak.

Hamabi t'erdiak ziren erlojuan, baina denbora eternala zen Mikelen buruan. Hantxe, ohe ertzean jarrita, biluzik, Pietateak utzitako paper puska eskuetan, eternala zen denbora. Nerea zuen gogoan, harekin igarotako gaua, haren larruaren sentipena berean, bularren sinpletasun epela, gerrialdearen malgutasuna, sabelpea...

Bere lagunik zaharrenak, zakilak, atera zuen pentsamenduotatik, eta berriz bueltatu zuen denbora segundo eta ehunekotan neur litekeen



lurraltera. Lehenengo keinu sotil baten ondotik, sistema hidrauliko batek eraginda bailitzan, diagonalarekiko 103 graduko inklinazioa lortu zuen. Askok pentsatzen dutenaren kontra, zakilaren ohiko inklinazioa 90 graduetatik gorakoa baita. 103 graduko inklinazioa goi mailakoa izan ez arren, inklinazio txukun bat da. Bakoitzari berea. Txoriñoaren alardeari une batez begira egon ondoren jaiki zen, pertsianak jaso eta leihoa ireki. Garairako batere normala ez zen zeru urdin argi batek agurtu zuen. Egun ederra! Nahiz eta egu-nederzale ez izan, Mikelek gustura ikusi zion egunari bisaia alaia. Oso ondo sentitzen zen, pozik... beteta. Gau berezia izan zen. Bazekien ondo noiztik ez zuen halako gau berezirik izan. Eta ordutik bezperakora arte ez zen gai izan saiatzeko ere, beldur baitzion neskekin katiga-tzeari. Pietatea agertu zen arte. Ordutik nabaritu zituen atximurkada txikiak bihotzean. Orain ba-zekien atximurkada haiek zerbait aldatu zutela bere barrenean... Iatea pozez betetzen zion zer-bait, benetako barreak egiten direnean gorputza pozez betetzen denean bezalaxe, halaxe bete-tzen zitzaion iatea sentimendu harekin. Orogen

gainetik dagoen sentimendua, kezka, beldur, zalantza eta antzeko sentipen guztien gainetik.

Maitemina esaten omen zaio horri. Eta deskribapenak kursileria txepel bat dela iduri leza-keen arren, ederra da maitemina. Ederra da norbait hori parean ikustean hormona guztiak dantzant jartzen dizkizun sentimendua bizitzea, sexutik beste izpiritutik duena. Hurbileko norbaitek betiko alde egiten digunean ezinmina sentitzen digunean bezala, inpotentziaren mina sentitzen digunean bezala. Gorputza minetan izaten dugu eta izpiritua zotinka. Ederra dela, beraz, maitemina. Are gehiago anbiziobako maitemina. Eta ukatzen duenak, edo gezurra dio edo ez du benetan ezagutu. Kito.

Mikelek dutxapean egin zuen ordu laurdenak bi gauzatarako balio izan zion: garbitzeko zein freskatzeko... eta bere zakila angelu apalago batera itzularazteko. Dutxatik irten zenean irakiten zegoen italiana, tartean behin txulotxotik txorrotadaren bat jaurtitzen. Mikelen poz sentrazioa areagotzeko, Dionisosek goizean goiz ekarriak zizkion ogia eta egunkaria. Hozkailutik gurina atera, ogi xerra meheak egin, katilu bete kafes-

ne prestatu, egunkaria bildu eta egongelara eram-  
an zituen. Van Morrisonen disko zahar bat hau-  
tatu zuen: *It's to late to stop now*. Ez zen izenbu-  
ru txarra goiz hartarako. Bafleetan *Listen to the  
Lion inside of me* jotzen hasi zen. Sofan jesarrita  
ekin zion gosariari. Eskuman kafesnea eta ogia,  
ezkerrean egunkaria. Zer gehiago eska diezaio-  
ke gizakiak egun hasi berri bati?

Sabela berdindu, egunkaria gainetik irakurri,  
Camel bat erre eta, komunerako buelta baten  
ondotik, arras hobeto! Azken kantua bukatua  
zela adieraziz jiradiskoan orratzak salto egin  
zuenez, telebistari sakatu zion. Laster hasi behar  
zuen *Gaur Egunak*. Eguneke bigarren Camela  
eta paketeko azkena. Barrabilak izter gainean  
egokitzeaz batera eman zion lehen upakada.  
Pantailan Maddalen Iriarteren aurpegia eta aho-  
tsa. Irudietan hiri bateko kale bat, eta polizia pila  
bat ezkaratz baten aurrean, ataria zaintzen, en-  
kaputxatuta eta eskopeta motzak eskuetan. Mi-  
keli irudien informazioa soinuarena baino lehe-  
nago iritsi zitzaion burmuinera. «...Atxiloketak  
Bilbon. Momentuz bi dira atxilotuak, ETako kide  
izatearen akusaziopean. Poliziaren iturriek adie-

razi dutenez operazioa ez da oraindik amaitu. Atxilotutakoak ETako kide legalak dira eta, Poliziaren bertsioak dioenez, Bizkaia Komandoko partaide ziren. Atxilotutakoak: Jon Agirre Perez bilbotarra eta Jose Anjel Murua Alberdi tolosarra...». Argazkiak agertu zirenean irauli egin zitzaion bihotza.

– Ostia, Jokin!

Mikel zurrun geratu zen. Ez zen esku eta hankak mugitzeko gauza, dardara xume batek harrizko bihurtua zuen. Argazkiari erreparatu zion berriro. Bera zen. Bizarrez, baina bera zen, Jokin, Aneren lehengusua.

«...Eta orain goazen beste gai batzuekin... Euskadiko kutxek lau mila milioitako irabazia...». Sofatik altxatu eta etxe osoan zehar bueltaka hasi zen. Segundoko hamar taupadaka zebilkion bihotza. Buruak ezin zion erritmo horri jarraitu, oztopatuta zuen. «...Operazioa ez da oraindik itxi, eta atxiloketa gehiago izan daitezkeela jakinarazi dute Polizi iturriek», esatariaren hitzak deszifratzen zituen Mikelek retardando efektu itogarri batekin. «Alde egin behar duk hemendik, alde!». Hizketa urdurian hasi zitzaion burua. «Ze

ostia egiten duk hemen atzera eta aurrera? Poliziak hire bila etorri arte zain egon behar duk? Ez hadi babua izan! Goazen hemendik!».

Bezperako arropak jantzi zituen: bakeroak, artilezko jertse beltza, jakanarrua eta Marteen-sak. SOS!, sosik ez, beti bezala. Dionisosen gau mahaia arakatu zuen narraski. Beheko kaxoian aurkitu zituen hogeita bost mila pezeta, bost milakotan. «Bueltatuko dizkizut egunen batean!, barkatu Dionisos». Atzeko patrikan sartu eta hanka!

Kalera irten orduko, ezkaratzean, batera eta bestera begiratu zuen, kanpora buru erdia baka-rrik ateraz. Ez zen ezer arrarorik ageri. Betiko mugimendu berdina ikusi zuen, baina Mikeli ka-lean gora eta behera zebiltzanak oro susmaga-riak iruditu zitzaizkion. Ez aurrera ez atzera luzaz egon ezin zuela ohartuta, irten egin zen arineketan. Erosketa poltsekin zihoazen emaku-meei izkin egin zien, eta baita txikiteoan zebil-tzan gizontei ere. Manuel lanean ari zen taber-nan. Mikeli ez zitzaion hura agurtzea burutik pasa ere egin. Arinegi zihoan. Baina egia esan, nora zihoan? Ba al zihoan inora? Edo beste modu

batean esanda: ba al zekien nora joan? «Urrun, Mikel, urrun...! Ez haiz ba orain hire kolega baten etxera joango, eta hura ere hire marroi honetan sartu, ezta? Heu sartu hintzen mobidan eta heuk irten beharko duk! Orain goazen urrun, Mikel, ahal duanik eta urrunen!». Baina pausoa laburtu behar izan zuen bat-batean. Gizon bat ikusi baitzuen aurrez aurre, hamar metrora, amerikana-ko botoia askatu eta eskua besapera sartzen. Geratu egin zitzaion bihotza. Gizonak Lucky pakete bat atera eta zigarreta bat iziotu zuen. Mikelen bihotza berriro abian jarri zenerako Erriberan zegoen. Taxi bat hartzea erabaki zuen.

- Garellanora!
- Autobus geltokira?
- Bai.

Atzean jesarri zen, leihoetatik alde batera eta bestera begira. Bero zen taxi barruan, beroegi agian. Jakanarrua erantzi zuen, izerdi patsetan hasita. Eskua bekokitik pasa zuen izerdia kentzeko. Alferrik. Urduriegi baitzegoen, eta ez zen korrika saioaren eragina soilik. Arriaga pareko semaforo gorrian geldi zeudela, Poliziaren auto bi igaro ziren ondotik sirena hotsean. Mikelen biho-

tzak eguneko hirugarren geldialdia sofritu zuen, eta iruditu zitzaion ez zela eguneko azkena izango. Poliziaren autoak aldendu zirenean jarri zen semaforoa berdean. Plaza Zirkularrerantz jo zuen taxiak.

- Gazte, aurten UEFA geurea izango duk!

- Zer?

- Ez naiz andaluzaz batere fio, baina... Bada-kik, halakoak ditik horrek barrabilak!

Taxistak esku biak kendu zituen bolantetik Luis Fernandezen koskabiloen tamaina adierazteko. Kolpean zapaldu behar izan zuen balazta, pareko autoarekin talka ekiditeko.

- Zer, gazte, ez zaik futbola gustatzen?

- Ez.

Taxistak ispilutik begiratu zion. Mikelek ez zeukan berriketarako gogorik, batera eta bestera so ari zen, etengabe, bekokiko izerdia jertse muturrarekin igurtziz.

- Hala ere, Athletic zalea izango haiz ba, futbola ez gustatuta ere!

- Ez.

- Ez haiz Realekoa izango!

- Ez.

- A, bueno!

Bost axola Mikeli Athletic eta taxistak!  
«Mikel, ez hadi orain txoferrarekin sutu, badau-  
kak kezkatzeko arrazoi handiagorik!». Foru Al-  
dunditik gora zihoazen, Plaza Eliptikoan semafo-  
roak berriz ere gorri jarri zirenean.

- Kaguendios!

- Zer?

- Ezer ez.

Semaforoan zain, geldirik, Dionisos ikustea  
iruditu zitzaion. Bera zen, ziur. Sugeak txoriari  
begiratzen dionean bezalaxe geratu zen Mikel.  
Aurretik igarotzean, Dionisosek zigarreta bat  
iziotu ondoren burua jaso zuela iruditu zitzaion.  
Taxia Plaza Eliptikoari itzulingurua ematen hasia  
zen jadanik, eta orduan otu zitzaion Dionisos  
agurtu egin beharko zukeela nolabait. Bihurgu-  
nean ezker eskua sorbalda parera jaso zuen ba-  
tere komentzimendurik gabe eskuari eraginez.  
Dionisosek plazako errebueltan zihoan taxiari  
erreparatu zion, Ducados baten keaz seinaleak  
egiten...

- Hara gure zaparroa!

- Zein?



- Zera, nirekin bizi den hori.
- Nor, Mikel?
- Txakurtxikirik ez eta hor joiek hori, taxian!

Mundua jan behar baleu lez!

Nahiago zukeen munduak jango balu Jesusen Bihotzaren plazan Poliziaren hiru furgoneta aldamenetik ziztu bizian igaro zirenean. Furgonetek bidean gora jarraitu zuten, eta taxiak San Mamesera, futbol zelaia igaro eta autobus geltokira.

- Zenbat da?
- Seiehun eta berrogeita hamar.

Dionisosi hartutako, ebatsitako, mila ogerlekoko bat eman zion. Taxisak amorru keinu bat egin zuen, kanbiorik gabe geratuko zela esanez.

- Ez daukazu txikiagorik?
- Seiehun bai, baina berrogeita hamar ez.

Izorrai! Ordu biak eta bost. Erdiak arte autobusik ez. Jakanarruko patrikak arakatu zituen: tabakorik ez. Etxe kantoian batean ikusi zuen taberna batean sartu zen, ez lehenago barrukoari begiratu bat eman barik. Dena normal. Jende normala. Dena normalegia normala izateko. Telebista piztuta zegoen. Bi bezerorekin berriketan ziharduen zerbitzariak. Mikelek tabako makinara

jo zuen artez, bururik altxa gabe. Dirua bota eta Camel kaxa itzuli zion. Tabernakoak zorrotz beha zeuzkala iruditu zitzaien Mikeli eta bere paranoiari. Doi-doi begiratu zuen barrarantz. Telebistaren pantailarekin topo egin zuen, eta bertan Jokinen aurpegia bete-betean!

Geltokian, jende andana bildua zen, autobus zain, ikasle plantakoak gehienak. Baina txartel-degi ondoko morroiengan finkatu zituen begiak: bata beltzarana eta zurbila bestea, biak gazteak, eguzkitako betaurreko merkeak, hirulaurdeneko txaketak soinean! «Lasai, Mikel, babu hori! Edo bestela hasi hadi negarrez eta esan egiek heu haizela Polizia bila ari dena!». Ospa egingo zukeen gai izan balitz, baina bere hanka mengel eta dardartiek ezingo zuketen lasterraldi luzerik jasan. Erran nahi baita, txartela erosteko ilaran jarri zela. «Aski duk, Mikel! Jarri egik txartel bat paparrean «ni naiz bila ari zareten hori!» dioena, edo bestela joka egik gizontasun apur batekin!». Gizontasuna, hitz hutsala bi tipo haien ondotik igarotzean. «Deitu egiok nahi duan moduan, baina ez hadi kakatia izan! Dionisos lotsatu egingo huke!».

- Bost duro, autobuserako... -eskatu zizkion zurbilak.

- Ez daukat -totelka erantzun zion Mikelek.

- Orduan... zigarro bat! Eta beste bat nire kolegarantzat...

Popatik hartzera bidaliko zukeen baldintza normaletan. Larrituta zegoen baina, eta agindutakoa betetzera baino ez zen ausartu.

- Donostiara, mesedez -esan zuen txarteldegian.

# Dionisos

Atertu zuen urtarril erdialdeko jadanik asteazkenean. Baina errepidea, putzu handi bat bailitzan, egokiagoa zegoen nabigaziorako Mobylettean orduko berrogei kilometroko abiaduran joateko baino. Abiadura handiegia ez bazen ere, haizea hezurretaraino sartzen ari zitzaion arropa melatuetan barna. Erabat bustita zeramatzan zapatak, galtzerdiak eta praka barrenak; zangoak motozikletaren pedaletatik aldendu arren, ez zegoen aurreko gupilaren zipriztin iturritik libratzerik. Izter bueltak izozten ari zitzaizkion, praka azalera itsatsita sentiberatasun oro galtzear. Gerritik gorakoak zirak babestu zizkion ahal izan zuen artean; Galdakaora heltzerako ostera, denak blai eginda zeramatzan. Eskulekuari tinko heldu eta gorputza kuzkurtuta jarraitu zuen bidean aurrera. Gauerdiaz goiti ere bazebilen auto eta kamiorik errepidean. Halakoren bat paretik igarotzen zitzaion bakoitzean burutik behera baldekada bete ur botako baliote lez sentitzen zen. Madarikazioek ez zuten arroparik lehortuko,

baina ez zen beste berbarik aditzen Dionisosen barruetan. Mobylettearen argi ahula haizeak dantzan darabilen kandela baino gauza ezdeusagoa zen ilunpetan. Pozik hartu zituen Zornotzako etxarteko argiak. Ez zen semaforo gorrian gelditu.

Beste ordu laurden bat behar izan zuen urrunera hirigunearen argiak ikusi eta motorretik jaisteko. Erreka ertzeko sasitza batean ezkutatu zuen Mobylettea eta oinez abiatu zen errepide jeneralaren ertzetik, eskuak zimur-maxkal eta prakak astun. Nahiz eta pauso bizkorrean berritzen zihoan ez zuen luzaroan arropa haiekin ibiltzerik pulmonia bat harrapatu nahi ez bazuen. Kanpandorrea bistaratu zuen urrunera. Bidea zeharkatu eta plazarantz.

Star zaharra gainetik kentzea zen lehen lana. Zapi batean bildurik, eliza osteko sasitzan ezkutatu zuen, kanpandorrearen oinean.

Dionisosek espero bezala, argi beilegi bat piztuta zegoen plazako etxean. Ileak astindu zituen, burua lehorturik planta hobe hartuko zuelakoan. Aldaba jo zuen dudati, bekatu handia konfesatzera doanak lez. Kirrinka arin batez za-

baldu zen atea. Ez zen ezkaratz hartan sartzen zen estreinako aldia.

- Koño!

- Berorrek ez luke horrelako barbarik esan behar.

- Horrelakorik? Hago isilik eta hator gora, hazurretarino bustita hago-eta. Demonioaren prakak!

Eskaileretan gora jo zuen gizonak.

- Hor geratu behar dok? Hator gora!

Ezkaratzeko horman egurrean egindako erliebe lan bati begira zegoen Dionisos. Oroitzape-nak zekarzkion idiari eusten zion gizon sasoiko txapeldun hark, arrauna jasotzen zuen arrantza-leak, «Gure etxera datorrena...».

- Ez dozak hire neurrikoak izango, baina jantzi egizek arropok. Hoba dok sikurik barregarri... bustita negargarri baino.

- Zeureak dira?

- Ez. Nireekin siku eta negargarri egongo hintzake.

- Ondo babestuta baina.

- Hago horretan. Katilukada esne berotuko deuat, itxaron egik.

- Ez lanik hartu, atoa joateko asmoa deukot.
- Hi jarri hadi hor isil-isilik, horrek barruok berotu barik ez haz-eta inora joango.
- Berorrek esandakoa izan bedi.
- Adarrik ez gero!

Paperez gainezka zegoen mahai baten ondoan jesarri zen Dionisos. Hantxe geratu zen bere piura berriari so, arropa epelak bere onera bueltatzen zuen bitartean. Butanozko berogailura hurreratu zituen eskuak. Bizitzak beste kolore bat zeukan 125 watioko bonbillaren argitan.

- Eutsok! Barruak berotzeko ondo etorriko jak. Ogirik gura dok busteko?

- Ez da zopak egiten hasteko ordua! Nahikoa daukat honekin, eskerrik asko.

- Gorde egizek eskerrak beste baterako. Zetan habil?

Dionisosek hurrupada sakon bat eman zion esne katiluari. Bera ere ohartu zen hots handiegia atera zuela. Katilua mahai gainean utzi eta besaurrearekin garbitu zituen ezpain ertzak.

- Ezetan be ez.

- Ondo jauk. Neure errua izan dok galdetzea be.

- Berdin deutso.
- Zeozer entzun juat eta...
- Laster zabaltzen da hemen barria, bai.
- Hemen, badakik. Bata hona bestea hara...
- Normala ganera, normala.

Beste hurrupada luze batekin bereak eman zituen katiluak. Dionisosen aurrean jaiki eta mahaitik katilua erretiratu zuen gizonak.

- Gehiago gura dok?
- Ez, eskerrik asko. Ducadosik ez dozu euki-ko?

- Etxe honetan gauza asko bai, baina hori ez. Fariasen bat egongo dok akaso.

- Besterik ezean ez da txarrena be.

Minutugarrenera itzuli zen Farias kaxarekin.

- Harantza edo honantza habil?
- Bueno -lehendabiziko upakadan eztula etorri zitzaion eztarrian gora-, ez batera ez bestera.
- Hara bahoia badakik nora jo, eztok?
- Ez deukot bestaldera joateko asmorik. Han txapelokerrekin baino galdera gehiago erantzun beharko neukez. Eta nik ez deukot galdera horreentzako erantzunik.
- Baina...



- Egon lasai, ez dot uste nire atzetik inor da-bilenik. Akaso ezta ibiliko be!

- Orduan?

- Banoa.

- Nora?

- Madrilera, Sevillara, ez dakit... Batzelonara.

- Bartzelonara? Zetan?

Aulkitik jaiki zen Dionisos. Gizonak harriduraz behatu zion bere aurrean purua ahoan zeukan gazte harroxkoari.

- Neskak bilotsik ikustera, adibidez. Esaten dabe han badagozela kabaretak eta halakoak, revista egiten dala eta egundoko emakumeak dagozela... Ez da toki txarrena beharbada.

- Benetan habil?

Gizonak emandako panazko jaka lodi bat jantzi zuen soinean. Prakak labur geratzen zitzaizkion, orkatilak bistara samar. Baina gainerakoan, munduak koloreak badituela ohartu ez ziren gazte mordo haietako edozein izan zitekeen.

- Ez dakit benetan nabilen. Dakidan bakarra da hemen egonda ez dautsudala zuri onik egiten eta, seguru asko, neure buruari be ez.

- Ez egik holakorik esan, arren. Honadatorrenari etxakok ze koloretakoa dan itauntzen. Hori ondo dakik hik.

- Hori holan da, bai. Dana dala, ez neuke hemen egon behar orduotan. Eskerrik asko barriro be.

- Gorde egizek eskerrak... eta zaindu hadi.

Bostekoa eskaini zion gizonak. Dionisosek gogor estutu zion. Gizonak beste eskuaz besaratu zuenean, negarrez hasteko gogoa etorri zitzaion bihotzean itoginak balitu lez. Ez zen ausartu begietara so egiten. Eskaileretan behera alde egin zuen. Goiko mailatik agurtu zuen gizonak:

- Zaindu hadi, Anton!

- Ez deustazu beste «argi» hori emon behar?

- Lehen be nahikoa argi deukok hik. Hoa lasai!

Dionisosek eskua ateko heldulekuan zuela begiratu zion berriro. Fariasa zeraman eskua jaso zuen diosala egiteko.

- Jabi ikusten badozu, esaiozu San Migelen hanketan dagoela burdina.

- Lehenago eskuan euken, baina hori be aldatu dozue zuek...

Dionisosek ez zituen azkeneko hitzok entzun. Ordurako panazko jaka lodian bilduta oinez zihotan plazaren ilunpearen babesean, ke arrasto mehe bat utziz airean.

Izuaren Teoria idatzi zutenean, hots, historia bera idazten hasi zenean, autobusik ez zen munduan. Hargatixe ez zuten atal bat, espreski, idatzi Autobuseko Izuari buruz. Ez zuten deus esan txoferraren ondoko atetik sartu eta, dagokizun eserlekua aurkitzeko igaro behar den korridore estu horretaz. Garai haietan ez baitzuten garraiobide publikorik. Eta baldin bazuten, nahiko pribatua izango zen, eta beti ere, trakzio publikoduna. Beraz ez zekiten, fitsik, zein klaustrofobikoa den orotariko gizaberez beterekiko autobusa. Zein den umiliagarria korridorean zehar, burua makurtuta, inpunitate osoz aurpegira begiratzen dizuten giza-lagin horien soa jasan beharra. Edo haietakoren baten ondoan joan beharra, edozein momentutan Barne Saileko plaka bat aterako dizun jakiteke. Ez zekiten deus Autobuseko Izuari buruz, baina Mikelek, zorionez, hutsik aurkitu zuen berea eta alboko jesarlekua. Leiho ondokoan jarri zen.

Jakanarrua soinetik kentzerako sasoiko emakume bat eseri zitzaion ondoan. Berrogei urte bueltako emakumea zen. Soineko urdin ilun diskretu batean biltzen zuen bere gorputz biribildua. Ilea horiz tindatua zuen eta ikaragarritzko kolonia usaina, kiratsa zerion.

Autobusaren motorra martxan jarri ahala, burua kristal dardartiaren kontra jarri zuen, run-runak lasai ziezaion iguriki. Ez zen lan erraza. «Hogeita sei urte ziztrin eta hemen hago Donostiara doan autobus patetiko batean sartuta, gal-tzabarrenetatik behera kaka dariala. Nora hoan ere ez dakiala!». Malmasingo tunelean bere irudia itzuli zion autobuseko leihoak. Bere irudia eta Jokinena, eta Gasteizen paketea jasotzera joandako neskarena... Atxilotu ote zuten hura ere? Ez ote zen izango Mikel bezalako beste gizagaixo bat? «Ez, Mikel. Hemen gizajoa heu haiz bakarra. Heu haiz saltsa honetan hain ingenuo eta inkontziente sartu den bakarra. Munduan ez zaudek hi lako bi. Bakarra haiz, Mikel, eta bakarrik hago». Tuneletik irtendakoan, eguarteako argiak bere irudia ebatsi zion kristaletik. Alabaina, beste bat ekarri zion laster: Basauriko kartzela. Hotzikara

mingarri batek negargura eragin zion, ondoko emakumea lepotik heldu eta ume txikiak lantxe negar batean hasteko hunkipena. Dionisos etorri zitzaion gomutara. Hark jakingo zukeen zer egin halako egoera baten aurrean, jakingo zukeen nora jo, nola... «Nola deituko diok baina? Erotu egin haiz? Honezkero txakurrak etxean egongo dituk, eta hik Dionisosi deitu nahi diok... Eta euskaltegia? Handik alde egina izango duk hi Donostiara heltzerako». Matrailezurra estutu eta malkoei hozka egin zien. Zornotza igaro eta kilometro batzuetara kirats nardagarria heldu zitzaion sudurmuinetara. Ezaguna zuen. Bere esparruaren mugak ziren haiek. Iurretako ordaintokira iristean poliziarik edo guardia zibilik ba ote zen begiratzeko luzatu zuen lepoa. Inor ez. «Heure herritik igarotzen habil eta galduta hago, konturatu haiz? Hortxe egongo duk nonbaiten hire ama. Etxea ez duk ikusten, baina badakik teilatu gorri horietakoren bat dela. Harrikoa egiten ariko duk seguru asko, bakarriketan». Autobusa ordaintokitik igaro zenean, oinaze sakona sentitu zuen erraieran. Ama. Beti egin zuen Mikelen alde, etxeko txikia bera izaki. Egindakoak

eta gehiago barkatu zizkion beti, nahiz eta asko onartu ez. Haren niniko mutikoa izan zen bizitza osoan, baita Bilbora joan zenean ere. Eta orain, zelan jasoko ote zuen berria? Noiz? Larregi izango zen amarentzat, bazekien hori Mikelek. Anaiak ez zuen bere alde egingo. Eta aitak?. Malko uholdea zetorkion eztarriko korapiloaren ondotik. Matrailezurra estutuz berriz ere eusten saiatu zen, hortzak elkarren kontra min emateraino. Anpulu bi erori zitzaizkion, mahuka muturrarekin lehortu zituen anpulu bi.

Barruko arropak izerditan zeuzkan. Beldurra bidaia turistikoa egiten ari zen bere barne muintan. «Kaka eginda hago, Mikel. Zirin hutsa haiz. Behar huen sasoian Dionisosekin berba egin bahu, orain ez hintzatekeen egoera honetan egongo. Baina gure heroiak dena bakarrik konpondu nahi zian, dena ezkutatu, gero beldurrak uxatzeko mozkor negargarri bat harrapatu... eta Dionisos atzera bueltabako marroi batean sartu!». Ez zuen buruak baketan uzten. Horixe behar zuen, bere kontzientzia ipurterrea zaurietan atzaparka. Ohartu ote zen inor bere desagerpenaz? Nor ohartuko zen ba? Dionisos

bileraren batean izango zen, taldekoak ez ziren harrituko bera etxean aurkitu ezean, ama gutxiago... Eta Pietatea? Hots egingo ote zuen Ne-reak etxera? Zergatik hots egin behar zuen? «Jota hago hura hitaz gogoratzen dela pentsatzen baldin baduk. Edukiko dik bestela ere zertan pentsatua! Eta enteratzen denean ere, zer? Pena pittin bat emango zioke, eta kito. Asko jota, atxiloketen kontrako manifestaldiren batera joango duk, baina hire izenik ez duk inon agertuko. Ingurukoak baino ez dituk hire faltaz konturatu, eta horiek ere denbora igaro ahala ohitzen joango dituk».

Denbora? Berrogeita hamar minutu zeramtzan autobusean urrunera Zarautz bistaratu zutenean. Bazekien Zarauzko ordaintokian kontrolak ohikoak izaten zirela. Eta ohikoa sarri gertatzen delako, ordaintokira gerturatu ahala nabaritu zuen guardia zibilen berdea. Bihotza eguneko hainbatgarrenez irauli zitzaion. Supituki alboko emakumeari irmo oratu zion besotik, oharkabean.

- Aizu!



Emakumeak harridura eta ikara artean erreakzionatu zuen, eta belaunak elkarren kontra estutu zituen erreflexuz. Mikelen begirada errukarriak barkamena eskatuko lioke, baldin eta geroz eta gertuago ikusten zituen guardia zibilei begira ez balego. Zortzi bat Patrol... eta dozena bi txakur metraileta, txaleko eta 9mm-tako amorruez horniturik. Bekainetatik behera zetozkion izerdi tantak. Emakumeari laguntasuna erregutu gura zion, baina eserlekuan atxikitzen zuen izu laborriak, mutu.

Autobusa ordaintzeko gelditutakoan ohartu zen kontrola Bilborako norantzan baino ez zela. Bere onera bueltatu zitzaion arnasa. Dardarizoa jabaldu zitzaion Orion. Ibaian txalupa bat eta itsasoa bare. Bailearen arrastorik ez.

Laurak laurden gutxi ziren autobusa Amarako geltokira iristean.

Oinak lurrian jarritakoan bertan erori behar zuela pentsatu zuen. Ez zeukan indarrik belaunetan. Urrats geldo eta zurrinak eman zituen, lurra bere oinetan erdibituko den beldur dagoenak bezala. Atzera begiratu ere egin barik abiatu zen geltokiko tabernara. Telebista piztuta zegoen.

Televisión Españolako informatiboa bukatuta. Atxiloketen berria emana izango zutela pentsatu zuen. Tabernan inork ez zuen bere sarrera sumatu, bakoitza berean ari zen. «Beno, Mikel, orain trankildu eta pentsatu egik zein izango den hurrengo pausoa. Edan egik zerbait, eta saia hadi hotzean pentsatzen, ahal duanik eta hotzenen behintzat». Burutapen horietan zebilela, ertzain bikote bat heldu zen tabernara. Eskatu berri zuen Coca-Cola botila ia irristatu egin zitzaion eskuetatik. Bere parean jarri ziren ertzainak, gerri bueltan lotuta zekartzaten pistolak egokitu ondoren.

- Dos cortados.

Hanka egin beharra sentitu zuen, lehenbailehen. Co ca-Co lari tragoa eman zion, baina burbuilak ez ziren eztatritik aise igarotzen. Ordaintzeko patrikatik dirua ateratzean txanponak erori zitzaizkion lurrera. Ertzainak kolpean biratu ziren. Mikel kukulumuxu zegoen ia. Ertzainek goitik behera begiratzen zioten. «Ez egik artazopa aurpegi hori jarri, kaiku halakoa! Erruki eske habil edo beraiekin joan nahi duk?». Ertzainak euren kafeetara itzuli ziren. Mikelek lortu zuen

azkenik txanponak bildu eta mostradore gainean uztea.

Kanpoan, Donostia eta donostiarrak. Ez zituen ez bata ez besteak sobera ezagutzen. Izua-  
ren atzaparretatik salbu geratzen zitzaion arra-  
zionaltasun apurrari atxikita, taxista batengana  
jo zuen:

- Tren geltokira!
- Bai, baina nora zoaz trenez. Bi geltoki badi-  
ra.
- Irunera... -zalantza egin zuen, esan edo ez.
- Kale hori segita berehala iritsiko zara oinez.
- Eramango nauzu, bai ala ez?
- Nahi duzun bezala. Horretarako gaude.

Barne irratia jarrita zeukan. Kale izen eta zen-  
bakiak entzuten ziren. Poliziaren deiak ziruditen,  
hala iruditu zitzaizkion Mikeli. Polizi auto bat noiz  
agertuko begiratzen zuen atzeko kristaletik.  
Udaltzainak zetozen. Bekokiko izerdiak kendu zi-  
tuen, zorabiatzeko zorian zihoan, beldurrak zulo  
beltz bat zabaldu zion erraieran. Hondorik  
gabea, zenbat eta barrurago orduan eta beltza-  
go.

Irunerako txartela erosi zuen geltokian. Zigarro mutur bat erretzeko betarik ez zuen izan Bilbotik irten zenetik. Camelaren ke artean ideia gaiztoak lausotzen saiatu zen, jendearengandik aldendu eta estreinako nasaren puntara joanda. Iruneraino iritsi behar zuen aurrena, han pentsatuko zuen gero ze ostia egin. San Juan de Luz izena etorri zitzaion gomutara; halaxe esaten zitzaion bere etxean; gurasoekin izan zen behin umetan. Barnealdean ere astebetez egona zen hamazazpi urterekin, koadrilakoekin; baina han paraje politak eta baserritarrak baino ez zituen ikusi. Non zeuden bada «bestaldean» ezkutatzen ziren haiek guztiak? Mauleko tabernetan Ricard edaten zuten agureak ez ziren ezkutuko jendea, Azkaineko trinketera pilota ikustera joaten zirenak ere ez ziren sasikoak, eta are gutxiago kostako hondartzetan paseatzen zirenak. Non arraio zeuden bada «bestaldean» ezkutatzen ziren haiek guztiak? Non demonio? Zer egin behar zuen berak «bestaldera» heltzean? Ikurrina bat ikusitako lehen tabernan sartu eta «Aizu, ni iheslari abertzale bat naiz» esan? Baina artean, «bestaldera» heldu beharra zeukan...

Treanean jendeak eguneroko jendea zirudien. Egunero bidaia bera egiten zutenak. Geltoki berean igo eta geltoki berean jaisten zirenak. Mikelek nolabait baztertu beharra zeukan mundu osoa susmagarritzat jotzeko ideia. Ez zekarkion onik teoria hark. Haren arabera, Intxaurrondoko txakur bat izan baitzitekeen *El Diario Vasco* irakurtzen ari zen agurea ere. Eta gainera, inguruko guztiak txakurrak baziren eta harrapatu nahiko balute, honezkero haien denen zapatapean zegokeen ahuspez. Buruhauste deserosoetatik urrun mantentzen ahalegindu zen trenbideko posteak zenbatzen. Izuaren zulo beltzak min ematen zion errailetan, baina bazirudien neurriz ez zela asko zabalagotu.

Bostak pasatxo ziren Irungo geltokian. Topotik Mikelekin batera jaitsitako bidaiariak hiriko kaleetan zehar desagertu ziren. Trenetik trenera... ehun metro. Lauzpabost pertsona baino ez zeuden Renfeko nasan. «Ondo zagok, heldu haiz. Eta orain zer? Ze arraio egin behar duk?». Banku batean jesarrita, Camel kearekin olatuak sortuz so egin zion inguru arrotzari. Geltokiburua bulegora erretiratu zen pauso azkarrean. Gazte-

txo batzuek erdi-zirritan ziharduten, hirugarrenez joaten utziko zuten tren baten zain. Burua beste aldera biratu zuenean eztulka ihes egin zion biriketako keak. Polizia bikote bat zetorren sokatik lotuta zeramaten zakur batek bidea erakusten ziela. Geroz eta gertuago. Zigarreta jaurti, bizkor jaiki eta geltokiko komunetara iristea erdietsi zuen. Kisketari eman eta paretaren kontra jarri zen, bihotza bularretik atera beharrean zuela. Arnasestu hotsa isiltzen saiatu zen haizea sudurtzuloetatik botatzen. Ahots bi entzun zituen. Norbaiten urratsak komunetan barrena. Izerdia gelditu behar zuen nola edo hala, zakurrak usain ez zezan. Pausoak bertan-bertan. Komuneko atea zabaltzeko saioa egin zuen. Heldulekua gora eta behera. Mikelek kokotsa jaso eta begiak itxi zituen, fusilatua izateko aginduaren zain dagoenak legez.

Zena zelako gizon hura alboko komunean sartu zen. Argi aditu zuen nola askatu zituen prakak, zelan jaitsi zuen kremallera. Gero txorrotada. Ondoko komuneko gizonak alde egin zuenean ere, paretaren kontra jarraitu zuen Mikelek. Ez zuen zirkinik egin hara sartu zenetik. Bos-

tehun arte zenbatu, komuneko tapa itxi eta bertan jarri zen. «Azkena zela pentsatu duk, e? Larri ibili haiz oraingo honetan... Zenbat horrelako gehiago agoantatuko ditik hire bihotzak? Justuan ibili haiz, justuan. Ipurdia bistan daramanari ikusi egiten zaiok azkenean! Hiri kiratsa ere hartuko diate horrela jarraitzen baldin baduk. Kaka egin da hago, joder!». Esku ahurrekin bere aurpegia-ri zaplateko txiki batzuk eman eta komunetik irten zen.

Irakurria zuen nonbait, iheslaria pausoak saltzen duela. Idatzi zuenaren izenaz gogoratzen ez bazen ere, egunen batean kontuok argitzen zirenean, bere adostasuna adierazteko gutun bat idatziko ziola promes egin zion bere buruari. Saiatu zen, beraz, pausoak ziurtasunez ematen, normal tankera hartzen, baina halakoetan izaten da zailena jarrera hori lortzea. Normal egoten saiatuta ez da sekula normal egoterik lortzen. Normaltasuna ez baita saiatuaren saiatuz lortzen den zerbait. Eta Mikel aktore eskasa zen benetan.

Geltokiko harrera gelako txarteldegian bazen jende multzoa. Ilaran aurrera egin zuen Mikelek,

ezertan eta inorengan erreparatu gabe, denak kexuka.

- Barkatu, Pariserako trena...

- Ez duzu ikusten beste batzuk zure aurretik daudela?

- Bai, zera, galdera bat egiteko besterik ez da.

- Jarri ilaran beste guztiak bezala, mesedez.

Une hartan pistola bat eskura izan balu, tiro egingo zion agure hari inongo duda barik. Ez zituen jubilaziorako urte asko faltako agure txatxu hark, baina gustura egingo zion tiro bekoki erdian.

- Ez al diozu entzun ilaran jartzeko?

Uniformez jantzitako tipo bat oldartu zitzaion. Begiak plater azalak bailiran zabaldu zitzaizkion Mikeli, eta intxaurra eztarrian gora trabatu. Ari-neketan hastekotan zen zinpeko zaindari horietako bat baino ez zela ohartu zenean.

- Entzun diot, bai, barkatu.

Zinpeko zaindaria geltokiko irteerara urrun-tzen ikusi zuen pistola zahar bat gerrian zintzilik. «Mikel, apur bat lasaitzen ez ba haiz, hireak egin dik! Mundu guztiaren arreta erakartzen habil.



Hire aurpegia telebistan ateratzen baduk, bazau-  
dek hemen hitaz gogoratuko diren batzuk. Porta-  
tu diskrezioz, demonio!».

- Pariserako tren hori zer ordutan abiatuko  
da?

- Panelean jartzen ez du ba! Hamaiketan!

- Egia da... Ez naiz konturatu ere egin...

- Azkarregi zabilta-eta.

- Zer?

Txarteldegiko agureak bista jaso zuen eta be-  
gietara so egin zion. Begirada saihesten ahale-  
gindu zen Mikel. Agureak hasperen egin zuen.

- Txartelik erosteko asmorik baduzu?

- Ba, bai.

- Baina norako?

- Pariserako.

- Hori ondoko txarteldegian eskatu behar  
duzu. Orain itxita dago. Zortziak aldera zabaldu-  
ko dute.

Agure alua! Ondoko txarteldegian eskatzeko.  
Lehenago ere esan zezakeen hori: zortzietan ha-  
maiketakoa. Seiak baino ez ziren. Bost ordu  
luze mundutik alde egiteko!

Taberna bat bilatu zuen geltokitik gertu. Horma behinola zurietan aspaldiko zezenketetako afixa pare bat, mostradore txikiaren bueltan lau aulki, eta barruraxeago mahai pare bat. Barra barruan sasoiko gizon bat. Manuel ekarri zion gogora. Bezeroak: agure mehar bat telebistari so, ezpainetan zotz bat hara eta hona; haren ondoan, bere iloba-edo behar zuen mutil koxkor bat txanpon-makinetako botoiei sakatzen.

- Zer hartuko duzu?

- Kaña bat.

Batere pentsatu gabe erantzun zion galderari, «kaña bat». Huraxe zen behar zuena, garagardo fresko bat edalontzi luzangan, bitsez gainezka. Berarekin eraman zuen tabernako bazterrerengo mahaira. Trago bitan hustu zuen, eta Camel bat iziotu.

- Beste garagardo bat.

- Egarri ala, gazte?

- Egun alua, jauna, egun alua.

- Izaten dituk, bai. Tok.

Tabernako egunkariarekin eta bigarren garagardoarekin mahaira itzuli zenerako, agureare-

kin ikusi zuen mutikoa bere mahaian eserita zegoen, plastikozko superheroi bat eskuetan.

- Ezagutzen duzu nire Power Rangerra?

- Ez.

- Flash Power Ranger da. Airean salto ikargarri bat egin eta hegazkin bihurtzen da.

- Zuk ere hobe zenuke salto bat egin eta hemendik hegan ospa egitea, kokoteko on bat hartu nahi ez baduzu. Hanka zaparro!

Mukitsua tximista batean joan zen aitonarengana. Telebistan arratsaldeetako talk-show bat ematen ari ziren, eta tabernaria eta agurea hodi katodikoetan galduta zebiltzan. Mikelek zigarrak amatatu eta garagardoari tragoxka bat eman zion. Gorputza gogor zuen arren, aulki gainean bete-betean erortzen ari zitzaion. Erabat akitua zegoen. Egunkari gainean besoak zabalduta, burua tartean egokitu zuen, begiak itxi eta sakon arnasa hartu. Lo hartzear zegoen tabernako epelean. «Baina zer arraio, Mikel! Lo hartu behar duk orain? Erotu egin haiz ala zer ostia? Ihesean hoa. Irunen hago, eta ez hain zuzen Bidasoaren partida bat ikustera etorria». Egunkariko orrialde guztiak irakurriz aurre egin beharko zion nekea-

ri. Eta halaxe egin zuen, harik eta zortzi t'erdiak aldera sirena hotsa aditu eta Ertzaintzako furgoneta bi ataurretik ziztuan igaro ziren arte. Atezuan jarri zen atoan. Hiru gizon heldu sartu ziren txikiteoan.

- Zer arraio gertatzen da ba?

- Manifestazio bat. Lehen ikusi ditiat etorbidetan gora.

- Bilboko atxiloketengatik izango duk.

- Ze atxiloketa?

- Non bizi haiz, gizona? Ez duk eguerdian partea ikusi?

- Ez ba! Atera beste erronda bat, Martzial.

- Derrepentean.

- ETako batzuk atxilotu ditiztek gaur Bilbon. Hasieran bi hituen, baina gero beste pare bat ere bai.

- Koño!

- Dabilenari gertatzen zaiok.

- Halaxe duk, Martzial.

- Hi behintzat ez hindukete etxean harrapatuko. Tabernaren batean seguruago!

- Hago ixilik. Eta errespetu bat.

- Hiri?

- Niri ez, dabilenari.

«Ostia, beste bi erori dituk, Mikel. Jakingo duk zein den bi horietako bat, ezta? Galantean sartu duk Dionisos!». Baina zergatik izan behar zuen Dionisosek bi haietako bat? Beste edonor ere izan zitekeen. Bera bakarrik al zen bada haiekin enkontru bat izan zuena? «Enkontrua? Horrela esaten diok hik horri? Audientzia Nazionalean kolaborazioa esaten ziotek!». Zezenari sartzen zaion azkeneko aizto bihurra bezalakoa izan zen hura. Ez zuen aski bere buruarekin eta orain Dionisosekiko kezka, eta lotsa, eta oinazea. «Beste batzuk izango dira atxilotutakoak. Posible da, joder! Bilbon milaka pertsona bizi badira, zergatik Dionisos?».

- Trena hartzeko zain?

- Zer?

Poteatzaileak joanak ziren, eta tabernaria Mikelen mahaiko basoak eta hautsontzia batzen ari zen.

- Trena hartzeko zain ote zauden...

- A, bai.

- Gauekoa?

- Bai.

- Parisera orduan?

- Bai.

- Jateko zerbait nahi? Ogitartekoren bat edo zeozer?

- Ez. Beste garagardo bat hartuko dut.

- Konforme. Neuretzat mokadutxoa prestatu behar dut. Inor baletor edo zerbait behar bazenu egidazu eupada bat.

Gizona sukaldera ezkutatu zen. Zortzi t'er-diak bueltan behar zuten, telebistan *Gaur Egunen* karatula agertu baitzen. «Ze arraio, Mikel! Zergatik esan diok Parisera hoala! Mugitu hadi hemendik. Imajina ezak hire aurpegia agertzen dela telebistan. Orain tipoa barruan zagok, baina bat-ba tean irteten baduk zer? Edo baten bat sartuz gero?». Mostradorean mila pezetako bat utzita hanka egin zuen geltokira, jakanarruaren kolkoak jasota, iheslariaren pausoeran, ezin burutik kendu Dionisosena. «Horra tipo legala! Hori esan zian etxean hartu hinduenean, ezta? Legal-tasun bitxia hirea, opari ederra laga diok ordai-netan!».

Txarteldegiko ilaran bikote bat eta lau magrebiar, aldean poltsa handi bana.

- Paris.
- ¿Compartimento o litera?
- Litera.
- 12.500 pesetas, por favor.

Bon voyage!

Paris. Mikel egundo Parisen izan gabea zen. Ez zion dena den, poz handirik sortu bidaia egoera hartan egin beharrak. Nasara baino lehen, batera eta bestera so egin zuen. Pareko nasan, trenaren zain beharbada, hiru-lau lagun. Bera zegoen nasan beste hainbeste. Polizia arrastorik ez. Burdinbidea Hendaiarako norantzan ilunpetan nola galtzen zen begira egon zen denbora batez. Dardara batean zegoen, beldurragatik adina hotzagatik. Alabaina, gorputza gauaren mende uztea erabaki zuen. Camel bat iziotu eta, besterik gabe, entzefalograma laua mantentzen saiatu zen, denborari joaten uzten, hurrengo eguna zabaltzen ikustea baino desio ez duenaren gisan.

Lurrean zapalduarik zeutzan zigarro motxikinek adierazten zuten zein luzea izan zen hamaikak arteko tartea. Mikel trenean zegoen, eta han geratu ziren zigarro motxikinak, Irunen. Janzkeraz

jendarmea zirudien interbentore batek azaldu zion bere litera-konpartimenduaren kokapena, txarteldegia ondoan ikusitako lau magrebiarrak zeuden konpartimendu bera. Sei litera eta bost pertsona, pospolo kaxa bat zirudien gelan. Trena martxan jartzeaz batera azkartu zen Mikelen bihotza ere. Gutxi barru *bestaldean* izango zen, egun hartan gaingitu beharreko azken frogara. Ez zekien zein motatako kontrola izaten zen muga igarotzeko, baina bazekien eguneko azken bihotz iraulia jasateke zegoela.

Hendaian geratu ziren gutxira. Bidaiari bakarren bat igo zen nahiko hutsik zihoan trenera, eta aldaketa gutxi gehiago. Konpartimenduan lau magrebiarrak arropak erantzten ari ziren, ohe deitzen dieten metro erdiko espazio hartan etzateko. Hiru pisuko litera bat alde batera eta beste hiruko bat bestera. Gorengo biak utzi zizkioten libre. Argia itzali zutela nabaritu zuen atepeko errainua desagertzean. Trena martxan jarri zen berriro, eta Mikelen begiak Hendaye jartzen zuen kartelean iltzatuak geratu ziren. «Hemen hasten duk bestaldea!». Administratiboki behintzat Frantziako lurretan sartua zen. Eta ez zen



gutxi. Ezpainetan irribarretxo antzeko bat marraztu zitzaion. Etxetik arineketan irten zenetik lehendabizikoa. Beste Camel bat iziotu zuen, uste baino lasaiago. «Hau erre eta ohera. Merezi duk-eta! Bihar beste egun bat izango duk, beste mundu batean... Parisen! Gogoratzen al duk Humphrey?». Upakada luze batzuk eman zizkion leihatilatik jaurti aurretik. Burua leihatilatik kanpora atera zuen pixka bat. Dexenteko abiaduran zihoan. Haize hotzak azala freskatu zion. Eta atzera begiratuta ikusi zuen iragana, jaurti berri zuen zigarreta hondarra bezala, gau beltzean desagertzen. Aurrean, dena beltz, beste ezer ez.

Giza-hatsa zegoen konpartimenduan. Izan ere, gehitxo ziren bost gizaseme halako toki txiki baterako. Goiko litera eta sabaiaren arteko distantzia ez zen metro batera heltzen. Nola-hala etzan zen tren konpainiaren begirunez bertan aurkitutako burko baten pean botak lagata. Jakanarrua bota zuen gainetik, eta ondoren tren konpainiaren beste begirune keinu bat zen manta-txoa. Behatzak mugitu eta plazerra sentitu zuen gorputz osoan. Bizirik zegoen seinale.

Burutapenak etorri ohi dira ametsak baino lehen. Dionisos, ama, lagunak, Pietatea... denak nahasi zitzaizkion nahasian. Atxilotuta ez, Reme-lluri bat edaten irudikatu zuen Dionisos. Amak arduratzen zuen, latza izango zen berria jasotzea. Zuria Beltzekoek flipatu egingo zuten, seguru. Anek batez ere. Edo beharbada ez, beharbada Jonek flipatuko zuen gehien; ez zukeen sekula halakorik pentsatuko. Pietatea? Zer esango ote zuen Pietateak? Deus ez. Zer esan behar zuen ba? Isilik geratuko zen, bere aurpegian ez zen keinurik marraztuko; finean, Pietatea.

Trenaren tiki-takak trankildu egin zituen Mikelen kirioak, loak hartzeraino. Baina tupustean... atea zabaldu zuten kanpotik. Asaldatu egin zen. Argia piztu zuten. Hendaiako nasan trenera igotzen ikusitako jendarmeak!

- C'est une inspection! Sortez tous au couloir et montrez vôtres cartes d'identités! Allez! Allez!

Hara bihotzaren irauli handiena! Kolpetik jaitkitzen saiatzean kaskarrarekin jo zuen sabaia. Kolpearen mina ez zen deus izan taupaden estuasunaren aldean. Magrebiarrak konpartimen-

tutik irteten ikusi zituen paperak eskuetan. Karrajoan zeuden laurak, galtzontzilo hutsik. Mikelek ez zien jendarmeei fitsik ulertu, baina jakanarrua hartuta jalgi zen ohatzetik. Burumakur zeuden magrebiarrek ardi beldurtiak ziruditen, oilar frantses harroak gobernatzen zuen ukuiluan. Jendarme harroxko batek, frantsesek eta donostiarrek baizik eraman ez dezaketen mustax fina sudurpean, haien paperak aztertu zituen, tartean behin begietara so eginez. Bigarren jendarmeak konpartimendua arakatzan ziharduen. Maletak oro ireki eta lurrean barreiatu zituen arropak eta zorroak eta trasteak. Lau magrebiarren dokumentuak aztertzen bukatutakoan Mikeli begira geratu zen mustaxaduna. Mikelen eskuan dantzan ari zen nortasun agiri dardartia.

- Vous pouvez être tranquille. Quand je finiré de fouiller l'appartement, vous pourrez rentrer.

Ez zion zipitzik ulertu baina konpartimentura sartzeko keinua egin zion geroxeago.

Hogei bat minutuz izan zituzten karrajoan. Halako batean jendarme mustaxadunak diosala egin zien kapeluari eskuarekin gora eginez eta, ulertu ez arren, Mikeli mehatxu tonuan esanda-

ko esaldi bat iruditu zitzaionarekin. Atea itxitakoan maldizioka jardun zuten magrebiarrek, Mikelek ulertzen ez zuen beste hizkuntza batean. Badaezpada, jendarmeak putaseme batzuk zirela adierazi nahi izan zien imintzio batzuez. Ez zegoen oso ziur aditu ote zioten. Alde guztietatik barreiatuta zeuden arropa eta trasteak bildu, ahalik eta azkarren literetara etzan, eta errezoan hasi ziren ozen, letania amaigabean. Hura izango zuten amorrua baketzeko modua.

Koranaren marmarrean eta trenaren tikitakan, berriro loak hartu zuen Mikelek, berak ere nola ez zekiela.

«Beti geratuko zaigu Paris» esaten zion Humphrey Bogartek Ingrid Bergmani *Casablanca* filmean. Baina haiei libera batzuk geratuko zitzaizkien. Mikelek ez zeukan bakar bat ere.

Atzera aurrera handia izaten da Austerlitz geltokian. Mikel ekarri zuen Palombe Bleu haren ondoan TGV famatua zegoen geldirik. Metalezko munstrotzar hari jaramon handirik egin gabe, toiletak bilatu zituen. Ez ziren handiak eta txukunak *gareko* haiek. Errepublika frantziarra zerbitzu higienikoez hain harro agertu izan ohi denez gero, garbixeago egon behar lukete. Baina ikusiak ikusita, «erdia barrura eta erdia kanpora!; bizitzaren ironiak, Mikel». Parrastada beroa bota zuen. Eskuak garbitu bitartean erreparatu zion bisaieri mirailean. Bera zen benetan? Zurbil eta iharra iruditu zitzaion, begi-zulo nabarmenekin eta akitu aurpegiarekin. Goizero bezala dutxatu ezinik, urez busti zuen musua, eta kanpora.

Paris. Lehen begiratu batean bederen, beste edozein hiri erraldoiren tankera hartu zion. Ala-

baina, bazuen zerbait berezia: hotz, izugarri hotz egiten zuena. Goizeko zortziak izango ziren eta artean ekiak ez zuen lainoa zulatzea erdietsi. Jakanarruaren kolkoak jaso eta belarriak estaltzen saiatu zen. «Hauxe duk Paris, Mikel. C'est Paris! Begira itzak kalean behera eta gora doazenak. Hemen ez haiz inor, beste inurri bat gehiago baik. Nor geratuko duk hiri begira? Nork esan behar dik ezer?». Norabide zehatzik gabe joan zen oinezka geldoan aurrerantz, ihesaldi guztietan bezalaxe, gibelera behatzeke. Etorbide luzean autoak eta jendeak: yuppiak, xeheak, gorbatahunak, buzodunak, ilehoriak, beltzaranak, beltzak, magrebiarrak, indiarrak, frantximant klasikoak... eta Mikel. Munduaren Babelen barrera sentitzen zen, izaki ezdeus bat dorre handiaren oinarrian, milaka eta milioikarekin batera, puntu beltz bat baino ez, zorri bat Chiracen burusoilean.

Filmetan eta telebistako orotariko erreportaietan hainbestetan ezagututako Sena ibaia, Ibaizabal baino zabalagoa, Bilbo baino hiri handiago bat erdibitzen. Zeukan azken Camela iziotu zuen, Senako urei so. Ertzetan lotuta ontzi tu-

ristikoak, ikas bidaietako taldeen aiduru, Nikkon eta Yashicaz hornituriko turista japoniarren aiduru... Baina Mikelek beste era batean ikusten zuen Paris, Bilboko Corte Inglesko eskailera mekanikoetan galduta dabilen umearen begiekin. «Eta orain zer? Ze ostia egiteko asmoa daukak? Senako urak nola iragaiten diren begira geratu behar duk? Ez daukak beste ardurarik? Libera madarikatu bat ez daukak patrikan, ezin kanbiatuzko pezetatxo batzuk. Goseak amorratzen hago, flakiak jota, ke honetatik elikatzen...». Mutturerraino erre zuen Camela. Bere burua hizketan ari bazitzaion ere, ez zion arretarik jartzen ahal. Kokoteraino zegoen bere buruaz eta haren aholku paternalistez. Patetikoa! Automatikoki, ariketa fisiko baten bidez, burua gorputzarekiko konexiorik gabe utzi zuen. Pikutara Gutxiengo Arrazionala! Bazuen nahikoa lan funtsezko premiak asetzen duda-muda filosofikoetan aritzeko. Sena ertzetik jarraitu zuen. Ekiak bere errainu epela hedatzen zuen eraikin dotoreen babesetik irteten zenarentzat. Tarteetan behin transbordadoreen bat igarotzen zen ibaitik. Turista aluek

agur egiten zieten zubien gainetik listua botatzen zieten paristar langabetuei.

Etxe artera murgildu zen ibilian-ibilian, inguruari erreparatu barik. Eskuak jakanarruko patriketan sartuta, lurreko harlauzei so. Kale batetik bestera, handik hurrengora, eta gero haragokorra. Itakarik gabeko Ulisses baten gisan, jitoan. Zigarretarik ez, jatekorik ez, liberarik ere. Nora demonio joan behar zuen lau mila eta piku pezetarekin? Sabeletik zetozkion orroak kanpotik ere aditzeko modukoak ziren ordurako, udal bandaren martxa jotzen zuten pausoan. Jateko zerbaiten truke Marseillesa ere joko luketela otu zitzaion. Beste irribarre bat aspaldiko partez. Bigarrena.

Eguerdia pasea behar zuen Sorbona Unibertsitatearekin topo egin zuenean. Gazte jendea andanan sartu eta irteten zen auskalo noizko eta zein estilotako atetzar hartatik. Hainbeste ordutan elikagairik irentsi ez izanak neuronak makaldu zizkion arren, pare batek frogatu zioten beren lana betetzeko gauza zirela: «Unibertsitateetan beti egoten duk jantokiren bat, merke jateko modukoa, gogora hadi Leioaz!». Ez zebilen oker.



Eraikin barnean gehienek segitzen zuten norabideari jarraiki, laster bistaratu zuen jantokia. «Hornaino iritsi haiz, ondo zagok. Baina orain nola ordainduko duk jatekoa?». Jantoki ataritik arraza eta adin guztietako jendea igarotzen zen. Karpetak edo maletak eskuetan, solas alaian itxuraz. Neska polit askoak! Beste egoera batean ez litzazkioke horren oharkabea pasako, baina une hartan sabela zuen lehentasuna. «Sabel huts, zakil kamuts» esan omen zuen norbaitek.

Paretik gazte lodikote bat pasa berri zen, txima endredatu koipetsuek estaltzen zioten antiparra biribil batzuk nabarmentzen ziren aurpegia. Sorbaldetan justuan sartzen zitzaion amerikana arraildu bat zeraman soinean. Bufanda beltz bat lepotik zintzilik, liburu bat eskuan... espainolezko izenburuduna! Mikelek kolpe egin zion besotik.

- Espainiarra?
  - Zer diozu?
  - Espainiarra zara?
  - Mexikarra, baina zuri zer axola dizu horrek?
- Espainiarra zara?
- Ez, beno, ni euskalduna naiz.

- Oso ongi. Asko pozten naiz. Hurrengora arte.

Urde potolo hura jantokian sartzera zihoan Mikelek berriro besotik heldu zuenean. Urdeak haserre keinua nabarmen:

- Baina ze pintxe klase zara zu? Ze demontre nahi duzu nigandik?

- Entzudazu apur batean, arren.

- Zer zara, inmigrazioko putakume horietako bat?

- Ez, ez. Ez da horrelakorik.

Mikelek patrikan zeramatzan diruak atera eta mexikarrari erakutsi zizkion. Traba egiten ari ziren atarian. Gibeletik norbaitek zerbait oihukatu zuen frantsesez.

- Kartera ostu egin didate gaur Parisera iris-tean eta...

- Eta gose zara, ezta? Zer uste duzu, ni Gualupeko ama naizela ala?

- Ez, begira, pezeta batzuk badauzkat.

Mexikarrak billeteak hartu zizkion, eta esku biekin azterketa arin bat egin zien.

- Hauek zenbat libera dira?

- Ia berrehun.

Diruok tolestu eta amerikanako poltsiko batean gorde zituen.

- Ziur zaude ia berrehun libera direla?
- Gutxi gorabehera.
- Goazen ba, Oliver Twist.

Kostatako lana izan zen, baina bazirudien sabelak betetzeko aukera izango zuela. Gerorako utzi zituen Dionisos, ama, lagunak, marroiak eta bezperako kezkak. Sabela berdindu beharra zekukan.

- Parisera iritsi... eta lehen egunean dena ebatsi dizute beraz.

Mikelek ito beharrean irentsi zituen espagetiak eta gainerako oilasko zati txikia.

- Tabakoa ere ebatsi egingo zizuten ba?
- Bai.
- Hartzazu bat.

Marlboro bat eman zion. Mintzatzen zitzaiotenean ere goitik behera aztertzen zuela iruditu zitzaion Mikeli. Bere zigarreta iziotu zuen lehenengo eta ondoren Mikelenera hurreratu zuen txiskeroa.

- Ez duzu bidaia ongi hasi, konpañero. Zenbat denbora egiteko asmoa zenuen?

- Epe zehatz barik nentorren, zerbait aurkituz gero bertan geratu edo...

- Ihesean.

- Zer?

- Zeure herriaz nazkatuta, bertze zerbaiten bila orduan.

- Hori da, bai, antzeko zerbait.

Bezperako irudi guztiak gomutaratu zitzaizkion. Nola irten zen etxetik korrika, autobuseko bidaia, geltokiko poliziak, treneko jendarmeak, Dionisos...

- Ni ere halaxe etorri nintzen. Kokoteraino nengoen DFn. Okaztatua, tokirik aurkitu ezinik, ulertzen?

Mikelek buruarekin erantzun zion baietz. Azken hostoraino erre zuen zigarreta, ezpainetatik kendu barik. Lodikotea ez zegoen Mikelen erantzunen zain berriketan jarraitzeko.

- Unibertsitateko beka batekin etorri nintzen. Margolaria naiz, erran dizut?

- Ba ez, ez dut uste.

- Halaxe naiz ba, konpañero. Ez puntakoa, baina margolaria.

- Zer margotzen duzu, abstraktua ala... bestelakoa?

Mexikarrak eskuak amerikanako patrikan sartu eta Mikeli hartutako billeteak atera zituen.

- Ziur zaude berrehun libera direla?

- Gutxi gorabehera, hortxe.

- Orduan goazen hor parean dagoen taberna batera, han azalduko dizut abstraktua ala bestelakoa pintatzen dudana.

Harritu samar geratu zen tipoaren proposamenarekin, baina gibeletik jarraitu zion. Bazuen itsumutil bat Parisen ibiltzeko, hark nahi zuen artean bederen. Garagardoa eskatu zuen mexikarrak eta garagardoa berak ere.

- Lehen erran dizudan bezala, beka batekin etorri nintzen. Aspertzen bazara erradazu lotsarik gabe, kalakan hasten naizenean isiltzea kostatzen zaion horietako naiz-eta. Zigarreta bat? Tori.

Sabela bete antzean, birra fresko bat eskuan eta Marlboro bat birikak hauspotzen. Ondo sentitu zen Parisen.

- Laster xahutu nituen bekako diruak, baita etxetik igorritakoak ere. Hemen parrandan ibiltzea arrunt garestia da. Bazenekien?

- Entzun izan dut zerbait.

- Ba halaxe, nire libera bihurtutako pesotxoak berehala joan ziren norabait. Deus gabe nengoien ia... Zapatisten mobida hasi zenean.

- Zapatistena?

- Bai, Marcos eta horiek guztiak. Kontu! Ni haien aldekoa naiz. Baina aukera ikusi nuen, eta profitatu egin behar.

- Profitatu, zer?

- Motibo zapatistak pintatzen hasi nintzen, lan errazak. Kolore biziak, emakume indigenak kaputxarekin eta paliakateekin, Emiliano Zapata eta Marcos elkarrekin... Halakoak. Hasieran ahalke izan nintzen, ni espresionista bainaiz... erran dizut?

- Ez dut uste.

- Berdin dio. Neure buruari erran nion: ze kristo! Bertze garagardo bat?

- Edango nuke.

Tipo xelebre hark Parisen izandako bizitza kontatu zion, nola erakusketa bat egin zuen ta-

berna progre batean, nola lanak eskuetatik kendu zizkioten, nola handik beste batera deitu zioten... eta *pintxe*, eta *konpa* eta *puto* pila bat. Eta beste garagardo pare bat ere bai tartean.

- Erran nahi baita... troskoen taberna horretan lau bat erakusketa egin nituela. Badakizu, hemengo erradikalei laket zaizkie urruneko iraultzak. Eta modu horretan ezagutu nuen Francine, lehen aipatu dizudan atso troskista hori. Aipatu dizut, ezta? Zuzena baino zorrotzagoa da emakumea! Eta mexikarra naizenez, Trotski han hil zutenez, Frida Kahloren biboteak beltzak zirenez, eta nik dakita bertze zenbat kontu, orain bere etxean bizi naiz. Voila!

- Koño!

- Sexurik ez, e! Beste maila bateko kontua da. Berak etxe handi bat dauka. Lekua uzten dit. Kito! Ez dut alokairurik ordaintzen, noizean behin afari mexikar goxo bat prestatzen diot, tekila edaten dugu belarrietatik atera arte, eta politikari buruz eztabaidatzen igarotzen dugu gaua. Horrelaxe. Bertze garagardo bat?

- Aurrera.

Lodikotea bueltan zenerako Mikelek deliberatua zuen galdetu egingo ziola. Bazekien kopeta gogorregia izatea zela, baina kanpoan gautzen ari zuen, eta goizean Parisko hotza frogatu ondoren ez zeukan gauekoaren berri izateko asmorik.

- Aizu, eta zure lagun horrek...
- Lotarako lekurik ba ote duen?
- Gau baterako bakarrik, noski.
- Noski, gau baterako bakarrik...

Mexikarrak barre txiki bat egin zuen. Gargardoa tragoan irentsi eta Mikeli gauza bera egiteko agindu zion.

- Goazen, Francinerekin mintzatuko gara. Zigarreta bat luzatu zion tabernako atean.
- Aizu! Zure izena erran didazu?
- Mikel.
- Ni Diego, Rivera bezala.
- Aja.

Bostekoak estutu zituzten. Marlboroak iziotu eta, ezker eskua jasoz, avanti joateko keinua egin zuen.

- Txunditu egingo zaitu Francineren etxeak. Paretak umeen marrazkiz, postalez, gutunez, afi-



xaz eta anotazioz beterik dauzka. Ikaragarria! Ez diot sekula galdetu zergatik.

- Benetan ez dio axola izango ni zurekin joateak?

- Ez dut uste. Egunaren arabera izan liteke. Zu saiatu elkarriketa interesgarriren batekin...

- Zertaz hitz egingo diot ba nik?

- Ez duzu erran euskalduna zarela? Ba hitz egiozu ETari buruz. ETA da, zera, ratatatata, ezta?

- Bai, beno...

- Ba horretaz, adibidez. Ez kezkatu, konpañero, egun batekoagatik... ez da inolako arazorik izango.

- Eskerrik asko, Diego.

- Mesedez! Ez hadi patetikoa izan!

Gau izarratua zegoen.

- Ederra da Paris gauez, ezta?